

# TXOSTENA IXOSTENA


41

**GENERO-INDARKERIAKO**

**DELITUEN BIKTIMEN**

**INTIMITATERAKO ESKUBIDEA**

**Biktimen anonimotasunerako eskubidea**



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



# **GENERO-INDARKERIAKO DELITUEN BIKTIMEN INTIMITATERAKO ESKUBIDEA**

**Biktimen anonimotasunerako eskubidea**

EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 2018

<b>IZENBURUA:</b>	"Genero-indarkeriako delituen biktimen intimitaterako eskubidea. Biktimen anonimotasunerako eskubidea"
<b>EDITOREA ETA EGILEA:</b>	EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
<b>TALDETEKNIKOA:</b>	Izaskun Porres García, Miren Odriozola Gurruchaga
<b>MAKETAZIOA ETA JARRAIPENA:</b>	ARRIN. Comunicación y Diseño
<b>DISEINU GRAFIKOA::</b>	Ana Badiola, Isabel Madinabeitia, Ana Rincón
<b>DATA:</b>	2018ko abendua
<b>DESKRIBATZAILEAK:</b>	genero-indarkeria, biktimak, emakumeen eskubideak, araudia, intimitaterako eskubidea, komunikabideak
<b>ISBN:</b>	84-89630-55-0 978-84-89630-55-0

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> . . . . .	9
<b>1. SARRERA</b> . . . . .	13
1.1. Txostenaren xedea . . . . .	15
1.2. Egitura eta metodologia . . . . .	15
1.3. Esker onak . . . . .	17
<b>2. INTIMITATEARI ETA HAREN JURISPRUDENTZIA-INTERPRETAZIORI BURUZKO OINARRIZKO ARAUDIA (EUROPAKOA ETA ESPAINIAKOA).</b> . . . .	19
2.1. Europako Kontseilua: Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (GEEH) . . . . .	21
2.1.1. Bizitza pribatua eta familia-bizitza errespetatzeari buruzko edukia. . . . .	22
2.1.2. Estatuaren edo beste partikular batzuen injerentzietatik babestea . . . . .	23
2.1.3. Pertsona pribatuei babes handiagoa eskaintzen zaie pertsonaia publikoei baino . . . . .	24
2.1.4. Ministro Kontseiluaren Rec(2003) 13 Gomendioa, estatu kideei zuzendua, komunikabideek zigor-arloko prozesuen informazioa zabaltzeari buruzkoa . . . . .	25
2.1.5. Ondorio gisa . . . . .	26
2.2. Europar Batasuna: EB-ko Oinarrizko Eskubideen Gutuna . . . . .	26
2.3. Espainiako Konstituzioa . . . . .	27
2.3.1. Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideen autonomia. . . . .	27
2.3.2. Norberaren irudirako eskubidea . . . . .	28
2.3.3. Ohorerako eskubidea . . . . .	29
2.3.4. Intimitaterako eskubidea. . . . .	29
2.3.5. Intimitaterako eskubidea urratzea biktima baten nortasuna zabaltzean . . . . .	30
2.3.6. Ondorio gisa . . . . .	31
<b>3. ARAUDI ESPEZIFIKOA: DIREKTIBA, ESTATUTUA ETA 1/2004 LEGE ORGANIKOA. DELITUAREN BIKTIMAK</b> . . . . .	35
3.1. 2012/29/EB ZUZENTARAUA, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko urriaren 25ekoa, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena. Zuzentarau horrek Kontseiluaren 2001/220/JAI Esparru Erabakia ordeztzen du, bikote-harremanetan emakumeen kontra izandako indarkeriaren harira . . . . .	37
3.1.2. Delituaren biktima eta haren estatutua osatzen duten eskubideak definitzea . . . . .	38
3.1.3. Intimitaterako eskubidea prozesuaren barruko babesaren ikuspegitik . . . . .	39

3.1.4. Intimitaterako eskubidea prozesuz kanpoko babesaren ikuspegitik . . .	41
3.1.5. Genero-indarkeriaren biktimen analisi espezifikoak . . . . .	43
3.1.6. Ondorio gisa . . . . .	46
3.2. 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, delituaren biktimaren estatutuarena . . . . .	48
3.2.1. Biktima guztientzat . . . . .	48
3.2.2. Genero-indarkeriaren biktimentzat . . . . .	53
3.2.3. Ondorio gisa . . . . .	54
3.3. 1/2004 Lege organikoa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa . . . . .	55
3.3.1. Sarrera . . . . .	55
3.3.2. Biktima kontzeptua . . . . .	56
3.3.3. Intimitaterako eskubidea eta komunikabideak . . . . .	58
3.3.4. Ondorio gisa . . . . .	60
3.4. 1/1996 Lege Organikoa, Adingabekoaren Babes Juridikoari buruzkoa . . . . .	61
3.5. 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa . . . . .	63
3.6. 1/1982 Lege Organikoa, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzkoa . . . . .	66
<b>4. INFORMAZIO-ASKATASUNAREN ETA INTIMITATERAKO ESKUBIDEAREN ARTEKO GATAZKARI BURUZKO JURISPRUDENTZIA . . . . .</b>	<b>69</b>
4.1. Giza Eskubideen Europako Auzitegia . . . . .	71
4.1.1. Adierazpen-askatasunaren funtzio nuklearra gizarte demokratiko batean . . . . .	71
4.1.2. Adierazpen-eskubidearen mugak: irizpideak . . . . .	73
4.1.3. Interes orokorreko auzietan inplikaturako pertsonen nortasuna zabaltzea . . . . .	75
4.1.4. Ondorio gisa . . . . .	76
4.2. Europar Batasuneko Justizia Auzitegia . . . . .	77
4.3. Konstituzio-Auzitegia . . . . .	78
4.3.1. Intimitaterako eskubidearen titulartasuna hil ostean . . . . .	79
4.3.2. Intimitaterako eskubidearen eta informazio-askatasunaren arteko talka . . . . .	82
4.3.4. Delitu-egitateei buruzko informazioa modu askean emateko eskubidearen eta biktimaren intimitaterako eskubidearen arteko talka . . . . .	84
4.3.5. Ondorio gisa . . . . .	86
4.3.6. Konstituzio-Auzitegiaren 2015Eko Akordioa . . . . .	88
4.4. Auzitegi Gorena . . . . .	90
4.4.1. Intimitaterako eskubidearen eta informazio-askatasunaren arteko talka . . . . .	90
4.4.2. Delitu baten biktimaren identitatea zabaltzea . . . . .	91
4.4.3. Ondorio gisa . . . . .	94

4.5. Probintzia-Auzitegiak . . . . .	95
4.5.1. Intimitaterako eskubidearen titulartasuna hil ostean . . . . .	95
4.5.2. Delitu baten biktimaren identitatea zabaltzea . . . . .	97
4.5.3. Ondorio gisa . . . . .	99
<b>5. EUROPAR BATASUNEN HAINBAT ESTATUTAKO JARDUNBIDEA . . . . .</b>	<b>101</b>
5.1. Alemania . . . . .	103
5.1.1. Genero-indarkeriak eragindako heriotzen informazio-tratamendua . . .	103
5.1.2. Araudia . . . . .	104
5.1.3. Jurisprudentzia . . . . .	105
5.1.4. Autorregulazio-sistema . . . . .	107
5.1.5. Ondorio gisa . . . . .	108
5.2. Frantzia . . . . .	110
5.2.1. Genero-indarkeriak eragindako heriotzen informazio-tratamendua . . .	110
5.2.2. Araudia . . . . .	110
5.2.3. Jurisprudentzia . . . . .	111
5.2.4. Ondorio gisa . . . . .	112
5.3. Erresuma Batua . . . . .	113
5.3.1. Genero-indarkeriak eragindako heriotzen informazio-tratamendua . . .	113
5.3.2. Araudia eta jurisprudentzia . . . . .	114
5.3.3. Autorregulazio-sistema . . . . .	115
5.3.4. Ondorio gisa . . . . .	117
<b>6. ELKARRIZKETAK . . . . .</b>	<b>119</b>
6.1. Genero-indarkeriaren biktima izan diren eta izan ez diren emakumeei egindako elkarrizketak . . . . .	121
6.1.1. Ondorioak . . . . .	129
6.2. Esparru judizialean, fiskalean eta akademikoan egindako elkarrizketak . . . .	132
6.2.1. Balorazioa . . . . .	148
6.3. Komunikabideei egindako elkarrizketak . . . . .	150
6.3.1- Balorazioa . . . . .	158
<b>7. ONDORIOAK . . . . .</b>	<b>159</b>
<b>8. BIBLIOGRAFIA . . . . .</b>	<b>167</b>
<b>ERANSKINAK . . . . .</b>	<b>171</b>
1.E. Esparru juridikoko galdetegi indibidualizatua . . . . .	173
2.E. Komunikabideei egindako galdetegi indibidualizatua . . . . .	190
3.E. Genero-indarkeriaren biktima izan diren eta izan ez diren emakumeei egindako elkarrizketak . . . . .	199







**AURKEZPENA**





Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuaren kezka izan da, sortzetik beretik, berdintasunaren balorean eta pertsona guztien eskubideen errespetuan oinarritzen den komunikazio baterantz urratsak egitea. Aurkezten dugun ikerketa-lan honek, hain zuzen, komunikazio eta publizitate ez-sexista erabiltzeko Begira batzordearen esparruan azken urteotan Emakunde eta komunikabideak egiten ari diren elkarlanetik sortutako gogoeta bat du abiapuntu. Emakumeen aurkako indarkeria-kasuen informazioa emateko dekalogo bat osatzeko xedez, gogoeta abiatu zen komunikabideekin batera: zein da gizarteari kasu horien berri emateko modurik egokiena? Eta, eztabaida horretan, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimek intimitatea gordetzeko duten eskubidearen inguruko hizpidea sortu zen. Zehazki, indarkeria matxistak hildako emakumeen nortasunari buruzko identifikazio-datuak ez zabalteko eskubideaz. Ikerketa honetan, eraildako emakumearen senitartekoak zuzenean edo zeharka ez identifikatzea justifikatzen duten argudio juridikoak biltzen dira; besteak beste, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko 4/2015 Legean jasotakoak, non biktimen identitatea bereziki babestea planteatzen den eta biktimatzat jotzen diren eraildako emakumeen kargura zeuden adingabeak ere.

Eskerrak eman nahi dizkiet ikerketa honen egileei, Izaskun Porres García eta Miren Odrizola Gurruchagari, egin duten lanagatik; eta eskertu nahi dut, halaber, komunikabideetako ordezkariak emakumeen aurkako indarkeria-kasuen informazio-trataerari buruzko dekalogo prestatzeko kontraste-taldeetan egin duten ekarpen interesgarria.

Izaskun Landaida Larizgoitia  
EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria



**1**

**SARRERA**



Honako orri hauetan, Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Emakunderen Alorrak proposatutako azterlan bat aurkeztuko dugu. Lan honen bidez, araudia eta jurisprudenzia aztertu ditugu alde batetik eta bestetik, mundu juridikoko eta komunikazioko profesionalen iritzia bildu dugu, guztia ere emakumearen kontrako indarkeria-delituen biktimak babesteko argudio-balantza orekatua eta informazio-eskubidearen jardute askea lortzeko xedez.

Ondorengo orri hauetan, azterlan honen bidez lortu nahi diren helburuak, jorratzen duen marko teorikoa eta jarraitzen duen egitura eta metodologia azalduko ditugu.

## **TXOSTENAREN XEDEA**

# 1.1

Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Emakunderen Alorrak proposatutako eta finantzatutako ikerketa honen ardatza zera izan da, ba ote dagoen argudio juridikorik genero-indarkeriako delituetan hildako emakumeen nortasuna gizarte-komunikabideetan argitaratutako albisteetan ez jakinarazteko.

Proposatutako helburu horri erantzun arrazoitua emateko helburuarekin, interesgarri iritzi diogu jorratutako gaiaren honako alderdi hauek aztertzeari:

- definitzea nor den nortasuna ez jakinarazteko eskubidearen titularra, genero-indarkeriako egoera batean hilketa-delitu baten biktima den aldetik;
- zehaztea zer eskubide ipintzen diren gatazkan;
- kontuan hartu beharreko irizpideak adieraztea, zehaztu ahal izateko zer eskubide lehenetsi behar den eta zer inguruabarretan.

## **EGITURA ETA METODOLOGIA**

# 1.2

Planteatutako helburua lantzeko, txostenak hainbat ikuspegi jorratzen ditu. Lehendabiziko ikuspegia araudia da. Alde horretatik, genero-indarkeriako delituen biktimei aplika dakiekeen legeria aztertzen du, hainbat ikusmolde osagarri aintzat hartuta.

- Lehenik eta behin, modu orokorrean, Europako Kontseiluaren eta Europar Batasunaren araudi supranazionala hartu da kontuan, baita Espainiako Konstituzioan jasotako manuak ere.
- Ondoren, zehaztasun handiagora jaitsita eta azterlanaren xede den gaiari helduta,
  - 2012/29/EB Zuzentaraua, delituen biktimen eskubideekin, laguntzarekin eta babesarekin lotutako gutxieneko arauak ezartzen dituen Europar Batasunean: ikusmolde horren bidez, Europar Batasuneko 28 estatuen legerian

aitortuta egon behar duten gutxieneko eskubideak zein diren identifikatzeko aukera izango dugu.

- Delituaren Biktimaren Estatutua (apirilaren 27ko 4/2015 Legea) eta genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko Lege Organikoa (1/2004). Ikusmolde horren bidez, jakin ahal izango dugu zer eskubide ematen dizkien genero-indarkeriako delituen biktimei, batetik, biktimei buruzko lege orokorrak (4/2015 Legeak) eta biktimei buruzko legeria bereziak (1/2004 Legeak).
- Adingabearen babes juridikoari buruzko Lege Organikoa (1/1996), datuak babesteko Legea (1/1999) eta ohorea, intimitatea eta norberaren irudiaren babes zibilekoa (1/1982).
- Zuzenbide-azterketa alderatua ere egingo da, Alemanian, Frantzia eta Erresuma Batuan indarrean diren legeriak bata bestearekin konparatzeko. Ikusmolde horren arabera, Europar Batasunean diren bi sistema juridiko nagusien herrialde esanguratsuenek zer posizionamendu dituzten jakin ahal izango dugu; hau da, batetik kontinentalak (Alemania eta Frantzia) eta, bestetik, anglosaxoiak (Erresuma Batua).

Auziari buruzko azterlan normatibo hutsa egiteak argudio-diskurtso sendoa emango luke, baina ez litzateke nahikoa izango gaia lantzeko. Eskubideen haztapenez dihardugunean –eta ezin da zalantzan ipini haztapen hori ezinbestekoa dela eskubideen arteko gatazkak ebatzi behar direnean–, ezinbestekoa da epailearen aginduari erreferentzia egitea.

Zuzenbide Estatu batean, justiziako sistema instituzionalari baitagokio eskubideen berme-emaile gisa jardutea, sor litezkeen gatazka juridikoen konposizioan. Azaldutakoa oinarri hartuta, jurisprudenzia aztertuko da. Estatz gaindiko esparruan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren doktrinak hartuko ditugu; Estatuaren barruan, berriz, Konstituzio Auzitegiaren doktrina eta Auzitegi Gorenaren jurisprudenzia. Azkenik, Estatu barruko esparruari helduta, probintzia-auzitegien jurisprudenzia txikia ere hartuko dugu.

Ikuspegi guztiak aintzat hartzeko grinarekin, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen iritzia ere aztertu da, baita biktima ez diren emakumeena ere, edota legegileena eta gizarte-komunikabideetako profesionalena, gatazkan diren eskubideei buruz jorratzen ari garen gaiarekin loturik. Horretarako, galdetegi espezifikoko bat diseinatu dugu inplikaturako kolektibo bakoitzerako.

Galdetegiaren emaitzak modu konbinatuan eta indibidualki emango ditugu, eta iritzia, sentipenak eta emaitzen arteko alde esanguratsuak jasoko ditugu ondorio labur batzuetan.

Azkenik, azterlana amaitzeko, hainbat ondorio orokor eta gomendio labur bilduko ditugu, guztia ere genero-indarkeriako delituen biktimek izaten dituzten eragin traumatikoak minimizatzen.



Lan hau Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Emakunderen Alorrari esker izan da posible.

Eskerrak eman nahi dizkiegu elkarrizketatutako pertsoneri: Juan Luis Ibarra jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea; Juan Calparsoro jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia; María Josefa Barbarín andrea, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko epailea eta Marta Sánchez andrea, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko fiskala. Eskerrik asko, era berean, Ángeles Carmona andreari, Genero Indarkeriaren Behatoki presidenteari; Bizkaiko Probintzia Auzitegiko epaileari, baita ikerlan honetan orpoz orpo elkarlanean aritu diren gainerako epaileei ere. Halaber, eskertzekoa da Alberto Saiz Garitaonandia irakasle jaunaren dedikazioa.

Hala eskatu diguten elkarrizketatuen anonimotasunerako eskubidea errespetatuz, karrera judizialeko kideek emandako erantzunak eskertu nahi genituzke edota izenez aipatu gabeko kazetariak ere bai, haien ekarpenik gabe ez baitzen lan hau posible izango.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, unibertsitatearen alorreko katedradun eta ikertzaileei, nahiz eta elkarrizketetan parte hartu ez, ikerlan hau prestatzen laguntza eskaini baitigute.

Azkenik, galdetegia jaso baina parte hartzerik izan ez duten guztiei ere gure eskerrik beroenak, eskainitako tarteagatik.



# 2

## **INTIMITATEARI ETA HAREN JURISPRUDENTZIA- INTERPRETAZIORI BURUZKO OINARRIZKO ARAUDIA (EUROPAKOA ETA ESPAINIAKOA)**



Sarreran aipatu dugun bezalaxe, honako orri hauetan Estatuko zein Europako oinarrizko araudiari buruzko ikuspegi orokorra emango dugu, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubideari buruz (Espainiako kontzeptua) eta bizitza pribatua eta familiarra izateko eskubidearekin lotuta (Europako kontzeptua). Genero-indarkeriako delituen biktimen eta haien senitartekoen anonimotasunerako eskubidea esandako intimitaterako eskubidearen barruan sartuko litzateke (edota bizitza pribatuan, Europako terminologia aintzat hartzen badugu), aurrerako ikusiko dugun moduan.

Hori dela eta, honako testu hauek aztertuko ditugu: lehenik eta behin, Europako Kontseiluaren barruko bi erreminta garrantzitsu (Giza Eskubideen Europako Hitzarmena eta *Ministro Kontseiluaren Rec (2003) 13 Gomendioa*); bigarrenik, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Karta (7. art.) eta, hirugarrenik, Espainiako Konstituzioa (18.1 artikulua).

**EUROPAKO  
KONTSEILUA:  
GIZA ESKUBIDEEN  
EUROPAKO  
HITZARMENA (GEEH)**

# 2.1

Atal honetan Ministro Kontseiluak estatu kideei egindako gomendioa aztertuko dugu – *Rec(2003) 13 Gomendioa, komunikabideek zigor-arloko prozesuen inguruko informazioa zabaltzeari buruzkoa*–; hala eta guztiz ere, Europako Kontseiluaren esparruko oinarrizko testutik abiatuko gara: Giza Eskubideen Europako Hitzarmenetik (GEEH), alegia.

Zehazkiago, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikuluari helduko diogu, zeinak, etxea eta korrespondentzia errespetatzeko eskubidea ez ezik, bizitza pribatua eta familiarra errespetatzeko eskubidea ere jorratzen baituen, hemen interesatzen zaigun ildotik. Hauxe dio Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua:

*Bizitza pribatua eta familia-familia bizitza errespetatuak izateko eskubidea:*

*«1. Pertsona orok eskubidea du bere bizitza pribatu eta familiarra, bere egoitza eta bere korrespondentzia errespetatu ditzen.*

*2. Agintari publikoek ezin izango dute eskua sartu eskubide hori baliatzeko aukeran, betiere, esku-sartze hori legeak jasotakoa ez bada, eta gizarte demokratiko batean honako hauek bermatzeko neurria ez bada: estatu-segurtasuna, segurtasun publikoa, herrialdearen ekonomiaren ongizatea, ordenaren defentsa eta arau-hauste penalen prebentzioa, osasunaren zein moralaren babesa, edo besteen eskubideen zein askatasunen babesa».*

Ikus dezakegun moduan, bizitza pribatua eta familia-bizitza errespetatzeko eskubidea ez da eskubide absolutua, baizik eta mugatu daiteke Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8.2 artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen badira: hau da,

- 1) injerentzia legez aurreikusita egotea. Hala, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak modu zabalean interpretatzen du, jurisprudentzia ere bilduta;
- 2) artikulua horretan bertan jasotako helbururen bat izatea (herrialdearen segurtasuna, segurtasun publikoa, herrialdearen ongizate ekonomikoa, ordena babestea eta urraketa penalak prebenitzea, osasuna edo morala babestea, hirugarrenen eskubideak eta askatasunak babestea);
- 3) eta ezinbestekoa izatea gizarte demokratiko batean.

## **2.1.1**

GEEHak<sup>1</sup> oso modu zabalean interpretatzen du bizitza pribatuaren eta familia-bizitzaren kontzeptua<sup>2</sup>, ulertzen baitu ohorerako eta intimitaterako eskubidea ez ezik ingurumenaren kontrako atentatu larriak ez izateko eskubidea ere biltzen dituela, edota hezkuntzaren alorreko bestelako diziplina-neurriak ere bai, beste hainbaten artean. Esate baterako, *López Ostra Espainiaren kontra*<sup>3</sup> kasuan, Auzitegiak ebatzi behar zuen errekurtsogileari haren etxe ondoan instalatutako araztegi batek<sup>4</sup> eragiten zizkion kalteen inguruan, eta 51. paragrafoan ondorioztatu zuen «*ingurumenari eragindako kalte larriek pertsona baten ongizateari eragin diezaioketela eta etxebizitzaz gozatzeaz gabetu, bizitza pribatuari eta familia-bizitzari kalte eginda*».

Hala, *Costello-Roberts Erresuma Batuen kontra*<sup>5</sup> kasuan, Auzitegiak berak gogorarazi zuen bizitza pribatuaren nozioa zabala dela eta baieztatu zuen urra daitekeela irakaskuntzaren alorreko hainbat diziplina-neurriekin, osotasun fisikoa edo morala urratzeko besteko entitatea ez izanik (Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, 3. artikulua), nahiz eta azkenean ondorioztatu zuen, kasu konkretu horretan, ez zirela sartu, modu ez-legitimoz, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua aurreikusitako bizitza pribaturako eskubidean.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, era berean, argi utzi du ospea babesteko eskubidea Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua araberakoa da, bizitza pribatuko elementu den aldetik (Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziari eskainitako atalean ikusiko dugun moduan, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 10. artikuluko adierazpen-askatasuna mugatzeko helburu legitimoetako bat baita)<sup>6</sup>. Froga dezakegun moduan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak bizitza pribaturako eskubidearen nozio zabala du abiapuntu<sup>7</sup>.

Era berean, Auzitegiaren aburuz, bizitza pribatuaren nozioak gizabanako baten nortasunaren hainbat alderdi biltzen ditu, eta berariaz aipatzen ditu (hemen interesatzen zaigun aldetik) identifikazioa eta izena. Hala, adierazten duenez, «*“bizitza pribatuaren” nozioa<sup>8</sup> zabala da, definizio exhaustiborik izan ez dezakeena, pertsonaren osotasun fisiko eta morala biltzen duena, eta, ondorioz, **gizabanako baten nortasunaren hainbat alderdi bil ditzakeena, hala nola identifikazioa eta sexu-orientazioa, izena edota irudirako eskubidearekin lotutako elementuena<sup>9</sup>***», eta ezartzen du bizitza pribatuaren kontzeptuak<sup>10</sup> «*hainbat informazio pertsonal biltzen dituela, eta informazio horiek gizabanako batek legitimoki espero dezakeela ez argitaratzea bere baimenik gabe<sup>11</sup>*».

1 GEEH: Giza Eskubideen Europako Hitzarmena

2 MARTÍNEZ MARTÍNEZ, R., *Una aproximación crítica a la autodeterminación informativa*, Civitas, Madril, 2004, 162 orrialdea eta hurrengoak; FAYOS GARDÓ, A., *Derecho a la intimidad y medios de comunicación*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril, 2000, 135-136 orrialdeak.

3 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia (1994/12/09). Bi herritar britainiarrek Erresuma Batuari demanda ipini zioten, alegatuz errekurtsogileetako bati ipini zioten gorputz-zigorak (internatuta zegoen barnetegiaren barne-erregelamenduarekin bat ipinitakoak) bizitza pribatua eta familia-bizitza errespetatzeko eskubidea urratu ziola, baita zigor eta tratu gizagabeak ez jasotzeko eskubidea ere.

4 FAYOS GARDÓ, A., *Derecho a la intimidad, cit.*, 135-136 orrialdeak.

5 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia (1993/03/25)

6 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Axel Springer Alemaniaren aurka*, 2012/02/07, 83. paragrafoa; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Couderc et Hachette Filipacchi Associés Frantziaren aurka*, 2014/06/12, 44. paragrafoa.

7 Ikus, beste hainbaten artean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Axel Springer Alemaniaren aurka*, 2012/02/07, 83. paragrafoa; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Couderc et Hachette Filipacchi Associés Frantziaren aurka*, 2014/06/12, 44. paragrafoa.

8 Hala dio Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia *Couderc et Hachette Filipacchi Associés Frantziaren kontra* kasuan (2014/06/12), 44. paragrafoan:

9 *S. eta Marper Erresuma Batuen kontra* [GS], 30562/2004 eta 30566/2004 zenbakiak, 66. atala, Giza Eskubideen Europako Auzitegia 2008.

10 Tankera berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Axel Springer Alemaniaren kontra* kasua, 2012/02/07, 83. paragrafoa.

11 (*Flinkkilä eta beste hainbat Finlandiaren kontra*, 25576/2004 zenbakia, 75. atala, 2010/4/6, eta *Saaristo eta beste hainbat Finlandiaren kontra*, 184/2006, 61. atala, 2010/10/12).

lido beretik, *Rothe Austriaren kontra*<sup>12</sup> kasuak honako hau baieztatzen du<sup>13</sup>:

«*Inguruabar jakin batzuetan, publikoaren artean ezaguna denean ere bai, pertsona batek izan lezake bere bizitza pribatua babesteko eta errespetatzeko "itxaropen legitimoan" konfiantza*».

*Von Hannover Alemaniaren kontra* kasuan, 2004koan, honela kalifikatzen da<sup>14</sup>:

«...gizabanakoaren eta gainerakoaren arteko interakzio-eremua, testuinguru publikoa izanik ere, "bizitza pribatuari" eragin diezaiokeena<sup>15</sup>», eta ondorioztatzen du bizitza pribatua zaintzea ezinbestekoa dela pertsona bakoitzaren pertsonalitatea egokiro garatzeko: «*Hitzarmenaren 8. artikulua eskaintzen duen bermea gizabanako bakoitzaren pertsonalitatearen garapena bermatzera bideratuta dago nagusiki, kanpo-injerentziarik gabe, bere tankerakoekin dituen harremanetan*».

## 1. FUNTSEZKO IDEIAK

- Bizitza pribatua eta familia-bizitza errespetatzeko eskubidea ez da eskubide absolutua, baizik eta mugatu daiteke baldintza jakin batzuk betetzen badira.
- «*"Bizitza pribatuaren" nozioa nozio zabala da, definizio exhaustiborik izan ez dezakeena, pertsonaren osotasun fisiko eta morala biltzen duena, eta, ondorioz, gizabanako baten nortasunaren hainbat alderdi bil ditzakeena, hala nola identifikazioa eta sexu-orientazioa, izena edota irudirako eskubidearekin lotutako elementuena*».
- Bizitza pribatuaren kontzeptuak hainbat informazio pertsonal biltzen dituela, eta informazio horiek gizabanako batek legitimoki espero dezakeela ez argitaratzea bere baimenik gabe.
- Bizitza pribatua zaintzea ezinbestekoa da pertsona bakoitzaren pertsonalitatea egokiro garatzeko.

## ESTATUAREN EDO BESTE PARTIKULAR BATZUEN INJERENTZIETATIK BABESTEA

### 2.1.2

Nahiz eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8.2 artikulua agintaritzan publikoaren injerentziak bakarrik aipatzen dituen, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak adierazten du artikulua hori ez dela mugatzen estatuei injerentzia horiek galarazteaz bakarrik, baizik eta beste hainbat obligazio positibo ere inplikatzeko dituela estatuaren aldetik, partikularren arteko harremanetan.

<sup>12</sup> Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia (2012/12/04), 43. paragrafoa.

<sup>13</sup> Ikus, beste hainbatetan artean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Von Hannover Alemaniaren aurka* kasua, 2014/06/24, 51. paragrafoa; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Von Hannover Alemaniaren aurka*, 2012/02/07, 97. paragrafoa.

<sup>14</sup> Ikus, era berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Von Hannover Alemaniaren kontra* kasuan, 2012/02/07, 95. paragrafoa.

<sup>15</sup> (Ikus, *mutatis mutandis*, PG eta JH Erresuma Batuen kontra, 44787/1998 zk., 56. atala, Giza Eskubideen Europako Auzitegia 2000-IX, eta Peck Erresuma Batuen kontra, 44647/1998 zk. 57 atala, Giza Eskubideen Europako Auzitegia 2003-I).

netan bizitza pribatuaren errespetua bermatzeko. Hala, Auzitegiak<sup>16</sup> jaso zuen Hitzarmenaren 8. artikulua oinarritzko xedea (RCL, 1990, 1190, 1572) zera dela, «*gizakiak agintari publikoen injerentzia arbitrarioetatik prebenitzea*»; «*edonola ere, estatuari halako injerentziak ez egiteko eskatzeaz gain, beste obligazio positibo batzuk ere eransten dizkio aipatutako konpromiso negatiboaz gain, bizitza pribatuaren edo familia-bizitzaren errespetuarekin loturik. Obligaziook baliteke bizitza pribatuaren errespetua bermatzera bideratutako neurriak harraraztea, baita gizakien arteko harremanen esparruan ere. Hori baliagarria da, era berean, norberaren irudirako eskubidea hirugarrenek egindako abusuetatik babesteko*».

Hala, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hainbat kasutan gatazkak izan ditu komunikabide baten adierazpen-askatasunaren eta zabaldutako informazioaren objektu den pertsonaren bizitza pribatuaren artean; hortaz, partikularren arteko gatazkak.

Garrantzitsua da alderdi hori, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak herritarrak babesteko araudia zabaltzen duen heinean. Hala, 8. artikulua eta jurisprudentzia-lerroa erabat aplikagarri zaio ikerketa honetan aztertzen ari garen gaiari: komunikabideek genero-indarkeriako testuinguru batean hildako emakume baten nortasuna argitaratzea (edota indibidualizatzeko aukera ematen duten datuak ematea).

## **PERTSONA PRIBATUEI BABES HANDIAGOA ESKAINTZEN ZAIEN PERTSONAIA PUBLIKOEI BAINO**

### **2.1.3**

Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua amaitzeko, nabarmentzekoa da Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egiten duen desberdintasuna pertsona pribatuen eta pertsonaia publikoen artean.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak behin baino gehiagotan ebatzitakoaren arabera, pertsona pribatu izateak handitu egiten du bizitza pribatuaren zatitzat har daitekeen interakzio-eremua. Berdin du, gainera, haren aurka zigor-prozedura bat zuzentzea<sup>17</sup>; horrenbestez, arrazoi gehiagoz pertsona bat delitu-gertakari batean biktima gisa inplikaturik ageri denean.

Alabaina, Auzitegiaren arabera, adierazpen-askatasunaren eta informazio-askatasunaren arteko mugak «*politikarientzat bezalaxe, zabalagoak dira euren funtzio ofizialak betetzen ari diren funtzionarioentzat, banako arruntentzat baino*»<sup>18</sup>.

Azken hori gure ikerketaren esparrura ekartzen badugu, inolako zalantzarik gabe, genero-indarkeriaren inguruabarretan hildako emakumeek, pertsona pribatu diren aldetik, pertsonaia publikoek baino babes handiagoa behar dute bizitza pribaturako eskubidean izan ditzaketen injerentzien aurrean, eta berdin izango du interes orokorreko gertaera batean inplikaturik dauden (zalantzarik gabe, interes orokorreko kasua baita genero-indarkeria).

## **2. FUNTSEZKO IDEIA**

- Partikularren kasuan, bizitza pribatuaren zatitzat har litekeen interakzio-eremua handitu egiten da.

16 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Rothe Austriaren kontra* kasua (2012/12/04), 39. paragrafoa.

17 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Ageyevy Errusiaren aurka*, 2013/04/18koa, 221. paragrafoa.

18 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Thoma Luxemburgoren aurka* kasua, 2011/03/29koa, 47. paragrafoa.



Aurreratu dugun moduan, Europako Kontseiluaren esparruan, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua gain, *Ministro Kontseiluaren Rec(2003) 13 gomendioa, estatu kideei zuzendua, komunikabideek zigor-arloko prozesuen informazioa zabaltzeari buruzkoa* ere kontuan izan behar dugu; gomendio hori Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aintzakotzat hartu du hainbat epai emateko garaian.

Herritarrek interes publikoko auziei buruzko informazioa jasotzeko daukaten eskubidetik abiatuta (zehazki, zigor-arloko prozesuei buruzko informazioa izatekoa) eta komunikabideek informazio hori emateko daukaten eskubidea aintzat hartuta (Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 10. artikulua), Ministro Kontseiluak ohartarazten du hitzarmenean aitortutako eskubide desberdinek talka egin dezaketela hainbat kasutan, eta berariaz aipatzen ditu hitzarmenaren 8. artikulua (bizitza pribatua eta familia-bizitza) eta 10. artikulua (adierazpen-askatasuna).

Hori dela eta, Ministro Kontseiluak estatu kideei gomendatzen die har ditzatela beharrezko neurriak hainbat printzipio aplikatzeko; hain zuzen ere, gomendioan bertan jasotzen ditu printzipio horiek, eranskinetan.

Nahiz eta beste printzipioek auzi garrantzitsuak arautzen dituzten (esate baterako, bigarrenak errugabetasun-presuntzioa jorratzen du), zortzigarren printzipioa interesatzen zaigu guri, bizitza pribatuaren babesari egiten baitio erreferentzia zigor-arloko prozesu baten testuinguruan.

Esandako printzipio horrek adierazten duenaren arabera, zigor-arloko prozesuetako susmagarriei, akusatuei, kondenatuei edota beste alderdiei dagokien informazioa zabaltzeko garaian bizitza pribatua babesteko eskubidea errespetatu behar da, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua ezarritakoarekin bat.

Horrez gain, baieztatzen du babes berezia behar dutela prozesuan inplikaturako adingabeek eta pertsona kalteberek, baita biktimek, lekukoek edota susmagarrien, akusatuen edo kondenatuen senitartekoen ere. Gaineratzen du, era berean, kontuan izan behar dela eragindako pertsonak identifikatzeko aukera ematen duten informazioak zabaltzeak zer efektu kaltegarri izan ditzakeen.

Horrek guztiak, gure ikerketa-esparrura ekarrita, esan nahi du genero-indarkeriako testuinguru batean hildako emakume baten heriotzari buruzko albisteak ematean bizitza pribaturako eta familia-bizitzarako eskubidea errespetatu behar zaiela prozesuan inplikaturako alde guztiei, baina oso bereziki zigor-arloko prozesuaren zati zuzena den biktimaren kasuan edota zeharkako biktima diren adingabeen kasuan.

Gomendioaren ondorioz, estatu kideek neurriak hartu beharko lituzkete, biktima indibidualizatzeko aukera ematen duten datuak argitaratzeak izan litzakeen eragin kaltegarria saihesteko.

### **3. FUNTSEZKO IDEIA**

- Bizitza pribaturako eta familia-bizitzarako eskubidea errespetatu behar zaie prozesuan inplikaturako alde guztiei, baina oso bereziki zigor-arloko prozesuaren zati zuzena den biktimaren kasuan edota zeharkako biktima diren adingabeenean.

Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikuluan jasotako eskubidea, bizitza pribatua eta familia-bizitza babestekoa, oso modu zabalean interpretatzen du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak. Hala, gizabanako baten nortasunaren alderdi ugari biltzen ditu; horien artean nabarmentzekoak dira, zalantzarik gabe, pertsona baten identifikazioa eta izena. Bizitza pribatuaren nozioaren bidez, gizabanako baten asmo legitimo bat babesten da; hain zuzen ere, haren informazio pertsonalak onarpenik gabe publiko ez egiteko asmo legitimoa.

Hainbat eta hainbat alditan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak garbi utzi du Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikuluko babesa ez dela agintaritzatza publikoen injerentzietara bakarrik mugatzen, baizik eta partikularren arteko harremanetara ere zabaltzen dela; hori horrela izanik, ez dago zalantzarik herritarrek artikuluko horri heldu diezaioketela komunikabideen aldetik injerentziak izanez gero. Hala, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikuluekin loturik, erabat aplikagarria da ikerlan honen xedearekin lotuta: komunikabideek genero-indarkeriako ekintza baten ondorioz hildako emakume baten nortasuna zabaltzea, alegia.

Frogatu ahal izango dugun moduan, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikuluekin lotutako jurisprudentzian, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ahalegin handia egiten du bizitza pribaturako eta familia-bizitzarako eskubidea eta informazio- eta adierazpen-askatasunerako eskubidea haztzen.

Europako Kontseiluaren esparruan, kontuan izan behar da halaber *Ministro Kontseiluaren Rec(2003)13 Gomendioa, estatu kideei zuzendua, komunikabideek zigor-arloko prozesuen informazioa zabaltzeari buruzkoa*; zehazkiago esateko, haren zortzigarren printzipioa. Haren arabera, zigor-arloko prozesu batean inplikaturako aldeei buruzko informazioa zabaltzeko garaian bizitza pribaturako eskubidea errespetatu behar da, oso bereziki prozesuaren zati diren biktimen eta pertsona kalteberen eta adingabeen kasuan.

Horrek zera esan nahi du, emakume bat hiltzen denean bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren eskuetan genero-indarkeriako testuinguru batean, komunikabideek oso tentu handiz jokatu behar dutela biktima zuzenari eragiten dioten informazioak zabaltzeko garaian, baita zigor-arloko prozesuaren zati diren adingabeei buruzko datuen kasuan ere, hala dagokionean.

## EUROPAR BATASUNA: EB-KO OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA

## 2.2

Europar Batasunaren esparruan, Europar Batasuneko oinarrizko eskubideen Gutuna aipatu behar da, zazpigarren artikulua zehazkiago; hala, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua egiten duen ia modu bereberean, bizitza pribatua eta familia-bizitza errespetatzeko eskubidea arautzen du (etxebizitza eta komunikazioak errespetatzearekin batera):

### 7 artikulua. Bizitza pribatua eta familia-bizitza errespetatzea

*«Pertsona orok du bere bizitza pribatua, bere familia-bizitza, bere etxebizitza eta bere komunikazioak errespetatuak izateko eskubidea.»*

Jurisprudentzia aztertzean, auzi honi are gehiago helduko diogu, baina, kontuan hartuta Europar Batasunaren Gutunaren 7. artikulua Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua jasotzen dituenen tankerako eskubideak biltzen dituela, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak adierazi du lehendabiziko artikulua bide eta irismen beretik interpretatu behar dela eta kontuan izan behar direla, gainera, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia, esandako artikulua horrekin loturik.

## ESPAINIAKO KONSTITUZIOA

# 2.3

Espainiako Konstituzioaren oinarriko eskubideen eta askatasun publikoen artean (lehen tituluan daude jasota, bigarren kapituluko lehen atalean), 18.1 artikulua ohorerako, banakoaren eta haren familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideak aitortzen ditu. Artikulu bereko bigarren zenbakiak, berriz, egoitzaren bortxaezintasuna aitortzen du; hirugarrenak komunikazioen sekretua bermatzen du eta laugarrenak, bestalde, datuak babesteko eskubidea.

### 18. artikulua

*«1. Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta bakoitzaren irudirako eskubidea bermatzen da.*

*2. Egoitza bortxaezina da. Bertara ezin da sartu, ezta erregistrorik egin ere, jabearen baimenik gabe edo epailearen ebazpenik gabe, delitua ageri-agerikoa denean izan ezik.*

*3. Komunikazioen sekretua bermatzen da, eta, bereziki, posta, telegrafo eta telefono bidezkoak, ebazpen judiziala izan ezean.*

*4. Legeak informatikaren erabilera mugatuko du, herritarren ohorea, eta norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua, eta horien guztien eskubideen egikaritza osoa bermatzeko.»*

Esandako 18. artikulua horretako lehendabiziko zenbakia interesatzen zaigu hemen; izan ere, aurrerago ikusiko dugun moduan, anonimotasunerako eskubidea ezin daiteke bildu Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluan aurreikusitako intimitaterako eskubidean. Dena dela, ondorio horretara iritsi ahal izateko, ezinbestekoa da lehendabizi intimitaterako eskubidearen eta ohorerako eta norberaren irudirako eskubideen arteko aldeak azaltzea.

Hala, 15/1999 Lege Organikoari dagokion atalean, intimitaterako eta datuak babesteko eskubideen arteko aldea ere azalduko dugu (askatasun informatiko izenez ere ezagutzen dena).

## OHORERAKO, INTIMITATERAKO ETA NORBERAREN IRUDIRAKO ESKUBIDEEN AUTONOMIA

# 2.3.1

Konstituzio-jurisprudentziak etengabe baietsi ditu Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluan aurreikusitako hiru eskubideen autonomia. Konstituzio Auzitegiak aitortzen du harreman estua

dela euren artean (*ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideen artean*), pertsonalitatearen eskubide diren aldetik; hala eta guztiz ere, eskubide autonomotzat hartzen ditu, eta eduki propioa eta espezifikoa dutela aitortzen.

Oso garbi geratzen da autonomia hori Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epaian<sup>19</sup>:

«(...) Auzitegi honek prestatutako doktrinarekin bat, *ohorerako, intimitate pertsonalerako eta norberaren irudirako eskubideek, Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua aitortuek, harreman estua dute pertsonalitatearen eskubide diren aldetik, giza duintasunetik deribatua eta pertsonaren ondare morala babestera zuzenduak baitira; edonola ere, eskubide autonomo dira, eduki propioa eta espezifikoa dituzte (...).*»

Horrenbestez, «*eskubide autonomoak<sup>20</sup> dira, eta, hala, bakoitzak bere substantibotasuna izaki, haietako bat urratzen dela ikusteak ez du esan nahi gainerakoak ere nahitaz urratzen direnik... Haietako batek ere ez du besteekiko eskubide generikoaren tasuna, Konstituzioaren manu honek aurreikusten dituen beste bi oinarritzko eskubideetan subsumitu daitekeena; izan ere, eskubide horietako bakoitzaren espezifikitatea dela eta, ezin litezke subsumituztat hartu haietako batean gainerako eskubideen urratzeak (...).*».

Aurreratu dugun moduan, iruditzen zaigu komunikabideek genero-indarkeriako biktima identifikatzeak Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluko intimitaterako eskubidea urratuko lukeela. Hori dela eta, komenigarria da Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluan aitortutako beste bi eskubideetako bakoitzari aipamen labur bat egitea; izan ere, egiaztatu dugun moduan, substantibotasun propioa daukate intimitaterako eskubideari dagokionez.

#### 4. FUNTSEZKO IDEIA

- Ohorerako, intimitate pertsonalerako eta norberaren irudirako eskubideek harreman estua dute pertsonalitatearen eskubide diren aldetik, giza duintasunetik deribatua eta pertsonaren ondare morala babestera zuzenduak baitira; edonola ere, eskubide autonomo dira, eduki propioa eta espezifikoa baitituzte.

## NORBERAREN IRUDIRAKO ESKUBIDEA

### 2.3.2

Norberaren irudirako eskubideari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak hau dio: «*Haren titularrari identifikatzea ahalbidetuko dion itxura fisikoaren irudikapena izatea egozten dio<sup>21</sup>, eta horrek, batetik, ezagutzeko moduan ipintzen duten trazu fisikoek sortutako informazio grafikoa zehazteko eskubidea ematen dio, kaptatu daitekeena edota difusio publikoa izan*

19 (Ildo berberetik ikus Konstituzio Auzitegiaren 81/2001, 46/2002 eta 14/2003 epaiak, eta Konstituzio Auzitegiaren 456/2009 epaia.

20 Konstituzio Auzitegiaren 14/2003 epaian, hiru eskubideen autonomia baieztatu ostean, auzitegiak honako hau gaineratzen du (laugarren oinarri juridikoan):

21 Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epaia, seigarren oinarri juridikoa.

*dezakeena, baina baita norberaren irudia lortzea, erreproduzitzea edo argitaratzea galarazteko eskubidea ere baimendu gabeko hirugarren bati»<sup>22</sup>.*

Ildo bertsutik, Konstituzio Auzitegiaren 14/2003 epaiak, bosgarren oinarri juridikoan, adierazten du «*norberaren irudirako eskubideak haren titularrari trazu fisiko pertsonalek sortutako informazio grafikoa (difusio publikoa izan dezakeena) zehazteko eskubidea*» ematen diola eskubidearen titularrari, eta horrek ahala ematen diola «*bere irudia eskuratzea, erreproduzitzea edo argitaratzea galarazteko baimendu gabeko hirugarren bati, edozer dela ere irudia kaptatzen edo zabaltzen duenaren xedea (informatiboa, komertziala, zientifikoa, kulturala eta abar)*».

Eta, epaiak jasotzen duenez, hori hala izatearen arrazoia honako hau da: «*Irudia gizaki ororen esfera pertsonala konfiguratzeko duen lehen elementua da, identifikatzeko eta kanpo-proiektzioarako oinarritzeko elementu den aldetik, eta ezinbesteko faktore da subjektu indibidual gisa errekonozitzeko*».

Nahiz eta Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluan jasotako eskubideak autonomo izan, irudi bat argitaratzeak norberaren irudirako eskubidea ez ezik intimitaterako eskubidea ere urra dezake: «... **Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluko eskubideen izaera autonomoak esan nahi du haietako batek ere ez daukala besteen gaintik eskubide generikoaren tasunik, konstituzio-manu honek aurreikusten dituen beste bi oinarritzeko eskubideetan subsumitu daitekeenik; izan ere, eskubide horietako bakoitzaren espezifikitateak galarazi egiten du haietako bati egindako urratzeak subsumituz hartzea besteetako batean, pertsonaren nortasun fisikoa identifikatzea ahalbidetzen duten trazu fisikoak erakusten dituen irudi baten bidez, eta, horrez gain, haren gorputzeko zati intimoak, bizitza pribatuaren alderdiak edota izen ona edo autoestimua galaraz dezaketen egoeraren batean irudikatzen badute. **Kasu horietan, irudirako eskubidea urratzea hautemateak ez du galaraziko, hala badagokio, irudiaren bidez hauteman litezkeen ohorerako edota intimitaterako eskubideen urratzeak ikustea;** izan ere, Konstituzioaren ikuspegitik, ekin-tzaren desbalioa ez da bera burututako egintzak irudirako eskubideari bakarrik kalte egiten diotela balioets daitekeenean, edota, gainera, irudiaren bidez ohorerako eta intimitaterako eskubideak ere urratzen direnean, edota bi eskubideak aldi berean urratzean».**

## 5. FUNTSEZKO IDEIAK

- «Irudia gizaki ororen esfera pertsonala konfiguratzeko duen lehen elementua da, identifikatzeko eta kanpo-proiektzioarako oinarritzeko elementu den aldetik, eta ezinbesteko faktore da subjektu indibidual gisa errekonozitzeko».
- Irudiaren bidez, ohorerako edo intimitaterako eskubideak ere urra litezke.

22 Ildo beretik Konstituzio Auzitegiaren 156/2001 eta 83/2002 epaiak.

Ohorerako eskubideari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak konstituzio-eduki abstraktua identifikatu du honako hau gordeta: «*Pertsona baten ospe ona, besteren iritzian gutxiagotuko duten adierazpideetatik edo mezuetatik babestuz haren deskreditua edo mespretxua eragiteagatik edota kontzeptu publikoan iraingarritzat hartu ahal izateagatik*». <sup>23</sup>

Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epaiaren seigarren oinarri juridikoaren arabera, ohorerako eskubideak «... *titularrari iseka edo irain ez egiteko eskubidea ematen dio, dela bere buruaren aurrean, dela besteren aurrean. Ondorioz, aipatutako oinarrizko eskubideak besteren kontsiderazioko meritua galtzetik babestuko luke; izan ere, Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikularen xedea zera da, pertsona baten irudiaz gainerakoek izan lezaketen indemnitatea.*

*Gainera, ohorerako eskubideak galarazi egiten du inork inori irainez edo laidoz egitea, edota ospearen kontra justifikaziorik gabe jardunez, besteren iritzian meritua galtzea eraginez; hala, Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua*

*zera babesten du, pertsona batez gainerakoek izan dezaketen pertzepzioaren indemnitatea, eta ez horrenbeste ziurrenik izan nahiko lukeen horren gainean*<sup>24</sup>».

Amaitzeko, intimitaterako eskubidearen konstituzio-jurisprudentzia aztertu behar dugu, zeinak, aurreratu dugun moduan, ikerketa honetan aztertzen den anonimotasunerako eskubidea jasotzen baituen. Konstituzio Auzitegiaren 185/2002 epaiak ezartzen duenarekin bat:

«*Intimitaterako eskubideari dagokionez, gure jurisprudentziak behin eta berriz adierazi du helburua zera dela, "gizakiari bere bizitzaren esparru erreserbatu bat bermatzea, pertsona gisa duen duintasuna errespetatzearekin lotuta (Espainiako Konstituzioaren 10.1 artikulua), gainerakoen egintzaren eta ezagutzaren aurrean, dela Agintari Publikoen aurrean, dela partikular sinpleen aurrean." Hala, intimitaterako eskubideak bere titularrari egozten dio esparru erreserbatu hori gortzeko ahala, ez pertsonala bakarrik, baizik eta familiakoa ere bai,*<sup>25</sup> *hura hirugarrenek zabaltzearen aurrean eta nahi ez den publizitatearen aurrean. (...) Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua gure bizitza pertsonalaren gaineko sekretua bermatzen du, eta, horrenbestez, galarazi egiten die hirugarrenei, partikularrei edota agintari publikoei gure bizitza pribatuaren mugak zein diren zehaztea*».

Ildo beretik, Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epaiaren zazpigarren oinarri juridikoak honako hau adierazten du intimitateari buruz (ikus, halaber, Konstituzio Auzitegiaren 121/2002 epaiaren bigarren oinarri juridikoa):

«... *intimitatearen xedea zera da, gizabanakoari bere bizitzaren esparru erreserbatu bat bermatzea, besteren ezagutzatik eta hirugarrenen intromisioetatik alboratuta, dela agintari publikoenetik, dela banako sinpleenetik, betiere haren borondatearen kontrako badira. Oinarrizko eskubide hori, bestalde, estu lotuta dago norbere per-*

23 (Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epaiaren seigarren oinarri juridikoa; ildo beretik, ikus Konstituzio Auzitegiaren 180/1999, 121/2002 eta 14/2003 epaiak).

24 Hala adierazten du Konstituzio Auzitegiaren 14/2003 epaiak, hamabigarren oinarri juridikoa.

25 Konstituzio Auzitegiaren 231/1988, abenduaren 2ko epaia eta 197/1991, urriaren 17ko epaia.

*tsonalitatearekin, eta, inolako zalantzarik gabe, Espainiako Konstituzioaren 10.1 artikulua aitortzen duen pertsonaren duintasunetik eratorria da; hala, eskubidearen titularrari egozten dio esparru hori babesteko ahala, hirugarrenek esparru hori zabaltzetik eta nahi ez den publizitate batetik».*

Epai berean, Konstituzio Auzitegiak erreserbatutako esparru horren existentzia justifikatu du, giza bizitzaren gutxieneko kalitateari eusteko ezinbesteko gisa<sup>26</sup>:

«... Intimitaterako oinarrizko eskubideak bermatzen du esparru propio eta erreserbatu bat izatea, besteren ekintza eta ezagutzatik at, beharrezkoa gure kulturaren irizpideen arabera, giza bizitzaren gutxieneko kalitate bati eusteko...», eta ondorioztatzen du:

18.1 artikulua zera bermatzen duela, «**sekreturako eskubidea, ezezagun izatea, gainerakoek ez jakitekoa zer garen edo zer egiten dugun, galaraziz hirugarrenek (dela partikularrek, dela agintari publikoek) erabakitzea gure bizitza pribatuaren mugak zein diren, eta, hala, pertsona bakoitzak besteren jakin-minetik babestutako espazio bat gorde ahal izango du, edozer duela ere esparru horren barruan. Konstituzio-manutik ondorioztatzen denez, intimitaterako eskubideak gizabanakoari bermatzen dio bere pertsonari edo familiari buruzko informazioaren gaineko ahal juridikoa, eta hirugarrenei ezarri ahal izango die informazio hori ez ezagutarazteko borondatea edo baimenik gabe zabaltzea debekatzea; horren mugak, begien bistakoa denez, gainerako oinarrizko eskubideetan eta ondasun juridikoetan topatu behar dira, konstituzioak babesten dituenetan, hain justu. Inori ezin dakioke eskatu modu pasiboan jasateko bere bizitza pertsonalaren edo familia-bizitzaren datuak jakinarazten dituztenean, dela egiazkoak, dela ustezkoak<sup>27</sup>».** Hori dela eta, intimitaterako eskubideak bermatzen du, bizitza pribatua eta familia-bizitza nahi ez diren injerentziak eta intromisioak ez jasateko eskubideaz gain (besteren ezagupenetik irteteko eskubidea)<sup>28</sup>, berak bere kabuz erabaki ahal izatea

zer neurritan partekatu nahi dituen besteekin bere bizitzari buruzko hainbat informazio (interesatuaren erabakitze ahala, eragiten dion informazioari dagokionez)<sup>29</sup>.

## 6. FUNTSEZKO IDEIAK

- Intimitaterako eskubidearen helburua «gizakiari bere bizitzaren esparru erreserbatu bat bermatzea da, pertsona gisa duen duintasuna errespetatzearekin lotuta (Espainiako Konstituzioaren 10.1 artikulua), gainerakoen egintzaren eta ezagutzaren aurrean, dela Agintari Publikoen aurrean, dela partikular sinpleen aurrean. Hala, intimitaterako eskubideak bere titularrari egozten dio erreserbatutako esparru hori zaintzeko ahala, ez pertsonala bakarrik, baizik eta familia-bizitzakoa ere bai, hirugarrenek zabaltzetik eta nahi ez den publizitatetik».

../..

26 (Ildo berberetik, Konstituzio Auzitegiaren 186/2000, 119/2001, 197/1991 eta 231/1988 epaiak).

27 (Konstituzio Auzitegiaren 73/1982, 110/1984, 170/1987, 231/1988, 20/1992, 143/1994 eta 151/1997 epaiak; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak, X eta Y kasuak, 1985eko martxoaren 26koak; Leander kasua, 1987ko martxoaren 26koak; Gaskin kasua, 1989ko uztailaren 7koa; Costello-Roberts kasua, 1993ko martxoaren 25ekoa; Z kasua, 1997ko otsailaren 25ekoa)».

28 CONDE ORTIZ, C., *La Protección de datos personales. Un derecho autónomo con base en los conceptos de intimidad y privacidad*, Dykinson, Madril, 2005, 22. orrialdea; HERRÁN ORTIZ, A.I., *El derecho a la intimidad en la nueva Ley Orgánica de protección de datos personales*, Dykinson, Madril, 2002, 24. orrialdea.

29 HERRAN ORTIZ, A.I., *El derecho a la intimidad*, cit., 24-26 orrialdeak.

- Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua zera bermatzen du, gure bizitza pertsonalaren gaineko sekretua, eta, horrenbestez, galarazi egiten die hirugarrenei, partikularrei edota agintari publikoei gure bizitza pribatuaren mugak zein diren zehaztea.
- Sekreturako eskubidea, ezezagun izatea, gainerakoek ez jakitekoa zer garen edo zer egiten dugun, galaraziz hirugarrenek (dela partikularrek, dela agintari publikoek) erabakitzea gure bizitza pribatuaren mugak zein diren, eta, hala, pertsona bakoitzak besteren jakin-minetik babestutako espazio bat gorde ahal izango du, edozer duela ere esparru horren barruan.
- Inori ezin dakioke eskatu modu pasiboan jasateko bere bizitza pertsonalaren edo familia-bizitzaren datuak jakinarazten dituztenean, dela egiazkoak, dela ustezkoak.

**INTIMITATERAKO  
ESKUBIDEA URRATZEA  
BIKTIMA BATEN  
NORTASUNA ZABALTZEAN**

## 2.3.5

Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluan jasotako hiru oinarritzko eskubideak definitu ostean, hainbat zalantza sor litezke urratutako eskubidearen inguruan, komunikabideek zuzenean edo zeharka delitu-egitate baten biktimaren nortasuna adierazten dutenean. Esan liteke kasu horietan biktimaren ohorerako eskubidea urratzen dela, biktima-izaeraren berri ematean pertsonaren ospearen kontra egiten duen aldetik. Edonola ere, kontu hori Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epaiak ebatzi zuen:

*« (...) Hori esan ostean, ez bairik gabe baztertu behar dugu pertsona bat ustezko delitu-egitateen biktima posible gisa identifikatzeak pertsona horren iseka, umilazioa edo meritua galtzea eragiten dutenik besteren iritzian. Beste hitz batzuekin esanda, konstituzio-ordenamenduaren balio-inspiratzaileen kontrako litzateke onartzea, hemen gertatzen den moduan, lau bortxaketa-delituen eta bi abusu lizunkoiren biktima pasibo izan bide den pertsonak –bere aitaren aldetik– nolabaiteko estigmatizazioa jasan dezakeela onartzea, gainera, inguruabar horren berri ematearen ondorioz. Ohorerako eskubidearen balizko urraketa gertatuko litzateke baldin eta informazio horren berri ematearen ondorioz adierazpide iraingarriak edo laidogarriak erabili izan balira... ».*

Ondorioz, biktimaren ohorerako eskubidea urratutzat jotzeko, biktima-izaera zabaltzeaz gain, ezinbestekoa izango da adierazpide iraingarriak edo laidogarriak baliatzea hari buruz. Delitu-egitate batekin lotutako informazioaren bat zabaltzen edo argitaratzen den gainerako kasuetan eta biktima zuzenean edo zeharka indibidualizatu daitekeenean, intimitaterako eskubidea izango da urratutako oinarritzko eskubidea, informazio hori zabaldu izanagatik. Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziari dagokion atalean aztertuko dugu delitu baten biktima identifikagarri egiten duten informazioak argitaratzea intromisio ez-legitimo ote den (edota, kontrako kasuan, intromisio hori justifikatuta dagoen) intimitaterako eskubidean.



## 7. FUNTSEZKO IDEIA

- Pertsona bat biktima gisa identifikatzeak indibidualizazio batetik abiatuta (zuzeneko zein zeharkakoa) intimitaterako eskubidea urra lezake.

### ONDORIO GISA

## 2.3.6

Nahiz eta harreman estua izan pertsonalitatearen eskubide diren aldetik, Konstituzio Auzitegiak behin baino gehiagotan adierazi du Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua hiru eskubide autonomo aitortzen dituela: ohorerako eskubidea, intimitaterako eskubidea eta norberaren irudirako eskubidea. Horren ondorioz, identifikatu beharra dago hiru horietatik zer eskubide urratzen den genero-indarkeriako egintza baten ondorioz hildako biktimaren nortasuna publiko egiten denean.

Ikusita zer-nola definitzen dituen Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren 18.1 artikuluan bildutako hiru eskubideak, ondorioztatu daiteke biktimaren nortasuna dibulгатzeak (edota indibidualizatzea posible egiten duten informazioak emateak) intimitaterako eskubidea urratzen duela. Azken eskubide horrek, pertsona hirugarrenen nahi gabeko intromisioetatik babesteaz gain (izan hirugarren horiek agintari publikoak edo banakoak) bizitza pribatuan erreserbatutako esparru batean, gizartearekin partekatu nahi duten informazio pertsonala erabakitzeko ahala ere babesten du.

Konstituzio Auzitegiak berak garbi utzi du pertsona bat delitu baten biktima gisa identifikatzeak ez duela ohorerako eskubidea urratzen (nola eta informazioarekin batera adierazpide iraingarriak edo laidogarriak baliatzen ez diren), baizik eta intimitaterako eskubidea urratzen duela.

Biktimaren irudiak zabaltzeari dagokionez, nabarmendu behar da, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziarekin bat, irudi bat zabaltzeak, norberaren irudirako eskubidea urratzeaz gain, erretratutako pertsonaren intimitaterako eskubidea ere bortxatzen duela. Hori gertatzen da irudiek, pertsona identifikatzen duten trazuez gain, bizitza pribatuaren alderdiak erakusten dituztenean (esate baterako, delitu baten biktima izan dela jakinarazten dutenean). Hori garrantzitsua da gure ikerketan; izan ere, biktima bat identifikatzea posible egiten duten irudiak zabaltzeak, norberaren irudirako eskubidea ez ezik, intimitaterako eskubidea ere jokoan ipiniko luke.

Laburbilduz, pertsona bat genero-indarkeriako egintza baten biktima gisa identifikatzeak, hala balegokio, intimitaterako eskubidea urratuko luke. Kontua zera da, identifikatzea intimitaterako eskubidean sartze hori ez den legitimoa, edo, aldiz, justifikatuta egon ote litekeen informazio-askatasunerako eskubidearen balioa aintzat hartuta, interes publikoko gertakari gisa hartu ostean; auzi hori lan honetako laugarren atalean jorratuko dugu.

## 8. FUNTSEZKO IDEIAK

- Europako araudiaren testuinguruan, genero-indarkeriako egintza baten ondorioz hildako biktima bat zuzenean zein zeharka identifikatzeak, hala balegokio, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikuluan eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 7. artikuluan bildutako bizitza pribatuko eta familia-bizitzako errespeturako eskubidea urratuko luke; izan ere, gizabanako batek legitimitate osoz ez argitaratzea espero duen informazio pertsonal bati eragingo lioke.
- Estatuari erreparatuta, genero-indarkeriako egintza batean hildako biktimaren nortasunaren berri emateak (edo identifikatzeko aukera ematen duten informazioa zabaltzeak), hala balegokio, Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluan aurreikusitako norberaren eta familiako intimitaterako eskubidea urratuko luke, esandako eskubideak gizabanakoari bere bizitzako esparru erreserbatu bat bermatzen baitio, hirugarrenen intromisioetatik babestuta.
- Dela Europako esparruan, dela Espainiako Estatuan, kontua zera da, bizitza pribaturako eskubidean (Europako kontzeptua) edo intimitaterako eskubidean (Espainiako kontzeptua) izandako intromisioa justifikatuta ote dagoen informazio-askatasunerako eskubidearen nagusitasunarekin, interes publikoko gertaera bat izateagatik.

# 3

**ARAUDI ESPEZIFIKOA:  
DIREKTIBA, ESTATUTUA ETA  
1/2004 LEGE ORGANIKOA.  
DELITUAREN BIKTIMAK**



Txosten honen xede den gaiari buruzko analisi sistematiko batek justifikatuko luke, aztertuko dugun legeria espezifikuari dagokionez, honako auzi hauek aztertzea.

- Delituen biktimaren kontzeptuaren profila egitea eta haren estatutua osatzen duten eskubideak zein diren zehaztea.
- Babesa eskaintzen ote dion delituaren biktimen intimitaterako eskubideari eta zer motatakoa prozesuaren barruan.
- Babesa eskaintzen ote dion delituaren biktimen intimitaterako eskubideari eta zer motatakoa prozesuaren kanpoan.
- Genero-indarkeriako biktimei dagokienez espezifitateren bat txertatzen ote duen, tankera horretako indarkeria-delitu mota baten biktimatzat zer ulertzen den zehazteko.
- Eta, azkenik, genero-indarkeriako biktimei dagokienez, ba ote den espezifitateren bat biktimen intimitaterako eskubidea prozesuaren barruan eta kanpoan babesteari dagokionez.

Zuzentarauak eskaintzen duen Europako markoarekin hasiko gara. Ondoren, haren transposizioari helduko diogu (Biktimaren Estatutuak egiten du transposizio hori) eta, azkenik, 1/2004 Lege Organikoaren alderdiak jorratuko ditugu.

### **3.1. 2012/29/EB ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

# **3.1**

2001eko martxoaren 15eko Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru-erabakiak, zigor-arloko prozesuan biktimaren estatutuari buruzkoak (hura jaso zuen 2009ko apirilaren 20ko Europako Batzordearen Txostenak, adieraztean estatu kide batek ere ez zuela arauaren transposizioa egin legegintzako egintza bakarrean) emandako emaitzak huts egin ostean, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 82.2 artikulua xedatu zuen Europako Parlamentuak eta Europako Batzordeak gutxieneko arauak ezarri ahal izango zituztela hainbat gairen inguruan, horien artean, delituen biktimen eskubideen inguruan. Hala, aurreikuspen hori betez onartu zen 2012/29/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko urriaren 25koa, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituen (*aurrerantzean, Zuzentaraua*).

Lehendabiziko artikulua zehazten duen moduan, haren xedea honako hau da: delituen biktimek informazioa, laguntza eta babes egokiak jasotzea eta zigor-arloko prozesuetan parte hartu ahal izatea. Helburu horiek lortzeko, estatu kideek honako neurri hauek hartuko dituzte:

- biktimei euren biktima-izaera aitortzea;
- errespetuz eta sentiberatasunez tratatzea, modu indibidualizatuan, profesionalean eta diskriminaziorik gabe, biktimei laguntzeko zerbitzu guztiekin edo justizia ordain-

garriarekin, edota prozedura penal baten testuinguruan jarduten duen eskumendun edozer agintarirekin;

- zuzentarauan jasotako eskubideak modu ez-diskriminatzailean aplikatzea biktimei.

**DELITUAREN BIKTIMA  
ETA HAREN ESTATUTUA  
OSATZEN DUTEN  
ESKUBIDEAK DEFINITZEA**

## **3.1.2**

Zuzentarauak, bigarren artikuluan, biktimaren kontzeptu bat eskaintzen du, honako alderdi hauek bilduta:

- kalte bat jaso duen pertsona fisikoa, bereziki lesio fisiko edo mentalak, kalte emozionalak edo galera ekonomikoak jaso dituena, zigor-arloko arau-hauste batek zuzenean eraginda;
- delitu batek zuzenean heriotza eragin dion pertsonaren senideak eta pertsona horren heriotzaren ondorioz kalte-galerak jaso dituztenak.

Zuzentarauak, halaber, «senideen» definizio bat ere ematen du: ezkontidea; biktimarekin batera bizi den pertsona eta harekin harreman pertsonal intimoa eta konpromisoduna duena, biena den etxean eta modu egonkor eta jarraituan; lerro zuzeneko familiako kideak; neba-arrebak eta biktimaren kargura dauden pertsonak.

Biktima kontzeptua mugatzeak laguntzen du zehazten zeini egotz dakizkiokeen zuzentarauaren lehendabiziko artikuluan estatutu baten elementu integratzaile gisa aitortzen diren eskubideak, zigor-arloko prozesuetan informazioaren, laguntzaren, babesaren eta partaidetzaren gainean eraikiak.

Estatutu hori eskubide-zerrenda batean islatzen da; oro har, delitu baten edozer biktimak izaten ditu eskubide horiek. Batez ere lau eskubide orokor dira, eta guztiek ere ondoren azalduko ditugun hainbat eskubide espezifiko osatzen dituzte.

- **Informaziorako eskubidea:** ulertzeko eta ulertua izateko eskubidea biltzen du (3. artikulua); informazioa jasotzeko eskubidea eskumendun agintaritzak batekin lehen harremana izan orduko (4. artikulua); informazio-eskubidea biktimek salaketa bat ipintzen dutenean (5. artikulua); auziari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea (6. artikulua); eta itzulpena eta interpretazioa izateko eskubidea (7. artikulua).
- **Laguntzarako eskubidea:** biktimei laguntza emateko zerbitzuak eskuratzeko eskubidea (8. artikulua) eta biktimei laguntza eskaintzeko zerbitzuek emandako laguntza (9. artikulua).
- **Zigor-arloko prozesuan parte hartzeko eskubidea:** entzuna izateko eskubidea (10. artikulua); prozedura ez jarraitzea erabakiz gero den eskubidea (11. artikulua); bermeen eskubidea justizia ordaingarriko zerbitzuen testuinguruan (12. artikulua); doako justizia jasotzeko eskubidea (13. artikulua); gastuak berrordaintzeko eskubidea (14. artikulua); ondasunak bueltan jasotzeko eskubidea (15. artikulua); arau-hauslearen aldetik kalte-ordainari buruzko erabakia jasotzeko eskubidea zigor-arloko prozesuan (16. artikulua) eta beste estatu kide batean bizi diren biktimen eskubideak (17. artikulua).

- **Babeserako eskubidea:** biktima eta arau-hauslearen arteko kontaktua saihesteko eskubidea (19. artikulua); biktimak babesteko eskubidea zigor-arloko prozesuetan zehar (20. artikulua); intimitatea babesteko eskubidea (21. artikulua); biktimen ebaluazio indibidualerako eskubidea, babes-beharrizan bereziak zehazteko (22. artikulua); babes-beharrizan bereziak dituzten biktimen babes-eskubidea zigor-arloko prozesuan zehar (23. artikulua) eta zigor-arloko prozesuan babesteko eskubidea biktima adingabea baldin bada (24. artikulua).

Horrenbestez, Zuzentarauak intimitaterako eskubidea aitortzen die bigarren artikuluan definitutako delituen biktimei, eta eskubide hori babeserako eskubide zabalagoaren barruan txertatzen du. Azterlan honen xedeari erantzunez, Zuzentarauak biktimen intimitateari buruz zer erregulazio egiten duen aztertzea dagokigu, ikuspuntu bikoitz batetik egokitu ere: prozesuaren barneko babesa (prozesuaren barruan gertatzen dena, prozesuaren jarduketarako) eta prozesuz kanpoko babesa (prozesuaren barruan gertatzen dena, prozesuz kanpo gertatzen diren jarduketarako).

## 9. FUNTSEZKO IDEIAK

- Ezinbestekoa da mugatzea nor den delituaren biktima, jakin ahal izateko nor den eskubideen titular:
  - kalte bat jaso duen pertsona fisikoa, bereziki lesio fisiko edo mentalak, kalte emozionalak edo galera ekonomikoak jaso dituenak, zigor-arloko arau-hauste batek zuzenean eraginda;
  - delitu batek zuzenean heriotza eragin dion pertsonaren senideak eta pertsona horren heriotzaren ondorioz kalte-galerak jaso dituztenak.
- Zuzentarauak berariaz aitortzen du delituen biktimen INTIMITATEA BABESTEKO ESKUBIDEA.

### INTIMITATERAKO ESKUBIDEA PROZESUAREN BARRUKO BABESAREN IKUSPEGITIK

## 3.1.3

Zuzentarauaren 22.1 artikulua zehazten du estatu kideek zainduko dutela biktimek aldi-aldi ebaluazio indibidualizatua jaso dezaten, zehazteko zer babes-behar berezi dituzten eta zer neurritan izan litezkeen neurri berezien onuradun zigor-arloko prozesuan zehar egoera espezifiko bati erantzunez: bigarren mailako biktimizazioarekiko edo biktimizazio jarraituarekiko, larderiarekiko edo errepresaliekiko bereziki kaltebera izatea.

Egindako ebaluazio indibidualizatuak bereziki kontuan izango ditu biktimaren ezaugarri pertsonalak, delituaren mota edo izaera eta haren inguruabarrak; era berean, arreta berezia

ipiniko zaio biktimak arau-hauslearekin harremana edota dependentzia ote duen eta, horren ondorioz, bereziki kaltebera bilakatzen ote den. Ebaluazio indibidualizatua egin ostean, beharrian bereziak dituzten biktimek euren eskura izango dituzte Zuzentarauaren 23.2 artikuluan aurreikusitakoak (euren intimitaterako eskubidea prozesuaren barruko babesaren ikuspegitik lagun dezaketen neurri gisa ikerketaren fasean):

- biktimaren aitortpena horretarako sortutako edo egokitutako aretoetan egitea;
- biktimaren aitortpena horretarako trebakuntza egokia duten profesionalak hartzea, edota euren laguntzarekin behinik behin;
- biktimaren aitortpen guztiak pertsona berberen eskutik izatea, nola eta ez den justiziaren administrazio onaren kontrako.

Epaiketaren fasean, biktimaren intimitaterako eskubidea, prozesuaren barruko babesaren ikuspegitik, bi neurri osagarriekin bermatu daiteke:

- biktimaren bizitza pribatuari buruzko alferrikako galderak, arau-hauste penalarekin zerikusirik ez daukatenak, egitea saihesteko neurriak;
- epaiketa publikoaren presentzia gabe egitea posible egiten dutenak.

Biktimak adingabeak direnean, Zuzentarauaren ondoreetarako, jakintzat ematen da babes-beharrizan bereziak dituztela, bigarren mailako biktimizazioarekin edo biktimizazio errepikatuarekin, larderiarekin edo errepresaliekin lotutako kalteberatasuna dela (22.4 artikulua). Edonola ere den, babes-neurri bereziak izan ditzakeen zehazteko (intimitaterako eskubidearen prozesu barruko babesa eskaintzen dutenak barne), azterketa indibidualizatua egingo zaie biktimoiei.

## 10. FUNTSEZKO IDEIAK

- Biktimek, kalteberak izan ala ez, aldian aldiko ebaluazio indibidualizatua jasoko dute, zer babes-beharrizan berezi dituzten aztertzeko.

Beste hainbat neurriren artean, biktimen intimitatea bermatzeko hainbat bitarteko daude:

- biktimak jasotzeko espazio fisiko egokiak;
- biktimekin harremanetan izango diren profesionalen trebakuntza egokia;
- biktimaren bizitza pribatuari buruzko alferrikako galderak, zigor-arloko arau-haustekin zerikusirik ez daukatenak, saihestea;
- ahal dela aitortpen guztiak pertsona berberen eskutik egitea.



Zuzentarauaren 21. artikulua, «Intimitatea babesteko eskubidea» izenburupean, honako hau xedatzen du:

*« 1. Estatu kideek zainduko dute, zigor-arloko prozesuan, eskumendun agintariak neurri egokiak hartu ahal izatea intimitatea babesteko, 22. artikuluan aurreikusitako ebaluazio indibidualean kontuan izandako biktimaren ezaugarri pertsonalak barne, baita biktimen zein euren senideen irudiak ere. Horrez gain, estatu kideek zainduko dute eskumendun agintariak legezko neurri guztiak hartu ahal ditzaketela biktima adingabeak identifikatzeko aukera emango lukeen edozer informazio zabaltzea galarazteko.*

*2. Adierazpen-askatasuna eta komunikabideen askatasuna eta euren pluralismoa errespetatuz, estatu kideek esandako komunikabideei eskatuko diete autorregulazio-neurriak ezar ditzatela biktimen intimitatea, osotasun pertsonala eta datu pertsonalak babesteko helburuz».*

Manu horrek delitu baten biktima ororen oinarritzko babes estandarraren barruan **estatu kideei egindako agindu** bat txertatzen du, eragile publikoei biktima babesteko beharrezko erremintak emateko, hain zuzen ere, zigor-arloko prozeduraren esparruan eragile biktimizatzaile posible gisa izendatu denetik babesteko: gizarte-komunikabideen jardunaren bidez osatutako iritzi publikotik, alegia.

Lehendabiziko atalak intimitaterako eskubidea sustatzen du *prozesuaren garaian*. Zuzentarauak ezartzen duenez, prozesurako espazioa salaketa ipintzen denetik aurrera hasten da<sup>30</sup>.

Hori dela eta, biktimak salaketa ipintzen duen garaitik, eskumendun agintariak (epaileek, fiskalek, poliziak eta gainerako operadoreek) beharrezko bitartekoak eduki beharko dituzte, biktimaren intimitatea babesteko neurri egokiak hartze aldera.

Zuzentarauak ez du ezartzen zeren arabera eta noiz har litezkeen neurriak, eta, era berean, ez du indibidualizatzen zer neurri hartu behar diren. Horren arrazoia zera da, araua izaki, estatu kide bakoitzaren barne Zuzenbidera ekartzeko beharrezkoa dela, Zuzentarauaren 27. artikulua dioen bezala, estatu kide bakoitzak legezko xedapenak, arauzkoak eta administratiboak onartzea. Edonola ere, minimoen Zuzentarau izateak (hau da, eduki xedaezina duen araua eta estatuek indargabetu ezin dutena, zuzeneko ondore izenekoa aplikatzea posible egiten duena, omisioz edo arau-haustez kontra eginez gero<sup>31</sup>) zera eragiten du, estatu kideek, euren araudi-autonomiaren jardunean, Zuzentaru onartu izanarekin ezarritako helburuak lortzeko gutxienez adosten dituzten xedapenek honako eskakizun hauek bete behar izatea:

30 Zuzentarauaren 22. kontuan hartuzkoak ezartzen duenez, salaketa bat aurkezten den uneen, Zuzentarauaren ondo-reetarako, zigor-arloko prozesuaren esparruan sartzen denetik hartzen da kontuan, biktimak jasandako delitu baten ondorioz agintariak ofizioz zigor-arloko prozesuak abiarazten dituzten esparrua ere barnean hartuta.

31 Europako Zuzenbidearen zuzeneko ondorea Justizia Auzitegiak eman zuen Van Gend Loos epaian, 1963ko otsailaren 5ean. Epai horretan, auzitegiak adierazten du Europako Zuzenbideak, EBko herrialdeei obligazioak ezartzeaz gain, partikularrentzako eskubideak ere ematen dituela. Ondorioz, partikularrek ere alegatu ditzakete eskubide horiek eta zuzenean Europako arauetara deitu dela estatuko jurisdikzioetan, dela Europakoetan. Horrenbestez, ez da ezinbestekoa EBko herrialdeak delako Europako araua bere barne-ordenamendu juridikoan jasota edukitzea.

- Ebaluazio indibiduala egiteko garaian, biktimen ezaugarri pertsonalak intimitaterako eskubidearen barruan jasotzea babes-beharrizan bereziak zein diren zehazteko, baita euren irudiak eta senitartekoenak ere.
- Eskumendun agintari nazionalak har ditzaketan neurriak egokiak izatea biktimen intimitatea babesteko.
- Bermatzea eskumendun agintariak legezko neurri guztiak hartu ahal izatea, biktima adingabeak identifikatzeko aukera emango lukeen edozer informazio zabaltea galarazteko.

Aipatutako hiru eskakizunak delituen biktimen intimitatea babesteko ezinbesteko estatutuaren zati dira (oinarrizko babes-estandarra izenez ezagutzen denarena); izan ere, Zuzentarauaren 54. kontuan hartuzkoak azaltzen duen moduan, **pribatutasuna babestea baliabide garrantzitsua izan liteke berriro biktimizatzea saihesteko**. Edonola ere, azaldutako paragrafoan jakintzat ematen da gatazka sor litekeela delituaren biktimaren intimitaterako eskubidearen eta albiste izan litekeenari buruzko informaziorako askatasunaren artean; hori dela eta zera jakinarazten du: «*Biktimen eta euren senideen intimitatea eta irudia babesteko har litezkeen neurriek beti koherente izan beharko dute epaile inpartzial bat izateko eskubidearekin eta adierazpen-askatasunarekin, Giza-eskubideak eta oinarrizko askatasunak babesteko Hitzarmenaren 6. eta 10. artikuluek jasotzen duten moduan*». Oinarrizko eskubideen baterako existentziarekin lotutako gatazkak, zalantzarik gabe sor litezkeenak, hiru premisaren inguruan antolatuko dira:

- oinarrizko eskubide batek ere izaera absolutua ez duela baieztatzea; horrek esan nahi du, gatazka izanez gero, eskubide batek beti eman behar duela beste baten alde edo juridikoki sakrifikatu egin behar dela;
- haztapan hori, kasurik gehienetan, agintaritza judizialak egin beharko duela konbentziturata egotea eta;
- eskubide ez-nagusiaren sakrifizioa proportzionaltasun-eskakizunen arabera egitea, printzipio horrek bakarrik justifikatzen baitu erortzen den eskubidearen sakrifizioa, betiere eskubide nagusia gordetzeko beharrezkoa den heinean eta neurritz kanpokotzat jotzen ez denean sakrifizio hori.

Horrez gain, zigor-arloko prozesuan biktimak babesteko beharrizan bereziei erantzunez, esparru juridiko hori handitu daiteke bi neurri osagarri hartuta:

- lehenik eta behin, bizitza pribatuarekin lotutako alferrikako galderak saihestea, zigor-arloko arau-haustearekin zerikusirik ez duen aldetik (ulertzen dugu eskubide hori edozer biktimari dagokiola, edozer dela ere bere babes-premia espezifikoak, ezin baita ulertu bizitza pribatuan injerentziarik egitea biktimari, epaitu beharreko zigor-arloko arau-haustearekin zerikusirik ez baldin badu);
- eta, bestetik, epaiketa publikoaren presentzia gabe egitea.

Zuzentarauaren 21.2 artikulua, adierazpen-askatasunak, komunikazio-askatasunak eta pluraltasunak konstituzio-sistema guztietan duten garrantzi esanguratsuari erantzunez, estatu kideen esku ipintzen du komunikabideei autorregulazio-neurriak ezartzeko eskaera egitea, biktimen intimitatea, osotasun pertsonala eta datu pertsonalak babesteko.

Sustatzaile-lan horrek, edonola ere, ez du ordezkatzeko estatutuaren rol araugilea delituen biktimen intimitatearen nahitaezko babes publikoa emateko lanean, baizik eta osatu

egiten du. Ildo horretan, esan liteke babesaren ikuspegi holistiko batek bi ikuspegi har-  
tzea eskatzen duela: bata prebentziokoa eta bestea, berriz, erreaktiboa.

Prebentzioaren alorrean, Estatuak komunikabideei eskatu behar die autorregulazio-neu-  
rriak aplika ditzatela, delituen biktimen intimitatea babestera bideratuta.

Erreakzioari dagokionez, berriz, Estatuaren obligazioa zera da, agintari nazionalen esku  
neurririk egokienak ipintzea delituen biktimen intimitatea babesteko.

## 11. FUNTSEZKO IDEIAK

- Zigor-arloko prozesuan eskumendun agintariak intimitatea babesteko beha-  
rezko neurriak hartzen dituztela zaintzeko obligazioa dute estatuek.
- Agente biktimizatzaileak jotzen da, zigor-arloko prozeduraren barruan, **gizar-  
te-komunikabideen jardueraren bidez osatutako iritzi publikoa**.
- Pribatutasuna babestea bitarteko garrantzitsua izan liteke berriro biktimizatzea  
galarazteko.
- **PREBENTZIOAREN IKUSPEGIA:** Estatuak komunikabideei eskatu behar die  
autorregulazio-neurriak aplika ditzatela, delituen biktimen intimitatea babestera  
bideratuta.
- **ERREAKZIOAREN IKUSPEGIA:** Estatuaren obligazioa zera da, agintari naziona-  
len esku neurririk egokienak ipintzea delituen biktimen intimitatea babesteko.

## GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEN ANALISI ESPEZIFIKOA

### 3.1.5

Biktimak definitzeko ikuspegitik abiatuta, Zuzentarauak ez du eskaintzen genero-indarkeriako  
delituen biktimen kontzeptu espezifiko bat bere artikulatuan. Edonola ere, hitzurrearen 17.  
zenbakiak ezartzen duenez, genero-arraioengatik egindako sexu-indarkeriatzat hartuko da  
persona baten kontra bere sexua, nortasuna edo genero-adierazpena dela medio egindako  
indarkeria, edota sexu bati modu desproporzionatuan eragiten diona. Genero-arraioiek  
eragindako indarkeriaren kontzeptuak hainbat indarkeria mota biltzen ditu: harreman per-  
sonaletako indarkeria, sexu-indarkeria (bortxaketa, sexu-erasoa eta sexu-jazarpena), per-  
sonen salerosketa, esklabotza eta bestelako praktika kaltegarriak (hala nola behartutako  
ezkontzak, emakumezkoen mutilazio genitala eta «ohorearekin lotutako delituak»).

Horrenbestez, genero-arraioiek eragindako indarkeriaren barruan bi indarkeriazko adiera-  
zpide berezi txertatzen ditu Zuzentarauak:

- lehendabizikoa, intentzio espezifiko batez egindako indarkeria, biktimaren sexua,  
nortasuna edo genero-adierazpidea dela eta egiten den indarkeria biltzen duena;
- bigarrena, berriz, sexu jakin bati modu desproporzionatuan eragiten dion indarkeria.

Lehendabiziko indarkeria motak ez du desberdintasunik egiten biktimen sexuaren artean, izan litezke gizonak edo emakumeak. Baina desberdintasun hori inplizituki presente dago indarkeriak erreferente gisa indarkeria hori modu desproporzionatuan jasotzen duten pertsonak dituenen; izan ere, emakumeak izan ohi ditu nagusiki biktima. Halaxe adierazten du argi eta garbi Zuzentarauaren hitzaurreko 18. kontuan hartuzkoak.

Definiziotik erator daitekeen moduan, Zuzentarauak ez du genero-indarkeria bikote-harremanetara bakarrik mugatzen. Edonola ere, hitzaurreak garrantzi berezia ematen dio harreman pertsonal batean izaten den indarkeriari, indarkeria baliatzen duen pertsona biktimaren ezkontide edo bikotekide izan denean edota biktimaren bestelako senitartekoren bat denean. Hori dela eta hartzen da indarkeria mota hau *asko eta askotan ezkutatuta geratzen den gaitz sozial gisa*, indarkeria mota honek biktimari eragin diezazkiokeen ondorio berezien inguruan ohartarazita, hasiera batean konfiantzazko pertsona batek biktimizatzen duen aldetik. Hemen generoak eragindako indarkeriari buruzko hiru hausnarketa garrantzitsu egin behar dira.

- Lehenik eta behin, maiz ezkutatuta geratzen den indarkeria mota dela, espazio intimoetan egiten delako nagusiki eta harreman bereziki afektiboa den pertsonetatik jasotzen delako.
- Bigarrenik, gizartea konprometitzen duen indarkeria dela, balio komunitario nuklearrak arriskuan ipintzen dituelako, hala nola askatasuna eta berdintasuna.
- Hirugarrenik, indarkeria bereziki suntsikorra dela, bizi-zirkulu goxotzat hartzen den horretatik etortzen delako eta, hala, gainerakoekin oinarrizko konfiantza-sentimendua hausten duelako.

Aipatutako berezitasunek ikuspegi kriminologikoan eta biktimologikoan zalantzarik gabeko interesa baldin badute ere beharrezko babesa zehazteko garaian, Zuzentarauak ez du jasotzen genero-indarkeriaren biktimaren kontzepturik, 2. artikuluan orokorrean zehazten duenetik harago.

Horrenbestez, intentziaz eragindako heriotzen kasuan, genero-indarkeriako biktimatzat hartuko dira hildako emakumeak eta hildako emakumeen senitartekoak, heriotzaren ondorioz kalte edo galera bat izan dutenak.

Hori dela eta ulertzen da Zuzentarauaren 19. kontuan hartuzkoak delitu batek eragindako hildako pertsona baten senitartekoei delituaren **zeharkako biktima** deitzea, eta, hala, haiek ere babesa izan behar dutela zehaztea.

Edonola ere, Zuzentarauaren 2. artikulua aplikatzearen ondorioz, zeharkako biktimizazioak (dominazio-indarkeria jasan duen emakume baten seme-alabek, ondorengoek eta arbasoek pairatzen dituzten kalte psikikoak eta emozionalak biltzen dituenak) emakumea (biktima zuzena dena) hiltzen edo desagertzen denean bakarrik uzten die hartzaileei biktima estatusa aitortzen. Eta horrek, zalantzarik gabe, sekulako garrantzia du zehazteko garaian norke ote duen, biktima gisa, intimitaterako eskubidea, identifikazioari dagozkion datuen ezaguera publikoa gordetzearen ikuspegitik.

Aipatu dugun moduan, Zuzentarauak, genero-arrazoiek eragindako indarkeriaren kontzeptuaren barruan, ez ditu barnean hartzen modu eksklusiboan emakumea eta haren seme-alabak, baina aitortzen du emakumeek genero-indarkeriaren eragina «modu desproporzionatuan» jasaten dutela.

Horrek esan nahi du emakumezko biktimek eta euren seme-alabek babes eta laguntza bereziak behar izango dituztela, bigarren mailako biktimizazioa edo biktimizazio errepika-

tua gertatzeko arrisku handia baita, edota indarkeria mota horrekin lotutako larderia edo errepresaliak izatekoa.

Zuzentarauak, horrenbestez, sentiberatasun edo arreta berezia erakutsi nahi izan du genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin; nahiz eta biktima hauskor gisa hartzen diren, arauak ez die *a priori* erantzun bat ematen, baizik eta kasu konkretua balioesteko deia egiten du, eman beharreko erantzuna zehazte aldera. Garrantzitsua da kontu hori, eta Zuzentarauaren 2. artikulua garrantzia zehazten du, oinarritzko kontzeptuak zehazten dituen aldetik.

Intimitaterako eskubidearen ikuspegitik eta prozesuaren barruko babesaren adarrean, Zuzentarauaren 22.3 artikulua adierazten du babes-beharrizan bereziei buruzko ebaluazio indibiduala egiteko genero-indarkeriaren biktimak behar bezala hartuko direla kontuan.

Intimitatea prozesuz kanpo babesteari dagokionez, berriz, ez dago araubide orokorrari egindako inolako aipamen osagarririk.

## 12. FUNTSEZKO IDEIAK

- *Genero-arrazoiengatik egindako indarkeriatzat hartuko da pertsona baten kontra bere sexua, nortasuna edo genero-adierazpena dela medio egindako indarkeria, edota sexu jakin bati modu desproporzionatuan eragiten diona.*
- Genero indarkeria:
  - maiz ezkutatuta geratzen den indarkeria mota da, espazio intimoetan egiten delako nagusiki eta harreman bereziki afektiboa den pertsonetatik jasotzen delako;
  - gizartea konprometitzen duen indarkeria da, balio komunitario nuklearrak arriskuan ipintzen dituelako, hala nola askatasuna eta berdintasuna;
  - indarkeria bereziki suntsikorra dela, bizi-zirkulu goxotzat hartzen den horretatik etortzen delako eta, hala, gainerakoekin oinarritzko konfiantza-sentimendua hausten duelako.
- **Genero-indarkeriaren biktimak:** hildako emakumeak eta hildako emakumeen senitartekoak, heriotza horren ondorioz kalte edo galera bat izan dutenak.
- Zuzentarauaren 19. kontuan hartuzkoak delitu batek eragindako hildako pertsona baten senitartekoei delituaren **zeharkako biktima** deitzen die, eta, hala, **“haiek ere babesa izan behar dutela zehazten du”**.

## **3.1.6**

Zuzentzarauaren 2. artikulua delitu baten biktimatzat definitzen ditu zigor-arloko arau-hauste batek zuzenean eragindako kaltea edo galera jasaten duten pertsona fisikoak, delitu batek zuzenean eragindako hildakoaren senitartekoak ere barnean hartuta.

Biktima horiek, babes-bermearen barruan, intimitaterako eskubidea dute, dela prozesuaren barruko ikuspegitik (prozesuaren barruan gertatzen diren jarduerak ardatz dituen), dela prozesuz kanpokotik (prozesutik kanpo gertatzen diren jardueretara mugatzen dena).

Prozesuaren barruko ikuspegian biltzen diren neurrien helburua zera da, biktimak berriro ere ez biktimizatzea zigor-arloko justizia-sistemaren bidez (bigarren mailako biktimizazioa ez gertatzea, alegia); arrazoi hori dela eta, biktimen aitortpenak baldintza egokietan egiten direla bermatu beharko da, dela espazioari dagokionez, dela solaskideari dagokionez, eta aitortpen horietan ez da izango euren pribatutasunean justifikatu gabeko injerentzia eragiten duen elementurik.

Prozesuz kanpoko ikuspegian bildutako neurriekin, berriz, zera bilatzen da, iritzi publikoak biktimen intimitatea osatzen duten datuak jakitearen ondorioz sortutako estigmatizazioak saihestea.

Plano horretan, Zuzentzarauak bi bide juridikotan orientatzen ditu estatu kideak. Alde batetik, biktima adingabeak identifikatzen lagun dezaketen informazio oro zabaltzea saihesteko beharrezko lege-neurria guztiak hartzera behartuko du.

Eta, bestetik, gizarte-komunikabideei eskatuko die har ditzatela autorregulazio-neurriak biktimen intimitatea, osotasun pertsonala eta datu pertsonalak babesteko.

Edonola ere, Zuzentzarauak, genero-arrazoiek eragindako indarkeriari aipamen berezia egiteaz gain, ez du 2. artikuluan oro har jasotako genero-indarkeriaren biktimaren kontzeptutik bestelakorik txertatzen. Horrek zera esan nahi du, intentzioz eragindako heriotzen kasuan, genero-indarkeriako biktimatzat hartuko direla hildako emakumeak eta hildako emakumeen senideak, heriotzaren ondorioz kalte edo galera bat izan dutenak.

Intimitaterako eskubidearekin loturik, prozesuz barruko eta kanpoko babeserako gainetarako biktimei aplikatzen zaizkien parametro berberak aplikatuko zaizkie.

Zuzentzarauak aipatzen duen moduan, biktimatzat hartuko dira gizonezko bikotekideak hildako emakumearen senitartekoak; hau da, seme-alabak eta neba-ahizpak, baita hildako emakumearen kargu dauden pertsonak ere. Europako araudiak ez du ezartzen lehentasun-ordena baztertzailerik; hortaz, printzipioz behintzat biktimatzat har litezke seme-alabak zein bigarren mailako senideak.

Aurrekoa adierazi ostean, zehazten da bikotekideen eskuetan izandako hilketen eta homizidioen kasuan Europako arauan ezarritako eskubideen titularrak seme-alaba adindunak edo adingabeak izango direla, baita neba-ahizpak ere, biktimatzat hartuko baitira.

Zuzentzarauak aurreuposatzen duenez, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak eta euren seme-alabek gehienetan babes eta laguntza berezia behar izaten dute, bigarren mailako biktimizazioa gertatzeko arrisku handia dela eta.

Europako Kontseiluaren Ministro Batzordearen Rec(2006)8 Gomendioak, 2006ko ekainaren 14koak, delituaren biktimei asistentzia emateari buruzkoak, honela definitzen du

bigarren mailako biktimizazioa: «*Ez delitu-egitateren emaitza zuzen gisa gertatzen dena, baizik eta biktimari erakundeek eta partikularrek emandako erantzunen bidez sortua*».

**Lehen mailako biktimizazioa**, bestalde, delituak berak eragindakoa da; haren erantzukizuna delituaren egileari dagokio batez ere.

**Bigarren mailako biktimizazioaz** jardutean, berriz, hainbat eratako kalteak aipatzen ditugu, oro har asmo txarrik gabe eginak, eta biktimekin euren biktimizazio- eta berreskuratze-prozesuan harremanetan izaten diren eragile sozialen eta instituzionalen esku-hartzeak eraginak (ezagunak, bizilagunak, herritarrak, komunikabideak, polizia, gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzu publiko zein pribatuak, auzitegi-medikuak, fiskalak, epaileak, udalak, gobernuak, biktimei arreta emateko zerbitzuak, ikastetxeak, unibertsitatea eta abar).

Bigarren mailako biktimizazioa saihesteko bitarteko bat biktimaren intimitatea babesteko hainbat neurri ezartzea izaten da, hala nola nortasunari buruzko informazioa zabaltzeko debekua edo mugak ezartzea, biktima adingabearen izena zabaltzea galaraztea eta abar.

Biktimen eta euren senitartekoen intimitaterako eta irudirako eskubidea bermatzeko kasu guztietan onartzen diren neurriek, Europako araudiak ezartzen duenaren arabera, koherente izan beharko dute beti epaile inpartzial bat izateko eskubidearekin eta adierazpen-eskubidearekin, hala zehazten baitu Giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak babesteko Hitzarmenak 6. eta 10. artikuluetan.

### 13. FUNTSEZKO IDEIAK

- Ahal den guztia egin behar da bigarren mailako biktimizazioa galarazteko.
- **BIGARREN MAILAKO BIKTIMIZAZIOA**: Oro har asmo txarrik gabe egindako kalteak, eta biktimekin euren biktimizazio- eta berreskuratze-prozesuan harremanetan izaten diren eragile sozialen eta instituzionalen esku-hartzeak eraginak (ezagunak, bizilagunak, herritarrak, **komunikabideak** eta abar).

**4/2015 LEGEA,  
APIRILAREN 27KOA,  
DELITUAREN  
BIKTIMAREN  
ESTATUTUARENA**

# 3.2

**BIKTIMA  
GUZTIENTZAT**

## 3.2.1

Apirilaren 27ko 4/2015 Legeak, Delituaren Biktimaren Estatutuarenak, biktimaren mundu-ikuskerak eskaintzeko beharrezko oinarri, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentaraua barne-zuzenbidera ekartzeko obligazioan ere bai (haren bidez, delituaren biktimen eskubideak, laguntza eta babesari buruzko gutxienezko arauak ezartzen dira eta Kontseiluaren 2001/220/JAI Esparru Erabakia ordeztzen da<sup>32</sup>).

Helburuen artean aurreikusten du, biktimari delituak eragindako kaltea konpontzea ez ezik, izaera horrek moralaren ikuspegitik izan ditzakeen bestelako ondorio traumatikoak ere arindu behar direla.

Kontuan izan behar da biktima izaera delituaren efektuak pertsona baten gainean zuzenean edo zeharka erortzen direnean hartzen dela; hala, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak, Zuzentarauak bezalaxe, prozesuz barruko zein kanpoko hainbat eskubide aitortzen ditu.

Prozesuz barruko eta kanpoko planoak bereizteak badu zentzurik; izan ere, prozesuaren garaian baldintzatzaile berriak sartzen dira jokoan, eskubide jakin batzuen babesaren indartzera behartzen dutenak. Nolanahi ere den, biktima-izaerari prozesuaren planoan aitortzen zaizkion hainbat eskubide edukirik gabe geratuko lirateke prozesua baino lehen bermatuko ez balira.

Hala, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak, paperean behinik behin<sup>33</sup>, biktima ororen tratu individualizatua ezarri nahi du, haren baldintzaren errekonozimenduaren bidez eta laguntza eta babesaren eskaintza, dela maila material-ekonomikoan, dela maila moralean.

Delituen Biktimaren Estatutuaren Legea Espainian egindako delituen biktimei aplikatuko zaie, edota Espainian jazar daitezkeenei, edozer dela ere euren nazionalitatea, izan adindun edo adingabe, edo izan legezko bizilekua ala ez.

---

32 Kalteberatasun berezia duten biktima-kolektibo batzuetarako araudi espezifikorik ezenez, Delituaren Biktimen Estatutuaren Legeak babes berezia ezarri nahi izan die, bi Zuzentzauren transposizioaren bidez: 2011/92/EB Zuzentza, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011ko abenduaren 13koa, adingabeen sexu-abusuen aurkako eta sexu-esplotazioaren eta haur-pornografiaren aurkako borrokari buruzkoa; eta 2011/36/EB Zuzentza, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011ko apirilaren 5koa, gizakien salerosketaren prebentzioari eta borrokari eta biktimen babesari buruzkoa, eta Kontseiluaren 2002/629/JAI Esparru Erabakia ordeztzen duena.

33 Bigarren xedapen gehigarriak hauxe ezartzen du: «Lege honetan jasotako neurriek ezin izango dute langile-horniduren, -ordainsarien eta bestelako -gastuen gehikuntzarik ekarri». Biktimaren trataera nekez alda daiteke, ezpada eragile sozialen eta operadore juridikoen dedikazioagatik, eta nekez erantzun litezke Legean ezarritako eskakizun guztiak, eskura diren bitartekoekin egin behar baldin bada. Eskakizun berriak eta biktimarentzako arreta berriak ezartzen dira, helburu horretarako bitarteko gehiago ezartzen ez bada ere. Deigarria da ikustea zioen azalpenean hainbat beharriaren konstantzia uzten dela: «*Horregatik, behar-beharrezkoa da erakundeei jarduteko protokoloak eta koordinazio- eta lankidetzazko prozedurak ematea; horrez gain, bulego espezializatuak zein langileen prestakuntza teknikoak, hasierakoa eta etengabea, bultzatu behar dira, baita biktimarenganako tratuak dakarren sentsibilizazioa ere, elkarrean eta kolektiboan parte-hartzea ahaztu gabe*».



Biktima-kontzeptuaren barruan:

- **biktima zuzena**, bere buruan edo ondarean kalte edo galera bat izan duen pertsona fisiko oro bereziki lesio fisikoak edo psikikoak izan dituenak, kalte emozionalak edo galera ekonomikoak, delitu bat egin izanaren ondorioz zuzenean eraginak;
- **zeharkako biktima**, zuzeneko biktima hiltzen edo desagertzen den kasuetan, hainbat senide edo pertsona hartzen ditu barnean, afektibitate-lotura bereziki lotuta daudenak.

Delitutik eratorritako kalteak izan dituzten hirugarrenak baztertu egiten ditu kasu guztietan. Erreferentzia garbia egiten die delitu-egitateren zuzeneko ondorio gisa kaltea jasaten dutenei (ohar positiboak) eta, hala ere, ez dira hark ofendituak (biktima zuzena) ezta ofendituaren heriotzaren edo desagertzearen kasuan (zeharkako biktima) haren senideak ere.

Era berean, biktima zuzenen eskubideen subrogatuak ere biltzen ditu edo, halakorik deenean, zeharkakoenak ere bai, legezko edo kontratuzko obligazioak betetzearen ondorioz (errepikapen- edo itzulera-ekintzen kasuak).

Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak, Zuzentarauaren transposizio lineala eginez, prozesuaren barruko zein kanpoko eskubideak aitortzen ditu.

Prozesuz kanpoko eskubideen artean, honako hauek biltzen dira: hondamendien, zorigaitz publikoen edo biktima kopuru handia eragiten duten gertaeren kasuan **gogoeta-aldi bat izateko eskubidea** (8. artikulua) eta laguntza-zerbitzuetara jotzeko eskubidea (10. artikulua).

Prozesuko eskubide gisa honako hauek aitortzen dira: ulertzeko eta ulertua izateko eskubidea (4. artikulua); salaketa-egile gisa dituen eskubideak (5. artikulua); zigor-arloko auziari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea (7. artikulua); itzulpen eta interpretaziorako eskubidea (9. artikulua); zigor-arloko prozesuan modu aktiboan parte hartzeko eskubidea (11. artikulua); ikerketaren lagestearen jakinarazteko eta berrikusteko eskubidea (12. artikulua); biktimak betearazpenean parte hartzea (13. artikulua); gastuak itzultzeko eskubidea (14. artikulua); justizia leheneratzaileko eskubidea (15. artikulua); doako justiziarako eskubidea (16. artikulua); ondasunak itzultzeko eskubidea (18. artikulua) eta babesa jasotzeko eskubidea (19. artikulutik 25. artikulura bitarte).

Zuzentaruaren aurreikusitakoaren transposizio literala eginez, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak oinarritzko babes-estandar bat diseinatzen du delitu baten biktima ororentzat, berriro biktimizatzeko hiru arrisku neutralizatzeko helburuarekin:

- arau-hauslearengandik berarengandik datozenak;
- justizia-sistemearekin izandako harremanetik datozenak;
- **eta, azkenik, biktimari buruz iritzi publikora iristen diren informaziotik datozenak.**

Horiei guztiei egiten die erreferentzia Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeko 19. artikulua, estipulatzen duenean delituak ikertzeaz, jazartzeaz eta epaitzeaz arduratzen diren agintariak eta funtzionarioek beharrezko neurriak hartuko dituztela, Prozedura Kriminalaren Legeak ezarritakoarekin bat:

- biktimaren eta senideen bizitza, horien osotasun fisiko eta psikikoa, askatasuna, segurtasuna, sexu-askatasun eta -ukigabetasuna bermatzeko;

- horien intimitate eta duintasuna egoki babesteko, bereziki deklarazioa hartzean edo epaiketa batean lekukotasuna eman behar dutenean;
- eta bigarren mailako edo errepikatutako biktimizazioa saihesteko.

Horrenbestez, delituen biktimen intimitatea egokiro babestea zigor-arloko justizia-sisteman bildutako eragile publikoen obligazioa da. Horrez gain, adingabeen kasuan, legeak Fiskaltzaren esku ipintzen du babes-eskubide hau betetzen dela bereziki zaintzea.

Horretarako, prozesuaren barruko babesa arautzen da (prozesuaren barruan eskuratuko informazioa, prozesuaren barruan tratatzeko), baita prozesuz kanpokoa ere (prozesuaren barruan eskuratutako informazioa, prozesutik kanpora ateratzeko), biktimen intimitaterako eskubidearekin loturik.

Biktimen intimitaterako eskubidearen prozesu barneko babesa Zuzentarauan bezalaxe egiten da, bi salbuespenekin.

- Batetik, aurreikusten da biktimaren bizitza pribatuarekin lotutako galderak egin litezkeela, epaitutako delitu-egitatearekin loturarik ez dutenak, epaileak edo auzitegiak iritziz gero erantzun egin behar direla, gertakariak edota biktimaren adierazpenaren sinesgarritasuna egokiro balioesteko.
- Aurreikusten da, ikuslerik gabeko ahozko ikustaldia egitea adostu ondoren, epaileak edo auzitegiak baimendu ahal izango duela auzian interes berezia egiaztatzen duten pertsonen presentzia.

Horrez gain, biktimak lekuko gisa agertzen direnean (ia guztietan), epaileak edo auzitegiak, ofizioz edota alde batek eskatuta, abenduaren 23ko 19/1994 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz, biktimaren pertsonarako, askatasunerako edo ongizaterako arrisku larria arrazionalki ikusten denean, beharrezko neurriak hartu ahal izango dituzte biktimaren nortasuna, helbidea, lanbidea eta lantokia gordeta edukitzeko.

Besteak beste, 2. artikuluari jarraikiz, honako erabaki hauek hartu ahal izango ditu:

- a) egiten diren eginbideetan ez agertzea haren izena, abizenak, helbidea, lantokia eta identifikatzeko erabil litekeen bestelako ezein datu, eta, horien tokian, zenbaki bat edo beste edozer klabe erabili ahal izango dira;
- b) edozer eginbidetarako agertzen direnean, ikusizko identifikazio arrunta galaraziko duen edozer prozedura erabiltzea;
- c) helbide gisa (zitazio eta jakinarazpenetarako), esku hartzen duen organo judizialaren egoitza baliatzea, eta hark helaraziko dizkio modu erreserbatuan hartzaileari.

Prozesuz kanpoko babesa honako baldintza hauetan egingo da, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 22. artikuluaekin bat:

*«Epaileek, auzitegiek, fiskalek eta zigor-arloko ikerketaren ardura duten gainontzeko agintari eta funtzionarioek, bai eta modu batera edo bestera prozesuan esku edo parte hartzen duten guztiek ere, behar diren neurriak hartuko dituzte, Legean xedatutakoaren arabera betiere, biktima guztien eta horien senideen intimitatea babesteko eta, bereziki, biktima adingabeak edo babes berezia duten biktima desagaituak identifikatzea erraz dezakeen informazio oro ezagutaraztea eragozteko».*

Manuak alderdi bat zehaztua eta beste bat zehaztugabea ditu.

Alderdi zehaztuaren barruan, biktima adingabeak eta babes berezia behar duten desgaituak identifikatzea errazten duen edozer informazio zabaltzea galarazteko betebeharra. Bereziki hauskorak diren biktima horiei dagokienez eta identifikazio zuzenari zein zeharkakoari dagozkien pribatutasun-datuei loturik, babesa erabatekoa da, salbuespenik gabe.

Alderdi zehaztugabeak, bestalde, adingabeak ez diren edo babes-beharrizan berezia duten desgaituak ez direnak babesteari egiten dio erreferentzia, euren pribatutasunari dagokionez, edota biktima adingabeak edota babes-behar berezia duten desgaituak, euren intimitate-datuei dagokienez (identifikazio-datuetatik aparte).

Bi kasuetan, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen bidez Prozedura Kriminalaren Legearen 681.2 artikuluan egindako aldaketek zehaztuaren esparrua zabaldu dute, baita zehaztu gabeko eremua espezifikatu ere.

Hala, zehaztutako alderdiari dagokionez, debekua erreproduzitzeaz gain (kasu guztietan, salbuespenik gabe) biktimaren nortasunari buruzko informazioa zabaltzeari eta argitaratzeari dagokionez, eta zuzenean zein zeharka identifikatzen lagun dezaketen informazioekin lotuta, adingabeen edo babes berezia behar duten desgaituen kasuan, debekua zabaldu egiten da; hain zuzen ere, babes-beharrizan bereziak balioesteko inguruabar pertsonai buruzko informazioa dibulgatzea edo argitaratzea ere galarazi egingo da, baita euren edota senideen irudiak eskuratzea, zabaltzea edo argitaratzea ere.

Zehaztu gabeko alderdien inguruan, berriz, estipulatzen du epaileak edo auzitegiak, biktimaren eta **haren senideen** intimitatea babesteko, hainbat neurri adostu ahal izango dituela.

- Biktimaren nortasunarekin lotutako informazioa zabaltzea edo argitaratzea debekatzea, baita zuzenean zein zeharka hura identifikatzen lagun dezaketenak ere, edota babes-beharrizanei buruz erabakia hartzeko balioetsitako inguruabar pertsonalei buruzko datuak.
- Biktimaren edo haren senideen irudiak eskuratzeko, zabaltzeko edo argitaratzeko debekua.

Horrez gain, epaileak edo auzitegiak, ofizioz edo alderdietatik edozeinek eskatuta, eta horiei entzunaldia egin ondoren, erabaki ahal izango du epaiketaren ekitaldi edo saio guztiak ateak itxita egitea, baldin eta horrela eskatzen badu biktimaren intimitaterako eskubidea egokiro babesteak.

Neurri horiek sumarioan adostu litzake epaileak ofizioz, edo Fiskaltzak zein biktimak berak eskatuta, ezinbestekoa denean biktimaren intimitatea babesteko, Prozedura Kriminalaren Legearen 301 *bis* artikulua xedatzen duen moduan.

Ikus-entzunezko komunikabideek diotenera mugatuz, ahozko epaiketa-saioetan, Prozedura Kriminalaren Legearen 682. artikulua xedatzen duenez, epaileak edo auzitegiak, alderdiei alde aurretik entzunda, biktimen intimitaterako eskubidea **modu berezian** babestu ahal izango du:

- epaiketaren saioetan ikus-entzunezko hedabideak egotea mugatu ahal izango du;
- debekatu ahal izango du entzunaldi guztiak edo batzuk graba ditzaten;
- proba jakin batzuk egiteko orduan soinua edo irudia graba dezaten debekatzea;
- zer eginbide edo jarduketa grabatu edo zabal ditzaketen zehaztea;

- horretan parte hartzen duen pertsonaren baten edo batzuen irudiak hartu eta zabal ditzaten debekatzea;
- biktimen nortasunaren berri eman dezaten debekatzea.

Horrenbestez, gizarte-komunikabideei dagozkienez, epailea edo auzitegia legez gaituta dago Prozedura Kriminalaren Legearen 681. eta/edo 682. artikuluetan aurreikusitako neurriak aplikatzeko, delituen biktimen intimitaterako eskubidea gordetze aldera.

Nolanahi ere den, eskubideen sakrifizioan proportzionaltasun-printzipioaren eskakizunen arabera, ezinbestekoa da, hartzen diren neurriak (informazio-askatasunerako eskubidea *ad hoc* erazten duten aldetik) kasu guztietan egokiak, beharrezkoak eta aflikzio apalena eragiten dutenak izatea, gutzia ere delituen biktimen intimitaterako eskubidea babesteko.

Azkenik, Prozedura Kriminalaren Legearen 906. artikulua erabakitzen duenez, Auzitegi Gorenak kasazio-errekurtsoetan iritiz gero epaia argitaratzeak biktimaren ohorerako, intimitate pertsonalerako edo sendiaren intimitaterako edo biktimaren irudirako eskubideei eragiten diela, agindu ahal izango du ez argitaratzea, osorik edo zati batean. Nolanahi ere, argitaratzea adosten badu, pertsonen izen propioak kenduko dira, baita tokienak eta akusazio-egilearen zein akusatuaren nortasuna ezagutaraz dezaketen inguruabarrak ere; era berean, prozesuaren epaia eman duten auzitegien izenak ere erretiratu egingo dira. Ez dago tankera honetako manurik zigor-arloko gainerako organo judizialek emandako epaiak argitaratzeari dagokionez, baina egitate-kasua osatzen duten egoeren antzekotasunak aplikazio analogikoa justifikatzen du, Prozedura Kriminalaren Legearen 903. artikuluan deskribatzen den aldeko epaien efektu hedagarriarekin bezala. Araudi hori Botere Judizialaren Lege Organikoaren 235. artikuluekin osatzen da; oro har, prozesamendu-legeetan ezar litezkeen murriztapen osagarriek kalterik egin gabe, zehazten du prozesuan emandako epaiak edo bestelako ebazpenak eskuratzeko ezinbestekoa izango dela haiek dituzten datu pertsonalak erretiratzea, eta, aipamen esplizitua gurea da, **erabat errespetatuta intimitaterako eskubidea, babes-behar berezia duten pertsonen eskubideak eta biktimen edo kalte-dunen anonimotasunaren bermea, hala dagokionean.**

#### 14. FUNTSEZKO IDEIAK

- Delituak eragindako kaltea konpontzea ez ezik, izaera horrek moralaren ikuspegitik izan ditzakeen bestelako ondorio traumatikoak ere arindu beharra dago.
- Biktima izaera delituaren efektuak pertsona baten gainean erortzen direnean hartzen da, dela zuzenean, dela zeharka.
- **BIKTIMA ZUZENA:** bere buruan edo ondarean kalte edo galera bat izan duen pertsona fisiko oro, bereziki lesio fisikoak edo psikikoak izan dituenak, kalte emozionalak edo galera ekonomikoak, delitu bat egin izanaren ondorioz zuzenean eraginak.
- **ZEHARKAKO BIKTIMA:** zuzeneko biktima hiltzen edo desagertzen den kasuetan, hainbat senide edo pertsona hartzen ditu barnean, afektibitate-lotura bereziz lotuta daudenak.

- **SAIHESTEKOAK DIRA** berriro biktimizatzea eragin dezaketen hiru arrisku hauek: . arau-hauslearen berarengandik datorrena, justizia-sistemarekin izandako harremanetik datorrena eta biktimari buruz iritzi publikora iristen diren informaziotik datorrena.
- Epailleek eta auzitegiek beharrezko neurriak hartuko dituzte biktimen eta haien senideen intimitatea babesteko.
- **Biktima-izaerari prozesuaren planoan aitortzen zaizkion hainbat eskubide edukirik gabe geratuko lirateke prozesua baino lehen bermatuko ez balira.**
- *Behar diren neurriak hartuko dituzte, Legean xedatutakoaren arabera betiere, biktima guztien eta horien senideen intimitatea babesteko eta, bereziki, biktima adingabeak edo babes berezia duten biktima desgaituak identifikatzea erraz dezakeen informazio oro ezagutaraztea eragozteko.*

## GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMENTZAT

### 3.2.2

Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 3.2 artikulua adierazten duenaren arabera, delituen biktimen babeserako, informaziorako, laguntzarako, asistentziarako eta arretarako eskubideak, baita zigor-arloko prozesuan aktiboki parte hartzea ere, esandako Legean eta hura garatzen duten erregelamendu-xedapenetan ezarritakoaren arabera arautuko dira, baita aplikatzekoak diren legeria bereziak eta prozesu-arauak aintzat hartuta ere.

Legeria berezia aipatzean, honako hau adierazten da berariaz: 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa ematekoa. Horrenbestez, ezinbestekoa da mugatzea lege berezi horrek ñabardura bereizgarriren bat ezartzen ote duen, krimen-adi-razpide espezifiko horren biktimatza zer hartzen ote den definitzeko garaian. Aurrerago helduko diogu gai horri.

Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen ikuspegi eksklusibotik erreparatuta, genero-indarkeriako biktimaren kontzeptua zigor-arloko beste edozer delitu bidegaberen berdina da. Horrenbestez, 2. artikuluan ezartzen den biktimaren kontzeptu orokorra hartzen da kontuan; hala, adierazi dugun moduan, emakumea biktima zuzen gisa kalifikatzen du, delitu bat egin izanak eragindako kaltea jasotzen duen aldetik, eta biktima hiltzen edo desagertzen den kasuan bakarrik izango dira zeharkako biktima senide jakin batzuk.

Horien artean, honako hauek sartuko lirateke: emakume biktimaren seme-alabak; biktima hiltzen edo desagertzen den garaian, legez edo izatez banandu gabeko ezkontidearenak, elkarrekin bizi izanik; biktima desagertu edo hil den unean afektibotasun-harreman antzeko batekin loturik den pertsonarenak, biktima hil edo desagertzen den unean elkarrekin bizi izanik; edo biktima zuzenak zaintza edo kuradoretzapean edota familia-harreraren dituenak.

Hori horrela izanagatik ere, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 10. artikulua adosten duenez, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen edo etxeko indarkeria pairatu duten pertsonen seme-alaba adingabeek edo haien tutoretza, zaintza eta jagoletzari lotuta dauden adingabeek Legearen I. eta III. tituluetan aurreikusitako laguntza-neurrietarako eskubidea izango dute.

Hau da, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen ikuspegitik, genero-indarkeriaren emakume biktimen seme-alaba adindunak zein adingabeak, edota babespean, jagoletzapean edo zaintzapean diren adingabeak **zeharkako biktima izango dira, baldin eta ama hiltzen edo desagertzen bada**; biktima diren aldetik, ondorioz, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak aurreikusitako eskubide guztiak egokituko zaizkie. Halaber, ez dira biktima izango baina, adingabe badira, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak aitortutako laguntza- eta babes-eskubideak izango dituzte genero-indarkeriaren emakume biktima ez bada hiltzen edo ez bada desagertzen ere. Seme-alabak adindunak izanez gero, ez dira delituen biktimatzat hartuko, eta ez zaie egokituko Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak aurreikusitako laguntza- eta babes-araubidea.

Zaila da ulertzea nola ez diren genero-indarkeriaren biktima gisa definitzen indarkeriazko mendetasun-egoera batean bildutako adingabeak (eta gainerako senideak), kasu asko eta askotan biktima eta erasotzailea elkarrekin bizi diren habitat berean gertatzen baitira. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak baieztatzen duen moduan (ekainaren 22ko 514/2012 eta urriaren 28ko 663/2015), **ohiko indarkeria indarkeria-egoera etengabe bat sortzearen baliokide da, pertsonen duintasunaren errespetutik bizikidetzaren oinarrizko egiturari eragiten diona**; hala pairatzen duten guztiak menderatzen dituen indarkeria da, eta, hortaz, biktima-izaera indarkeriazko mendetasun psikofisikoko egoeran azpiratuta dauden guztietara zabaldu beharko litzateke.

## 15. FUNTSEZKO IDEIAK

- Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legea: zeharkako biktima izango dira genero-indarkeriaren emakume biktimen seme-alaba adindunak zein adingabeak, edota babespean, jagoletzapean edo zaintzapean diren adingabeak, **baldin eta ama hiltzen edo desagertzen bada**.
- Emakumea hiltzen edo desagertzen ez bada:
  - seme-alaba adingabeak **ez dira biktima izango**, baina biktimen estatutuak aitortutako laguntza- eta babes-eskubide berberak izango dituzte;
  - seme-alaba adindunak ez dira biktima izango, eta ez dituzte aitortuta edukiko Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak jasotako eskubideak.
- **OHIKO INDARKERIA:** indarkeria-egoera etengabe bat sortzea, pertsonen duintasunaren errespetutik bizikidetzaren oinarrizkoari eragiten diona eta pairatzen duten guztiak azpiratzen dituena. Zergatik ez dira seme-alaba guztiak biktima, edozer dela ere euren adina?

## ONDORIO GISA

### 3.2.3

Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak delituaren biktima zuzenak eta zeharkakoak definitzen ditu kontzeptu gisa.

Biktima zuzena delitu bat egin izanak eraginda zuzenean kalte edo galera bat jasotzen duen pertsona fisikoa da.

Zeharkako biktima, berriz, biktima zuzena hiltzen edo desagertzen denean bakarrik izango da, eta delituak zuzenean eragindako kalte edo galera bat denean.

Biktimok eskubidea izango dute euren intimitatearen babesak jasotzeko, delitua ikertzeko, jazartzeko eta epaitzeko ardura duten eragile publikoen aldetik.

Babes hori prozesuaren barruan betearazteari dagokionez, hainbat neurri hartuko dira, bermatzeko aitorpenek ez dituztela hartzen epaiketarako garrantzirik ez duten alderdiak, eta ziurtatzeko, era berean, epaiketaren publizitate-bermea baztertzerako edo mugatzerako bideratutako erabakiak hartuko direla.

Prozesuz kanpoko auziei dagokienez, berriz, intimitatearen babesak *ex lege* ezartzen ditu honako galarazpen hauek, adingabeen eta babes berezia behar duten desgaituen kasuan: zuzenean zein zeharka identifika ditzaketen datuak zabaltzea, babesteko behar gaituen gainean ebazpena emateko kontuan hartu diren inguruabarrak ematea, eta haren zein senideen irudiak eskuratzea eta argitaratzea.

Adindunen kasuan, intimitatea babesteak *ex indice* ahala ematen du, aipatu ditugun neurri berberak hartu ahal izateko; hain zuzen ere, adingabeekin eta babesteko behar bereziak dituzten desgaituekin lotutako neurriak. Horrez gain, bi kasuetan, ikus-entzunezko komunikabideen presentzia murriztu liteke ahozko epaiketako saioetan; era berean, entzunaldi guztiak edo batzuk grabatzea debekatu ahal izango da, edota zehaztu ahalko da zer eginbide eta jarduera grabatu eta zabaltzea daitezkeen.

Genero-indarkeriaren gaiarekin loturik, espezifikotasun bakarra zera da, zeharkako biktima ez direnean (ama hil edo desagertu ez delako) laguntza- eta babes-neurriak zabalgarri direla genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaba adingabeetara eta babespean, jagoletzapean edo zaintzapean diren adingabeetara.

**1/2004 LEGE  
ORGANIKOA,  
GENERO-  
INDARKERIAREN  
AURKA OSO-OSOKO  
BABESA EMATEKO  
NEURRIEI BURUZKOA**

## 3.3

**SARRERA**

### 3.3.1

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzkoa (2004ko abenduaren 29ko BOE, aurrerantzean genero-indarkeriaren aurkako Lege Organikoa), erreminta juridiko bat da; hala, 1.2 artikulua zehazten duen bezala, neurri horien helburua halako indarkeria prebenitzea, zehatzea eta ezabatzea da, baita indarkeria horren biktimei babes ematea ere.

Genero-indarkeriaren aurkako Lege Organikoaren aburuz, genero-indarkeria biktimizazio-fenomeno espezifiko bat da, eta, zioen azalpenean azaltzen den bezala, emakumeen aurka, emakume izateagatik gauzatzen den indarkeria da, erasotzaileek uste dutelako emakumeek ez dituztela askatasun, errespetu eta erabakitze gaitasunari buruzko gutxieneko eskubideak.

Genero-indarkeria honela definitzen da: indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa (1.1 artikulua).

Haren baitan sartzen dira indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere (1.3 artikulua).

Legeak oso-osoko babes-neurriak ezartzen ditu, genero-indarkeria prebenitzeko, zehatzeko eta desagerrarazteko helburuarekin, *biktimeri*<sup>34</sup> arreta berezia ipinita. Lege honen aburuz biktimak zein diren argitzea dagokigu.

## BIKTIMA KONTZEPTUA

### 3.3.2

Arau osoan zehar, legegileak «emakume biktimak» aipatzen ditu, «genero-indarkeriaren biktimak», biktimaren kontzeptu argi bat ezartzeko ondore espezifikorik gabe.

Zioen azalpenean, modu laburrean, zera aitortzen du: «*Emakumearen aurkako indarkeria-egoerek eragina dute, berebat, euren familia-ingurunean dauden adingabekoengan*<sup>35</sup>». Hala, genero-indarkeriaren biktima zuzentzat edo zeharkakotzat hartzen ditu.

Edonola ere, artikulatuak ez du ezartzen biktima kontzeptuaren definizio argirik, ezta biktima zuzena eta zeharkako biktima kontzeptuek zer esan nahi duten ere; horretarako, ezinbestekoa da Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legea jotzea, edota Indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimentzako laguntzei eta sorospenerari buruzko Legea (abenduarien 11ko 35/1995).

Hala, 35/1995 Legearen 2. artikuluko 2. eta 3. zenbakiek biktima zuzenen eta zeharkako kontzeptua ezartzen dute, gutxienez, arauaren edukiari dagokionez. Hala, **zuzeneko biktimatzat** hartzen dira «*delituaren ondorio zuzen gisa gorputz-lesio larriak edo osasun fisiko edo mentalak kalte larriak jasaten dituzten pertsonak*»<sup>36</sup>.

**Zeharkako biktimen** kontzeptuari dagokionez, berriz, delituaren ondorio zuzenak jasan dituen pertsona hilez gero baldintza hori izango luketen senideen zerrenda egiten du, betiere hainbat baldintza betetzen badituzte<sup>37</sup>.

34 Legearen 2. artikulua emandako idazketa, harik eta haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko Legea (uztailaren 22ko 8/2015) indarrean jarri arte (uztailaren 23ko BOE). Indarraldia: 2015eko abuztuak 12.

35 Deigarria da, nahiz eta azterlan honen xede izan ez, arauak ez duela kontuan hartzen genero-indarkeriak biktimaren etxean bizi diren seme-alaba adindunei ere eragin diezaiekeela.

36 Biktima zuzenen kontzeptua legeak ezarritako laguntza ekonomikoen eta sozialen arabera egiten da.

37 35/95 Legearen 2. artikulua: «Zeharkako biktima gisa, onuradun izango dira, heriotza gertatuz gero –eta erreferentziatzat haren data hartuta–, honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

a) Hildakoaren ezkontidea, legez bananduta ez badago; edota hildakoarekin modu iraunkorrean bizi izan den pertsona,



Genero-indarkeriaren aurkako Lege Organikoaren jatorrizko idazketan, indarkeria matxistak eragindako emakumearen seme-alabei ez zitzaien aurreikusten biktima izaera.

Arauaren xedea, hasiera batean, babes integraleko neurriak ezartzea zen, indarkeria hori prebenitzeko, zehatzeko eta desagerrarazteko eta «*haren biktimei*»<sup>38</sup> asistentzia emateko; biktimatzat emakumeak bakarrik hartzen ziren.

Dena dela, zioen azalpenean xedatutakoaren ondorioz, **hautzaroa eta nerabezaroa babesteko sistema aldatzeko Lege Organikoak (uztailaren 22ko 8/2015)**, azken xedapenetatik hirugarrenaren bidez, Genero Indarkeriari buruzko Legearen 1. artikuluko 2. zenbakia aldatu zen.

Zehazki, aipatutako aldaketaren bitartez, babes integralerako neurriak zehaztu ziren. Haien helburua indarkeria hori saihestu, zehatu eta ezabatzea da, baita emakumeei, haien **seme-alaba adingabeei** eta haien babes edo zaintzapean dauden adingabeei laguntzea ere, haiek baitira indarkeria-mota horren biktima nagusiak<sup>39</sup>.

Lege-manuak, zalantzarik gabe, **genero-indarkeria jasaten duen emakumearen seme-alaba adingabeei edota haren tutoretzapean edo zaintzapean diren adingabeei aitortzen die delitu horren biktima-izaera**. Hala, genero-indarkeriarako, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 2. artikulua eskainitako delituaren biktima kontzeptua zabaltzen da.

Genero-indarkeriako delituek, horrenbestez, emakumeak eta euren seme-alaba adingabeak hartzen dituzte biktimatzat, baita emakumeon tutoretzapean edo zaintzapean diren adingabeak ere. Eta horiei gaineratzen zaizkie, hildako edo desagertutako emakumeen kasuan, seme-alaba adindunak ere, zeharkako biktima gisa.

Esan beharrik ez dago deigarria dela seme-alaba adindunak (eman dezagun independizatu gabeko seme-alabak), emakume biktimarekin bizi direnak, arauak ezartzen duen kontzeptuaren barruan ez egotea; izan ere, begien bistakoa da seme-alaba adindun bilakatzearekin ez direla aldatzen delitu-egitateak, ez dela aldatzen bizi-espazioa, ezta erasotzailearen figura ere. Gertatzen den aldaketa bakarra egoera zibila da (seme-alaba adingabeak adindun izatera igarotzea, alegia).

Dena dela, eta nahiz eta seme-alaba adindunek delitu-egitateak (genero-indarkeriaren barruan subsumitu daitezkeenak) gertatzen diren familia-espazio berean jarraitu, seme-alaba

---

ezkontidearen tankerako afektibotasun-harreman baliokidea izanik, edozer dela ere sexu-orientazioa, eta gutxienez hil aurreko bi urteetan bizi izan badira elkarrekin, salbu eta elkarrekin seme-alabarik ez badute; hala bada, nahikoa izango da elkarrekin bizitze hutsa.

b) Hildakoaren seme-alabak, ekonomikoki haren mendeko direnak, edozer dela ere euren filiazioa edota hil osteko baldintza. Ekonomikoki hildakoaren mendekotzat hartuko dira seme-alaba adingabeak eta adindun desgaituak.

c) Hildakoarenak ez diren seme-alabak baina aurreko a) letran aipatutako pertsonenak direnak, betiere ekonomikoki haren mende ez badaude.

d) Halaber, aurreko a), b) eta c) letran aurreikusitako pertsonak izan ezean, hildako pertsonaren gurasoak izango dira onuradunak, baldin eta ekonomikoki haren mendeko balira.

4. Zeharkako biktima gisa hainbat onuradun balira, laguntzaren zenbatekoa honela banatuko da:

a) Zenbatekoa erdi bana zatituko da. Bata ezkontideari edo hildakoarekin aurreko zenbakiko a) letrako baldintzetan bizi izandako pertsonari egokituko zaio. Beste erdia, berriz, aurreko zenbakiko b) eta c) letrak aurreikusitako seme-alabei egokituko zaie, eta guztien artean banatuko da, zati berdinetan.

b) Hildakoaren gurasoak onuradun izanez gero, laguntzaren zenbatekoa bien artean banatuko da erdi bana.

5. Era berean, zeharkako biktima gisa onuradun izango dira delituaren eragin zuzenez hiltzen den adingabearen gurasoak.»

38 1.2 artikulua idazketa, 1/2004 Legearen jatorrizko idazketaren arabera.

39 Hala, 1.2 artikulua ez du definizio zehatzik jasotzen, baina erreferentzia jakin bat egiten die emakumeei, haien seme-alaba adingabeei eta haien babespean edo zaintzapean dauden adingabeei, *indarkeria horren biktima gisa*. Literalki: «*Lege honen bitartez, babes-neurri osoak ezartzen dira, zeinen helburua baita halako indarkeria prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta indarkeria horren biktima diren emakumeei, haien seme-alaba adingabeei eta haien tutoretzapean edo zaintzapean edo jagoletzapean dauden adingabeei babesa ematea*».

adindunek ez dute biktima izaera izango, ez Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak ezartzen duenaren arabera, ez 1/2004 Legearen arabera; salbuespen bakar bat izango da: biktimatza hartuko dira ama hiltzen edo desagertzen denean<sup>40</sup>.

Horrez gain, 1/2004 Lege Organikoaren 1.2 artikulua sartutako aldaketak modu inplizituan indargabetzen du Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 10. artikulua laguntzen eta babesaren alorrean egiten zuen hedapena, hau da, hil edo desagertu ez diren genero-indarkeriako emakume biktimen seme-alaba adingabeen alde egiten zuena.

Aurrez nabarmendu dugun moduan, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 10. artikulua seme-alaba adingabeei zera eskaintzen zien, aipatu dugun legearen 2. artikulua arabera, amak jasaten zuen indarkeriaren biktima zuzen edo zeharkakotzat hartzen ez ziren seme-alabei, esandako legeak biktimatza hartzen zituenei eskaintako laguntza eta babes berbera.

Hala, 8/2015 Lege Organikoak txertatutako erreformarekin, seme-alaba adingabeek genero-indarkeriaren biktima izango dira eta, hala, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak delituen biktimei egozten dizkien eskubide guztiak aitortuko dizkie.

## 16. FUNTSEZKO IDEIAK

- 1/2004 Legeak genero-indarkeriako delituen biktimatza hartzen ditu seme-alaba adingabeak, baita emakumearen babes edo zaintzapean daudenak ere.
- Genero-indarkeriako biktima batekin bizi diren seme-alaba adindunak ez dira biktimatza hartzen, ez Estatutuan, ez 1/2004 Legean. Seme-alaba adindunak biktimatza hartuko dira, eta zeharkako biktimatza baino ez, ama hiltzen edo desagertzen denean.
- Emakumea hiltzen edo desagertzen denean biktimatza hartzeko kontzeptua Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legean ageri da.

## INTIMITATERAKO ESKUBIDEA ETA KOMUNIKABIDEAK

### 3.3.3

Genero-indarkeriaren aurkako Lege Organikoan ez dago erreferentzia espliziturik genero-indarkeriako delituen biktimen intimitaterako eskubideen inguruan. Arauak aldaketa nabarrena ekarri zuen esparru sozialean, juridiko eta penalean, hezkuntzan eta lanean. Hainbat politika publiko biltzen ditu oso-osoko babesa emateko printzipioarekin lotuta; hala, prebentzio- eta erreakzio-estrategien baterako artikulazioko oharrak buru dituzten jardura publi-

40 Seme-alaba adindunak 1/2004 Legean biktimatza hartzen ez direnez, emakumearen kontrako indarkeria-auzitegiek ezin izango dute gertakari berri izan, eta espezializatu gabeko instrukzio-epaitegi batek izango du haien gaineko eskumena. Biktimaren Estatutuaren Lege berriarekin, seme-alaba adindunak biktima zuzenen kontzeptuaren barruan egongo lirateke.

koak sustatzera behartzen du, baita babesaren xedea lehentasunez lortzera ere. Hori dela eta, jarduerak aurreikusten ziren hainbat alorretan: hezkuntzan<sup>41</sup>, osasungintzan<sup>42</sup>, lanean eta gizarte-segurantz<sup>43</sup>, gizartean<sup>44</sup>, erakundeetan<sup>45</sup> eta gizarte-komunikabideetan<sup>46</sup>.

Arauaren II. kapituluak «**publizitateari eta gizarte-komunikabideei**» buruz jarduten du, eta komunikabideei egiteko garrantzitsua ematen die emakumearen irudia laidoz edo diskriminazioz baliatzea galarazteko, eta derrigortzen ditu beharrezko neurriak hartzera, Konstituzioko printzipioen eta balioen arabera tratamendua ziurtatzeko.

Arreta berezia ipintzen zaio komunikabideek kasuan kasuko informazio-objektibotasunez jarduteko beharrari, bai eta indarkeriaren biktima diren emakumeen eta euren seme-alaben giza eskubideak, askatasuna eta duintasuna defendatzeari ere.

Arauk ez du modu espezifikoan aurreikusten genero-indarkeriaren biktimen intimitaterako eskubidea, eta ez dio aipamen berezirik egiten. «Giza eskubideak defendatzeari» halako erreferentzia orokor bat egiten dio, eta, gaur egun, garbi dago erregulazio eskasa dela.

Genero-indarkeriaren biktimen intimitaterako eskubidea babesteko beharrianari, agian, hogeigarren xedapen gehigarrian egiten zaio keinutxo bat; izan ere, aipatzen du abizenak aldatzeko aukera dela, eskatzailea «genero-indarkeriaren objektu» denean. Neurri horrekin, alde batetik biktimen osotasuna bila daiteke, babestutako lekukoentzat ezarritako moduko zaintza-neurriak eskatzen dituzten kasuei begira, edota baita (eta zergatik ez) anonimotasuna nahi duten biktimak babesteko ere.

Ahots ugari eskatu du 1/2004 Legea aldatzeko, hamar urte indarrean egon ondoren, eta ez kritika gutxirekin, gainera. Agian ezinbestekoa litzateke erregulazio espezifikoago bat aurreikustea biktimen anonimotasunari dagokionez.

---

41 Esleitutako helburuen artean honako hauek topatzen ditugu: oinarrizko eskubideen eta askatasunen errespetuan eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean hezte, edota tolerantzia eta askatasunean bizitzea, elkarbizitzako printzipio demokratikoen barruan. Hezkuntza-sistemaren kalitate-printzipioen artean txertatuko dira gizonen eta emakumeen arteko berdintasun osorako oztopoak ezabatzea eta gatazkak prebenitzeko eta gatazkek modu bake-tsuan konpontzeko trebakuntza. (4.1. artikulua.)

42 Aurreikusten da, era berean, osasun-administrazioek genero-indarkeria garaiz hautemateko jarduerak sustatzea. Helburu hori betetze aldera, osasungintzako langileak sentsibilizatzeko eta etengabe trebatzeko programak garatuko dira, eta osasun-profesionalen lizentziaturen eta diplomaturen curriculumetan genero-indarkeriako biktimak garaiz hautemateko, esku-hartzeko eta laguntzeko gaikuntza eskainiko duten edukiak emango. (15. artikulua.)

43 Laneko eta gizarte-segurantzako esparruetan eskubide espezifikoak daude aitortuta, eta enplegu-programa jakinak prestatuko dira. (21. eta 22. artikulua.)

44 Genero-indarkeriako biktimei arretarako gizarte-zerbitzuak, larrialdi-zerbitzuak, eta osoko babes eta leheneratzea jasotzeko eskubideak aitortuko zaizkie. Zerbitzuon antolaketa honako printzipio hauetara egokituko da: etengabeko arreta, premiaz jardutea, prestazioen espezialitatea eta diziplina profesionalen aniztasuna. (19. artikulua.)

45 Lankidetzaren planak prestatzea aurreikusten da, genero-indarkeriako egintzak prebenitzeko, artatzeko eta jazartzeko lanean aginte publikoen jarduketak antolatzea bermatzeko; hala, osasun- eta justizia-administrazioa, segurtasun-indar eta -kidegoak, gizarte-zerbitzuak eta berdintasun-erakundeak inplikatu beharko dituzte. (32.1. artikulua.)

46 Administrazio publikoek zainduko dute legea zorrotz betetzen dela oinarrizko eskubideak babesteari eta zaintzeari dagokionez, eta arreta berezia ipiniko diote emakumeen desberdintasun-egoerak elikatzen dituzten jarrerak desagerrarazteari gizarte-komunikabideetatik, indarrean den legediaren arabera. (13.1 artikulua.) Administrazio publikoak, halaber, autorregulazio-hitzarmenak sustatuko ditu, kontrobertsien kasuan prebentzio-kontrolako eta ebazpen estrajudizialeko mekanismo eginkorrekin, publikitatearekin lotutako legedia betetzen laguntzeko. (13.2. artikulua.)

## 17. FUNTSEZKO IDEIAK

- Genero-indarkeriaren aurkako Lege Organikoak ez du genero-indarkeriako biktimen intimitaterako eskubidearen babes espezifikorik aurreikusten, ez biktima zuzenena, ez zeharkakoena.
- Komunikabideei oinarrizko egitekoa ematen die emakumearen irudia laidoz edo diskriminazioz baliatzea prebenitzeko, eta dagozkion neurriak hartzera obligatzen ditu.
- Ez dago berariazko erregulaziorik, komunikabideetan, albisteen edukiarekin loturik, sor litekeen bigarren mailako biktimizazioa galarazteko.
- Ezinbestekoa da Genero-indarkeriaren aurkako Lege Organikoa berriro formulatzea, aldatzea.

### ONDORIO GISA

## 3.3.4

Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko 1/2004 Lege Organikoaren 1.2 artikuluari uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak egindako aldaketak berrikuntza esanguratsu bat txertatzen du genero-indarkeriaren biktimak nor diren zehazteko garaian.

Hala, genero-indarkeriaren biktima izango dira, emakumeaz gain, haren seme-alaba adingabeak, baita haren babes edo zaintzapean bizi direnak ere. Hartara, lege berezi baten modura, delituen biktimen kontzeptuaren desplazamendu bat txertatzen da Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legearen 2. artikuluan (14/2015 Legea).

Genero-indarkeriako delituetan, biktima zuzenak emakumeak izaten dira, baita haien seme-alaba adingabeak eta babes edo zaintzapean dituzten adingabeak ere. Horrez gain, emakumearen heriotza edo desagertze kasuetan, zeharkako biktimatzat hartuko dira emakumearen gainerako seme-alaba adindunak, baita Estatutuaren 2. artikuluan zehaztutako senideak ere.

Intimitaterako eskubideari dagokionez, 1/2004 Legeak ez du aipamen espezifikorik egiten eskubide hura babesteari inguruan, genero-indarkeriako biktimen kasuan. Haren babesa, horrenbestez, Delituaren Biktimaren Estatutuaren (14/2015 Legea) baldintza orokorretara atxikita geratuko da. Hala dagokionean, abizenak aldatzera jo daiteke, eskatzailea genero-indarkeriako objektu denean, anonimotasuna zaintzeko erremedio gisa, eta, ondorioz, intimitaterako eskubidea babesteko, biktima zuzenean zein zeharka identifikatzeko bidea egin dezakeen edozer informazio babesteari dagokionez.

Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoari buruz jarduteak badu interes berezi bat (*Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea zati batean aldarazi dituena*); hain zuzen ere, genero-indarkeriako egintza baten ondorioz hildako emakume batek izan litzakeen seme-alaba adingabeen biktima estatusa dela-eta. Jurisprudentziari buruzko atalean egiaztatuko dugunez, guraso bati buruzko informazio jakin batzuk zabalzteak seme-alaben intimitaterako eskubidea urra dezake<sup>47</sup>.

Alde horretatik, Auzitegi Gorenaren 456/2009 epaiak ezarritakoa kontuan izatea komeni da. Ebazpenak azaltzen duenez, torero batekin lotutako auzi jakin batzuk zabalzteak (fideltasun-eza, esaterako), haren intimitaterako eskubidea urratzeaz gain, alabarena ere urratzen du, eta, aurrerago xehetasunez aztertuko dugun Konstituzio Auzitegiaren 231/1988 epaia aitatzu, bake-doktrina dela baieztatzen du:

*«... Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, norberaren bizitza pertsonaleko alderdietara ez ezik, lotura berezia eta estua duten beste pertsona batzuen bizitzetako alderdi jakin batzuetara ere zabalduko da, hala nola familia-ingurura; alderdi horiek, euren artean den lotura edo harremana dela eta, gizabanakoaren pertsonalitatearen esferan eragiten dute, zeinaren eskubideak Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua babesten baititu. Zalantzarik gabe, ezinbestekoa izango da kasu guztietan aztertzea zer gertaerari buruz ari garen eta zer loturak elkartzen dituen delako pertsona horiek; baina, gutxienez, ezin daiteke zalantzan ipini gurasoei, ezkontideei edota seme-alabei gertatu ahal zaizkien hainbat gertaerak, gure gizartearen irizpide kulturaren baitan, gizabanakoarentzat halako garrantzia dutela, non behar ez bezala zabalzteak edo publikitatea egiteak pertsonalitatearen esferan eragiten baituen zeharka. Horrenbestez, bada auzi horren inguruan intimitaterako eskubide bat (propioa, ez besterena), Konstituzioz babes daitekeena».*

Horrenbestez, genero-indarkeriako testuinguru batean hildako emakumeak seme-alaba adingabeak izanez gero (maiz gertatzen dira halakoak), azken horien intimitaterako eskubidea kontuan izan beharko da, eta, zehazki, adingabe izateagatik babes berezia (Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, «superbabesa») ematen dien araudia, euren intimitaterako eskubidearen eraso posibleen aurrean.

1/1996 Lege Organikoa aztertu aurretik, komeni da *Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioaren* 16. artikulua eta Espainiako Konstituzioaren 20.4 artikulua kontuan hartzea. *Haurraren eskubideei buruzko Konbentzioari* dagokionez (Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onartua eta Espainiak 1990eko azaroaren 30ean berretsia), 16. artikulua honako hau dio:

## 16. artikulua

*«1. Hurrek ez dute nozituko nahierarako edo legearen aurkako esku-sartzerik euren bizitza pribatuan, familian, egoitzan edo korrespondentzian, ezta euren ohorearen eta izen onaren aurkako erasorik ere, halakoak legearen aurkakoak direnean.»*

47 Tankera berekoak dira hauek ere: CABALLERO GEA, J.A., *Derecho al Honor, a la Intimidad Personal y Familiar y a la Propia Imagen; Derecho de Rectificación; Calumnia e Injuría*, Dykinson, Madril, 2007, 318-319 or.; CONDE ORTIZ, C., *La Protección de datos personales*, cit., 23. or.; HERRÁN ORTIZ, A.I., *El derecho a la intimidad*, cit., 34 or.

*2. Hurrek eskubidea dute, legearen babesaren izateko halako esku-sartze edo erasoaren aurka.»*

Espainiako Konstituzioari dagokionez, 20.4 artikulua arabera, adierazpen- eta informazio-askatasunerako eskubideen muga izango dira «*titulu honetan aitortutako eskubideen errespetua, eskubideok garatzen dituzten manuak, eta, bereziki, ohorerako, bizitza pribaturako eta norberaren irudirako eskubideak, bai eta gazteak eta haurrak babestekoa ere*».

Pertsona ororen intimitaterako eskubidearen mugaz gain, Espainiako Konstituzioak berariaz aipatzen du gazteen eta haurren babesaren; hortik ondoriozta dezakegu, adingabe baten intimitaterako eskubidearen eta adierazpen- edo informazio-eskubidearen artean gatazka bat gertatzen denean, bi eskubideen arteko haztapena ezin dela helduen kasuan bezala alderatu; izan ere, adierazpen- edo informazio-askatasunak oso «erlatibizatuta» geratu behar du kasu horietan<sup>48</sup>.

1/1996 Lege Organikora bueltatuta, laugarren artikulua aipatu behar dugu:

#### **4 artikulua. Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea**

*«1. Adingabeek ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta bakoitzaren irudirako eskubidea dute. Eskubide honek, halaber, familiaren egoitzaren eta korrespondentziaren bortxazintasuna ere biltzen du, baita komunikazioen sekretua ere.*

*2. Fiskaltzak esku hartuko du komunikabideetan adingabeei buruzko informazioa zabaltzen bada, edo haien izenak edo irudiak erabiltzen badira, eta ikusten badu erabilera hori haien intimitate, ohore eta duintasunaren aurkakoa izan daitekeela edota haien interesen kontrakoa dela. Horrelakoetan, orduan, Fiskaltzak Legean aurreikusitako kautela- eta babes-neurriak eskatuko ditu berehala eta, hala bada-gokio, sortutako kalteen ordainak ere bai.*

*3. Adingabearen ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubideetan intromisio ez-legitimotzat hartuko da komunikabideetan haren izena edo irudia baliatzea, ohorean edo ospean gutxiestea eragiten duenean edota haren interesen kontrakoa denean, adingabearen edo haren legezko ordezkariaren baimena izanda ere.*

*4. Adingabearen legezko ordezkariak titular diren ekintzei kalterik egin gabe, Fiskaltzari egokituko zaio bati haien jarduna; ofizioz edo adingabeak berak eskatuta jardun ahal izango du, baita beste edozer pertsona interesdunek eskatuta ere, dela fisikoa, juridikoa edo entitate publikoa.*

*5. Gurasoek, tutoreek eta botere publikoek errespetatu egingo dituzte eskubide horiek, eta babestu ere bai hirugarrenek egin ahal dizkieten erasoetatik.»*

Aipatutako arauak adingabeei ematen dien babes berezia oinarri hartuta, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak «*superbabeserako*» eremu bat ezarri du, horiek inplikaturaren kasuetarako, «*kontu handia izatera behartzen duena haiei buruz ematen den informazioari dagokionez, nahiz eta informazio horrek interes publikoa izan*»<sup>49</sup>. Konstituzio Auzitegiaren 134/1999 auzia aipatuz, baieztatzen du adingabe baten interes legitimoak, beraren edo haren familiaren datuak kaleratu ez daitezela, «*nolabait ere muga gaindiezin bat ezartzen diela*

48 CABALLERO GEA, J.A., *Derecho al Honor, cit.*, 318-319 or.

49 Ikus Auzitegi Gorenari buruzko atala, bereziki Auzitegi Gorenaren 996/2008, 1003/2008, 185/2009 eta 354/2009 epaiak, guztiak ere hainbat komunikabideetan gertakari bera zabaltzeari buruzkoak (abokatu madrildar baten hilketa eta haren bi alaben kontrako lesioak, haietako bati egindako sexu-erasoak barne).

*adierazpen-askatasunari zein informazio egiazkoa modu askean komunikatzeko oinarrizko eskubideari, emandako informazioaren egiazkotasun horrek erantzukizunik kendu gabe komunikabideari, bi adingabeen bizitza pribatuan sartu izanagatik».*

Kontuan izan behar da Konstituzio Auzitegiaren zein Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak, adingabe baten bizitza pertsonalari ez ezik familia-bizitzari ere egiten diola erreferentzia; hori dela eta, kontu handia izateko beharrak familia-intimitaterako eskubidea urra dezakeen informazioa ere hartzen du barnean.

Horrexegatik izan behar da kontuan adingabe baten intimitaterako eskubidearen (pertsonala zein familiakoa) «superbabesa» genero-indarkeriako testuinguru batean hildako emakume baten informazioak zabaltzean, emakume horrek seme-alaba adingabeak dituenen.

## 18. FUNTSEZKO IDEIAK

- Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, norberaren bizitza pertsonaleko alderdietara ez ezik, lotura berezia eta estua den beste pertsona batzuen bizitzetako alderdi jakin batzuetara ere zabalduko da, hala nola senideena.
- **Gurasoei, ezkontideei edota seme-alabei gertatu ahal zaizkien gertaerak, gure gizartearen irizpide kulturaren baitan, gizabanakoarentzat halako garrantzia dute, non behar ez bezala zabaltzeak edo publizitatea egiteak pertsonalitatearen esferan eragiten baitu zeharka.** Horrenbestez, bada auzi horren inguruan **intimitaterako eskubide bat (propioa, ez besterena)**, Konstituzioz babes daitekeena.
- Adingabe baten interes legitimoak, beraren edo haren familiaren datuak kaleratu ez daitezen, *«nolabait ere muga gaindiezin bat ezartzen die adierazpen-askatasunari zein informazio egiazkoa modu askean komunikatzeko oinarrizko eskubideari, emandako informazioaren egiazkotasun horrek erantzukizunik kendu gabe komunikabideari, bi adingabeen bizitza pribatuan sartu izanagatik».*

**15/1999 LEGE  
ORGANIKOA, DATU  
PERTSONALAK  
BABESTEKOA**

# 3.5

Aurreratu dugun moduan, atal honetan intimitaterako eskubidearen eta datuak babesteko eskubidearen arteko aldeak azalduko ditugu, eta, hala, ulertu ahal izango dugu zergatik jurisprudentziak eta doktrinak intimitatearen kontzeptua aipatzen duten (zehazki, intimitatearen balizko urraketa) komunikabideek informazio jakin batzuk ematen dituztenean.

Datu pertsonalak babesteko eskubidearen autonomiari buruz edota intimitaterako eskubidearen mendeko ote den hasieran eztabaidatu badugu ere<sup>50</sup>, Konstituzio Auzitegiaren 292/2000 epaiak baieztatu zuen eskubide autonomoa dela, Konstituzioaren 18.4 artikuluan oinarri hartuta. Hala, bi eskubideen artean lotura ukaezinak izan arren, intimitaterako eskubidea eta datu pertsonalak babestekoa desberdinak dira funtzioari, edukiari eta babes-xedeari dagokienez<sup>51</sup>. Aipatutako epaiaren bosgarren oinarri juridikoak honako hau dio:

«...Auzitegiak dagoeneko adierazi duenez, **Espainiako Konstituzioaren 18.4 artikulua**, Konstituzio Auzitegiaren 254/1993 epaiaren baldintzetan, intimitaterako eta ohorerako eskubideak bermatzeko institutu bat eta herritarren gainerako eskubideak erabat gozatzekoa ditu, eta, gainera, **“eskubide edo askatasun oinarrizko bat” da izatez, askatasunerako eskubidea pertsonaren duintasunaren eta askatasunaren aurkako eraso potentzialen, datuen erabilera mekaniko ez-legitimotik eratorrien, aurrean, zeinari Espainiako Konstituzioak «informatika» deitzen baition, hau da, «askatasun informatikoa»**<sup>52</sup>.

Espainiako Konstituzioaren 18.4 artikuluan funtsatutako oinarrizko eskubide berri honen beharra, norainokoa eta edukia ulertu ahal izateko, kontuan izan behar da garapen informatikoak datu pertsonalak modu mugagabeen metatzea baimendu zuela, eta horrek pertsona baten bizitzaren eta portaeraren alderdi askotarikoak ezagutzea eragiten duela, datu horiek bata besterekin gurutzatzen direnean (horien ezagutza antolatuak, delako gizabanakoaren profila marrazten uzten du)<sup>53</sup>. Horren arrazoia zera da, itxuraz garrantzirik ez duten datu pertsonalak gizabanako baten portaerari eta pertsonalitateari buruzko informazio garrantzitsu bilakatzen direla, egokiro gurutzatzen edo elkartzen direnean<sup>54</sup>.

Informazio pertsonala erregistratzeko eta tratatzeko bitarteko berrien aurrean, gizabanakoaren bizitza pribatua are eta hauskorrago egiten zela ikusirik, ezinbestekoa zen konponbide juridiko bat *ad hoc* sortzea; izan ere, intimitaterako eskubideak ez du behar beste babes eskaintzen datu pertsonalak modu automatizatuan tratatzeko jardunbide ez-bidezkoen aurrean, datu intimoetara mugatzen den aldetik<sup>55</sup>.

Hala, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, intimitaterako eskubidearen egitekoa gizabanakoari bere bizitzako esparru erreserbatu bat bermatzea izango da (pertsona gisa duen duintasunarekin loturik), eta datu pertsonalak besteko eskubideak, berriz, pertsonari bere datu pertsonalen gaineko ahala bermatu nahi dio<sup>56</sup>.

Bi eskubideen edukiari erreparatzen badiogu, berriz, intimitaterako eskubideak hirugarrenei abstentzioko edo intromisiorik ez egiteko betebeharra ezartzen die; datu pertsonalak babesteko eskubideari dagokionez, aldiz, delako pertsonak aukeran izango du bere datu pertsonalak tratatzeko baimena ematea ala ez (finean, datu pertsonalei buruzko kontrola)<sup>57</sup>.

---

50 HERNÁNDEZ LÓPEZ, J.M., *El Derecho a la Protección de Datos Personales en la Doctrina del Tribunal Constitucional*, Aranzadi, Nafarroa, 2013, 29. or.

51 HERNÁNDEZ LÓPEZ, J.M., *El Derecho a la Protección*, cit., 32. or.

52 (6. oinarria, ondoren honako epai hauetan berretsia: Konstituzio Auzitegiaren 143/1994 epaia, 7. oinarria; 11/1998, 4. oinarria; 94/1998, 6. oinarria; 202/1999, 2. oinarria). (...).

53 HERNÁNDEZ LÓPEZ, J.M., *El Derecho a la Protección*, cit., 27. or.; HERRÁN ORTIZ, A.I., *El derecho a la intimidad*, cit., 25 eta 58 or.

54 HERRÁN ORTIZ, A.I., *El derecho a la intimidad*, cit., 59. or.

55 HERNÁNDEZ LÓPEZ, J.M., *El Derecho a la Protección*, cit., 28-29 or.; HERRÁN ORTIZ, A.I., *El derecho a la intimidad*, cit., 60-62 or.

56 HERNÁNDEZ LÓPEZ, J.M., *El Derecho a la Protección*, cit., 32-33 or.; HERRÁN ORTIZ, A.I., *El derecho a la intimidad*, cit., 110. or. Ikus Konstituzio Auzitegiaren 292/2000 epaiaren 6. oinarri juridikoa.

57 HERNÁNDEZ LÓPEZ, J.M., *El Derecho a la Protección*, cit., 32-33 or.; HERRÁN ORTIZ, A.I., *El derecho a la intimidad*, cit., 110. or. Ikus Konstituzio Auzitegiaren 292/2000 epaiaren 6-7 oinarri juridikoak.



Azkenik, babesteko objektuari dagokionez, datu pertsonalak babesteko eskubideak edozer tankeratako datu pertsonalak babesten ditu, intimoak ala ez; intimitaterako eskubideak, berriz, bizitza pribatuko edo familia-bizitzako datuak bakarrik babesten ditu (datu sentikorrak)<sup>58</sup>.

Kontuan izan behar dugu datu pertsonalak babesteko eskubideak (askatasun informatikoa edo *habeas data* izenez ere ezagutzen dena) automatikoki edo mekanikoki tratatuko diren datu pertsonalen gaineko kontrol-ahalari egiten diola erreferentzia. «*Askatasunerako eskubidea, datuen tratamendu mekanizatuaren erabilera ez-legitimotik<sup>59</sup> eratorritako duintasunaren eta askatasunaren erasoan aurrean, Konstituzioak "informatika" deitzen duena (...). Hala, "askatasun informatikoa" zera da, programa informatiko batean sartutako datuen erabilera norberak kontrolatzeko eskubidea (habeas data) eta, beste hainbat alderdiren artean, zera biltzen du, herritarrek aurka egin ahal izatea datu pertsonal jakin batzuk erabiltzeari, baldin eta datuak hasieran eskuratzeko erabilitako xederako ez den beste baterako erabili nahi baldin badira*».

Hori guztia dela eta, genero-indarkeriako testuinguru batean hildako emakume bati buruzko informazioa zabaltzen dutenean komunikabideek, garbi dago jokoan den eskubidea Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua babesten duen intimitaterako eskubidea dela (hala erakusten du, gainera, komunikabideek informazio jakin batzuk argitaratu dituzten kasuetan intimitaterako eskubidearen urraketa posiblei buruzko jurisprudentzia zabalak), eta ez Konstituzioaren 18.4 artikuluko datu pertsonalen babesa (15/1999 Lege Organikoak garrantua). Hori dela eta, lan honetan ez dugu aztertuko justizia-administrazioaren esparruan datu pertsonalak babesteko erregulazioaren azterketa (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 236 bis artikulua eta hurrengoak, uztailaren 15eko 7/2015 Lege Organikoak emandako zerrendan).

## 19. FUNTSEZKO IDEIAK

- Intimitaterako eskubidearen egitekoa gizabanakoari bere bizitzako esparru erreserbatu bat bermatzea izango da (pertsona gisa duen duintasunarekin loturik), eta datu pertsonalak besteko eskubideak, berriz, pertsonari bere datu pertsonalen gainean duen ahala bermatu nahi dio.
- Intimitaterako eskubideak abstentzioko edo intromisorik ez egiteko betebeharra ezartzen die hirugarrenei; datu pertsonalak babesteko eskubideari dagokionez, aldiz, delako pertsonak aukeran izango du datu bere pertsonalak tratatzeko baimena ematea ala ez (finean, datu pertsonalei buruzko kontrola).
- Komunikabideek emakume baten heriotzari buruzko informazioa zabaltzen dutenean (genero-indarkeriako testuinguru batean gertatua), intimitaterako eskubidea urratzen da.

58 HERNÁNDEZ LÓPEZ, J.M., *El Derecho a la Protección*, cit., 32-33 or.; HERRÁN ORTIZ, A.I., *El derecho a la intimidad*, cit., 110. or. Tankera berean, ikus GUTIÉRREZ ZARZA, A., *Nuevas tecnologías, protección de datos personales y proceso penal*, La Ley, Madril, 2012, 51-52. or.

59 Konstituzio Auzitegiaren 292/2000 epaia, bosgarren oinarri juridikoa.

**1/1982 LEGE ORGANIKOA,  
OHORERAKO, NORBERAREN  
ETA FAMILIAREN  
INTIMITATERAKO,  
ETA NORBERAREN  
IRUDIRAKO  
ESKUBIDEAREN  
BABES ZIBILARI  
BURUZKOA**

## 3.6

Auzi honekin lotutako araudia amaitzeko, ezinbestekoa da *Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzko Lege Organikoari* erreferentzia egitea (maiatzaren 5eko 1/1982), izan ere, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideak, Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua aitortuak, honela datoz zehaztuta Auzitegi Gorenaren 456/2009 epaian, bigarren oinarri juridikoan:

*«...Konstituzio Auzitegian babes-errekurtsioa ipintzeko aukera izanagatik ere, lehen-tasuneko babesa ahalbidetuko luketen eskubide publiko subjektiboak, 53.2 artikulua bidez ohiko auzitegi-tara joko luketenak, maiatzaren 5eko 1/82 Legeak babes-tuko lituzkeelarik bide zibilean eskubide horiek edozer intromisio ez-bidezkoetatik; arau horrek ukaezin, besterenduezin eta preskribaezintzat jotzen ditu eskubide horiek, eta baliogabetzat haiei ematen zaien babesari uko egitea, "Lege horren 2. artikulua aipatzen dituen baimenen kasuei kalterik egin gabe" eta kasu horretan, gainera, kontuan hartu beharko da, babesa nola mugatzen den ulertze aldera, babes horretarako, legeak ez ezik, kontuan hartuko dela, "nork bere egintzen arabera, berarentzat nahiz bere familiarentzat erreserbatzen duen esparrua ere" (2.1 artikulua)».*

Esandako Lege Organikoaren 7. artikulua aurreikusten ditu ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen intromisio ez-legitimotzat hartzen diren jarrerak.

### 7. artikulua

*«Lege honen 2. artikuluko babes-esparruan, bidegabeko esku-sartzeak izango dira:*

- 1. Edozein tokitan jartzea entzuteko edo filmatzeko aparatuak, gailu optikoak edo pertsonen bizitza intimoa grabatzeko nahiz erreproduzitzeko balio duten bideetatik beste edozein.*
- 2. Entzuteko aparatuak, gailu optikoak edo beste edozein bide erabiltzea, pertsonen bizitza intimoa ezagutzeko, edo bide horiek zein pertsonak erabili eta pertsona horrentzat ez diren adierazpen edo gutun pribatuak ezagutzeko, bai eta horiek grabatzea, erregistratzea edo erreproduzitzea ere.*
- 3. Pertsona edo familiaren bizitza pribatuari buruzko egitateak zabaltzea, egitate horiek eragina badute pertsona edo familia horren entzute eta izen onean, bai eta gutun, oroitzapenen edo intimitateari dagozkion beste idazki pertsonal batzuen berri ematea nahiz horiek argitaratzea ere.*
- 4. Pertsona edo familiaren datu pribatuak ezagutaraztea, baldin eta datu horiek ezagutu badira datuon berri ematen duen subjektuaren lanbide-jarduera edo jarduera ofiziala dela eta.*

*5. Norbaiten irudiak jasotzea, erreproduzitzea edo argitaratzea, argazki, film edo beste edozein prozeduraren bidez, pertsona horren bizitza pribatuko toki zein unean, edo horietatik kanpo, 8.2 artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.*

*6. Norbaiten izena, ahotsa edo irudia erabiltzea, publizitate-xedeetarako, merkataritza-xedeetarako edo antzeko xedeetarako.*

*7. Egitateak egozteak edo iritziak agertzea, beste pertsona baten duintasuna edozein modutan urratzen duten ekintza edo adierazpenen bidez, pertsona horren ospeari kalte eginez edo beraren estimuaren aurka eginez.*

*8. Kondenatuak zigor-arloko epai irmoan delitua nabaritasun publikoa edo onura ekonomikoa eskuratzeko erabiltzea, edota delitu-egitateei buruzko datu faltsuak zabaltzea, horrek biktimen duintasuna gutxiestea eragiten duenean».*

Era berean, garrantzi berezia du gure ikerketaren esparruan esandako Legearen 4.4 artikulua, 5/2010 Lege Organikoaren azken xedapenetatik bigarrenak txertatua:

#### **4. artikulua**

*«4. Zazpigarren artikuluko zortzigarren zenbakiak aipatzen duen delitu baten biktimen eskubideetan esku-sartze ez-legitimoa egiten duenean, egindako delituarekin mindutakoak edo kaltetutakoak babesteko ekintzak egikaritzeko legitimitatea izango du, zigor-arloko aurreko prozesuan akzio penala edo zibila egikarituta eduki ala ez. Era berean, Fiskaltzak ere beti izango du horretarako legitimitatea. Heriotza izanez gero, aurreko zenbakietan xedatutakoa hartuko da kontuan».*

Inolako zalantzarik gabe, Fiskaltzari egotzitako egitekoa, biktimen intimitaterako eskubidean sartzetik babestekoa, ezinbestekoa da hildako emakumeak zeharkako biktima gisa hartzeko moduko seniderik ez duenean.

## **20. FUNTSEZKO IDEIA**

- Fiskaltzari egotzitako egitekoa, biktimen intimitaterako eskubidean sartzetik babestekoa, ezinbestekoa da hildako emakumeak zeharkako biktima gisa hartzeko moduko seniderik ez duenean.



# 4

## **INFORMAZIO-ASKATASUNAREN ETA INTIMITATERAKO ESKUBIDEAREN ARTEKO GATAZKARI BURUZKO JURISPRUDENTZIA**



Hurrengo ataletan, aztertuko dugu zer-nola ebatzi izan duen jurisprudentziak intimitaterako eskubidearen eta informazio-askatasunaren arteko gatazka gure azterlanaren xede den kasuan, hain zuzen, emakume bat hiltzen dutenean genero-indarkeriako egintza baten ondorioz. Horretarako, honako organo hauen jurisprudentzia aztertuko dugu:

- 1) Giza Eskubideen Europako Auzitegia;
- 2) Europar Batasuneko Justizia Auzitegia;
- 3) Konstituzio Auzitegia;
- 4) Auzitegi Gorena;
- 5) Probintzia Auzitegiak.

## GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO AUZITEGIA

# 4.1

### ADIERAZPEN- ASKATASUNAREN FUNTZIO NUKLEARRA GIZARTE DEMOKRATIKO BATEAN

## 4.1.1

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hainbat eta hainbat kasutan defendatu du adierazpen-askatasunak gizarte demokratiko batean duen funtzio nuklearra, eta adierazi du askatasun horrek, balioespen positiboak edo kaltegarriak ez diren informazio eta ideiak defendatzeaz gain, bestelako batzuk ere defendatzen dituela. Hain zuzen ere, Auzitegiak gogoratzen duenez, «*adierazpen-askatasuna da gizarte demokratiko baten funtsezko oinarrietako bat eta aurrera egiteko eta garapena bermatzeko lehendabiziko baldintzetako bat*<sup>60</sup>». Hala, gaineratzen duenez, «*mesedegarritzat edo ez-kaltegarritzat hartzen diren aldeko "informazio" edo "ideietarako" ez ezik, talka egiten, mintzen edota ezinegona sortzen dutenetarako ere baliagarria da. Hala eskatzen du aniztasunak, tolerantziak eta irekiera-espírituak, horiek gabe ez baitago "gizarte demokratikorik"*». (Handyside Erresuma Batuaren aurka, 1976ko abenduaren 7ko epaia, A seriea, 24. zk., 23. or., 49. at.)

Kontuan izan behar da Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazpen-askatasuna modu zabalean erabiltzen duela, informazioak, ideiak edo balio-juzkuak biltzen dituen kontzeptu generiko gisa.

Aldiz, Konstituzio Auzitegiak argi bereizten du adierazpen-askatasuna, epaiak eta iritziak emateari erreferentzia egiten diona, eta informazio-askatasuna, gertakariak edo ekintzak zabaltzeari buruzkoa.

---

60 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia *Von Hannover Alemaniaren aurka* kasuan, (2004/06/24), 58. lerrokada.

lkerketa honen ardatza genero-indarkeriako delitu-gertakarietarako buruzko informazioak argitaratzea edo zabaltzea denez, informazio-askatasunerako eskubidea interesatzen zaigu hemen.

Edonola ere, atal honetan Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia aztertzen, adierazpen-askatasunerako eskubideari buruz jardungo dugu; izan ere, jurisprudentzia horrek ez dio erreferentzia egiten informaziorako eskubideari espezifikoki eta, aurreratu dugun moduan, adierazpen-askatasunaren kontzeptu generikoa baliatzen du.

Puntu hori argitu ostean, adierazpen-askatasunak gizarte demokratiko batean betetzen duen rol garrantzitsura itzulita, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hainbat eta hainbat kasutan nabarmendu du prentsaren garrantzia<sup>61</sup>. Zehazki, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hainbat aldiz errepikatu du prentsak «txakur zaindari» edo «begi publiko» gisa duen rol ezinbestekoa interes orokorreko auzien inguruan; horietan, izan ere, prentsak informazioa zabaltzeko duen funtzioaz gain, herritarrek informazio hori jasotzeko duten eskubidea ere jokoan dago.

**«Prentsak egiteko garrantzitsua du gizarte demokratiko batean: nahiz eta muga jakin batzuk ez dituen gainditu behar, bereziki besteren izen onaren eta informazio konfidentzialak zabaltzea galarazteko obligazioaren aldetik, bere egitekoa da, dena den, interes orokorreko auzi guztiei buruzko informazioak eta ideiak komunikatzea, betebherrak eta erantzukizunak errespetatuta<sup>62</sup>. Haren funtzioari gehitzen zaio, hortaz, publikoak informazio hori jasotzeko duen eskubidea. Bestela izango balitz, prentsak ezingo luke “txakur zaindariaren” rol ezinbestekoa<sup>63</sup>».**

## 21. FUNTSEZKO IDEIAK

- Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazpen-askatasuna modu zabalean erabiltzen du; informazioak, ideiak edo balio-juzkuak biltzen dituen kontzeptu generiko gisa.
- Espainiako Konstituzio Auzitegiak argi bereizten du adierazpen-askatasuna, epaiak eta iritzia emateari erreferentzia egiten diona, eta informazio-askatasuna, gertakariak edo ekintzak zabaltzeari buruzkoa.
- Prentsak «txakur zaindari» edo «begi publiko» gisa rol ezinbestekoa betetzen du interes orokorreko auzien inguruan.
- Prentsak ez ditu muga jakin batzuk gainditu behar, bereziki besteren izen onaren eta informazio konfidentzialak zabaltzea galarazteko obligazioaren aldetik.

61 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Godlevskiy Errusiaren aurka*, 2008/10/23, 40. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Axel Springer Alemaniaren aurka*, 2012/02/07, 79. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Thoma Luxenburgoren aurka*, 2011/03/29, 45. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Van Hannover Alemaniaren aurka*, 2004/06/24, 58. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Van Hannover Alemaniaren aurka*, 2012/02/07, 102. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Rothe Austriaren aurka*, 2012/12/04, 45. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Pinto Coelho Portugalen aurka*, 2011/06/28, 32. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Couderc et Hachette Filipacchi Associés Frantziaren aurka*, 2014/06/12, 42. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Mosley Erresuma Batuen aurka*, 2011/05/10. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Ageyevy Errusiaren aurka*, 2013/04/18.

62 (*De Haes eta Gijssels Belgikaren aurka*, 1997ko otsailaren 24ko epaia, Epaien eta ebazpenen erreperitorioa 1997-I, 233-234 or., 37. at.)

63 (Ikus honako bi epai hauek: *Thorgeir Thorgeirson Islandiaren aurka*, 1992ko ekainaren 25eko, A seriea, 239. zk., 28. or., 63. at.; eta *Bladet Tromsø eta Stensaas Norvegiaren aurka* [GS], 21980/1993 zk., 1999-III erreperitorioa, 62. atala).



Komunikabideek eta adierazpen-askatasunak gizarte demokratiko batean garrantzia izanagatik ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hauxe ohartarazi du: «*Adierazpen-askatasuna egikaritzeak "beharrak eta erantzukizunak" ditu, baita komunikabideentzat ere, nahiz eta hainbat kasuk interes orokor nabarmena izan*», bereziki besteren izen ona edo eskubideak jokoan direnean<sup>64</sup>.

Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 10.2 artikulua berak adierazpen-askatasuna mugatzeko aukera aurreikusten du. Horretarako, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak aplikatutako eta garatutako hiru baldintza aipatzen ditu artikuluko horrek:

- 1) intromisioa legez aurreikusita egotea;
- 2) Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 10.2 artikuluan aurreikusitako xede legitimoetaren bat edukitzea (horien artean, besteren izen ona eta eskubideak babestea); eta
- 3) gizarte demokratiko batean beharrezkoa den intromisio bat izatea<sup>65</sup>.

Hirugarren baldintza betetzen den ala ez zehazteak ematen ditu arazorik handienak.

Jurisprudentziari dagokionez, hainbat irizpide jasotzen dira; hain zuzen ere, erabakitze adierazpen-askatasunerako eskubidean sartzeari ezinbestekoa den gizarte demokratiko batean<sup>66</sup>, honako hiru puntu hauek balioetsita:

- «*gatazkan den injerentziak "gizartearen behar harmoniatsu" bati erantzuten zion;*
- *lortu nahi diren helburu bidezkoekin proportzionala ote den ala ez;*
- *agintari nazionalak hura justifikatzeko emandako arrazoiak "egoki eta nahikoa" ote ziren*»<sup>67</sup>.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak argi utzi nahi izan du Estatuko agintariak nolabaiteko irizte-marjina dutela gizarte demokratiko batean esku hartzeko beharrezkoa balioesteko garaian; nolabait ere den, auzitegiak baieztatu du marjina hori ez dela mugagabea, baizik eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak gainbegiratu beharrezkoa<sup>68</sup>.

Besteren izen ona babesteko adierazpen-askatasunerako eskubidean sartzeko beharrezko buruzko erabaki behar den kasuetara bueltatuta (azaldu dugun moduan, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua mende dago, bizitza pribatuko elementu den al-

64 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Axel Springer Alemaniaren aurka*, 2012/02/07, 82. paragrafoa; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Couderc et Hachette Filipacchi Associés Frantziaren aurka*, 2014/06/12, 43. paragrafoa.

65 Ikus Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Axel Springer AG Alemaniaren aurka*, 2012/02/07, 76-77. lerrokadak. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Markt Intern Verlag GmbH eta Klaus Beermann Alemaniaren aurka*, 1989/11/20, 11. lerrokada; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Pinto Coelho Portugalen aurka*, 2011/06/28, 28. lerrokada et seq.; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Z Finlandiaren aurka*, 1997/02/25, 73. lerrokada et seq.; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Godlevskiy Errusiaren aurka*, 2008/10/23, 38. lerrokada.

66 Ikus Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Pinto Coelho Portugalen aurka*, 2011/06/28, 34. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Godlevskiy Errusiaren aurka*, 2008/10/23, 39. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Thoma Luxenburgoren aurka*, 2011/03/29, 48-49. lerrokadak. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Rothe Austriaren aurka*, 2012/12/04, 48. lerrokada.

67 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Pinto Coelho Portugalen aurka* (2011/06/28).

68 Ikus Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Godlevskiy Errusiaren aurka*, 2008/10/23, 39. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Thoma Luxenburgoren aurka*, 2011/03/29, 49. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Rothe Austriaren aurka*, 2012/12/04, 48. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Couderc et Hachette Filipacchi Associés Frantziaren aurka*, 2014/06/12, 47-48. lerrokadak.

detik<sup>69</sup>), Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hainbat irizpide espezifiko ezarri ditu adierazpen-askatasunerako eskubidearen (Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 10. artikulua) eta bizitza pribaturako eskubidearen artean (Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua). Hauexek dira:

1. interes orokorreko eztabaida batera eginiko ekarpena;
2. aipatutako pertsonaren nabaritasuna eta erreportajearen xedea;
3. delako pertsonaren aurreko portaera;
4. argitalpenaren edukia, forma eta oihartzuna;
5. Irudiak zer inguruabarretan hartu diren<sup>70</sup>.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak etengabe egiten dio erreferentzia albistearen interes orokorrari, eta horrek erakusten du zer-nolako garrantzia ematen dion auzitegi horrek lehendabiziko irizpideari. Auzitegiak dio elementu erabakigarria dela bizitza pribatua eta adierazpen askatasuna babesteko oreka ezartzean; aztertu behar da argitaratutako argazkiek eta artikuluek zer ekarpen egiten dioten interes orokorreko eztabaidari<sup>71</sup>.

Bide beretik, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hainbat epaitan adierazten duenez, interes orokorreko eztabaida bati ekarpena egiten dioten albisteen kasuan, marjina apala geratzen dela adierazpen-askatasunari mugak ezarri ahal izateko; hori dela eta, muga horiek ezartzeko pisuzko arrazoiak beharko dira<sup>72</sup>, auzitegiaren esanetan.

Aurrerago aztertuko dugun Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzian bezalaxe, intimitate-rako eskubidean sartze bat bidezkoa izan dadin, beharrezkoa da, batetik, informazioa interes orokorrekoa izatea eta, bestetik, informazio hori egiazkoa izatea.

Horren adibide, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eskatzen du kazetariak fede onez jardutea, esaldi faktiko zehatz batekin, eta informazio fidagarria eta zehatza argitaratzea

interes orokorreko auziei buruzko informazioa zabaltzeko eskubidean babes hartu ahal izateko<sup>73</sup>.

Interes publikoaren irizpideari dagokionez, nabarmendu behar da Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak interes publikoko gaitzat hartzen dituela, beste hainbaten artean, justizia-auzitegien kasuak<sup>74</sup> eta etxeko indarkeriarekin lotutakoak<sup>75</sup>.

---

69 Ikus, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenari dagokion atala, hitzarmen horretako bizitza pribaturako eskubideari buruzko 8. artikuluko nozioa azaltzen duena Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzian.

70 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak (*Rothe Austriaren aurka*, 2012/12/04, 51. lerrokada), irudiak zer inguruabarretan hartu diren aipatzeaz gain, informazioa eskuratzeko modua eta haren egiazkotasuna ere kontuan hartzen ditu.

71 Hala adierazten du Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak *Von Hannover Alemaniaren aurka* kasuan, (2004/06/24), 76. lerrokada.

72 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Rothe Austriaren aurka*, 2012/12/04, 44. lerrokada; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Godlevskiy Errusiaren aurka*, 2008/10/23, 41. lerrokada; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Thoma Luxemburgoren aurka* kasua, 2011/03/29koa, 43. paragrafoa.

73 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Godlevskiy Errusiaren aurka*, 2008/10/23, 42. lerrokada; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Ageyevy Errusiaren aurka*, 2013/04/18koa, 226. paragrafoa. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak *Godlevskiy Errusiaren aurka* kasuaren (2008/10/23) epaiko 42. lerrokadan dioen moduan: «Gortearen jurisprudentziak behin eta berriz erabakitakoaren arabera, kazetariak interes orokorreko albisteak argitaratzeko duten eskubidea babesten du Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 10. artikulua, betiere fede onez jarduten badute, gertakariak egiazkoak badira, eta informazio "fidagarria eta zehatza" ematen badute, kazetaritzako etikarekin bat».

74 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Axel Springer Alemaniaren aurka*, 2012/02/07, 80. eta 96. lerrokadak. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Pinto Coelho Portugalen aurka*, 2011/06/28, 33. lerrokada. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Ageyevy Errusiaren aurka*, 2013/04/18koa, 225. paragrafoa.

75 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Ageyevy Errusiaren aurka*, 2013/04/18koa, 223. paragrafoa.

Alabaina, «*publiko zehatz baten jakin-mina pertsona baten bizitza pribatuko alderdietan sartuta ase nahi duten informazioei dagokienez, ez dute sorraraziko 10. artikulua berariaz prentsari aurreikusten dion babesa*»<sup>76</sup>.

Aurreko hori indartuz, Auzitegiak dio gertaera jakin bat interes orokorreko izateak ez duela esan nahi gertaera horrekin lotutako edozer xehetasunek interes orokor berbera dutenik. Horrenbestez, **artikuluaren mezu nagusia (interes orokorra pizten duena) eta artikulua jasotzen dituen xehetasunak** bereizten ditu; izan ere, xehetasunak ez dira interes orokorreko izango herritarrentzat, baldin eta albisteko protagonisten bizitza pribatuari buruzko auziak jorratzen badituzte.

Era berean, genero-indarkeriako testuinguruan hiltzen den emakume bati dagokion kasuan, nabarmena da mezu nagusia (emakumearen hilketa) interes orokorrekoa dela; hau da, gizarteak eskubidea du heriotza horren berri izateko, eta albiste hori zabaltzeak baliteke nolabaiteko prebentzio-lana egitea etorkizunera begira.

Nolanahi ere den, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren jurisprudentziaren ildotik, interes orokorreko gertakariari dagozkien informazio jakin batzuek (zehazki, biktimaren nor-tasuna eta haren identifikazioa zeharka ezagutaraztea baimentzen duten datuak) ez daukate garrantzi publikorik.

## 22. FUNTSEZKO IDEIAK

- Giza Eskubideen Europako Auzitegiak dioenez, elementu erabakigarria da aztertea argitaratutako argazkiek eta artikuluek zer ekarpen egiten dioten interes orokorreko eztabaidari, bizitza pribatua eta adierazpen askatasuna babesteko oreka ezartzean.
- Intimitaterako eskubidean sartze bat bidezkoa izan dadin, beharrezkoa da, bate-tik, informazioa interes orokorrekoa izatea eta, bestetik, informazio hori egiazkoa izatea.
- «*Publiko zehatz baten jakin-mina pertsona baten bizitza pribatuko alderdietan sartuta ase nahi duten*» informazioei dagokienez, «*ez dute sorraraziko 10. artikulua berariaz prentsari aurreikusten dion babesa*».
- Auzitegiak dio gertaera jakin bat interes orokorreko izateak ez duela esan nahi gertaera horrekin lotutako edozer xehetasunek interes orokor berbera izatea.

### INTERES OROKORREKO AUZIAN INPLIKATUTAKO PERTSONEN NORTASUNA ZABALTZEA

## 4.1.3

Interes orokorreko auzian inplikaturako izan diren pertsonak identifikatzeari edo indibidualizatzeari dagokionez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak, *Godlevs-*

<sup>76</sup> Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Mosley Erresuma Batuen aurka*, 2011/05/10. 114. lerrokada.

*ky Errusiaren aurka* auzian, iritzi dio poliziakide jakin batzuen kontrako zigor-arloko prozesu bati buruzko informazioa ez dela modu ez bidezkoan sartzen bitzta pribatuan, informazioan poliziakide horietako bat ere ez denean bere izenez edo beste inola identifikatzen<sup>77</sup>, erabat kontrajarrita zigor-arloko prozedura bat bere kontra abiarazita zeukan poliziakide baten izen osoa eman zen kasuarekin; azken hori, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aburuz, intromisio ez-legitimoa izan zen, irizita zabaldu nahi zen informazioak ez ziola ezer eskaintzen interes publikoari.

Era berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak dionez, nahiz eta delako informazio hori interes orokorrekoa izan, errekurtsogilearen nortasuna argitaratzea (kasu jakin horretan, akusatuaren bikotekidea) bitzta pribaturako eskubidean modu bidegabean sartzeari, ezin baitzen kontsideratu informazio hori zabaltzea Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8.2 artikuluan aurreikusitako helburu legitimoetarako babestuta zegoenik<sup>78</sup>.

Giza Eskubideen Europako Hitzarmenari buruzko atalean adierazi dugun moduan, izena nortasun pertsonalari dagokion alderdia da, bitzta pribatuaren kontzeptuak biltzen duena.

Baina ez da beharrezkoa subjektu jakin bat bere izenez identifikatzea haren bitzta pribaturako eskubidea urratu dela ulertzeko; izan ere, identifikagarri egiten duten beste datu batzuk zabaltzeak ere urra dezake esandako eskubidea<sup>79</sup>.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak arreta berezia ipini dio **delako pertsona bizi den udalerraren izena zabaltzeari**; hala, defendatu du herri batean bitziteak informazioa argitaratzearen inpaktua handitu egiten duela, pertsona hori bizilagunek ezagutzeko aukera handiagoa baita<sup>80</sup>. Era berean, arreta berezia ipini dio egunkaria Estatu osoan edo tokian-tokian argitaratzen den jakiteari<sup>81</sup>.

## ONDORIO GISA

### 4.1.4

Laburbilduz, *a priori* ezin dezakegu mugatu informaziorako eskubidea interes publikoko auzi baten aurrean, hala nola emakume bat bere bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hiltzen denean, genero-indarkeriako testuinguru batean. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak baieztatu duen moduan, ulertzen dugu izan litezkeela interes orokorreko gertakari batekin lotutako informazioak, interes orokor hori bera ez daukatenak.

Dagokigun kasuan, biktimaren identitateak edota identifikagarri egiten duten datuek ez daukate garrantzi publikorik; hori dela eta, datu horiek baztertu egin beharko liriateke albiste orotatik, bitzta pribaturako eskubidea babeste aldera. Eta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak ezarritakoarekin bat, hori ez litzateke Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 10. artikuluko adierazpen-askatasunerako eskubidean (lehen esan dugun moduan, informazio-askatasunerako eskubidea biltzen duena) modu bidegabean sartzeari.

77 Esandako epai horretan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ohartarazi zuen ez dela nahikoa uste pertsonal edo pertzepzio subjektibo hutsa, baizik eta ezinbestekoa dela, kasu konkretu bakoitzean, irakurleak ikusi ahal izatea delako informazio edo kritika horrek gizabanako bati egiten diola erreferentzia zuzenean.

78 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Z Finlandiaren aurka*, 1997/02/25, 78. eta 113. lerrokadak.

79 Ikus Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Godlevskiy Errusiaren aurka*, 2008/10/23, 43. lerrokada.

80 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Ageyevy Errusiaren aurka*, 2012/04/18koa, 216. paragrafoa.

81 Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, *Van Hannover Alemaniaren aurka*, 2012/02/07, 112. lerrokada.

## 23. FUNTSEZKO IDEIAK

- Nahiz eta adierazpen-askatasunak funtzio nuklearra duen gizarte demokratiko guztietan, ezar litzaizkioke mugak eskubide horri baldin eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 10.2 artikuluko baldintzak betetzen badira.
- Bizitza pribatuaren errespeturako eskubidean sartzea bidezkoa izan dadin, beharrezkoa da, batetik, informazioa interes orokorrekoa izatea eta, bestetik, informazio hori egiazkoa izatea.
- Hainbat eta hainbat kasutan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak baieztatu du interes orokorreko auzi batean inplikaturako pertsona bat zuzenean zein zeharka identifikatzea pertsona horren bizitza pribaturako eskubidean modu ez-legitimoan sartzea dela, nola eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8.2 artikuluan jasotako helbururen batek ez duen justifikatzen.
- Zalantzarik gabe, genero-indarkeriako ekintza baten ondorioz hildako emakume baten heriotza interes orokorreko informazioa da, baina, hori hala izangatik ere, biktimaren identitateak edota identifikagarri egiten duten datuek ez daukate garrantzi publikorik; hori dela eta, datu horiek baztertu egin beharko lirateke albiste orotatik, bizitza pribaturako eskubidea babeste aldera.

## EUOPAR BATASUNENKO JUSTIZIA AUZITEGIA

# 4.2

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak hainbatetan eman du datuen babesari buruzko epai-rik<sup>82</sup>. Ezin liteke gauza bera esan EBko Oinarriko Eskubideen Gutunaren 7. artikuluko jasotzen duen bizitza pribaturako eskubideari buruz.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegian, *Digital Rights Ireland*<sup>83</sup> izeneko kasuan, Alemaniako Konstituzio Auzitegiak galdetzen zuen 2006/24 Zuzentaraua bateragarria ote zen EBko Oinarriko Eskubideen Gutunarekin, pertsona kopuru mugagabe baten datu mota ugari biltegitratzea uzten baitzuen denbora-tarte zabal batean. Hala, Auzitegiak aztertu zuen ea Gutuneko 7. artikuluko intimitaterako eskubidea urratzen ote zuen, Gutuneko 8. artikuluko datuen babeserako eskubideari zegokionez.

Horren arrazoia zera, Auzitegiaren hitzetan, «*datu pertsonalen babesak, Gutunaren 8. artikuluko 1. zenbakian berariaz betetzeko gisa ezartzen denak (LCEur 2000, 3480), garrantzi berezia duela Gutunean bertan 7. artikuluan aitortutako bizitza pribaturako errespeturako eskubiderako*». Hori dela eta, Gutunaren 7. artikuluko intimitaterako eskubidea babesteak, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, eskatzen du datuak babesteko eskubideari ipinitako salbuespenak eta murrizketak gutxitzea, hertsia-hertsian behar den kasuetarako bakarrik.

82 (Esate baterako, honako kasu hauetan: *Lindqvist* (Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia, 2003/11/06koa) eta *Nikolau* (Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia, 2007/09/12koa.)

83 (C-293/12 auzia, 2014/04/08)

Hori esan ostean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ondorioztatzen du 2006/24 Zuzentzura injerentzia larria dela Gutunaren 7. eta 8. artikuluetan aurreikusitako oinarritzko eskubideetarako, ez baitu arau argi eta garbirik jasotzen delako neurriaren irismena eta aplikazioa arautzeko.

Gure ikerketarekin gehiago lotuta, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren McB kasuaren epaiak (C-400/10 PPU auzia, 2010/10/05) adierazten duenez, EBko Oinarritzko Eskubideen Gutunak, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean bermatutako eskubideak biltzen dituen heinean, «*eskubide horien zentzua eta irismena azken horrek emandako berberak*» izango dira, eta hori «*ez da izango oztopo Batasunaren Zuzenbideak babes zabalagoa emateko*».

Gutunaren 7. artikuluari berariaz erreferentzia eginez, zeinak norberaren eta familiaren bizitzarako eskubidea jasotzen baitu, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aipatutako epaiak adierazten du esandako artikulua zentzua Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8.1 artikulua ireldean doala, salbuespen batekin: «*korrespondentzia*» terminoa erabiltzen duela «*komunikazioak*» erabili beharrean. Horren ostean, amaitzen du esanez Gutunaren 7. artikulua Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8.1 artikulua bermatutako eskubide baliokideak biltzen dituela. Ondorioz, Gutunaren 7. artikulua Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8. artikulua 1. zenbakiak emandako zentzu eta irismen berbera eman behar zaio, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak interpretatzen duen moduan.

## 24. FUNTSEZKO IDEIAK

- EBko Oinarritzko Eskubideen Gutunaren 7. artikulua Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8.1 artikulua bermatutako eskubide baliokideak biltzen ditu.
- Horrenbestez, Gutunaren 7. artikulua Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8.1 artikulua eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren bide beretik interpretatu behar da.

## KONSTITUZIO-AUZITEGIA

# 4.3

Espaniako Konstituzioari buruzko atalean aztertu dugu konstituzio-jurisprudentzia, 18.1 artikuluko intimitaterako, ohorerako eta norberaren irudirako eskubideen desberdintasunei dagokienez. Hala, atal honetan, Konstituzio Auzitegiaren beste ebazpen batzuk aztertuko ditugu; hain zuzen ere, modu orokorrean informazio-askatasunaren eta intimitaterako eskubidearen arteko gatazka jorrotzen dutenak, eta, modu zehatzagoan, delitu-ekintzei buruzko informazioak modu askean komunikatzeko eskubidearen eta delituaren biktimak bere nortasuna isilpean edukitzeko duen eskubidearen arteko talka (azken hori, ikusiko dugunez, intimitaterako eskubideak babestuko luke).

Edonola ere, ebazpen horiek aztertu aurretik, komenigarria da azalpen labur bat ematea heriotzaren kasuan intimitaterako eskubidearen titulartasunari buruz; izan ere, ikerketa honen ardatza genero-indarkeriako ekintza baten ondorioz *hildako emakumeen eta haien senideen* anonimotasunerako eskubidea da.

## 4.3.1

Aurreratu dugun moduan, ikerketa honetan aztertzen ari garen problematikarekin loturik, galde dezakegu nor den intimitaterako eskubidearen titularra, hildako biktima edo haren senideak? Ezinbestekoa da Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara jotzea auzi hori joratu ahal izateko; edonola ere, ikusiko dugun moduan, bi norabideetan eman ditu epaiak.

Hala, Konstituzio Auzitegiaren 231/1988 epai ezagunean (*Paquirri* kasua), Konstituzio Auzitegiak baieztatu zuen, pertsonalitatearen eskubide diren aldetik, Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan aitortutako eskubideak ez daitezkeela izan babes-objektu babes-bidean **eskubidearen titularra hila bada**, ez balitzateke izango babestu beharreko bizi-esparrurik oinarrizko eskubidearen objektu gisa.

Hala, Auzitegiak ezartzen duenez, «*norberaren irudirako eta norberaren eta familiaren intimitaterako eskubideak, Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan aitortuak, norberaren pertsonalitatearekin hertsiki lotutako oinarrizko eskubide gisa ageri dira, inolako zalantzarik gabe Espainiako Konstituzioaren 10. artikulua aitortzen duen “pertsonaren duintasunetik” eratorrita, eta norberaren esparru erreserbatu bat inplikatzeko beste jardunaren eta ezagutzaren aurrean, beharrezkoa, gure kulturaren irizpideen arabera, giza bizitzaren gutxieneko kalitate bati eusteko. Halaxe ematen dira eskubide horiek, guztiz pertsonal gisa eta gizabanakoaren existentziari lotuta. (...) Hori bai, eskubide horien titularra hildakoan eta haren pertsonalitatea iraungitzean –Kode Zibilaren 32. artikulua ezartzen duen moduan: “Pertsonalitate zibila pertsonak hiltzean iraungi egiten da”–, logikoki desagertu egiten da konstituzio-babesaren xedea bera, zeina, esan dugun moduan, bizi-esparru erreserbatu bat bermatzera bideratuta baitago, heriotzarekin desagertzen den bizi-esparrua, alegia. Horrenbestez, babes zibileko ekintzei eutsiz gero (kasu honetan gertatzen den moduan, kalte-ordain bat eskuratzera bideratuta) guztiz pertsonala den eskubide horien titular ez diren hirugarrenen mesedetan, Konstituzio Auzitegiaren esku babes-errekurtsuaren bidez uzten diren oinarrizko eskubideen babes-eremutik kanpo geratzen da. Hori dela eta, bide honetan, Auzitegi honek ezin du konstituzio-dimentsiorik ez duten auziei buruzko irizpenik eman, eragindakoa hilda egonik; (...)».*

Nolanahi ere den, Konstituzio Auzitegiak alargunari legitimazioa aitortu zion behin eta berriz bere eskubide propioa eskatzeko, bere pertsonalitateari eratorria: familia-intimitatea, alegia.

Bere jarrerari buruzko argudioak emateko, Konstituzio Auzitegiak adierazi zuenez, hainbat senidek izaten dituzten gertaera jakin batzuek halako garrantzia izan dezakete gizakiarentzat, non gertakariaren publizitatea edo difusioa egiteak pertsonalitatearen esferan bertan eragin baitezake, eta, ondorioz, intimitaterako eskubide propioa (eta ez besterena) urratu<sup>84</sup>.

Hala, «*norberaren eta familiaren intimitaterako eskubideak deitzen direnean eta haien titular berariazkoa hildakoa ez denean baizik eta, generikoki, haren familia denean, “saminean eta intimitatean” eta, zehazkiago esanda, haren alarguna, gaur demanda ipintzen duena, Isabel P.M (...) andrea, berresten dugu intimitate hori ez dela eragindakoarena bakarrik, baizik eta, oihartzun morala dela eta, senideen eskubidea ere badela».*

---

84 Ikus, halaber, CABALLERO GEA, J.A., *Derecho al Honor, a la Intimidad Personal y Familiar y a la Propia Imagen; Derecho de Rectificación; Calumnia e Injuría*, Dykinson, Madrid, 2007, 23. or.; HERRÁN ORTIZ, A.I., *El derecho a la intimidad*, cit., 34. or.

*«Bada, hortaz, baldintza horietan ulertu behar da printzipioz behinik behin norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, norberaren bizitza pertsonaleko alderdietara ez ezik, lotura berezia eta estua den beste pertsona batzuen bizitzetako alderdi jakin batzuetara ere zabalduko dela, hala nola senideena; alderdi horiek, euren artean den lotura edo harremana dela eta, gizabanakoaren pertsonalitatearen esferan eragiten dute, zeinaren eskubideak Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua babesten baititu. Zalantzarik gabe, ezinbestekoa izango da kasu guztietan aztertzea zer gertaerari buruz ari garen eta zer loturak elkartzen dituen delako pertsona horiek; baina, gutxienez, ezin daiteke zalantzan ipini gurasoei, ezkontideei edota seme-alabei gertatu ahal zaizkien hainbat gertaerak, gure gizartearen irizpide kulturaren baitan, gizabanakoarentzat halako garrantzia dutela, non behar ez bezala zabaltzeak edo publizitatea egiteak pertsonalitatearen esferan eragiten baituen zeharka. Horrenbestez, bada auzi horren inguruan intimitate-rako eskubide bat (propioa, ez besterena), Konstituzioz babes daitekeena».*

Epai horrek jasotakoa genero-indarkeriako testuinguruetan hildako emakumeen esparrura eramanda, senideen intimitaterako eskubidea legoke jokoan, eta ez hildako emakumearena berarena. Zehazki, esan liteke genero-indarkeriako testuinguru batean hildako emakume baten heriotzaren publizitateak edo difusioak, gutxienez, biktimaren gurasoen eta seme-alaben intimitateari eragiten diola<sup>85</sup>.

Ildo beretik, Konstituzio Auzitegiaren 197/1991 epaia aipatu behar da, nahiz eta kasu honek norberaren intimitatea urratu zitzaion pertsona ez zegoen hilda, baizik eta adingabea zen. Hala, Konstituzio Auzitegiaren 231/1988 epaia aitatzear gain, defendatzeko senide batzuei gertatzen zaizkien gertakari jakin batzuek zuzenean pertsonalitatearen esparruari eragin diezaioketela (hortaz intimitaterako norberaren eskubidea legoke, eta ez besterena), epaiak zera adierazten du:

*«... Intimitaterako eskubidea, norberaren bizitza pertsonaleko alderdietara ez ezik, familia-lotura pertsonala eta estua den beste pertsona batzuen bizitzetako alderdi jakin batzuetara ere zabalduko da; alderdi horiek, euren artean den lotura edo harremana dela eta, gizabanakoaren pertsonalitatearen esferan eragiten dute, zeinaren eskubideak Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua babesten baititu».*

Horren ondoren, ondorioztatzen du aztertutako kasuan albisteak adingabearen intimitate pertsonalari ez ezik guraso ordekoen intimitaterako eskubideari ere eragin ziotela.

Heriotzaren ostean pertsonalitatearen eskubideak iraungitzeko auzira bueltatuta, nabarmendu behar da Konstituzio Auzitegiaren 231/1988 auzia beste Estatu batzuen jurisprudentzia-lerrotik aldentzen dela (esate baterako, Alemania), baita Espainiako Konstituzio Auzitegiak aurrerago emandako beste batzuetatik ere<sup>86</sup>.

Hain zuzen, *Paquirri* kasuaren epaiaren ondoren, Espainiako Konstituzio Auzitegiak hainbat ebazpen eman ditu; horietan, nahiz eta auziari berariaz heldu ez, onartu du babes-errekurtsoa ipintzea hildako pertsona baten ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearekin loturik.

Esate baterako, Konstituzio Auzitegiaren 43/2004 epaian, hildako pertsona baten (babes-errekurtsoa ipini zuenaren aita) ohorerako eskubidearen eta informazio-askatasunerako eskubidearen arteko gatazka aztertu zuen. Konstituzio Auzitegiak zera erabaki behar zuen, Gerra Zibilaren garaian gerra-kontseilu baten zigor-arloko prozesu bat kontatzen zuen doku-

85 Kontuan izan dezagun, Konstituzio Auzitegiaren 231/1988 epaiak ezarritakoa ez bezala (ezkontideari, gurasoei eta seme-alabei egiten die erreferentzia), hemen ez dela ezkontidea sartzen, kontuan izanik azterlan honen xede diren kasuetan ezkontidea bera baita gertakarien erantzule penala.

86 CABALLERO GEA, J.A., *Derecho al Honor*, cit., 241or.



mental bat (aipatzen zen hildakoak lekuko gisa parte hartu zuela) hildakoaren ohorerako eskubidean modu ez-legitimoan sartzen ote zen. Konstituzio Auzitegiak informaziorako eskubidea gailendu zuen, baina hemen interesatzen zaiguna beste puntu bat da: hain zuzen, **ez zuen arazorik izan ulertzeko jokoan Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluko pertsonalitate-eskubide bat zegoela** (kasu honetan, ohorerako eskubidea), hildako pertsona batena. Horren adibide, epaiaren zati hau:

«(...) Hori guztia dela eta, **hildako pertsonen iraganean egindakoen inguruko ikerketak gailendu behar du, zabalkunde publikoan, pertsona horien ohorerako eskubidearen gaintik, betiere zientzia historiografikoaren ezaugarri diren erabilera eta metodoetara egokitzen denean**».

lido beretik, Konstituzio Auzitegiaren 171/1990 epaian, Auzitegiak ezarri behar zuen kasu jakin horretan informazio-eskubidea nagusitu behar ote zen edo, aldiz, hildako pertsona baten intimitaterako eta ohorerako eskubideak gailendu behar ote ziren. Kasu horretan ere, Auzitegiak ez zuen argudiatu pertsonalitatearen eskubideak heriotzarekin iraungitzen direnik, baizik eta onartu zituen, arazo handiagorik gabe, babes-errekurtsoa aurkeztu zutenen aita zenaren intimitaterako eta ohorerako eskubideak.

Horrenbestez, bi zentzuetan argudiatu beharko litzateke genero-indarkeriak eragindako heriotzei buruzko informazioa argitaratzeko mugak ezarri beharra. Alde batetik, aipatu ditugun bi jurisprudenzia-lerroetatik bigarrenaren arabera, balantzaren mutur batean (informazio-askatasunerako eskubidearen kontrako muturrean) biktima zuzenaren intimitaterako eskubidea legoke, hau da, hildako emakumearena berarena.

Bestetik, lehendabiziko jurisprudenzia-lerroari jarraikiz, ez legoke aukerarik hildako pertsona baten intimitaterako eskubidea deitzeko, baina bai haren senideena; horiek, ikusi dugunez, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak ezarritako eskakizunak betetzen dituzte, zeharkako biktimatzat hartzeko.

Hori horrela izatearen arrazoia zera da, gertuko senide baten heriotzaren publizitatea edo difusioa egitea (zalantzarik gabe, ama edo alaba batena), genero-indarkeriako ekintza baten ondorioz izanik, zeharkako biktima horien familia-intimitaterako eskubidean eragiten dutela.

## 25. FUNTSEZKO IDEIAK

- Intimitaterako eskubidea, norberaren bizitza pertsonaleko alderdietara ez ezik, familia-lotura pertsonala eta estua den beste pertsona batzuen bizitzetako alderdi jakin batzuetara ere zabalduko da; alderdi horiek, euren artean den lotura edo harremana dela eta, gizabanakoaren pertsonalitatearen esferan eragiten dute, zeinaren eskubideak Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua babesten baititu.
- Gurasoei, ezkontideei edota seme-alabei gertatu ahal zaizkien hainbat gertaerak, gure gizartearen irizpide kulturaren baitan, gizabanakoarentzat halako garrantzia dute, non behar ez bezala zabaltzeak edo publizitatea egiteak pertsonalitatearen esferan eragiten baitu zeharka. Horrenbestez, bada auzi horren inguruan intimitaterako eskubide bat (propioa, ez besterena).

Intimitaterako eskubidearen titulartasunaren azuia aztertu ostean, intimitaterako eskubidearen eta informazio-askatasunaren arteko talkari buruz konstituzio-jurisprudenzia aztertu behar dugu orain, ondoren gatazka hori delitu-ekintzei buruzko informazioa transmititzeko eskubidearen (garrantzi publikoko albisteak izateagatik) eta gertakari horien biktimaren intimitaterako eskubidearen artean gertatzen deneko kasuak jorratu ahal izateko.

Konstituzio Auzitegiak, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak bezalaxe, askotan defendatu du informazio-askatasunak intimitaterako eta ohorerako eskubideen gainetik duen lehentasun-posizioa, iritzi publiko aske eta ilustratuaren berme gisa duen funtzio instituzionala dela eta<sup>87</sup>.

Dena dela, horrek ez du esan nahi informazio-askatasuna eskubide absolutua denik, baizik eta ezinbestekoa izango da «*emandako informazioa egiazkoa izatea eta interes orokorrekoak diren gai publikoei erreferentzia egitea... ondorioz, iritzi publikoa osatzen laguntzeko*»<sup>88</sup>. Horrenbestez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ezarritakoaren il-dotik, interes orokorreko auziei buruzko iritzi publikoa osatzeko garrantzitsuak diren egiazko informazioak bakarrik izango dira intimitatearen tankerako oinarritzko eskubi-deetan sartze legitimoak<sup>89</sup>.

Dena dela, *intimitateari buruz aritzean, egiazkotasuna ez da aringarria, baizik eta le-sioaren premisa, kasu guztietan. (...) Informazio-jardunak beste konstituzio-ondasun batzuei eragin diezaiekeenean (kasu honetan, esaterako, intimitateari), ezinbestekoa da informazio horrek interes publikoa izatea proiektzio legitimoa izan dezan, orduan bakarrik eska baitakieke informazioaren edukiak eragiten edo kalte egiten dietenei ja-san dezatela, hain zuzen ere, komunitatearen intereseko izan litezkeen gertaerak eta egoerak zabaltzeko eta jendaurrean emateko. Komunitateko garrantzi horrek bakarrik justifika lezake, eta ez besteren jakin-min hutsak, albiste jakin bat emateak sor-litzakeen kalteak edo endredoak jasan ditzatela eskatzea...»<sup>90</sup>.*

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak oro har baieztatu du zigor-arloko garrantzia duten gertakariak albiste izan litezkeen gertaera direla, berdin duelarik, Konstituzio Auzitegiaren 121/2002 epaiak dioen moduan, «*albisteak eragindako pertsonaren edo pertsonen subjektu pribatuaren tasuna*» (zentzu berbera dute Konstituzio Auzitegiaren 178/1993, 320/1994, 154/1999, 185/2002 eta 127/2003 epaiak).

Nolanahi ere den, horrek ez du esan nahi Konstituzio Auzitegiaren aburuz garrantzi pu-blikoko gertakari batean inplikaturik dagoen edozer pertsona pribaturik buruzko edozer informazioak (delitu batean, kasu) informazio-askatasunerako eskubidearen babesa due-nik. Inola ere ez, Konstituzio Auzitegiaren 171/1990 epaiak adierazten duen moduan:

87 Konstituzio Auzitegiaren 171/1990, 106/1986, 159/1986 epaiak.

88 Konstituzio Auzitegiaren 171/1990 epaiak adierazten duenez.

89 Konstituzio Auzitegiaren 171/1990, 5. oinarri juridikoa.

90 Tankera berean, besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren 121/2002, 185/2002, 127/2003, 178/1993, 320/1994 eta 197/1991 epaiak eman egin dira. STC 185/2002 (oso antzeko terminoetan, *Ikus.* Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epaia).

«... Informaziorako eskubidea egikaritzeak nahitaez eskatzen ez duenean besteren eskubideak sakrifikatzea, baliteke bidegabe izatea eskubide horiei kalte egiten dieten informazioak. Hala gertatzen da, bereziki, garrantzi publikoko gertakari batean inplikaturako pertsona pribatuei dagokienez, euren ohoreari edo intimitateari eragiten dieten gertakariak jakinarazten direnean, eta **gertakari horiek argi eta garbi beharrezko eta garrantzitsu ez direnean informazioaren interes publikorako**. Kasu horietan, kontuan hartu behar da komunikabidea eskura duenak ez duela baliatzen informazio-funtzio hutserako, posizio lehenetsiak babestutako moduan, baizik eta iraintzeko eta laidotzeko xedez, "informazioari dagokionez, batere beharrik gabe eta alfer-alferrik".

*Hori dela eta, ez dute merezi konstituzio-babesik **pertsona pribatuei buruz irteten diren informazioek, haien ohoreari eta intimitateari eragiten dietenek eta alferrikako eta garrantzirik gabeko direnek informazioaren interes publikorako**. Kasu horietan, pentsatu behar da komunikabidea ez dela baliatzen informatzeko xedez, baizik eta "behar ez den moduan eta alfer-alferrik informazio horri dagokionez"»<sup>91</sup>.*

Ondorioz, gizarte demokratiko batean informazio-askatasunerako eskubideak lehentasuna izan arren eta informazio egiazkoak eta interes orokorrekoak izanik ere (delitu-egitateen tankerakoak, kasu), ezaugarri horietako gertakarietan inplikaturako pertsona pribatuen datuak, garrantzi publikorik ez dutenak (gertakariari buruz iritzi publikoa osatzen ekarpenik egiten ez dutelako), zabaltzea ezingo da babestu informazio-askatasunerako eskubidearekin, eta, ondorioz, intimitaterako eskubidean modu ez-legitimoan sartze gisa hartuko da.

## 26. FUNTSEZKO IDEIAK

- Informaziorako eskubidea ez da eskubide absolutua.
- Emandako informazioak egiazkoa izan behar du, interes orokorreko auzi publikoei egin behar die erreferentzia eta, ondorioz, iritzi publikoa osatzen lagundu behar du.
- Intimitateari buruz aritzean, egiazkotasuna ez da aringarria, baizik eta lesioaren premisa, kasu guztietan.
- Emandako informazioak interes publikokoa izan behar du.
- Delituzko egitate batekin lotutako subjektuen datu pertsonalak ez daude informazio-askatasunerako eskubideak babestuta.

91 Konstituzio Auzitegiaren 121/2002 epaia.

**DELITU-EGITATEEI  
BURUZKO INFORMAZIOA  
MODU ASKEAN EMATEKO  
ESKUBIDEAREN ETA  
BIKTIMAREN  
INTIMITATERAKO  
ESKUBIDEAREN ARTEKO  
TALKA**

### 4.3.3

Gatozen orain Konstituzio Auzitegiak delitu-egitateei buruzko informazioa modu askean emateko eskubidearen eta biktimaren intimitaterako eskubidearen arteko talkari buruz ebatzi beharra izan duen kasuetara. Hain zuzen ere, bi epaik merezi dute arreta berezia: Konstituzio Auzitegiaren 185/2002 eta 127/2003 epaiek, alegia.

Haietako bakoitza aztertu aurretik, gogorarazi behar dugu, aurretik azaldu dugun moduan<sup>92</sup>, argitaratutako edo zabaldutako informazioak delitu baten biktima identifikatzeko aukera ematen duenean, intimitaterako eskubidea dagoela jokoan, eta ez ohorerako eskubidea.

Hala, Konstituzio Auzitegiak, 185/2002 epaian, egunkari batek sexu-eraso bati buruz argitaratutako informazioari buruz ebatzi behar izan zuen. Esandako informazio horrek erasoari buruzko kontakizun xehatua zuen, eta, besteak beste «*biktima zer kaletako zer ataritan bizi zen kontatzen zuen, eta izena eta bi abizenen inzialak ematen zituen*»; halaber, biktima birjina zela gaineratzen zuen albisteak eta erasotzailearen deskribapena hainbat aldiz aldatu zuela ere bai.

Nahiz eta zigor-arloan garrantzia duten egitateen interes publikoa onartu (eragindako pertsona subjektu pribatuak izanagatik ere), Konstituzio Auzitegiak adierazi zuen egitateen **biktima indibidualizatzeak ez zeukala esandako interesik, zuzenik edo zeharkakorik**, ulertzen baitzuen indibidualizazio hori ez zela beharrezkoa eman nahi zen informazioa helarazteko. Hau da, «*ez dago inolako zalantzarik zigor-arloko garrantzia duten gertariei buruzko informazioa ematearen inguruan, berdin duelarik albisteak eragindako pertsona edo pertsonak subjektu pribatu diren. Baina ez liteke gauza bera esan haien biktima diren pertsonen zuzeneko zein zeharkako indibidualizazioari buruz, nola eta ez duten baimena edo laguntza eman ezagutza orokor horretarako. Informazio hori ez da izango interes publikokoa, eman nahi den informaziorako ez baita beharrezkoa*».

Ondorioz, Konstituzio Auzitegiak baieztatzen duenez, delitu-egitate bati buruzko informazioa transmititzean den interes publikoa ez da iristen delituaren biktima zuzenean zein zeharka indibidualizatzeraino; hala, biktimak ez luke interes publikorik izango eta ez da beharrezkotzat jotzen delitu-egitate bati buruzko informazioa emateko.

Konstituzio Auzitegiak esandako epaian iritzi zion kasu jakin horretan prentsak emandako informazioaren bidez biktima zeharka baina akatsik gabe identifikatzea eragin zuela (eta horrek ez zeukala garrantzirik eman nahi zen informazioaren ondoretarako); hori dela eta, auzitegiaren aburuz, modu ez-legitimoan sartu ziren delitu-egitatearen biktimaren intimitaterako eskubidean. Hala, jakinarazi zuen «*adierazitako erreportajeek sexu-erasoa jasan zuen emakume gaztearen bizitza pertsonalari eta pribatuari buruz jakin beharrik ez zegoen informazioak eman zituztela, hala nola biktimaren identitatea eta birjintasunaren inguruabarra. Eta gaineratu zuen informazio horiek gordeta eduki beharrekoak zirela. Hala, nortasuna zeharka baina inolako zalantzarik gabe jakinaraztean (izan ere, adina, izena, abizenen inzialak eta bizilekuaren kalea eman zituzten), datu horien bidez, organo judizialek*

---

92 Ikus Espainiako Konstituzioari buruzko azpiatala, oinarriko araudiaren atalaren barrukoa.

*nabarmendu duten bezala, bizilagunek, gertukoek eta ezagunek biktima erabat identifikatu ahal izan zuten, eta, horrekin, duintasun pertsonalari larriki eraso egiten zion gertakari baten berri izan zuten xehetasun guztiekin, hau da, sexu-askatasunaren kontrako delitu baten biktima izan zela. Gertakari horren inguruan, gutxienez, biktimari aitortu beharra dago hirugarrenei zabaltzea nahi duen ala ez erabakitzeke ahala. Inola ere ezin dakioke inori eskatu bizitza pribatuari buruzko horren datu garrantzitsuak kazetaritzak zabaldu izana modu pasiboan jasatea, jakinik datu horien berri izatea alferrikakoa eta garrantzirik gabea dela interes publikorako. Izan ere, bistakoa da erasoaren biktimaren identifikazioa, hitzen zentzurik hertsienean, batere garrantzirik gabea izan zela eman nahi izan zuten informazioari dagokionez (hau da, egile gisa atxilotutako pertsonak ukatu egiten zuela egiletza, biktimak berak identifikatu ostean)».*

Finean, nahiz eta Konstituzio Auzitegiak aitortzen duen delitu-egitate bati buruzko informazioaren interes publikoa (kasu honetan, sexu-eraso batena), adierazten du biktima identifikatzeko aukera ematen duten datuek (nahiz eta zeharka izan) ez dutela garrantzi informatiborik; hori dela, gaineratzen du datu horiek jakinaraztea biktimaren intimitaterako eskubidean modu bidegabean sartzea dela.

Konstituzio Auzitegiaren STC 127/2003 epaiak oso antzeko kasua jorratu zuen, eta, bertan, 185/2002 epaiak ezarritakoa berretsi zuten. Kasu horretan, hainbat kazetaritza-artikuluk aita batek alabaren kontra egindako sexu-askatasunaren kontrako delituari buruzko informazioa eman zuten. Esandako artikulua horietan, hainbat informazio eman zituzten, hala nola «*biktimak ahozko ikustaldia egin zen unean zer adin zuen, izen-abizenen inisialak, aitaren eta erasoaren ustezko egilearen izen-abizenen inisialak, gertakariak jazotako udalerrir txikiaren izena, eta erreportajeari ipinitako argazkia, biktimaren aita profilez baina erraz identifikatzeko moduan ipintzen duena*».

Logika berberarekin, Konstituzio Auzitegiak garrantzi penaleko egitateak zabaltzearen interes orokorra aitortzen du (pertsona pribatuei eragiten dienean ere bai), baina zehazten du biktima identifikatzeko modua egiten duten datuek ez dutela halako garrantzirik, eman nahi den informazioa emateko beharrezkoak ez diren aldetik (Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epaia, 9. oinarri juridikoa):

*«Ez dago inolako zalantzarik zigor-arloko garrantzia duten gertakariak albiste izan litezkeen gertaera direla. –Konstituzio Auzitegiaren 178/1993 epaia, maiatzaren 31koa, 4. oinarri juridikoa; eta Konstituzio Auzitegiaren 320/1994 epaia, azaroaren 28koa, 5. oinarri juridikoa.– Eta hori hala da albisteak eragindako pertsona subjektu pribatu izanagatik ere, kasu honetan gertatzen den moduan –Konstituzio Auzitegiaren 154/1999 epaia, irailaren 14koa, 4. oinarri juridikoa; 52/2002 epaia, otsailaren 25ekoa, 8. oinarri juridikoa eta 121/2002 epaia, maiatzaren 20koa, 4. oinarri juridikoa–. Baina hor barruan ezin liteke pertsonen indibidualizazioa sartu, zuzena edo zeharkakoa, nola eta delako pertsona horrek ez duen baimena edo laguntza eman ezagutza orokor horretarako. Informazio hori ez da izango interes publikokoa, eman nahi den informaziorako ez baita beharrezkoa izango. Finean, aztertutako kazetaritza-erreportajeek emandako datuek, eraso jaso duen emakumea erabat identifikatzea posible egiten duten aldetik, gainditu egiten dute garrantzi informatiboa jasandako sexu-erasoarekin eta haiek epaitzearekin loturik; hori dela eta, ez dute merezi Espainiako Konstituzioaren 20.1 d) artikulua ematen duen konstituzio-babesa (...)» (9. oinarri juridikoa). (Enfasi erantsia).*

Konstituzio Auzitegiak berresten duenez, biktima zeharka baina zalantzarik gabe indibidualizatzeak haren intimitaterako eskubidea urratzen du, identifikazio horrek garrantzirik ez duen aldetik jakinarazi nahi den informazioa emateko (Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epaia, 9. oinarri juridikoa).

«Inpugnatutako epaiek sorrarazi zituzten kazetaritza-erreportajeen edukiaren analisitik zera ondorioztatzen da, horietan behar ez ziren datuak eman zirela sexu-erasoa jaso zuen emakume gaztearen bizitza pertsonalari eta pribatuari buruz. Hain justu, **artikulu horiek biktimaren nortasuna zeharka eta zalantzarik gabe eman zuten (...).**

Bada, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 14ko 185/2002 epaiaren 4. oinarri juridikoan aitortu dugun moduan, **datu horiek eman izanari esker, bizilagunek, gertukoek eta ezagunek biktima erabat identifikatu zuten, eta, horren bidez, duintasun pertsonalari larriki eraso egiten zion gertakari baten berri izan zuten, xehetasun guztiekin, hau da, sexu-askatasunaren kontrako delitu baten biktima izan zela. Ondorioz, baieztatu behar dugu, adierazitako epaiaren bidez, inola ere ezin dakiokela inori eskatu **bizitza pribatuari buruzko horren datu garrantzitsuak kazetaritzak zabaldu izana modu pasiboan jasatea, jakinik datu horien berri izatea alferrikakoa eta garrantzirik gabea dela interes publikorako; izan ere, bistakoa da erasoaren biktimaren identifikazioa, hitzen zentzurik hertsienean, batere garrantzirik gabea izan zela eman nahi izan zuten informazioari dagokionez, kasu honetan, delituzko portaera bati dagokion jurisdikzio-organoak epaitzea. (...).**».**

## 27. FUNTSEZKO IDEIAK

- Delitu-egitate bati buruzko informazioa transmititzean den interes publikoa ez da iristen delituaren biktima zuzenean zein zeharka indibidualizatzeraino; hala, biktimak ez luke interes publikorik izango eta ez da beharrezkotzat jotzen delitu-egitate bati buruzko informazioa emateko.
- Ez lirateke eman behar biktima identifikatzea edo indibidualizatzea ahalbidetzen duten datuak.
- Adinak, izen osoak, abizenen inzialek, bizi den kalearen izenak eta tankerako datuek ez daukate inolako interes orokorrik eta pertsona zeharka identifikatzeko aukera ematen dute.
- Argitaratu daitezkeen edo behar diren datuak zein diren zehazteko garaian, garrantzitsua zera da, datu horien konbinazioak zein puntutaraino uzten duen biktima zeharka identifikatzen.

## ONDORIO GISA

### 4.3.4

Konstituzio-jurisprudentziarekin lotuta eman diren datuetatik, zera ondoriozta dezakegu, nahiz eta Konstituzio Auzitegiak aitortzen duen delitu-egitateei buruzko informazioak zabalteko interes publikoa (interes publikoa eta egiazkotasuna dira beharrezko eskakizunak intimitaterako eskubidean sartzeari legimitotzat hartu ahal izan dadin, informazio-askatasunerako eskubidean oinarri hartuta), interes horrek ez dituela biltzen delituaren biktima zuzenean edo zeharka identifikatzeko aukera ematen duten datuak.

Bestela esanda, delituaren biktima indibidualizatzeak ez du garrantzirik delitu-egitate bati buruzko informazioa transmititzeko garaian; horren ondorioz, biktima identifikatzeko aukera

ematen duten datuek ez dute informazio-askatasunerako eskubidearen babesa, eta biktimaren intimitaterako eskubidean sartze gisa hartuko dira.

Hemen esandakoa genero-indarkeriako testuinguruan hildako emakumeen esparrura ekarrita, begien bistakoa da heriotza horiek interes publikoa dutela, eta, ondorioz, gertakari horiei buruzko informazioa emateak informazio-askatasunerako oinarrizko eskubidean hartzen duela babes. Edonola ere, ez daiteke gauza bera esan biktima zuzenean edo zeharka identifikatzeko aukera ematen duten datuen inguruan.

Gure ikerketaren xede diren kasuetan, genero-indarkeriako testuinguru batean hildako emakumea zuzenean zein zeharka identifikatzeko bidea egiten duten datuek ez daukate interes publikorik, alferrikakoak baitira transmititu nahi den informaziorako (emakume bat hil dela genero-indarkeriaren ondorioz); hori hala izanda, hildako biktimaren intimitaterako eskubidean modu bidegabea sartzea litzateke edota, heriotzarekin pertsonalitatearen eskubideak iraungitzen direla dioen Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, zeharkako biktimen familia-intimitaterako eskubidean.

Nabarmendu behar da, halaber, hildako emakumeen eskubide hori mugatzeko arrazoia zera dela, emakume horiek direla ikerketa honen aztergai; izan ere, konstituzio-jurisprudentziatik eratorritzen den moduan, delitu baten (gure kasuan, genero-indarkeriako ekintza baten) biktima izan diren eta bizirik jarraitzen duten pertsonak ere badute eskubidea euren biktima-tasuna publikoari ez jakinarazteko.

## 28. FUNTSEZKO IDEIAK

- Heriotzaren kasuan intimitaterako eskubidearen titulartasunari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak bi adar ditu: alde batetik, heriotzarekin pertsonalitatearen eskubideak iraungi egiten direla dioen jurisprudentzia-adarra (hortaz, zeharkako biktimen familia-intimitaterako eskubidea legoke jokoan), eta, bestetik, hildako pertsonaren intimitaterako eskubidea onartzen duen jurisprudentzia-lerroa, hau da, zuzeneko biktimarena berarena.
- Informazio-askatasunerako eskubideak intimitaterako eskubidean sartzea justifikatu ahal izateko, bi eskakizun bete behar dira: egiazkotasuna eta interes publikoa.
- Nahiz eta Konstituzio Auzitegiak onartzen duen delituzko egitate bati buruzko informazioaren interes publikoa (gure kasuan, emakume baten heriotza, genero-indarkeriako ekintza baten ondorioz), gaineratzen du biktima zuzenean zein zeharka identifikatzeak ez daukala interes bera eta, hortaz, biktima indibidualizatzeko aukera ematen duten datuok argitaratzea intimitaterako eskubideak modu bidegabea sartzea dela.

2015eko uztailaren 23an, Konstituzio Auzitegiaren osoko bilkurak akordio bat onartu zuen, ebazpen juridikzionalak argitaratzean nortasun pertsonala baztertzea arautzeko.

Gure ustez akordio honek ikergai honekin lotuta duen garrantzia dela eta, hiru artikulua osorik jasoko ditugu:

«1. artikulua.

*Konstituzio Auzitegiak jurisdikzio-ebazpenetan ofizioz gordeko du honako hauen anonimotasuna: adingabeen eta babesteko behar berezia duten pertsonena; delituen biktimena, anonimotasun hori galtzeak kalte bereziak sortzen dituenen; eta konstituzio-prozesuan alderdi gisa osatuta ez dauden pertsonena.*

2. artikulua

*Auzitegiak gainerako kasuetan salbuespenak egin ahal izango ditu, ofizioz edo alderdiak eskatuta, ebazpenak argitaratzeko konstituzio-eskakizunean (Espainiako Konstituzioaren 164. artikulua), prozesuan esku hartzen duten alderdien nortasunari eta egoera pertsonalari buruzko datuei dagokienez.*

*Horretarako, alderdi batek beharrezkotzat joko balu auzitegiaren ezagutzan dagoen auzi batean bere nortasuna edo egoera pertsonala publikoki ez zabaltzea, eskatu egin beharko du demanda aurkezteko garaian edo bertaratzean, betiere horretarako arrazoiak azalduta.*

*Auzitegiak eskaerara joko du, kasuan pilatzen diren eta behar bezala egiaztatuta dauden inguruabarrak haztatzean, justifikatuztat jotzen duenean intimitaterako eskubidea edo bestelako konstituzio-eskubideak lehenesten direla.*

3. artikulua

*Konstituzio Auzitegiaren ebazpenen argitalpenak biltzen dituen pertsonen anonimotasuna gordetzea dagokion kasuetan, pertsona horien identitatearen tokian dagozkion inzialak ipiniko dira eta haien identifikazioa posible egiten duten gainerako datuak ez dira ipiniko».*

Akordioaren analisisa aztertuta, honako gogoeta hauek egingo ditugu:

Gatazkan dauden eskubideak hauek dira: konstituzio-prozesuetan Konstituzio Auzitegiak emandako ebazpenen publizitatea (Espainiako Konstituzioaren 164. artikulua), alderdien zein konstituzio-prozesuan alderdi gisa osatu gabeko beste pertsonen intimitaterako eskubidea edota bestelako konstituzio-interesak. Beste konstituzio-interes batzuk adierazpidearen barruan biktimen bigarren mailako biktimizazioa sartzen da, pertsonen aldetik gerta litekeen identifikazioa dela eta.

Intimitaterako eskubideak jasotzen duen anonimotasunaren edukia eta bigarren mailako biktimizazioa saihestu beharrak prozesuan esku hartzen duten alderdien identitate-datuak eta egoera pertsonalari buruzkoak zabaltzeko debekua biltzen du.

Lehenetsitako eskubidea zein den erabakitzeko haztapen-epaiketan beti intimitaterako eskubidea eta bigarren mailako biktimizaziorik ez jasotzea gailenduko dira, titularrak adingabeak edota babesteko behar bereziak dituzten pertsonak direnean, baina baita zabaltzean kalte bereziak sortzen dituen delitu baten biktimen kasuan



edota konstituzio-prozesuan alderdi gisa osatu gabeko pertsonetan ere. Hori dela eta, adosten du jurisdikzio-ebazpenetan ofizioz pertsona horien anonimotasuna gordeko duela, kasu bakoitzean pilatzen diren inguruabarrak balioesteko beharrik gabe. Horrenbestez, genero-indarkeriako delitu batean nahita hil duten emakume baten kasuan, beti gordeko da konstituzio-prozesuko ebazpen judizialetan hildako emakumearen anonimotasuna (zeina inoiz ez baita alderdi gisa osatuta egongo konstituzio-prozesuan), baita seme-alaba adingabeena (biktima adingabeak direlako) eta seme-alaba adindunena ere (zabaltzeak kalte berezia sor dezakeen delitu baten zeharkako biktimak direlako).

Gainerako kasuetan, lehenetsitako eskubidea mugatzeak anonimotasuna postulatzeko duen alderdiaren eskaera arrazoitua behar du, baita auzitegiaren haztapen bat ere, pilatzen diren inguruabarrak behar bezala egiaztatuta.

## 29. FUNTSEZKO IDEIAK

- 2015eko uztaillean Konstituzio Auzitegiak akordio bat onartu zuen, jurisdikzio-ebazpenak argitaratzean nortasun pertsonala baztertzea arautzeko.
- Konstituzio Auzitegiaren osoko bilkurak onartutako akordioak existitzen den arazo bat nabarmentzen du eta hainbat irizpide ezartzen ditu, emakumearen kontrako indarkeria-testuinguruetan gertatutako hilketa-delituetan aplikatu daitezkeenak.
- Intimitaterako eskubideak jasotzen duen anonimotasunaren edukia eta bigarren mailako biktimizazioa saihestu beharrezkoak prozesuan esku hartzen duten alderdien identitate-datuak eta egoera pertsonalari buruzkoak zabaltzeko debekua biltzen du.
- Bigarren mailako biktimizazioa komunikabideetan argitaratutako artikuluen edo albisteen edukiaren bidez ere gerta liteke.
- Konstituzio-prozesura iritsi arte itxaron behar da intimitaterako eskubidea babesteko?
- Zer zentzu dauka zigor-arloko prozesuan intimitatea babesteak, aldez aurretik biktimei buruzko datu guztiak edo gutxienez identifikatzea posible egiten dutenak argitaratu badituzte?

Aurreko ataletan aztertu dugun jurisprudentzia bezalaxe, Auzitegi Gorenak hasiera batean adierazpen-askatasunerako eta informaziorako eskubideak lehenesten ditu ohorerako, intimitate pertsonalerako eta norberaren irudirako eskubidearen ginetik, azken horiek, bere esanetan, oinarritzkoak baitira gizarte demokratiko batean iritzi publiko askea osatzeko<sup>93</sup>.

Era berean, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak informazioaren egiazkotasun eta garrantzi publikoko betekizunak eskatzen ditu, informazio-askatasunerako eskubidea intimitaterako eskubidearen ginetik ezar dadin<sup>94</sup>.

Bestalde, interes orokorraren edo informazioaren garrantzi publikoaren inguruko eskakizunari dagokionez, inolako zalantzarik gabe, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ezarritakoari jarraikiz, emakume bat bere bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hil izanak genero-indarkeriako testuinguru batean badu esandako interes orokor hori; izan ere, Auzitegi Gorenak baieztatu du hainbat auzik duten garrantzi publikoa, hala nola tratu txar fisiko eta psikologikoek<sup>95</sup>, ohiko tratu txarrek<sup>96</sup> edota bikotekidearen kontrako lesio eta tratu txar ohikoek<sup>97</sup> eta, oro har, delitu-egitate horiei buruzko edozer informaziok duena.

Hala, begien bistakoa da lesioen eta tratu txar ohikoen delituak garrantzi orokorreko gertaerak direla, eta horien inguruko informazioa eskuratzeko eskubidea duela gizarteak; «*izan ere, zigor-arloko prozesu judizialei dagokien informazioa izanik, ez dagokio interes publikoa bakarrik, baizik eta interes orokorra ere bai, albistearen interes publikoa edo orokorra inplizituztat hartzen baita zigor-arloko garrantzia duten egitateei edo gertaerei eragiten dietenean*»<sup>98</sup>.

Era berean, Auzitegiak adierazten du delitu mota horrek «*inolako zalantzarik gabe*<sup>99</sup> *interes publikoa pizten duela, sentsibilizazio bereziko gaia baita iritzi publikoan*». Hala, etxeko tratu txarrekin edo emakumearen kontrako indarkeriarekin lotutako delituen inguruko interes publikoa gizarteak duen interes batetik eratorria da, hain zuzen ere, gertakari horien berri izateko eta berriro gertatzea galarazteko, «*kontuan izanda familiaren esparruko tratu txarren kasu ugari izaten dela komunikabideetan jasota. Eta, horrenbestez, argitaratutako informazioak badu garrantzi soziala; hala, tratu txar fisikoak eta psikologikoak gizarteari dagokionez garrantzitsuak dira, eta interesa dute komunitaterako*»<sup>100</sup>.

93 (Auzitegi Gorenaren 128/2011 epaia, 4. oinarri juridikoa; 521/2011 epaia, 3. oinarri juridikoa; 948/2008 epaia, 2. oinarri juridikoa; 547/2011 epaia, 3. oinarri juridikoa).

94 (Auzitegi Gorenaren 948/2008 epaia, 2. oinarri juridikoa; 996/2008 epaia, 2. oinarri juridikoa; 1003/2008 epaia, 2. oinarri juridikoa; 456/2009 epaia, 2. oinarri juridikoa; 128/2011 epaia, 4. oinarri juridikoa; 521/2011 epaia, 3. oinarri juridikoa; 547/2011 epaia, 3. oinarri juridikoa).

95 (Auzitegi Gorenaren 128/2011 epaia, 5. oinarri juridikoa).

96 (Auzitegi Gorenaren 521/2011 epaia, 4. oinarri juridikoa).

97 (Auzitegi Gorenaren 547/2011 epaia, 4. oinarri juridikoa).

98 (Auzitegi Gorenaren epai hauek: 1995eko uztailaren 31koa, 2004ko uztailaren 8koa, 2008ko abenduaren 2koa, 2009ko otsailaren 12koa eta 2010eko irailaren 13koa.)

99 (Auzitegi Gorenaren 521/2011 epaia, laugarren oinarri juridikoa).

100 (Auzitegi Gorenaren 2011ko martxoaren 1ekoa, RJ\924\2009).

Horrenbestez, ezin daiteke ukatu genero-indarkeriako testuinguru batean emakume bat hil izana jasotzen duen informazioak piztutako interes publikoa; izan ere, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziari jarraikiz, iritzi publikoan sentsibilizazio bereziko auzia da eta haren interes publikoa gizarteak duen interesetik eratorria da, hain zuzen ere, gertakari horiek ezagutzeko eta berriro ere ez gertatzeko interesetik sortua.

### 30. FUNTSEZKO IDEIAK

- Auzitegi Gorenak hasiera batean adierazpen-askatasunerako eta informaziorako eskubideak lehenesten ditu, ohorerako, intimitate pertsonalerako eta norberaren irudirako eskubidearen gainetik, azken horiek, bere esanetan, oinarrizkoak baitira gizarte demokratiko batean iritzi publiko askea osatzeko.
- Auzitegi Gorenak baieztatu du hainbat auziren garrantzi publikoa, hala nola tratu txar fisiko eta psikologikoen, ohiko tratu txarrek, bikotekidearen kontrako lesio eta tratu txar ohikoek eta, oro har, delitu-egitate horiei buruzko edozer informazioak dutena.
- Interes publikoa gizarteak emakumearen kontrako indarkeriarekin lotutako moduko gertakariak ezagutzeko eta berriro gertatzea prebenitzeko duen interesetik sortua da.

## DELITU BATEN BIKTIMAREN IDENTITATEA ZABALTZEA

### 4.4.2

Edonola ere, Europako jurisprudentziarekin eta Konstituzio Auzitegiarenarekin ohartarazten genuen moduan, kontu bat da gertaera batek berez garrantzi publikoa izatea eta beste bat, oso bestelakoa, delako gertaerarekin lotutako guztiak garrantzi hori bera izatea.

Testuinguru horretan, garrantzi berezia dute Auzitegi Gorenaren 996/2008, 1003/2008, 185/2009 eta 354/2009 epaiek, hainbat komunikabidek gertaera honen inguruan emandako informazioarekin loturik: familia bateko aita baten hilketa Madrilgo bizitegi-eremu batean, eta emazteari eta bi alabei egindako eraso (bi alabak adingabeak), alabetako batek jasan dako sexu-erasoa barne.

Aipatu ditugu epai horiek, jurisprudentziak adingabeen intimitaterako eskubideari ematen dion «superbabesaz» jardutean<sup>101</sup>. Arrazoi hori dela medio berriro ekarriko dugu kontua, **biktimei buruzko datuak ematean identifikagarri egiten dituztelako, hain justu.**

Zehazki, honako datu hauek zabaldu ziren: **aitaren abizenak, izena eta ogibidea, amaren izena, etxebizitzaren kalea eta zenbakia, eta etxebizitzaren, amonaren eta aitaren argazkiak.** Auzitegi Gorenak baieztatu zuenez, datu horiek adingabeak zeharka identifika-

101 Ikus 1/1996 Lege Organikoaren, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoaren, azpiatala.

tzeko aukera ematen zuten, delituen subjektu pasibo gisa. Horrek, auzitegiaren arabera, haien intimitaterako eskubidean sartzeari esan nahi du.

Auzitegi Gorenak argudiatu zuen esanez, delako albistearen interes publikoa aitortuta ere, bi adingabeak bi delituen biktima zuzen gisa identifikatzeko aukera ematen zuten datuak eta irudiak emateak (bi adingabeak lesio-delituen biktima izan zirenean, eta haietako bat, berriz, sexu-askatasunaren kontrako delitu batena) ez zuela interes publiko bera, gertakari jakin batzuk arazorik gabe identifikatzeko gertakariekin lotu izangatik<sup>102</sup>.

Epai horien argudiaketatik ondoriozta liteke biktimaren identifikazioa posible egiten zuten datuak ematean interes publikorik ez izatearen arrazoia zera izan zela, biktimak adingabeak izatea.

Dena dela, Europako eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzian egiaztatu ahal izan dugun moduan eta Auzitegi Gorenaren beste epai batzuetan ikusiko dugun bezala, arazoa zera zen, datu jakin batzuk emateak biktima identifikatzea posible egiten zuela, adingabeak izan ala ez.

Ulertzen dugu epai horietan biktimak adingabe izateari egindako aipamena adingabeen intimitateak duen babes bereziari zor zaiola («superbabesari», Konstituzio Auzitegiaren arabera); nolahi ere den, baieztatu behar da, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia kontuan izanda, identifikagarri egiten zituen datuak ematea intimitaterako eskubidean modu ez-legitimoan sartzeari izango zela, biktimak adindunak izanda ere.

Gertakari berari dagokionez, garrantzitsua da kontuan izatea Konstituzio Auzitegiak argitu zuela biktimak identifikatzeko aukera ematen zuten datuak eta irudiak ematea haien intimitaterako eskubidean modu ez-legitimoan sartzeari izango zela, edozer izanik ere informazioaren jatorria<sup>103</sup>.

Zabaldutako datuen garrantzi publikoari buruz erabakitzeke garaian **delituen biktima identifikazioaren (edo identifikatzeko aukeraren) irizpideak duen garrantzia frogatzeko**, Auzitegi Gorenaren 354/2009 epaiak bi kazetari errugabetu izana hartu dezakegu; hain zuzen ere, gertakari berari buruzko informazioa eman zuten bi kazetari, baina biktima identifikatzeko datuak eman ez zituztenak:

*«... Ikusi dugu ez dela daturik ematen adingabeen nortasuna ezagutzeko: ez da aitaren izena esaten, Madrilgo abokatu bat dela besterik ez; udalerrira jakinarazten da (Pozuelo de Alarcón); irudian txaleta ikusten da, 117. zenbakiarekin, baina ez kalea; eta adingabeen adina ematen da eta esaten da haietako bat bortxatu egin zutela, baina beste daturik gabe. Ondoren, erasotzailearen profil psikologikoa aztertzen da. Datu horiekin, esan liteke adingabeak identifikatzerik ez dagoela, eta, horrenbestez, ez dela haien intimitaterako eskubidean sartu. (...) Ondorioz, jokoan diren oinarriko eskubideen arteko gatazkan, informazioarako eskubidea gailenduko da, albistearen tratatutako modua aztertu ostean».*

Azken epai horren bide beretik, Auzitegi Gorenaren 521/2011 epaia aipatu behar dugu. Bertan, Auzitegiak **ukatu** egin zuen intimitaterako eskubidean sartu egin zirenik, ulertuta komunikabideak eman zituzten datuek ez zutela posible egiten errekurtsogilearen identifikazioa.

Kasu horretan, ama batek ipinitako errekurtsua aztertzen zen; hain zuzen, zigor-arloko prozedura bati buruzkoa zen, bi adingaberaren amaren bikotekideak familiaren esparruan adinga-

102 (Auzitegi Gorenaren 1003/2008 epaia, 2. oinarri juridikoa; 996/2008 epaia, 2. oinarri juridikoa; 354/2009 epaia, 3. oinarri juridikoa.)

103 Auzitegi Gorenaren 1003/2008 epaia, 2. oinarri juridikoa. Auzitegi Gorenaren 996/2008 epaia: «Informazioa Polizia Nazionalaren Burutzak emandako prentsaurrekoetan eskuratutakoa izangatik ere, Konstituzio Auzitegiak esanda dauka intromisio ez-legitimoa gertatzen dela nahiz eta zabaldutako datuak dagoeneko domeinu publikokoak izan (1999ko uztailaren 15eko epaiak), izan ere, datu horiek ematea, iturria edozer izan dela ere, Espainiako Konstituzioren 18.1 artikulua intimitate kaltegarrian sartzeari izan bailliteke (Konstituzio Auzitegiaren 197/1991 epaia)».

beoi tratu txarrak ematen zizkiela eta. Ez zen zalantzan ipintzen gertakarien egiazkotasuna edo garrantzi publikoa; kontua zera zen, zehaztea kazetariak eman zituen datu publikoak beharrezkoak ziren ala ez informazioa emateko.

Auzitegi Gorenak ebatzi zuen zaila zela **errekurtsogilearen identifikazioa inguru hurbiletik etortzea, eta, gainera, datuak ezinbestekoak zirela delitu posibleak konfiguratzeko.**

*«Albisteak, erasotzailearen eta errekurtsogilearen inisialez gain, jakinarazten zuen errekurtsogileak bi alaba zituela; era berean, adierazten zen zenbat denboran bizi izan zen erasotzailearekin bikote moduan eta Alcolea auzoan bizi zirela. Horrenbestez, emandako datuen arabera, zehaztu behar da datu horiek beharrezkoak ziren ala ez informazioa konfiguratzeko; izan ere, errekurtsogileak alegatzen duen moduan, albiste horretako protagonistetako bat bezala identifikatu zuten, eta, ondorioz, bere eta familiaren intimitatean sartu ziren. Dena dela, **errekurtsogileari buruzko datuek zaila egiten zuten esparru intimoenetik kanpo ezagutzea, nekez defenda baitaiteke errekurtsogilearen ingurune hurbilenetik kanpo zegoen inork emakumea identifikatzea, eta, gainera, datuak zabalduko informazioaren muinari buruzkoak ziren. Hau da, **albistean emandako datuak ezinbestekoak ziren delitu posibleak konfiguratzeko**; alegia, bikotekide izandakoari egozten zitzaizkion delituak osatzeko, alaba adingabeei zegokienez. Eta horrek, inolako zalantzarik gabe, gertakariak larrigotu egiten ditu (errekurtsogilea bera ere gertakari horien biktima izan zen, gainera)».***

Ikusten dugu, horrenbestez, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian, Europakoan eta Konstituzio Auzitegiarenean gertatzen den moduan, delitu baten biktima zuzenean zein zeharka identifikatzeko modua egiten duten datuak ez direla interes orokortzat hartzen (nahiz eta inolako zalantzarik gabe delitu-egitateek garrantzi publikoa izan); hori dela eta, komunikabideek datuok ematea biktimen intimitaterako eskubidean modu bidegabean sartzea litzateke.

Garrantzi publikoko auzietan inplikaturako pertsonak identifikatzea posible egiten duten datuak zabaltzeari dagokionez, berriz, interesgarria da Auzitegi Gorenaren 631/2004 epaia.

Kasu horretan, ama batek norberaren eta familiaren ohorerako eta intimitaterako eskubidea babesteko demanda ipini zuen, bere izenean eta seme adingabearenean. Antza denez, erreportaje batean jakinarazi zuten 14 urteko haurrak sei urteko arrebaordea hil eta estolderian behera bota zuela, eta, halaber, amaren egoera pertsonalari buruzko datuak ere eman zituzten.

Ez zen gertakarien egiazkotasuna edo garrantzi publikoa zalantzan ipini, baizik eta adingabearen ohorerako eta intimitaterako eskubidea urratu zela nabarmendu zuten, izen-abizenekin identifikatzen baitzen, larritasun berezia zuten gertakari batzuekin lotuta. Auzitegi Gorenak amari eta adingabeari eman zien arrazoi; izan ere, *«adingabearen nortasun-datuak behin eta berriz aipatzea... informazioaren aldetik neurri gabekoa da, eta erabat alferrikakoa identifikazioa».*

Kontuan izan behar da, aurreko kasuetan ez bezala, azken honetan emandako datuek delitu-egitate baten subjektu aktiboa identifikatzeko aukera ematen zutela. Adingabea izanik, Auzitegi Gorenak irizten dio datu horiek ez direla interes orokorrekoak, eta, ondorioz, datuok emanda adingabearen intimitaterako eskubidean modu ez-legitimoan sartzen dela.

Dena dela, nabarmendu behar dela hori ez dela Auzitegi Gorenak izan ohi duen jarrera delitu-egitate baten subjektu aktiboaren identifikazioa posible egiten duten datuak zabaltzearen inguruan; izan ere, Auzitegi Gorenaren 948/2008 eta 547/2011 epaietan jasotzen da delituaren garrantzi sozialak, informazioaren interes orokorra justifikatzeaz gain, justifikatzen dela gertakarien arduraduna identifikatzeko datuak ematea.

### 31. FUNTSEZKO IDEIAK

- Guraso baten izen-abizenak, lanbidea, amaren izena, etxebizitzaren kalea eta zenbakia, etxearen irudiak, aitona-amonen izenak eta tankerakoak biktima zeharka identifikatzeko aukera ematen duten datuak dira; horrenbestez, haren intimitaterako eskubidean sartzen dira.
- «Zehaztu behar da datuak beharrezkoak ziren ala ez informazioa osatzeko».
- «... Ikusi dugu **ez dela daturik ematen adingabeen nortasuna ezagutzeko**: ez da aitaren izena esaten, Madrilgo abokatu bat dela besterik ez; udalerrria jakinarazten da (Pozuelo de Alarcón); irudian txaleta ikusten da, 117. zenbakiarekin, baina ez kalea; eta adingabeen adina ematen da eta esaten da haietako bat bortxatu egin zutela, baina beste daturik gabe. **Datu horiekin**, esan liteke adingabeak **identifikatzerik ez dagoela**, eta, horrenbestez, ez dela haien intimitaterako eskubidean sartu. (...) Ondorioz, jokoan diren oinarritzko eskubideen arteko gatazkan, **informazioarako eskubidea gailenduko da, albistea tratatutako modua aztertu ostean**» (Auzitegi Gorenaren 354/2009 epaia).
- «Erasotzailearen eta errekurtsogilearen inzialez gain, jakinarazten zen errekurtsogileak bi alaba zituela; era berean, adierazten zen zenbat denboran bizi izan zen erasotzailearekin bikote moduan eta Alcolea auzoan bizi zirela(...).Dena dela, **errekurtsogileari buruzko datuek zaila egiten zuten esparru intimoenetik kanpo ezagutzea, nekez defenda baitaiteke errekurtsogilearen ingurune hurbilenetik kanpo zegoen inork emakumea identifikatzea, eta, gainera, datuak zabalduetako informazioaren muinari buruzkoak ziren. Hau da, albistean emandako datuak ezinbestekoak ziren delitu posibleak konfiguratzeko; alegia, bikotekide izandakoari egozten zitzaizkion delituak osatzeko, alaba adingabeei zegoenez. Eta horrek, inolako zalantzarik gabe, gertakariak larriagotu egiten ditu (errekurtsogilea bera ere gertakari horien biktima izan zen, gainera)**». (Auzitegi Gorenaren 521/2011 epaia.)

#### ONDORIO GISA

### 4.4.3

Gure ikerlanaren ardatza genero-indarkeriako egitate baten biktimen intimitaterako eskubidea da (zehazki, haren ondorioz hil direnena), eta ez erasotzaileena. Hori dela eta, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia aztertu ostean, baieztatu dezakegu Europako eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren ondorio beraren aurrean gaudela; hau da, delitu baten biktima zuzenean zein zeharka identifikatzeko modua egiten duten datuak ez direla interes orokortzat hartzen (nahiz eta inolako zalantzarik gabe delitu-egitateek garrantzi publikoa izan). Hori dela eta, komunikabideek datuok ematea zuzeneko zein zeharkako biktimen intimitaterako eskubidean modu ez-legitimoan sartzea litzateke.

## 32. FUNTSEZKO IDEIAK

- Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak egiazkotasun eta garrantzi publikoko eskakizunak ditu, informazio-askatasunerako eskubidea intimitaterako eskubidearen gainetik ezar dadin.
- Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eta Konstituzio Auzitegiak bezalaxe, Auzitegi Gorenak ohartarazten du interes publikoko gertakari batekin lotutako informazio orok ez duela interes publiko berbera.
- Delituzko egitate bati buruzko informazioaren interes publikoa gorabehera (gure kasuan, emakume baten heriotza, genero-indarkeriako ekintza baten ondorioz), biktima zuzenean zein zeharka identifikatzeak ez dauka interes hori bera eta, hortaz, datuok argitaratzea intimitaterako eskubidean modu ez-legitimoan sartzea da.
- **Delitu-egitate baten subjektu aktiboaren** identifikazioa posible egiten duten datuak zabaltzearen inguruan, Auzitegi Gorenak iritzi dio **delituaren garrantzi sozialak, informazioaren interes orokorra justifikatzeaz gain, gertakarien arduraduna identifikatzeko datuak ematea ere justifikatzen duela.**
- Delitu baten subjektu aktiboaren datuak emanaz gero, posible da biktimak zeharka identifikatzea?

## PROBINTZIA-AUZITEGIAK

# 4.5

### INTIMITATERAKO ESKUBIDEAREN TITULARTASUNA HIL OSTEAN

## 4.5.1

Konstituzio-jurisprudentzian gertatzen de moduan, Probintzia Auzitegiak banatuta daude pertsonalitatearen eskubideak heriotzaren ostean iraungitzen ote diren ala ez erabakitzeke garaian. Tarragonako Probintzia Auzitegiaren 164/2004 epaiak guraso batzuek planteatutako demanda aztertzen zuen, euren hildako semeari buruzko erreportaje bat eman izanagatik; erreportaje hark zioen semeak bere kidea zen neska bat hil zuela eta ondoren bere buruaz beste egin. Hala, esandako epaiak ulertu zuen, inolako eragozpenik gabe, hildakoaren ohorerako eskubidea urratu zela, delitu-portaera batzuk leporatu izanagatik, horrekin lotutako epai judizialik izan gabe<sup>104</sup>.

Bestalde, Kordobako Probintzia Auzitegiaren 8/2004 epaia, emakume bat bere senar ohia- ren (guardia zibila) eskuetan hil izanari buruzko albiste bat argazki batekin ilustratu eta biktima- ren hilotza erdi-biluzik erakutsi zuena, *Paquirri* epai ospetsuaren bide beretik etorri zen.

104 Probintzia Auzitegiak argudiatzen duenez, «...kazetaritzako profesionalak ezin dute euren ezjakintasunaz argudiatu, eta dok- trina hori bera, egilea eta ustezko egilea bereiztea, Auzitegi Gorenaren 2003ko uztailearen 10eko epaiak ere berresten du».

Pertsonalitatearen eskubideak heriotzarekin iraungitzen ote diren aztertu aurretik, kome- ni da azaltzea, Kordobako Probintzia Auzitegiak adierazi zuen moduan (eta Konstituzio- jurisprudenzian ere ikusi dugunez), hainbat argazki argitaratuta, norberaren irudirako es- kubidean sartzeaz gain, intimitaterako eskubidean ere sartzen garela.

«... Norberaren irudirako eskubideak babes-eremu espezifikoa duenean ere, zeinaren bi- dez ematen baitzaio titularrari hura eskuratzeko, erreproduzitzeko edo debekatzeko ahala baimenik gabeko hirugarrenen eskutik eta edozer izanik ere zabaltzen duenaren xedea, **ez dago inolako eragozpenik batzuetan (kasu honetan, adibidez) argazkiak argitaratzea intimitaterako eskubidean sartze gisa har dadin**» (Auzitegi Gorenaren 2001/11/5 eta 2002/05/16 epaiak).

Horrenbestez, Probintzia Auzitegiak familia-intimitaterako eskubidearen urratze posible bat zuen aurrez aurre; izan ere, aurreratu dugun moduan, Probintzia Auzitegiak jarraitu zuen jurisprudenzia-lerroaren arabera, pertsonalitatearen eskubideak desagertu egiten dira heriotzarekin. Edonola ere, baieztatzen duenez, «*familia-intimitaterako eskubideak jarraitu egiten du, zeinaren titularrak seme-alabak eta senide gertukoenak baitira*». Horren ondorioz, zera argudiatzen du, aipatutako Konstituzio-jurisprudenziari jarraikiz:

«...Intimitaterako eskubidea, norberaren bizitza pertsonaleko alderdietara ez ezik, fami- lia-lotura berezia eta estua den beste pertsona batzuen bizitzetako alderdi jakin batzuetara ere zabalduko da; alderdi horiek, euren artean den lotura edo harremana dela eta, gizaba- nakoaren pertsonalitatearen esferan eragiten dute, zeinaren eskubideak Espainiako Kons- tituzioaren 18. artikulua babesten baititu. Inolako zalantzarik gabe, gurasoei, ezkontideei edota seme-alabei gertatu ahal zaizkien hainbat gertaerak, gure gizartearen irizpide kultu- raren baitan, gizabanakoarentzat halako garrantzia dute, non behar ez bezala zabaltzeak edo publizitatea egiteak pertsonalitatearen esferan eragiten baitu zeharka. Horrenbestez, bada auzi horren inguruan intimitaterako eskubide bat (propioa, ez besterena), Konstituzioz babes daitekeena» (Konstituzio Auzitegiaren 231/88 eta 197/91 epaiak).

Egiaztatu dezakegun moduan, Probintzia Auzitegien jurisprudenzia, Konstituzio Auzitegia- rena bezalaxe, banatuta dago erabakitzeke garaian pertsonalitatearen eskubideak herio- tzarekin desagertzen ote diren ala ez. Horrek, gure ikerketara ekarrita, bi soluzio posible izango litzuke.

Intimitaterako eskubidea heriotzarekin ez dela amaitzen dioen jurisprudenzia-ildoari helduko bagenio, ulertuko genuke hildakoaren intimitaterako eskubidea (biktima zuzena) urratu egingo litzatekeela, haren identifikazioa posible egiten duten informazioak zabalduta izanagatik.

Bestalde, ulertuko bagenu intimitaterako eskubidea heriotzarekin amaitzen dela, urraketa posible hori gertukoen familia-intimitaterako eskubidearen urratze posiblean oinarritu be- harko genuke (zeharkako biktimak).

### 33. FUNTSEZKO IDEIAK

- Probintzia Auzitegietan bi jurisprudenzia-lerro dira.
  - Intimitaterako eskubideak jarraitu egiten du, titularra hil ostean ere.
  - Intimitaterako eskubidea heriotzarekin amaitu egiten da.



Atal honetan, interes berezia dute Madrilgo Probintzia Auzitegiaren hainbat epaik<sup>105</sup>, aurreko atalean aipatu dugun gertakari baten inguruan: Madrilgo abokatu baten hilketa eta haren bi alaba adingabeek izandako erasoak.

Haietan guztietan, delitu-egitatearen interes publikoaren eta biktimak zuzenean zein zeharka identifikatzeko aukera ematen duten datuek interes hori ez izatearen arteko mugatik abiatzen da, datu horiek emateak azaldu nahi zen informaziorako garrantzirik ez zutela kontuan izanda.

Gainera, epai judizial horiek garbi uzten dute biktimen identifikazio zuzenak zein zeharkakoak intimitaterako eskubidean modu ez-legitimoan sartzea direla. Hala, «*pertsona baten identifikazioa ez da gertatzen izena eta bi abizenak ematearekin bakarrik, baizik eta bestelako datuak emanda ere bai, jakinik horien bidez biktima zalantzarik gabe identifikatu daitezkeela. Eta hori gertatu da kasu honetan*»<sup>106</sup>.

Ildo beretik, Madrilgo Probintzia Auzitegiaren 1095/2004 epaiak zera adierazten du, 4. oinarri juridikoan, adingabeen inguruan:

«... Erabat identifikatuta geratu ziren; aitaren izen-abizenak emateaz gain, amaren izena, kalea, gertakariak jazotako txaletaren zenbakia eta aitaren ogibidea eman zituzten; hau da, adingabeak erabat identifikatzeko modua egin zen».

Madrilgo Probintzia Auzitegiaren ebazpenek baieztatzen dute adingabeen intimitaterako eskubideak duen babes berezia, eta, horretarako, 1/1996 Lege Organikoari, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoari, dagokion atalean aipatutako araudia eta jurisprudentzia aipatzen dituzte.

«Eta, puntu honetan, garrantzi berezia du bi adingabe izateak; izan ere, egiazko informazioa modu askean jakinarazteko eskubideak adingabeen intimitaterako eskubide urraezinaren mugari eutsi behar dio, haiek ez baitaukate zertan sufritu euren bizitza pribatuari buruzko gertakariak zabaldu izana»<sup>107</sup>.

Madrilgo Probintzia Auzitegiaren epai sorta honekin amaitzeko, nabarmendu behar da 1095/2004 eta 273/2005 epaiak berariaz adierazten dutela, gertakari berarekin lotutako Auzitegi Gorenaren epaiak bezalaxe, ez daukala garrantzirik delako datu horiek dagoeneko jabari publikokoak izateak. Hala, Madrilgo Probintzia Auzitegiaren 273/2005 epaiak, laugarren oinarri juridikoan, honako hau dio:

«Ez dauka garrantzirik emandako datuak jabari publikokoak izateak, aurrez ikus-entzunezko komunikabideek eman izanagatik; izan ere, datu horiek jakinarazteak intimitaterako eskubidean **berrito sartzea** esan nahi du<sup>108</sup>. Komunikabide batek pertsona baten egitate intimo bat jakinarazteak ez du baimena ematen gainerako guztiek gertakari intimo hori zabaltzen jarrai dezaten».

Era berean, Madrilgo Probintzia Auzitegiaren 1095/2004 epaiak ezartzen duenez, «nahiz eta alegatzen den sexu-erasoa agentzien komunikatuetan jasotzen zela eta Poliziaren bozeramaileak baieztatua dela, horrek inola ere ez du justifikatzen apelatzaileek urratu zituzten

105 (Madrilgo Probintzia Auzitegiaren 90/2004, 1095/2004, 273/2005 eta 483/2005 epaiak).

106 Hala dio Madrilgo Probintzia Auzitegiaren 273/2005 epaiak, 4. oinarri juridikoan.

107 Madrilgo Probintzia Auzitegiaren 273/2005 epaiak.

108 (Konstituzio Auzitegiaren lehen salaren 134/1999 epaiak, 1999ko uztailaren 15ekoa, bigarren salaren 197/1991 epaiak, 1991ko urriaren 17koa, aipatzen duena).

*oinarrizko eskubideetan sartzea; izan ere, horiek, euren jardunarekin, biktimak inbididualizatzeko eta identifikatzeko bidea egin zuten».*

Madrilgo Probintzia Auzitegiak ezarritakoarekin bat, eman nahi den informazioa zabaltzeko alferrikakoak diren datuak argitaratzearekin lotuta, beste bi epai ere aipatu behar ditugu.

Haietako batean, Tenerifeko Probintzia Auzitegiaren 378/2003 epaiak adierazi zuen albistearen interes orokorrak ez duela biltzen *«xehetasunak argitaratzea edo garrantzirik gabeko datuak ematea informazioa helarazteko; aitzitik, eragindakoaren pertsonalitatearen eskubiderik intimoenen aurka egin dezakete».*

Horren ostean, ondorioztatu zuen albistea argitaratzeak, nahiz eta interes orokorrekoa izan, eragilearen intimitaterako eskubidea urratzea eragin zuela *«idatzita zegoen moduagatik, behar ez ziren datuak bilduta eta erreferentzia egiten zien pertsona erraz identifikatzeko moduan ipinita, esandako intimitate hori gordetzeko erabiltzen ziren inizialak alferrikako bihurtuta».*

Ikusten dugu, horrenbestez, ez dela beharrezkoa informazioak delako pertsona izen-abizez identifikatzea, baizik eta intimitaterako eskubidea urra litekeela, era berean, **zeharka identifikatzea posible egiten duten datuak emanez gero** (nahiz eta izen-abizenak eman ez).

Aurretik aipatu dugun bigarren epaia Kordobako Probintzia Auzitegiak emana da, eta, gure azterlanaren antzekotasuna dela medio, oso presente izatea komeni da. Lehen aipatu dugun Kordobako Probintzia Auzitegiaren 8/2004 epaia da. Bertan azaltzen denez, nahiz eta emakume bat senar ohiaren (guardia zibila) eskuetan indarkeriaz hil izanaren albistea interes orokorrekoa izan, ezin liteke gauza bera esan albistearekin batera irten zen argazkiari buruz, non emakumearen gorpua ikusten baitzen, erdi-biluzik:

*«Guri dagokigun kasuan, emakume bat bere senar ohi guardia zibilaren eskuetan, bost tiro jasota, indarkeriaz hil izanaren albistea interes orokorrekoa da inolako zalantzarik gabe, kontuan hartuta zer-nolako garrantzi sozial larria eta nabarmena duen (inork ez du zalantzan ipiniko hori hemen). Alabaina, ezin liteke onartu beharrezkotzat eta ezinbestekotzat hilotzaren argazkia, zegoen baldintzetan, argitaratu izana Diario de Córdoba egunkariaren azalean; (...).*

*Finean, ezin liteke ulertu kontrobertsiadun argazki horren difusioak Konstituzioaren babesa izan dezakeen interes publikoa zuenik. (...) eta eragilean amaren kasuan, erdi-biluzik eta hilda, lurtean etzanda, ez zen beharrezkoa albistearen irudi gisa txertatzeko; hala, behar ez bezalako publizitatea eta zabalkundea egiteak seme-alaba adingabeen pertsonalitatean eta euren familia-intimitaterako eskubidean zuzenean eragin du».*

Azken epai hori garrantzitsua da gure ikerketarako bi arrazoi direla eta: batetik, gure azterlanarekin duen antzekotasun garbiagatik (emakume baten heriotza genero-indarkeriako testuinguru batean), eta, bestetik, nahiz eta arazoa hildako biktimaren identifikazioan ez egon zentratuta, beharrezkoa ez zen informazioaren interes orokorra eztabaidatzen zelako (zehazki, biktimaren hilotzaren argazkia, inolako zalantzarik gabe garrantzi publikoko gertakari bati laguntzeko).

Hori dela eta, ulertzen dugu Probintzia Auzitegiak esandako argazkiarekin lotuta hartutako ondorioak biktima identifikatzeko bidea egiten duten datuak zabaltzeari ere aplikatzeko modukoak direla, bi kasuetan alferrikako informazioak baitira eta, ondorioz, biktima zuzenaren intimitaterako eskubidea urratzen baitute (baldin eta jarraitzen badugu pertsonalitatearen eskubideak heriotzarekin ez direla amaitzen dioen jurisprudentzia) edota zeharkako biktimena (baldin eta pertsonalitatearekin lotutako eskubideak heriotzarekin amaitu egiten

dirrela eta, ondorioz, gertuko familia-intimitaterako eskubidean oinarritu behar dela dioen jurisprudentziari jarraituz gero).

Horrez gain, aipatu dugun Kordobako Probintzia Auzitegiaren epaiaren bidez, ondoriozta daiteke, identifikatzeko bidea egiten duten datuak ematea ez ezik, biktimaren argazkiak zabaltzea ere intimitaterako eskubidean modu ez-legitimoan sartzea izan litekeela.

### 34. FUNTSEZKO IDEA

- Intimitaterako eskubidea, izen-abizenak argitaratzearekin ez ezik, zeharka identifikatzeko bidea egiten duten datuak zabaltzearekin ere urra daiteke.

## ONDORIO GISA

### 4.5.3

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren epaiak bezalaxe, aztertu berri ditugun Probintzia Auzitegien epaiak ere baieztatzen dute **ez daukala interes publikorik delitu baten biktima zuzenean zein zeharka identifikatzeko aukera ematen duten datuak zabaltzeak, eta datu horiek ematea ez dela beharrezkoa**. Esandako hori gure ikerketa-esparrura ekarrita, inolako zalantzarik gabe, genero-indarkeriako testuinguru batean hildako emakumearen identifikazioa egitea komunikabideetan intimitaterako eskubidean modu ez-legitimoan sartzea da, informazio horrek ez baitaika interes orokorrik.

### 35. FUNTSEZKO IDEIAK

- Konstituzio-jurisprudentzian gertatzen de moduan, Probintzia Auzitegiak banatuta daude pertsonalitatearen eskubideak heriotzaren ostean iraungitzen ote diren ala ez erabakitzeke garaian.
- Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak bezalaxe, Probintzia Auzitegiek aitortzen dute delitu-egitateen interes publikoa, baina ukatu egiten diote interes hori biktimak zuzenean edo zeharka identifikatzeko bidea egiten duten datuei. Hori dela eta, ulertzen dute datu horiek ematea intimitaterako eskubidean modu ez-legitimoan sartzea dela.



# 5

## **EUOPAR BATASUNEKO HAINBAT ESTATUTAKO JARDUNBIDEA**



Atal honetan zera aztertuko dugu, EBko hainbat estatuk zer-nola ematen dituzten genero-indarkeriako ekintza baten ondorioz hildako emakume bat identifikatzea ahalbidetzen duten informazioak. Horretarako, herrialdeotako komunikabideek gertaera mota honi zer nolako informazio-trataera ematen dioten aztertzeaz gain, araudia eta jurisprudentzia ere errepasatuko dira, eta, hala dagokionean, komunikabideak autorregulatzeko sistema ere bai.

## ALEMANIA

# 5.1

### GENERO- INDARKERIAK ERAGINDAKO HERIOTZEN INFORMAZIO- TRATAMENDUA

## 5.1.1

Oro har, Alemaniako prentsak **ez du biktima identifikatzeko edo indibidualizatzeko auke-ra sortzen duen daturik eskaintzen**, emakume bat bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren eskuetan hiltzen denean genero-indarkeriako testuinguru batean. Ez da argazkirik zabaltzen, ezta biktimaren zein erasotzailearen izen-abizenik ere. Halaber, biktimaren helbiderik ere ez da aipatzen: **gehienez ere, udalerrria ematen dute, kalea zehaztu gabe, eta inola ere ez biktimaren etxebizitzaren zenbakirik.**

Gertakari mota horiekin Alemaniako komunikabideek ematen dituzten datuen artean, identifikatzeko potentzialari erreparatuta, honako hauek nabarmentzen dira: biktimaren izena eta abizenaren lehen hizkia, bien adina, familia-egoerari dagozkion inguruabarrak (elkarrekin dituzten seme-alabak, dibortziatuta edo bananduta dauden, tratu-txarreatik ipinitako salaketak, urruntze-aginduak eta abar), eta bestelako hainbat datu, hala nola erasotzailearen nazionalitatea<sup>109</sup>. **Nolanahi ere, kontuan izan behar da nekez lortzen dela biktima indibidualizatzea, albiste bakoitzean emandako datuak konbinatuta ere.**

Testuinguru horretan, interesgarria da ikustea sexu-askatasunaren kontrako biktimak indibidualizatzea posible egiten duten datuak ere ez direla zabaltzen, berdin du biktimok adingabeak<sup>110</sup> ala adindunak<sup>111</sup> diren.

109 Ikus honako adibide batzuk: <http://www.welt.de/regionales/nrw/article147293848/Er-erschoss-seine-Frau-die-auf-dem-Sofa-schlieft.html>; <http://www.sueddeutsche.de/muenchen/angekuendigter-mord-ich-bitte-mal-um-entschuldigung-1.2300736>; <http://www.sueddeutsche.de/muenchen/mord-an-ehefrau-lebenslange-haft-fuer-mesner-1.1634152>.

110 Ikus honako adibide batzuk: <http://www.badische-zeitung.de/getoetetes-kind-familientherapie-begann-zwei-tage-zuvor>; <http://www.badische-zeitung.de/suedwest-1/bewaehrungsstrafe-fuer-trainer-wegen-sexuellen-missbrauchs-29882916.html>; <http://www.berliner-zeitung.de/archiv/susanne-wird-von-einem-nachbarn-vergewaltigt-ihre-schwangerschaft-bringt-es-monate-spaeter-an-den-tag-drei-jahre-spaeter-steht-ein-endgueltiges-gerichtsurteil-aus-schweigen-reden-schweigen,10810590,9914584.html>.

111 Ikus honako adibide batzuk: <http://www.morgenpost.de/berlin/polizeibericht/article205804023/Polizei-sucht-mit-Foto-mutmasslichen-Vergewaltiger.html>; <http://www.sueddeutsche.de/muenchen/muenchen-jaehrige-vergewaltigt-1.2705746>; <http://www.berliner-zeitung.de/polizei/frau-in-reinickendorf-vergewaltigt-vergewaltiger-per-video-gesucht,10809296,32009120.html>.

Alemaniarako komunikabideek biktima jakin batzuen anonimotasunari dioten errespetua, neurri handi batean, esparru horretako jurisprudentziari zor zaio. Jurisprudentzia hori azaldu aurretik, ikerketa honek aztergai dituen kasuetan Alemaniak aplikatzen duen araudia aipatuko dugu labur-labur.

Lehenik eta behin, 1949 Oinarri Legea aipatu behar dugu. Lehendabiziko artikulua pertsonaren duintasuna babesten du; bigarrenak, berriz, pertsonalitatea modu askean garatzeko eskubidea jasotzen du, betiere gainerakoen eskubideak urratzen edota ordena konstituzionala zein morala hausten ez dituenean<sup>112</sup>. Ohorerako eskubidea biltzeaz gain, pertsonalitatea modu askean garatzeko eskubideak bermatzen du gizabanako bakoitzak erabakitzen duela berari buruz argitaratuko den informazioari buruz; informazio horretan sartzen dira pertsonaren irudia, hitzak (idatziak zein ahozkoak) edota bizitza pribatuari buruzko xehetasunak<sup>113</sup>.

Bestalde, bosgarren artikulua adierazpen-askatasunerako eta informaziorako eskubideak aurreikusten ditu; edonola ere, eskubide horien muga gisa ezartzen du ohorerako eskubidea, baita lege orokorren zein gazteak babesteko legeen xedapenak ere.

Alemaniarako araudia aztertu ostean, ikusiko dugu nola egiten duen Alemaniako jurisprudentziak, batetik, pertsonalitateko eskubidearen eta, bestetik, adierazpen-askatasunerako eta informaziorako eskubideen arteko haztapena, bi muturrak gatazkan daudenean.

Bigarrenik, Alemaniako Kode Zibilaren 823.1 artikulua sortutako kaltea erreparatzeko obligazioa ezartzen du, hainbat eskubide modu bidegabean urratzen diren kasuetan: bizitzarako eskubidea, osotasun fisikorako eskubidea, osasunerako eskubidea, askatasunerako eskubidea edota beste edozer eskubideren jabetza. Hala, jurisprudentziak ulertu du pertsonalitateko eskubidea (horien artean dago intimitateko) Alemaniako Kode Zibilaren 823.1 artikulua «beste hainbat eskubide» gisa aurreikusten dituenen barruan dagoela.

Esandako artikulua hori Kode Zibileko 1004.1 artikuluekin konbinatuta (azken hori analogiaz aplikatuta, jabetzaren kontrako erasoei egiten baitie erreferentzia), Alemaniako jurisprudentziak onartu du kontratuz kanpoko erantzukizunari buruzko legeria aplikatu daitekeela pertsonalitateko eskubideak urratzen dituzten jokabideen aurrean, hala nola pertsona baten bizitza pribatuko xehetasunak baimenik gabe argitaratzean.

Hirugarrenik, nahiz eta norberaren irudirako eskubideari erreferentzia egin (eta ez intimitateko eskubideari), esparru artistikoko egile-eskubideei buruzko Legearen 22. eta 23. artikulua nabarmendu behar dira. Aipatutako 22.1 artikulua arabera, **oro har, irudiak delako pertsonaren berariazko baimenarekin bakarrik zabaldu ahal izango dira**. Dena dela, Lege beraren 23. artikulua, arau orokorraren salbuespen gisa, baimenik gabe irudi bat argitaratzea aurreikusten du, irudi horrek historia garaikideari erreferentzia egiten dionean eta hura argitaratzeak ez duenean eragindako pertsonaren interes legitimo bat urratzen. Azken manu horrekin loturik, Alemaniako jurisprudentziak historia garaikideko pertsonalitate «absolutuak» eta pertsona «erlatiboki publikoak» bereizi ditu; hala, lehendabizikoei babes-esparru askoz ere zorrotzagoa ipini die (bizitza pribatua babesteko eskatu ahal izango dute baldin eta egiaztatu badezakete toki isolatu batean daudela eta jendearen begietatik kanpo).

112 MARKESINIS, B.S., UNBERATH, H., *The German Law of Torts. A Comparative Treatise*, Hart Publishing, Oxford and Portland, 2002, 78 or.

113 TUGENDHAT QC, M., CHRISTIE, I., *The Law of Privacy and the Media*, Oxford University Press, Oxford – New York, 2002, 67-68 or.



Alemaniarako jurisprudentziari dagokionez, arazoa Espainiarako baldintza berberetan planteatzen da: oreka bat topatu behar da, batetik, bizitza pribatuaren (Oinarri Legearen 2. artikuluan aurreikusitako pertsonalitaterako eskubide gisa) eta, bestetik, informazioarako eskubidearen artean (Oinarri Legearen 5. artikulua).

Haztapenaren emaitza kasu konkretu bakoitzaren inguruabarren arabera izango da, eta jurisprudentziak gida erabilgarriak eskaintzen ditu horretarako, baina ez arau lotesleak<sup>114</sup>.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eta Espainiarako Konstituzioak bezala, informazio-eskubidearen aldeko nolabaiteko presuntzio bat aitortzen duen arren (gizarte demokratiko batean oinarritako balioa duen aldetik), Alemaniako jurisprudentziak behin eta berriz dio kasuan-kasuan haztapen bat egin beharra dagoela<sup>115</sup>, eta, horretarako, hainbat irizpide baliatzen ditu. Horien artean, honako hauek:

- informazioaren garrantzia (interes orokorra du edo argitaratzen duenari bakarrik ematen dio onura ekonomikoa);
- egiazkotasuna eta informazio-askatasunaren murrizketa zabaltzea (murrizketa alferrikakoak onartezinak izango dira)<sup>116</sup>.

Interesgarria da, anonimotasunerako eskubidearekin loturik, *Lebach* kasu ezaguna<sup>117</sup>; bertan, pertsonalitatea modu askean garatzeko eskubidearen (Oinarri Legearen 1. eta 2. artikulua) eta informazio-askatasunerako eskubidearen (Oinarri Legearen 5. artikulua) arteko gatazka sortzen zen, kondena betetzen ari zen pertsona baten homizidioan izandako partaidetzari buruzko telebistako dokumental batekin loturik<sup>118</sup>.

Esandako dokumentalak kondenatuaren izen-abizenak eta argazkia ematen zituen; kondenaren bi herenak beteta zeuzkan eta laster askatu behar zuten<sup>119</sup>.

1973ko ekainaren 5eko epaian, Alemaniako Konstituzio Auzitegiak baieztatu zuenez, **krimenei buruzko informazioak ematean, informazioarako eskubideak gailendu behar du, krimenok historia garaikidearen zati diren aldetik**<sup>120</sup>. Horrez gain, argitu zuen krimen larri bati buruzko informazioa zabaltzeak, **egilearen izena eta irudia argitaratzea justifikatzeaz gain, bizitza pertsonalari buruzko informazioa ematea ere justifikatzen duela, betiere gertakariarekin loturik eta krimena egitera bultzatu zuen arrazoia ezagutzea bilatzen badu**<sup>121</sup>.

Alemaniarako Konstituzio Auzitegiaren arabera, informazio-askatasunerako eskubidea dela eta, zigor-arloko legeak hausten dituenak zigorra ez ezik berak egindako gertakaritik eratorriko informazioaren interes publikoa ere jasan behar ditu<sup>122</sup>.

Dena dela, era berean adierazi zuen informazio-askatasunerako eskubidea ez dela modu absolutuan gailentzen, baizik eta krimen baten egilearen esfera pertsonala inbaditzeko ga-

114 MARKESINIS, B.S., UNBERATH, H., *The German Law of Torts, cit.*, 77. or.

115 Ikus 423-429. orrialdeak.

116 Ikus 78. or.

117 BVerGE 35, 202, 42 kasua.

118 TUGENDHAT QC, M., CHRISTIE, I., *The Law of Privacy, cit.*, 67-68. orrialdeak; MARKESINIS, B.S., UNBERATH, H., *The German Law of Torts, cit.*, 423-429. or.

119 MARKESINIS, B.S., UNBERATH, H., *The German Law of Torts, cit.*, 423-429. orrialdeak.

120 Idem.

121 Idem.

122 Idem.

raian informazioa jasotzeko interes publikoa egokiro asetzeko behar dena mugatu behar dela<sup>123</sup>. Hala, kondenatu batek bere garaian krimen larri bat egin izanagatik publikoaren atentzia eskuratu bazuen ere, komunitate bateko kide izaten jarraitzen du eta indibidualtasuna babesteko jarraitzeko konstituzio-eskubidea izaten segitzen du<sup>124</sup>.

Hori dela eta, gertakariak jazo zirenetik igaro den denbora dela eta, Alemaniako Konstituzio Auzitegiak ondorioztatu zuen epaituaren pertsonalitatea modu askean garatzeko eskubidea nagusitzen zela informaziorako interes publikoaren gainetik<sup>125</sup>.

Delituen biktimen anonimotasunerako eskubideari dagokion jurisprudentziara jota, nabarmendu behar da Alemaniako auzitegiek babes berezia eskaintzen dietela delitu-egitate edo hondamendi baten biktimei, informazio jakin batzuk argitaratzetik<sup>126</sup>.

Jurisprudentziaren arabera, gaizkilea ez bezala, biktima interes publikoaren erdigunean ipintzen da ustekabeen (egoera horretan egoteko ezer egin gabe); horren ondorioz, biktimari buruzko informazioak ahalik eta gutxien izatera mugatu beharra dago<sup>127</sup>.

Münster hiriko lehen auzialdiko epaitegiaren 2004ko martxoaren 24ko epaian (LG Münster NJW-RR 2005, 1065 [1066]) jasotzen denez, biktimak eta haren senideek esperientzia mingarriak atzean uzteko eta lasaitasunez barneratzeko aukera izan behar dute, publikoaren arretak eta jakin-minak eragindako zama jasan beharrik gabe<sup>128</sup>. Hori dela eta, auzitegiak jarraitu zuenez, ez dira biktima identifikatzeko aukera emango duten datuak argitaratu behar, haren borondatearen kontra<sup>129</sup>.

Epai horretan, emakume baten demanda aztertzen zen; bertan, ulertzen zen pertsonalitatearen garapen aserako eskubidea urratu zela erreportaje baten argitalpenarekin. Erreportaje horretan kontatzen zen emakumearen senar ohiak elkarrekin zuten semeari eztarria moztu ziola, emakumeak senarrarengandik banandu nahi zuela esan zionean; hala, emakumearen eta senar ohiaren irudiak biltzen ziren. Lehen auzialdiko epaitegiak demanda ipini zuenari eman zion arrazoi, eta ulertu zuen Alemaniako Kode Zibilaren 823.1 artikulua urratu zela, baita esparru artistikoko egile-eskubideen Legearen 22. eta 23. artikulua ere.

Argitaratutako argazkiei eta esparru artistikoko egile-eskubideen Legearen 23. artikuluan aurreikusitako salbuespenari dagokienez (irudi bat baimenik gabe argitaratzeko aukera, historia garaikideari erreferentzia egiten dionean), lehen auzialdiko epaitegiak argudiatu zuenez, nahiz eta delituen biktimak historia garaikideko pertsona «erlatiboki publikotzat» har daitezkeen, 23. artikulua berak, salbuespen hori aplikatzeko, eskatzen zuen irudiaren argitalpenak ez urratzea eragindako pertsonaren interes legitimo bat<sup>130</sup>.

Auzitegiak baieztatu zuen esandako salbuespena ezin zitekeela kasu honetan aplikatu, eragindako pertsonaren interes legitimoa urratzen baitzuen; hala, ondorioztatu zuen argazkiak argitaratzeak demanda ipini zuen emakumearen pertsonalitatea modu askean garatzeko eskubidea urratzen zuela<sup>131</sup>.

---

123 *Idem.*; FAYOS GARDÓ, A., *Derecho a la intimidad, cit.*, 150-158. or.

124 MARKESINIS, B.S., UNBERATH, H., *The German Law of Torts, cit.*, 423-429. or.

125 *Idem.*

126 DILLMANN, M., *Der Schutz der Privatsphäre gegenüber Medien in Deutschland und Japan. Eine rechtsvergleichende Untersuchung der zivilrechtlichen Schutzinstrumente*, Mohr Siebeck, Tübingen, 2012, 139. or.

127 *Idem.*, hurrengo epaiei erreferentzia eginez: OLG Hamburg NJW 1975, 649 (651); OLG Frankfurt AfP 1976, 181; OLG Düsseldorf AfP 2000, 574 (575); LG Münster NJW-RR 2005, 1065 (1066).

128 LG Münster NJW-RR 2005, 1065 (1066), 47. eta 49. paragrafoak.

129 LG Münster NJW-RR 2005, 1065 (1066), 47. eta 49. Paragrafoak. Zentzu berean, OLG Frankfurt AfP 1976, 181; LG Stuttgart ZUM-RD 2005, 412 (413f). Ikus DILLMANN, M., *Der Schutz, cit.*, 139. or.

130 LG Münster NJW-RR 2005, 1065 (1066), 39. paragrafoa.

131 LG Münster NJW-RR 2005, 1065 (1066), 40. paragrafoa.

Kontuan izanik demanda ipini zuen emakumearen pertsonalitatea modu askean garatzeko eskubidearen aurrean informazio-askatasunaren eskubidea zegoela, lehen auzialdiko epaitegiak ezinbestekotzat jo zuen bi eskubideak haztatzea, eta lehendabizikoaren alde egin zuen; izan ere, iritzi zion emakumearen intimitaterako eskubidea (haren sendian izandako gertaera izugarri batekin loturik) argi eta garbi gailentzen zitzaiola informazio-askatasunari<sup>132</sup>.

Auzitegiaren arabera, garrantzitsua zen honako hau kontuan izatea: delituen biktimak euren nahi gabe igarotzen direla interes publiko izatera eta sufrimendu handia jasaten dutela (aztertutako kasuan, demanda ipini zuen emakumearen semea senar ohiaren eskuetan hil zen); hori dela eta, biktimek eta euren senideek eskubidea dute komunikabideek euren tristura errespetatu diezaieten eta ez dezaten eman identifikatzeko aukera sortzen duen daturik, guztia ere publikoarengatik aldentuta izateko eta gertatutako barneratze<sup>133</sup>.

Esandako helburu hori zapuztu egiten da biktima identifikatzea posible egiten duten datuak ematean (irudia argitaratzean, adibidez), eta horrek zama erantsi bat ipintzen die biktimei eta senideei<sup>134</sup>. Horrenbestez, lehen auzialdiko epaitegiak ondorioztatu zuenez, emakumeak, delituaren biktimaren senide den aldetik, anonimotasunerako eskubidea zuen eta eskubide hori informazio-askatasunaren gainetik zegoen<sup>135</sup>.

Era berean, interesgarria da Hanburgoko Apelazioko Probintzia Auzitegiaren 1975eko epaia (OLG Hamburg NJW 1975, 649 [651]), gizon batek emakumea hiltzeko ahaleginari buruzko informazio xehatu bat zabaltzea bidegabetzat jo zuena, analisisan biktimaren nortasuna jakiteko aukera eskaintzen zuela adierazita<sup>136</sup>.

Ikusten dugu, horrenbestez, Alemaniako jurisprudentziak hainbat kasutan berriaz aipatu duela delituaren biktimen anonimotasunerako eskubidea (baita senideena ere), eta ikusten dugu, era berean, eskubide hori informazio-askatasunerako eskubidearen gainetik ipini duela.

## AUTORREGULAZIO-SISTEMA

### 5.1.4

Amaitzeko, Alemaniako prentsaren autorregulazio-sistemari egin behar diogu erreferentzia. Europako beste hainbat herrialdetan bezala, Alemaniako prentsak Prentsa Kode batean oinarritutako autorregulazio-sistema ba dauka (*Pressekodex*), kazetariei irizpideak ezartzen dizkiena. Prentsa Kontseiluak (*Presserat*) jasotzen ditu Kodeko irizpideak ez betetzeagatik sortzen diren kexak, prentsan izandako argitalpenekin loturik betiere. Kontseiluak bi aldeen artean bitartekaritza-lanak egin ditzake, baina ohar editoriak, zentsurak eta kazetaritzako arau-hauste larriak gertatuz gero, errieta publikoak ere egin ditzake, dagokion komunikabideak argitaratzeko.

Prentsa Kodearen zortzigarren irizpidea interesatzen zaigu lan honetan, pertsonalitatea babesteari buruz hitz egiten baitu<sup>137</sup>. Esandako irizpide horren arabera, prentsak pertsonaren bizitza pribatua errespetatu behar du, baita haren autodeterminazio- eta informazio-pertsonalerako eskubidea ere, eta, adierazten duenez, pertsona baten identifikazioa ahalbidetzen duten datuak argitaratzeko, ezinbestekoa da interes publikoa (eta ez interes

132 LG Münster NJW-RR 2005, 1065 (1066), 46. paragrafoa.

133 LG Münster NJW-RR 2005, 1065 (1066), 47-49. paragrafoa.

134 LG Münster NJW-RR 2005, 1065 (1066), 49. paragrafoa.

135 LG Münster NJW-RR 2005, 1065 (1066), 49. paragrafoa.

136 Ikus DILLMANN, M., *Der Schutz*, cit., 139. or.

137 *Pressekodex* testu librea, honakoan ikus daiteke: <http://www.presserat.de/pressekodex/pressekodex/>.

sentsazionalista hutsa) delako pertsonaren eskubideen gainetik egotea. Gaineratzen du pertsona baten anonimotasuna gorde behar denean esandako anonimotasunak efektiboa behar duela izan.

Zortzigarren irizpideko lehen atalak aitortzen badu ere publikoak interes bidezkoa duela krimenei, ikerketei eta epaiketei buruzko informazioa jasotzeko (eta prentsak horrekin lotutako informazioa emateko), irizpide beraren bigarren atalean jasotzen da, biktimak babestearekin lotuta, nortasuna babesteko eskubide berezia daukatela.

Argudiatzen du **biktimaren nortasunaren** berri izateak, oro har, ez duela garrantzirik istripu, hondamendi edo krimen baten inguruabarrak ulertu ahal izateko. Hori dela eta, biktimaren izena eta argakia argitaratzea bidezkoa izango da baldin eta biktimak, senideek edo horretarako ahala duten pertsonak baimena ematen badute (edo biktima figura publikoa bada).

Argitalpenak zeharka eragindako senideei edo beste pertsoneri dagokienez, ez baldin badaukate informazioaren gaiarekin inolako loturarik, Kodeak ezartzen du, zortzigarren irizpideko laugarren atalean, oro har ez dagoela baimenduta haien izena eta argazkiak ematea.

Prentsa Kodearen esandako irizpide hori garrantzitsua da, azaldu dugun moduan, eragindako pertsonaren eskubidea gailentzen baitu interes publikoaren gainetik, haren identifikazioa ahalbidetzen duten datuak zabaldu ahal izateko; ondorioz, arau orokorra litzateke ez direla datu horiek eman behar. Horrez gain, esandako irizpide hori garrantzitsua da, babes berezia ipintzen baitu biktimen nortasunean ez ezik haien senideen edo publikazioak zeharka eragindako pertsonen nortasunean ere.

## ONDORIO GISA

### 5.1.5

Egiaztatu ahal izan dugun moduan, nahiz eta lege-manu batek ere ez duen berariaz bermatzen delituaren biktimen anonimotasunerako eskubidea, Alemaniako jurisprudenzia ulertzen du, delitu-egintzei dagokien informazioa ematean, biktimaren anonimotasunerako eskubideak informazio-askatasunaren gainetik egon beharko lukeela. **Horretarako, biktimek duten eskubidea hartzen dute oinarri, hain zuzen, gertatutakoa arreta mediatikoak erantsitako zamarik gabe barneratu ahal izateko.**

Antzeko moduan, Prentsa Kodearen zortzigarren irizpideak ezartzen du, oro har, ez direla delitu baten biktima edo haren senideak identifikatzen lagunduko duten datuak eman behar, ez baita beharrezkoa eman nahi den informazioa transmititzeko.

Testuinguru horretan, ez da harrizkekoa, nahiz eta biktimen anonimotasunerako eskubidea aurreikusten duen araudi espezifikorik ez izanagatik ere, Alemaniako komunikabideek ez datuak ematea, genero-indarkeriako delituetan hildako emakumeak zuzenean zein zeharka identifikatu ahal izateko.

Eta albisteak ematean ez da urratzen informazio-askatasunerako eskubidea; izan ere, Alemaniako ikus-entzuleei interes orokorreko gertakari baten berri ematen diete (genero-indarkeriako egintza baten ondorioz hildako emakume baten kontakizuna egitea, zalantzarik gabe, hala baita); zera egiten dute bakar-bakarrik, beharrezkoa ez den informazio bat ez eman, interes publikorik ez duena eta biktima bat egokiro berreskuratzeko oztopo larriak eragin ditzakeena: haren nortasuna.

### 36. FUNTSEZKO IDEIAK (ALEMANIA)

- Alemaniako komunikabideetan, arau orokorra zera da, genero-indarkeriako egintza baten ondorioz hildako emakumeak zuzenean zein zeharka identifikatzea ahalbidetzen duten datuak ez ematea.
- **Biktima identifikatzea edo indibidualizatzea ahalbidetzen duten datuak ez dira ematen.** Ez da argazkirik zabaltzen, ezta biktimaren zein erasotzailearen izen-abizenik ere. Halaber, biktimaren helbiderik ere ez da aipatzen: **gehienez ere, udalerria ematen dute, kalea zehaztu gabe, eta inola ere ez biktimaren etxebizitzaren zenbakirik.**
- Informazioa **krimenei buruzkoa denean, informazio-askatasunak gaintik izan behar du, krimenok historia garaikidearen zatitzat jotzen baitira** (ekin-tzen egileari dagokionez). Krimen larri bati buruzko informazio objektiboa zabaltzeak, **egilearen izena eta irudia argitaratzea justifikatzeaz gain, bizitza personalari buruzko informazioa ematea ere justifikatzen du.**
- **Delituaren egilea ez bezala, biktima interes publikoaren erdigunean ipintzen da ustekabeen; horren ondorioz, biktimari buruzko informazioak ahalik eta gutxien izatera mugatu beharra dago.**
- Nahiz eta lege-manu batek ere ez duen berariaz bermatzen delituaren biktimen anonimotasunerako eskubidea, Alemaniako jurisprudentziak babes berezia eskaintzen die biktimen eta haren senideen nortasunei.
- Jurisprudentziaren arabera, delitu-egintzen informazio-trataeran biktimaren eta haren senideen anonimotasunerako eskubidea nagusitzen da informazio-askatasunaz gaindik; izan ere, interes publikoaren zati izatera igarotzen dira **nahi gabe, sufrimendu handia izaten dute eta publikotik aldentuta egoteko eskubidea dute, gertatutakoa lasaitasunez barneratu ahal izateko.**
- ***Biktimak eta haren senideek esperientzia mingarriak atzean uzteko eta lasaitasunez barneratzeko aukera izan behar dute, publikoaren arretak eta jakin-minak eragindako zama jasan beharrik gabe. Ez dira biktima identifikatzeko aukera emango duten datuak argitaratu behar, haren borondatearen kontra.***
- Prentsa Kodearen zortzigarren irizpidearen arabera, arau orokorra delitu-egitateen biktimak ez identifikatzea litzateke, informazio hori ez baitu garrantzitsutzat jotzen krimenaren inguruabarrak ulertu ahal izateko.

## FRANTZIA

# 5.2

### GENERO-INDARKERIAK ERAGINDAKO HERIOTZEN INFORMAZIO-TRATAMENDUA

## 5.2.1

Oro har, Frantziako komunikabideek, emakume bat genero-indarkeriako testuinguruan hil dela jakinarazten dutenean, ez dute biktimaren identitatea jakinarazten, ezta indibidualizatzeko aukera sortuko lukeen daturik ere: ez dira biktimaren edota erasotzailearen izen-abiZenak ematen, eta ez dira euren irudiak zabaltzen.

Tankera horretako gertakari bati heltzean, komunikabideek honako datu hauek ematen dituzte: erasotzailearen eta/edo biktimaren izena (eta, gehienez, abizenaren lehen hizkia); gertakariak zer udalerritan gertatu diren, baina oro har ez dute kalearen izena zabaltzen, eta are gutxiago atariaren zenbakia; erasotzailearen adina eta/edo biktimarena; familia-egoerari buruzko datuak (elkarrekin seme-alabarik bazuten, banantzeko izapideak eta abar); eta gertakariekin lotutako bestelako xehetasunak (arrazoia, erabilitako arma...) <sup>138</sup>.

Dena den, kasu batzuetan, komunikabideek biktimaren etxebizitzari buruzko datuak ematen dituzte, identifikatzeko aukera emango luketenak. Inolako zalantzarik gabe, etxearen eta kalearen izenaren irudiak ematean (batzuetan, atariaren zenbakia ere bai <sup>139</sup>) genero-indarkeriako egintza batean hildako biktima indibidualizatzeko aukera sortzen da.

Modu ezohikoan, topa litezke Frantziako komunikabideek biktimaren eta erasotzailearen izen-abizenak eman dituzten kasuak, baita bien argazkiak emandakoak ere <sup>140</sup>. Edonola ere, kontuan izan behar da kasu gehienak atzerrian izandako gertaerak direla, eta, horrenbestez, ezohiko kasu horien arrazoia baliteke izatea biktimaren nortasuna dagokion herrialdeko komunikabideek zabaldu izana.

## ARAUDIA

## 5.2.2

Frantzian bizitza pribatua babesten duen araudiari dagokionez, bide zibila eta zigor-arloko bidea desberdindu behar dira. Bide zibilari dagokionez, Frantziako Kode Zibilaren 9. artikulua nabarmendu behar dugu (Bizitza pribatua errespetatzeko eskubidea), 1970ean jasoa <sup>141</sup>. Aipatutako artikulua ezarritakoaren arabera, pertsona guztiek dute euren bizitza pribatua

138 Ikus, adibidez: <http://www.lejdd.fr/Societe/Faits-divers/A-Lyon-un-homme-tue-sa-femme-et-quatre-de-leurs-enfants-763025>; <http://www.leparisien.fr/provence-alpes-cote-d-azur/var-un-homme-de-79-ans-tue-sa-femme-a-coups-de-hache-22-10-2015-5209245.php#xtref=https%3A%2F%2Fwww.google.es>; <http://www.bfmtv.com/societe/lyon-un-pere-qui-a-tue-sa-femme-et-ses-enfants-ecroue-935029.html>; <http://france3-regions.francetvinfo.fr/provence-alpes/var/hyeres/hyeres-un-homme-tue-sa-femme-coups-de-hache-la-suite-d-une-dispute-835181.html>; <http://www.la1ere.fr/2015/10/19/ouverture-du-proces-d-un-homme-qui-tue-sa-femme-pour-une-photo-de-francky-vincent-297191.html>.

139 Ikus, besteak beste: <http://www.leparisien.fr/faits-divers/nord-cinq-membres-d-une-meme-famille-retrouves-morts-21-10-2015-5207021.php>; <http://www.ladepeche.fr/article/2015/10/10/2194936-homme-79-ans-tue-femme-livre-police.html>; <http://www.larepublique77.fr/2015/12/15/seine-et-marne-il-tue-sa-femme-avec-un-couteau-dispute-conjugale-meurtre/>.

140 Ikus, adibide moduan: <http://www.ladepeche.fr/article/2014/04/29/1872483-assassine-femme-tente-tuer-ex-toucher-pactole.html>; <http://www.24matins.fr/il-tue-sa-femme-et-publie-la-photo-de-son-corps-sur-facebook-57089>; <http://lci.tf1.fr/monde/amerique/canada-il-annonce-sur-facebook-avoir-tue-sa-femme-et-sa-fille-puis-8606172.html>.

141 TUGENDHAT QC, M., CHRISTIE, I., *The Law of Privacy*, cit., 65-66. or.; FAYOS GARDÓ, A., *Derecho a la intimidad*, cit., 159-162. orrialdeak.

errespetatua izateko eskubidea, eta «*epaileek, jasandako kaltea konpontzeari kalterik egin gabe, neurri guztiak preskribatu ahal izango dituzte –hala nola bahiketa, enbargoa edota bizitza pribatuaren intimitatearen kontrako edozer atentatu etenaraztea–; neurri horiek, premiaren arabera, urgentziaz agindu ahal izango dira*».

Egiazta daitekeenez, legegileak bizitza pribatua errespetatzeko eskubidea oso baldintza orokorretan formulatu du, eta, horren ondorioz, ezinbestekoa da jurisprudentziara jotzea edukia zehaztu ahal izateko<sup>142</sup>. Aurrerago ikusiko dugun moduan, Frantziako jurisprudentziak, zibilak zein zigor-arlokoak, duintasunaren irizpidea du oinarri bizitza pribaturako eskubidea urratu den ala ez erabakitzeke garaian. Jurisdikzio zibilean, auzitegiek Frantziako Kode Zibilaren 16. artikulura jotzen dute aipatutako irizpidea aplikatzeko, artikulua horretan baitago jasota duintasunerako eskubidea.

Era berean, Frantziako Kode Zibilaren 1382. artikulua ere aipatu behar da, Frantziako auzitegiak artikulua horretan oinarritzen baitira; bertan, erruak eragindako kaltea konpontzeko obligazioa aurreikusten da, bizitza pribatuaren errespeturako eskubidea modu bidegabean urratuz gero dagokion kalte-ordaina ezartzeko.

Zigor-arloko bideari dagokionez, Frantziako Zigor Kodearen 226.1 eta 226.2 artikuluek bizitza pribatuaren intimitatea urratzen duten portaera jakin batzuk zehatzen dituzte; edonola ere, xedapen horiek bizitza pribatuaren urratze posibleen kopuru mugatu bat biltzen dute, eta, horren ondorioz, biktimek nahiago dute bide zibila (aplikazio-eremu zabalagoa baitu) bizitza pribaturako eskubidea babesteko garaian<sup>143</sup>.

Era berean, Prentsa Askatasunaren Legea ere aipatu behar dugu (1881eko uztailaren 29koa); zehazki 35 *quater* artikulua, 2000ko irailaren 19ko 2000-916 ordenantzak txertatua eta 2002ko urtarrilaren 1an indarrean jarria. Esandako artikulua horrek 15.000 €-ko isuna ezartzen du, edozer komunikabidetan krimen edo delitu baten inguruabarren erreproduzioa zabaltzen den kasuetarako, erreproduzio horrek larriki urratzen badu biktimaren duintasuna eta haren adostasunik gabe zabaldu bada. Ikus daitekeen moduan, duintasuna larriki urratzea ez da oso irizpide zehatza, eta epailearen iritzirako marjina handia uzten du<sup>144</sup>.

Nabarmendu behar da lege beraren 39 *bis* eta 39 *quinquies* artikuluek (2000. urtean txertatuak horiek ere) 15.000 €-ko isuna ezartzen dutela arau-hauste baten biktima izan den adingabe baten identifikazioa baimentzen duten informazioa zabaltzen den kasuetarako (39 *bis*) eta sexu-askatasunaren kontrako delitu baten biktimarena ahalbidetzen denean (39 *quinquies*).

## JURISPRUDENTZIA

### 5.2.3

Frantziako jurisprudentziak sexu-delitu baten biktimaren nortasuna jakinarazten duten argitalpenen arduradunak zehatzen baditu ere (biktimaren anonimotasunerako eskubidearen kontraketzat jota, Prentsa-askatasunerako Legearen 39 *quinquies* artikuluan oinarri-

142 D'ANTIN, O., BROSSOLLET, L., "Le domaine de la vie privée et sa délimitation jurisprudentielle," *LEGICOM*, Vol. 1999/4, 20. zk, 9-19 or.; LACABARATS, A., "Vie privée et médias"; honakoan ikus daiteke: [https://www.courdecassation.fr/venements\\_23/colloques\\_formation\\_4/2002\\_2036/vie\\_privée\\_médias\\_8379.html](https://www.courdecassation.fr/venements_23/colloques_formation_4/2002_2036/vie_privée_médias_8379.html).

143 CORDIER, F., "L'atteinte à l'intimité de la vie privée en droit pénal et les médias," *LEGICOM*, 1999/4 bolumena, 20. zbk, 85-93. Or.; LACABARATS, A., "Vie privée," *cit*.

144 Lege-proiektuari dagokionez, hasiera batean, debeku hauek Zigor Kodean sartu nahi zituen, baina azkenik Prentsa Askatasunaren Legean sartu ziren, ikus ADER, B., "La Protection de la Présomption d'Innocence et les Droits des Victimes," *LEGICOM*, 1999/4 bolumena, 20. zk, 153. or.

tuta)<sup>145</sup>, ezin liteke gauza bera esan beste delitu batzuetako biktima adindunen kasuan. Bai jurisprudenzia zibilak, bai zigor-arlokoak duintasunaren irizpidea hartzen dute kontuan, delitu-egitate batean inplikaturako pertsona bati dagokion argitalpen jakin bat bizitza pribatuaren errespetu-printzipioaren kontrakoa ote den erabakitzeko.

Hala, Kasazio Gortearen Zigor-arloko Auzitegiak, 2001eko otsailaren 20ko epaian (98-84846, zenbakidun errekurtsioan)<sup>146</sup> adierazi zuen atentatu baten biktimaren argazkia ez zela intimitaterako eskubidea urratzea, argazkiak ez baitzuen haren duintasunaren kontra egiten, eta erakusten baitzuen zer babesgabetasun-egoeratan zegoen gaurkotasun-gertakari bereziki larri baten biktima<sup>147</sup>.

Kasazio Gortearen Arlo Zibileko Salak ere aplikatu du duintasunaren irizpidea: 2001eko otsailaren 20ko epaian (98-13875 zenbakidun errekurtsioa)<sup>148</sup>, iritzi zion eraildako pertsona baten aurpegia eta gorputza, bide publikoan etzanda, erakusten zituen argazki bat argitaratu izanak bizitza pribatuaren intimitaterako eskubidea urratzen zuela, pertsonaren duintasunaren kontra eraso egiteagatik.

Horrenbestez, ikusten dugu delitu baten biktimari dagozkion datuak zabaltzeko esparruan irizpide erabakigarria duintasuna dela, eta ez identifikatzeko aukera. Delitu baten biktima identifikatu ahal izateak ez du bizitza pribatuaren errespeturako eskubidea urratzen, nola eta ez den sexu-delitu baten biktima.

Biktimaren duintasunaren kontra egiten duten informazioak bakarrik hartuko dira bizitza pribatuaren errespetuaren kontratatzat, bai jurisdikzio zibilean, bai zigor-arlokoan.

## ONDORIO GISA

### 5.2.4

Egiaztatu ahal izan dugunez, Frantziako araudiak eta jurisprudenziak delituaren biktima duintasuna urratzen duten argitalpenetatik bakarrik babesten dute; aldiz, pertsona bat delitu baten biktima gisa identifikatzea ez da jotzen intromisio ez-legitimotzat bizitza pribatuaren errespeturako eskubidearen barruan (nola eta ez den sexu-delitu baten biktima).

Agian arrazoi horregatik Frantziako komunikabideak ez dira Alemaniakoak bezain errespetuzkoak genero-indarkeriak hildako biktimen identifikazioari dagokionez. Hain zuzen, genero-indarkeriako ekintza baten ondorioz hildako emakume bati buruz Frantziako komunikabideetan emandako albisteak aztertzean, zera ondorioztatzen dugu: nahiz eta kasu gehienetan komunikabideek biktimaren identifikazioa zabaldu ez, hainbat kasutan posible dela biktimaren identifikazioa egitea ematen dituzten datuak konbinatuta.

---

145 Ikus, esaterako, Kasazio Gortearen 2014/09/03 Auzitegi Kriminalaren epaia (13-83129 zk.).

146 Epaia: <http://www.legifrance.gouv.fr/affichJuriJudi.do?oldAction=rechJuriJudi&idTexte=JURITEXT000007591657>.

147 Kontuan izan behar da Prentsa-askatasunaren Legearen 35. *quater* artikulua ez zela indarrean jarri 2002ko urtarrilaren 1era arte; hori dela eta, esandako epaiak ez dio erreferentzia egiten duintasunaren irizpidea berriaz jasotzen duen manuari.

148 Epaia helbide honetan eskura daiteke: <http://www.legifrance.gouv.fr/affichJuriJudi.do?idTexte=JURITEXT000007042067&dateTexte=>. Era berean, duintasunerako irizpidea erabiltzen du, baina Kasazio Gortearen Arlo Zibileko Salaren 2004ko azaroaren 4ko epaiak (03-15397 zenbakidun errekurtsioa) ondorioztatzen du delako argazkiak (zirkulazio-istripu batean hildako biktimaren gorpua erakusten zuena) ez duela intimitaterako eskubidea urratzen.



### 37. GAKO-IDEIAK (FRANTZIA)

- Delitu baten biktimari dagozkion datuak zabaltzeko esparruan irizpide erabakigarria duintasuna da, eta ez identifikatzeko aukera.
- Delitu baten biktima identifikatu ahal izateak ez du bititza pribatuaren errespeturako eskubidea urratzen, nola eta ez den sexu-delitu baten biktima.
- Biktimaren duintasunaren kontra egiten duten informazioak bakarrik hartuko dira bititza pribatuaren errespetuaren kontratatzat, bai jurisdikzio zibilean, bai zigor-arlokoan.

## ERRESUMA BATUA

# 5.3

### GENERO- INDARKERIAK ERAGINDAKO HERIOTZEN INFORMAZIO- TRATAMENDUA

## 5.3.1

Alemaniko eta Frantziako komunikabideetan gertatzen ez den bezala, Erresuma Batukoetan ohikoa da genero-indarkeriako heriotzen kasuan biktimaren zein erasotzailearen izen-abizenak eta argazkiak jasotzea<sup>149</sup>. Horrez gain, tankera guztietako datuak ematen dituzte biktimari zein erasotzaileari buruz, hala nola helbidea, adina, ogibidea eta abar.

Erresuma Batuan Bititza pribatuaren (*privacy*) babesa aztertzeko garaian, kontuan izan behar dugu, Estatuko araudiak gain, komunikabideen autorregulazio-sistema, euren jardunbide egokietako kodeekin eta kontrol-organoeekin. Aurrerago ikusiko dugun moduan, alde batetik prentsak eta bestetik irrati eta telebistak kode eta kontrol-organo ugari dituzte. Horren arrazoa zera da, informazioa emateko desberdintasuna eta, batez ere, irratiek eta telebista-kateek lizentzia behar izaten dutela (horregatik daude mugatuago, legegintzako xedapenak direla eta); prentsa idatziak, alde horretatik, askeago jokatzen du.

---

149 Adibide asko aurki daitezke. Hurrengo berriak horren erakusgarri dira: <http://www.dailymail.co.uk/news/article-2411051/Mark-Paul-Czapla-arrested-Kirsty-Humphreys-death-daughter-finds-body.html>; <http://www.theguardian.com/uk-news/2013/oct/22/rachael-slack-murder-high-risk-andrew-cairns>; <http://www.telegraph.co.uk/news/uknews/crime/9492030/David-Oakes-murders-IPCC-finds-systematic-police-failings.html>; <http://www.theguardian.com/society/2014/mar/27/domestic-abuse-risk-murder-serious-injury>; <http://www.telegraph.co.uk/news/uknews/crime/10291162/Theresa-May-orders-review-of-police-domestic-violence-cases-in-wake-of-murders.html>; <http://www.theguardian.com/society/2015/oct/26/domestic-violence-victim-family-public-inquiry-into-police-response-rachael-slack>; <http://www.mirror.co.uk/news/real-life-stories/eighty-six-women-were-killed-7024881>; <http://www.dailymail.co.uk/news/article-2409667/Darfield-man-Stephen-Barnsdale-Queen-strangled-wife-stabbed-himself.html>; [http://i100.independent.co.uk/article/9-times-domestic-violence-victims-were-failed-by-police-gJ0QQP\\_6rl](http://i100.independent.co.uk/article/9-times-domestic-violence-victims-were-failed-by-police-gJ0QQP_6rl); <http://www.telegraph.co.uk/news/uknews/crime/8560538/Essex-shooting-father-had-been-on-polices-radar-for-two-years.html>.

Estatuko araudiari dagokionez, egia esan Erresuma Batuan ez dago bizitza pribatua babesten duen araudi espezifikorik. Hainbat lege-xedapen ditu bizitza pribatua babestera bideratuta, informazio pertsonal mota desberdineidagokienez; horrek askotan gainjartzeak eragiten ditu, eta, oro har, patroio orokor bat izatea galarazten<sup>150</sup>.

Nahiz eta barne-legerian Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak bildutako eskubideak txertatzeko Giza Eskubideei buruzko Lege bat onartu zuten 1998an (*Human Rights Act*), Erresuma Batuak ez dauka egiazko arma juridikorik bizitza pribatua babesteko: bizitza pribaturako eskubidea urratuta ikusten dutenek hainbat ekintza judizialetara bakarrik jo ahal izango dute (eta, gainera, haietako bakoitzerako baldintzak betetzen direnean), hala nola difamazioagatik ekintza judizialak abiaraztea (argitaratutako informazioa gezurra denean bakarrik egiten du aurrera), sekretu bat urratzeagatik (datu erabat konfidentzialak direnean bakarrik), edota besteren jabetza urratzeagatik<sup>151</sup>.

Delitu-egitateak argitaratzeari buruzko legedia ardatz hartuta, nahiz eta anonimotasunerako eskubide orokor bat izan ez, hainbat lege-xedapenek eskubide horren babesa bermatzen dute kasu jakin batzuetan<sup>152</sup>. Hala, erabat debekatuta dago prozesu judizial batean inplikaturako adingabe baten nortasuna zabaltzea edo irudia argitaratzea, adingabeen<sup>153</sup> edo adindunen<sup>154</sup> jurisdikzioan. Era berean, sexu-askatasunaren kontrako delituen biktimen nortasuna ematea ere galarazita dago<sup>155</sup>. Sexu-askatasunaren kontrako delituen biktimen anonimotasunerako eskubidea bizitza osoan mantentzen da, eta galarazi egiten du haien izena, helbidea edo irudia ematea<sup>156</sup>.

Adingabeen eta sexu-delituen biktimen kasuan diren aurreikuspen espezifikoez harago, Erresuma Batuko legeriak ez du bermatzen delituen biktimen anonimotasunerako eskubidea. Nabarmentzekoa da, kasu bakan batzuetan, auzitegiek debekatu egin dutela prozesu judizial batean esku hartzen duten hainbat pertsonaren nortasuna zabaltzea (edota identifikazioa posible egiten duten informazioak ematea), horrek euren osotasunerako eta justizia-administrazioarako izango lukeen arriskua saihesteko xedez<sup>157</sup>. Horrenbestez, salbuespen horiek segurtasun-arrazoia direla eta gertatu dira, eta ez intimitate-arrazoia direla medio.

Testuinguru horretan, sexu-delituen biktimekin gertatzen ez den bezala, genero-indarkeriako biktimek ez daukate anonimotasunerako eskubiderik. Horren ondorioz, eta jakinik gainera bizitza pribatua babesteko araudi espezifikorik ez dagoela, ulertzen da Erresuma Batuko komunikabideek genero-indarkeriako testuinguru batean hildako emakume bat identifikatzeko moduko datu guztiak ematea.

---

150 TUGENDHAT QC, M., CHRISTIE, I., *The Law of Privacy*, cit., 9. or. Zentzu berean, BARENDT, É., "La protection de la vie privée en Angleterre"; *LEGICOM*, 1999/4 bolumena, 20. zk, 115-120. or.

151 BARENDT, É., "La protection", cit., 115-120. or.

152 TUGENDHAT QC, M., CHRISTIE, I., *The Law of Privacy*, cit., 114. or.

153 Youth Justice and Criminal Evidence Act, 1999, 44. eta 45. atalak.

154 Children and Young Persons Act, 1933, 39. atala.

155 Ikus Sexual Offences (Amendment) Act, 1976, 4(1)(a) atala; eta Sexual Offences (Amendment) Act, 1992, 1.1 eta 1.2 atalak.

156 TUGENDHAT QC, M., CHRISTIE, I., *The Law of Privacy*, cit., 17-19. or.; MARKESINIS, B.S., UNBERATH, H., *The German Law of Torts*, cit., 480. or.

157 TUGENDHAT QC, M., CHRISTIE, I., *The Law of Privacy*, cit., 115 or.

Adierazi dugun moduan, kontuan izan behar da, Estatuko legeriarekin batera, Erresuma Batuko komunikabideen autorregulazio-sistema. Aurreratu dugun moduan, prentsa idatzirako eta ikus-entzunezko komunikabideetarako bi sistema berezitu dituzte: prentsa idatzia Editoreen Jardunbide Egokien Kodearekin dago gidatuta (*Editors' Code of Practice*), eta haren betetze-maila IPSOk (*Independent Press Standards Organisation*), zaintzen du; irradi- eta telebista-difusioaren kasuan, berriz, Ofcom Kodea (*Ofcom Broadcasting Code*) baliatzen dute, eta haren kontrolaz Ofcom bera arduratzen da (*Office of Communications*).

Nahiz eta esandako erakundeek aginte apala izan, Erresuma Batuko komunikabideen autorregulazioa garrantzitsua da bi arrazoi direla eta:

- lehenik eta behin, 1998ko Giza Eskubideen Legeak berak, 12(4) atalean, adierazten duelako auzitegiek modu berezian izan behar dituztela kontuan bitzta pribatuaren alorreko kode garrantzitsuak adierazpen- edo informazio-askatasunerako eskubideari eragin diezaieketen auziak ebazteko garaian<sup>158</sup>;
- eta, bigarrenik, autorregulazio-organoen aurreko prozesua merkeagoa delako, eskuragarriagoa (informalagoa den aldetik) eta bizkorragoa<sup>159</sup> (hala, askok eta askok nahiago dute bide horretatik jo, justizia-auzitegietara jo ordez).

Ikus-entzunezko komunikabideei dagokienez, 2003tik aurrera, Ofcom elkarteak esparru honetan diren bost autorregulazio-organoen eskumenak hartu ditu bere gain<sup>160</sup>, eta bera arduratzen da ikus-entzunezko komunikabideek Ofcom Kodea errespetatzen dutela zaintzeaz<sup>161</sup>. Horretarako, kexa-prozedura bat dauka, eta, haren bitartez, erabakitzen da kasu jakin batean Ofcom Kodean jasotako xedapenak modu batean ala bestean urratu diren ala ez.

Hemen, esandako kodearen zazpigarren eta zortzigarren xedapenak interesatzen zaizkigu.

Zazpigarrenak ekitateari egiten dio erreferentzia eta kazetariari eskatzen die saihestu dezatela gizabanakoen eta euren erakundearen trataera bidegabea euren programetan. Zortzigarren xedapenak, berriz, pertsonen bitzta pribatua intromisio ez-legitimoetatik babestea du xede. Kodeak berak adierazten du bitzta pribaturako intromisioak legitimo izango direla kazetariak frogatu dezakeenean interes publikoa nagusitzen dela bitzta pribaturako eskubideaz gaindik.

Hala, 8.3 artikulua ezartzen duenaren arabera, albiste izan litekeen gertakari batean inplikaturako pertsonen bitzta pribaturako eskubidea izaten jarraituko dute, baina, gaineratzen duenez, eskubide hori urra liteke baldin eta hori egitea legitimoztat jotzen bada (hau da, interes publikoak garrantzi handiagoa duenean bitzta pribaturako eskubideak baino). Sufri-menduari eta atsekabeari buruzko artikuluei dagokienez, 8.16 artikulua galarazi egiten du larrialdi-egoeran diren pertsonen sekuentziak edo audioak erreproduzitzea, baita istripuen biktimen edo hondamendi pertsonal bat izan dutenena ere, baldin eta horrekin euren bitzta pribaturako eskubidea urratzen bada (nola eta urratze hori ez den legitimoztat jotzen).

158 *Ibid.*, 521-522 or. Egileak berak baieztatzen duenez, auzitegiek kontuan hartzen dituzte autorregulazio-organoen erabakiak, jardunbide egokien kodeko xedapenak interpretatzen dituztenak, alegia.

159 *Ibid.*, 525. or.

160 The Broadcasting Standards Commission (BSC), the Independent Television Commission (ITC), Ofcom, the Radio Authority, y the Radiocommunications Agency.

161 Kode eguneratua helbide honetan kontsulta daiteke: [http://stakeholders.ofcom.org.uk/binaries/broadcast/code-july-15/Ofcom\\_Broadcast\\_Code\\_July\\_2015.pdf](http://stakeholders.ofcom.org.uk/binaries/broadcast/code-july-15/Ofcom_Broadcast_Code_July_2015.pdf).

Sufrimenduarekin eta atsekabearekin loturik, halaber, 8.18 artikulua kazetariari eskatzen die saia daitezela saihesten hildako pertsona baten nortasuna ematea edo istripu zein indarkeriazko krimen baten biktima izan den batena, harik eta biktimaren gertukoek horri buruzko informazioa jaso arte (eta, berriro ere, urratze legitimoaren salbuespena gaineratzen du).

Prentsari dagokionez, IPSO arduratzen da, 2014an PCC ordezkatu zutenetik (*Press Complaints Commission*), Editoreen Jardunbide Egokien Kodea urratu izanagatik herritarrek ipinitako keak jasotzeaz<sup>162</sup>. Kodearen 2. artikulua ezartzen duenaren arabera, pertsona orok dauka norberaren eta familiaren bizitza errespetatua izateko eskubidea; edonola ere, aurreikusten du kazetariak justifikatzea dezaketela pertsona baten bizitza pribatua sartu izana, informazioaren interes publikoa kontuan izanda<sup>163</sup>. Kodeak azaltzen duenaren arabera, interes publikoaren barruan sartzen dira delitu edo falta astun bat hauteman edo erakutsi izana.

Laugarren artikulua, bestalde, saminean edo shockean sartzeaz arduratzen da, eta adierazten du kasu horietan informazioa gupidaz eta diskrezioz jaso behar dela, eta informazioa, berriz, modu sentikorrean argitaratu behar dela; halaber, gaineratzen du horrek ez duela galarazi behar prozesu judizialei buruzko informazioa ematea. Kodearen 9. artikulua, aldiz, krimenaren estalduraren auzia jorratzen du, eta ezartzen du krimen batean kondenatutako edo akusatutako pertsonen lagunak edo senideak, oro har, ez liratekeela identifikatu behar haien baimenik izan ezean, nola eta ez den benetan garrantzitsua kontakizunean edota interes publikoak hala justifikatzen ez duen. Artikulu berberak ohartarazten duenez, krimena ikusten duten edo haren biktima diren haurren posizio zaugarriak zaintza berezia behar du, baina horrek ez du murriztu behar prozesu judizialei buruzko informazioa emateko eskubidea.

Estatuko legeriaren antzera, Editoreen Jardunbide Egokien Kodeak debekatu egiten du, 11. artikulua bidez, sexu-delituen biktima identifikatzea edo haren identifikazioa posible egiten duten informazioak argitaratzea. Edonola ere, sexu-delituen biktimaren lotuta ezarritakotik harago, Kodeak ez du galarazten delitu-egitateen biktimen nortasuna zabaltzea. Pentsa liteke, nahiz eta berriaz jasota egon ez, delituen biktimen anonimotasunerako eskubidea Kodearen 2., 4. edo 9. artikuluetan ezarritakotik erator litekeela. Nolanahi ere, garai bateko PCCren irizpenetatik ondorioztatzen da hipotesi hori ezin dela egin.

Hain zuzen ere, Kodearen 2. artikulua urratu izana alegatu denean inor delitu baten biktima gisa identifikatu izanagatik, PCCk ukatu egin du urratze hori, ulertuta delitu-egitateak interes publikokoak direla eta pertsona bat delitu baten biktima gisa identifikatzea ez dela informazio pribatua; hala, berriaz aipatu du Kodeak ez duela aurreikusten krimen baten biktima adindunen anonimotasunerako eskubidea<sup>164</sup>. Nabarmendu behar da PCCk urratutzat jotzen duela Kodearen 2. artikulua delitu baten biktima identifikatzean, baldin eta identifikazio horrek biktimaren bizitza arriskuan ipintzen badu<sup>165</sup>. Kontuan izan behar da, era berean, nahiz eta PCCk biktimaren bizitza pribatua sartze gisa hartu, 2. artikulua urratze gisa aitortzeko egiazko arrazoia zera dela, nortasuna argitaratzeak biktimari eragiten dion arriskua.

Era berean, ezin lekioker Kodearen 9. artikuluari dei egin, genero-indarkeriako ekintza baten biktima identifikatzea posible egiten duten informazioak argitaratzea saihesteko. Nahiz eta

---

162 Organo honek ezin die isunik ipini kodea urratu duten egunkari edo aldizkariari, baina, bere eskumenean artean, irizpen kritiko bat argitaratzea dago; delako komunikabideak irizpen hori argitaratu egin beharko du, eta egin beharreko zuzenketen ezaugarriak eta irismena zehaztu beharko ditu, kodea urratu izana konpontzeko.

163 Kode eguneratua, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean dena, helbide honetan eskura daiteke: [https://www.ipso.co.uk/assets/82/65737\\_IPSO\\_A4\\_Poster\\_WEB.pdf](https://www.ipso.co.uk/assets/82/65737_IPSO_A4_Poster_WEB.pdf).

164 Ikus PCCren irizpena Mr Robert Hawkes vs. Essex Chronicle kasuan, 71. txostena. Hemen eskuragarri: <http://www.pcc.org.uk/cases/adjudicated.html?article=MjE2OQ>

165 Ikus PCCren irizpena Mr Robert Payne vs. Hertfordshire Mercury kasuan, 43. txostena. Hemen eskuragarri: <http://www.pcc.org.uk/cases/adjudicated.html?article=MTg4OA>

esandako artikulu horrek krimen batean kondenatuen edo akusatuen senideak eta lagunak identifikatzea debekatzen duen eta, ondorioz, genero-indarkeriako ekintza baten biktimari ere aplika dakioken (era berean, erasotzailearen senide izateagatik), beste salbuespen bat ere ezartzen du: hain zuzen ere, arduradunaren senidea edo laguna kontakizunean benetan garrantzitsu izatea. Genero-indarkeriako eta etxeko indarkeriako kasu bati buruzko informazioa argitaratu zen kasu batean, erasotzailearen emaztea eta alaba adingabea identifikatzen baitziren (biak ere erasoaren biktima), PCCk ondorioztatu zuen ez zela Kodearen 9. artikulua urratu, eta adierazi zuen ezinbestekoa zela bi biktimok identifikatzea eraso gertatu zen etxeko testuingurua azaltzeko<sup>166</sup>.

Oro har, PCCk Kodearen 9. artikulua kontratztat jo ditu delitu baten biktima diren adingabeak identifikatu diren kasuak<sup>167</sup>; izan ere, aurreratu dugun moduan, esandako artikuluak ezartzen du kontu berezia izan behar dela haien posizio hauskorra aintzat hartuta. Edonola ere, ikusi berri dugun moduan, beste hainbat kasutan PCCk adierazi du biktima adingabe baten identifikazioa emateak ez duela urratzen Kodearen 9. artikulua, baldin eta informazio hori ematea beharrezkoa bada gertakariak ulertu ahal izateko.

Era berean, ezin liteke 4. artikulua alegatu (aurreko Kodearen 5. artikulua), saminean edo shockean sartzeari dagokiona, genero-indarkeriako delitu baten biktima identifikatzea saihesteko (ezta beste edozer deliturena ere). PCCk esandako artikulu hori kasu bakarrean jo du urratutzat: delitu baten edo istripu baten biktimaren irudiak hil eta berehala argitaratu direnean bakarrik<sup>168</sup>, edota heriotza eragin duten gertakariak sentikortasunik gabeko xehe-tasunez kontatu direnean<sup>169</sup>. Horrenbestez, 4. artikulua giza tragedia batekin sentiberak edo errespetuzkoak ez diren irudi edo informazioetatik babesten du herritarra, baina ezin liteke artikulu hori baliatu tankera horretako biktima bat identifikatzea saihesteko.

## ONDORIO GISA

### 5.3.4

Estatuko araudiari dagokionez, ez dago inolako manurik, delituzko egitate baten biktimaren nortasuna zabaltzea galarazten duenik, sexu-askatasunaren kontrako delituen biktimen kasua izan ezik. Horrez gain, egiaztatu dugu Erresuma Batuak ez daukala araudi espezifiko bat bizitza pribatua babesteko; horrek esan nahi du kasu oso zehatzetarako aurreikusitako ekintza judizialera jo beharra dagoela, hala nola difamazioagatik abiarazitako ekintza judizialera.

Komunikabideen autorregulazio-sistemari dagokionez, berriz, Editoreen Jardunbide Egozien Kodeak eta Ofcom Kodeak ez dute galarazten berariaz delituzko egitateen biktimen nortasuna zabaltzea (sexu-delituen biktimen kasuan izan ezik). Hala, autorregulazio-or-

---

166 Ikus. PCCren irizpena *A Woman vs. Knaresborough Post* kasuan, 60. txostena. Hemen eskuragarri: <http://www.pcc.org.uk/cases/adjudicated.html?article=NjcyMw==>.

167 Ikus honako kasu hauen ebazpenak: *A Woman vs. East Riding Mail*, 2012/04/30 (<http://www.pcc.org.uk/case/resolved.html?article=NzgwMQ==>); *Mr and Mrs W McLaughlin vs. Daily Record*, 55. txostena (<http://www.pcc.org.uk/cases/adjudicated.html?article=MjgwMw==&type=>); eta *Mr David Griffith vs. The Citizen (Gloucester)*, 60. txostena (<http://www.pcc.org.uk/cases/adjudicated.html?article=MzAxNQ==&type=>).

168 Ikus honako ebazpen hauek: *Richard Brown vs. Daily Mirror*, 2013/11/06 (<http://www.pcc.org.uk/case/resolved.html?article=ODY5MA==>); eta *A woman vs. Daily Mail*, 2013/08/21 (<http://www.pcc.org.uk/case/resolved.html?article=ODU2Mw==>).

169 Ikus PCCren irizpena *A woman vs. Daily Star* kasuan, 50. txostena (<http://www.pcc.org.uk/cases/adjudicated.html?article=MTgxOQ==&type=>); eta honako kasu hauen ebazpenak: *Mrs D E Carver vs. The Sun*, 77. txostena (<http://www.pcc.org.uk/cases/adjudicated.html?article=NTEzMw==&type=>) eta *A woman vs. Burton Mail*, 64. txostena (<http://www.pcc.org.uk/cases/adjudicated.html?article=MzI5OA==&type=>).

ganoen jardunetik ondorioztatzen da genero-indarkeriaren biktimen anonimotasunerako eskubidea ez dagoela bilduta bi Kodeen manu batean ere.

Testuinguru horretan, Erresuma Batuko komunikabideek, Alemaniakoekin beste muturrean, era guztietako informazioak argitaratu ohi dituzte genero-indarkeriako egitate baten hildako biktimari buruz (izen-abizenak eta argazkia barne); horrenbestez, biktima horiek aise identifika litezke.

### **38. FUNTSEZKO IDEIAK (ERRESUMA BATUA)**

- Alemaniako komunikabideek ez bezala, Erresuma Batuko komunikabideek genero-indarkeriako ekintza batean hildako biktimaren nortasuna zabaldu ohi dute.
- Estatuko araudiak ez du aurreikusten inolako manurik, delituzko egitate baten biktimaren nortasuna zabaltzea galarazten duenik, sexu-askatasunaren kontrako delituen kasuan izan ezik. Horrez gain, ez dago bizitza pribatua babesteko alorreko araudi espezifikorik.
- Komunikabideen autorregulazio-kodeek ez dute aurreikusten inolako xedapenik, delituzko egitate baten biktimaren nortasuna zabaltzea galarazten duenik, sexu-askatasunaren kontrako delituen kasuan izan ezik. Eta autorregulazio-organismoek argi utzi dute tankera horretako informazioa emateak ez duela Kodeotako inolako manurik urratzen.

6

**ELKARRIZKETAK**





Ikuspegi guztiak biltzeko xedez, gai berari buruz hainbat eduki biltzen dituen galdetegi bat prestatu dugu, genero-indarkeriako biktima diren emakumeei, biktima ez diren emakumeei, jurista-talde bati eta gizarte-komunikabideetako profesionalei helarazteko.

Elkarrizketan egindako galderak, galderei emandako erantzunak eta ondorio gisa egindako balorazioa bildu ditugu.

## **GENERO- INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN ETA IZAN EZ DIREN EMAKUMEEI EGINDAKO ELKARRIZKETAK**

# 6.1

Lehenik eta behin, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei egindako elkarrizketak ageri dira. Bigarrenik, eta gidoiekin bereizita, genero-indarkeria bizi izan ez duten emakumeek emandako erantzunak jasoko ditugu.

### **GALDERAK**

#### **1. a) Ikerlan honen xede diren delituei helduz, zergatik da garrantzitsua komunikabideek euren bikotekidearen edo senarraren eskuetan hildako emakumeen berri ematea?**

1. Uste dut garrantzitsua dela zer gertatzen ari den jakinarazteko, baina, era berean, hilketaraino iritsi gabe ere informatu liteke.
  2. Iruditzen zait garrantzitsua dela egoera bistaratzea, arazo hau ahaztu ez dezagun, baina iruditzen zait ez direla bistaratu beharreko kasu bakarrak.
  3. Ikusgarri egin, sentsibilizatu, «a»normalizatu.
  4. Garrantzitsua da, errealitate bat da. Informazioa jasotzeko eskubide bat da.
  5. (...)
1. Arazoaz hitz egiteko eta, batez ere, garbi geratzeko gizarteak bizkar ematen diela tankera honetako ekintzei.
  2. Uste dut garrantzitsua dela komunikabideek horren berri ematea, manipulaziorik gabe. Baldin eta indarkeria hori bizitzen ari diren emakumeei laguntzeko baldin bada, jendeak kontzientzia har dezan gure egunotan oraindik ere gertatu egiten dela, nahiz eta herrialde honetan ustez behintzat egundoko garapena izan dugun, gure gazteei helarazi nahi zaien berdintasunerako hezkuntzan eta indarkeriarik ezean laguntzeko baldin bada... Edonola ere, horretarako badirudi oraindik ere bide luzea dugula egiteko. Orain ez urte asko, horrenbeste komunikabide ez zenean (eta haietara sarbiderik ez zenean), jendeak ez zekien horrelako delituak gertatzen

zirenik. Hain zuzen, adineko jende askok eta askok esaten du euren garaian ez zela gaur beste kasu gertatzen; kontua da gertakariok garai hartan ez zirela albiste, ez baitzen genero-indarkeriatzat hartzen, ezta gutxiago ere, eta alferrik zen tratu txarrak salatzea, ez baitziren tratu txartzat hartzen. Eta kontatzen bazenuen, errua beti emakumearena zen, inoiz ez gizonarena.

3. Komunikabideek egiteko garrantzitsua daukate herritarrak informatzeko lanean. Ezinbestekoa da komunikabideek azterlan honen xede diren delituen berri ematea; iluntasunean argi egiten dute, oraindik orain arte «familiaren bakearen» ize-nean ezkutatuta geratzen ziren gertakari baztergarri horiek bistaratzen laguntzen baitute.

### **1. b) Biktima gisa, zer albiste gustatuko litzauguke komunikabideek ematea?**

1. Biktimak salaketa ipinita zeukan ala ez jakinaraztea. Babes-neurriak eduki izana edota emakumearen amaiera, kasu gehienetan hilketa, biak dira garrantzitsuak.
  2. Emakumea, eta gehienez ere ogibidea.
  3. Gertaera, testuinguru soziala, ekonomikoa, kulturala, seme-alabetan izandako ondorioak.
  4. Erasotzailearen nortasuna (hiltzailearena). Zergatik ematen dira hildako emakumeen izenak eta ez hiltzailearena?
  5. Hildako emakumearen izena, hiltzailearen izena, salaketa kopurua, urruntze-agindurik ba ote zen ala ez.
1. Ahalik eta gutxien. Batez ere, morbosoa izan litezkeen datuak ez ematea. Biktimaren adina eta zer udalerritan gertatu den.
  2. Datuak baino gehiago, gaitz sozial hori desagerrarazteko lanean jarraitzen lagunduko diguten gertaerak.
  3. *A priori* eta biktima izan gabe, gustatuko litzaidake gertaeraren berri ematea nire sendiari «min gehiago eman gabe».

### **1. c) Garrantzitsua da komunikabideek izen-abizenekin identifikatzea euren bikotekidearen/senarraren eskuetan hildako emakumeak?**

1. Ez dago datu horiek eman beharrik.
  2. Nire ustez, ez da garrantzitsua.
  3. Ez.
  4. Garrantzitsua da; bai hildako emakumeena, bai hiltzailearena.
  5. Bai.
1. Ez dut beharrezko ikusten.
  2. Ez zait iruditzen izen-abizenak ematea beharrezkoa denik, uste dut albistea ikusten duzunean jakin beharrezkoa zera dela, zoritxarrez beste emakume bat hil dela bikotekidearen/senarraren eskuetan. Zer ari da huts egiten? Zer aldatu behar da? Emakume horrek izen-abizenak ditu, eta haren senideak eta lagunak haren gale-ragatik negarrez ari dira.

3. Ez. Benetan alferrikakoa deritzot. Egia da tankera horretako gertakari bat gertatzen denean, hasiera batean jakin nahi dela seme-alabarik ba ote zuen edo ez... Eta, jakina, izena ere bai, fiktizioa baldin bada ere, indibidualizatzeko, biktimarengana gehiago gerturatzeko. Edonola ere, berdin litzaidake izen hori egiazkoa ala asmatua izatea.

### Zergatik?

1. Izena argitaratzeak ez dauka batere garrantzirik, eta senideei kalte egiten die. Garrantzitsua zera da, zer-nola iritsi garen amaiera horretara.
  2. Garrantzitsua problematikaren erroa baita. Ez pertsona bera.
  3. Familien intimitaterako eta pribatutasunerako eskubidea.
  4. Informatzea eskubide bat da, ikusgarri egitea ezinbestekoa da.
  5. (...)
1. Garrantzitsua zera da, emakume bat hil dutela. Berdin du zer izen duen. Bere lagunek eta senideek badakite.
  2. (...)
  3. Biktimaren egiazko izenak emateak ez du batere axola. Garrantzitsua zera da, albistea modu abstraktuan ez ematea, baizik eta indibidualizatzea. Baina, aipatu dudan moduan, pertsonalki izen bat behar dut, baina ez egiazkoa.

### 1. d) Itxuragabetu egiten da albistearen edukia edo lortu nahi den xedea, baldin eta izena BAKARRIK ematen bada, abizenik esan gabe? Eta asmatutako izen bat ematen baldin bada, albistean argi utzita ez dela egiazkoa?

1. Ez.
  2. Ez.
  3. Ez.
  4. Bai, itxuragabetu egiten da.
  5. (...)
1. Ez.
  2. Nik uste dut ez dela desitxuratzen edukia edo lortu nahi den xedea; lehen aipatu dudan bezala, garrantzitsua ez da emakumearen izena, baizik eta zoritxarrez beste emakume bat dela albiste tratu txarrak jaso izanagatik, eta azkenean bikotekidearen/senarraren eskuetan hil dela. Bat aukeratu beharko banu, izena bakarrik aukeratuko nuke.
  3. Ez. Iruditzen zait irakurlearen enpatia, gertakarien larritasunari buruzko kontzientzia ez daudela izenaren egiazkotasunaren mende. Are gehiago, iruditzen zait beharrezkoa izan beharko litzatekeela asmatutako izenak ematea, haren pribatutasuna zaintzeko.

## 2. a) Zer datu pertsonal agertu behar dira albistean, indarkeria matxistari ikusgarritasun soziala emateko?

1. Hiltzailearen datuak.
  2. Berriro diot: iruditzen zait emakumea zela esatea nahikoa dela, eta asko jota bere ogibidea. Agian hiltzailearen datuak emango nituzke.
  3. Kultura-maila, lanbidea, maila ekonomikoa, egoera zibila, familia-egoera, aldez aurretik salaketarik ipini zuen, familiako izapideen egoera.
  4. (...)
  5. Hildako emakumearen eta hiltzailearen (bikotekidea/senarra) egiazko izen-abizenak. Egiazko adina, salaketarik ipinita ote zeukan, babesteko agindurik ba ote zen.
1. (...)
  2. Egoera berean diren beste familia edo biktima batzuei laguntzeko balio duten datuak, baina sekula ere ez epe ertainean zein luzean kalte egin diezaieketen datuak, batez ere familia zuzenari begira (seme-alabak).
  3. Egiaz, gertaerak azaldu behar dira. Garrantzitsua izango da gertaeren berri ematea albistea gizatiartuta, baina identifikazioa ez da beharrezkoa izango. Seme-alabarik ba ote zuen ala ez, salaketak...

Zerrenda bat ematen da (ipini BAI/EZ). Erantsi egoki iruditutakoak:

- Izena: EZ; EZ; EZ; (...); BAI; // EZ; BAI; EZ
- Izen-abizenak: EZ; EZ; EZ; BAI; (...); // EZ; EZ; EZ
- Asmatutako izena: EZ; EZ DA BEHARREZKOA; EZ; EZ; (...); // BAI; EZ; BAI
- Adina: BAI; BAI; BAI; BAI; BAI; // BAI; BAI; BAI
- Lanbidea: BAI; BAI; BAI; (...); EZ; // EZ; BAI; BAI
- Biktima zer lekutan ibili ohi zen: EZ; EZ; BAI; (...); (...); // EZ; EZ; EZ
- Seme-alaba kopurua: EZ; EZ; BAI; EZ; EZ; // BAI; BAI; BAI
- Seme-alaben adina: EZ; EZ; BAI; EZ; EZ; // EZ; BAI; BAI
- Biktimaren helbidea: EZ; EZ; EZ; EZ; EZ; // EZ; PROBINTZIA BAKARRIK; EZ
- Seme-alaben ikastetxea: EZ; EZ; EZ; EZ; EZ; // EZ; EZ; EZ
- Seme-alaben unibertsitatea, adindunak balira: EZ; EZ; EZ; EZ; EZ; // EZ; EZ; EZ
- Biktimaren gurasoen izena (seme-alaben aiton-amonak): EZ; EZ; EZ; EZ; EZ; // EZ; EZ; EZ
- Aldez aurretik salaketa ipinita zeukan ala ez: BAI; EZ; BAI; BAI; BAI; // BAI; BAI; BAI
- Ipinitako salaketa kopurua: BAI; EZ; BAI; BAI; BAI; // BAI; BAI; BAI
- Babesteko agindurik ba ote zen ala ez: BAI; EZ; BAI; BAI; BAI; // BAI; BAI; BAI
- Bestelakoak: (...); (...); (...); Hiltzailearen izen osoa eta lanbidea; (...) (...) (...)

**3. a) Emakume bat bere bikotekidearen/senarraren eskuetan hil ostean, zer eragin izan dezakete argitaratzen diren albisteek bizirik geratu direnetan (hildako emakumearen seme-alaba adindunak edo adingabeak eta gurasoak/senideak)?**

1. Modu negatiboan eragin diezaieke; eurek ezagutzen dute euren istorioa, eta ez da beharrezkoa telebistan entzutea.
2. Egia esan, genero-indarkeria zer den benetan badakien gizarte batean biziko bagina, ez luke inor markatu beharko, baina, zoritxarrez, gaur egun senideak estigmatizatuta geratzen dira, inguruak markatuta.
3. Euren intimitateari, pribatutasunari, ikasketei, lanari, harreman sozialei... eragiten die.
4. Eragina beti gertatzen da, nolana. Senideek asimilatzeko erremintak sortzen dituzte (laguntza psikologikoa). Beharrezkoa da albistea egokiro kudeatzea.
  1. Gaia errespetuz, lasaibidez eta elkartasunez tratatu den. Beharrezkoak ez diren gai morbosoetan sartu diren, amorru eta haserrea piztuz.
  2. Pentsatu nahi dut senideen eta lagunuen aldetik ahalik eta laguntza handiena jasoko dutela, batez ere ahal den modurik onenean heldu eta eraman ahal izateko. Baina, zoritxarrez, beti izaten dira inguruan pertsonaia ezjakin horiek, aurre-juzkuak egiten dituztenak eta baztertuta eta diskriminatuta sentiaraziko dituztenak.
  3. Egia esan, ez dakit. Iruditzen zait aitak egindako delituaren biktima diren haurrak oso posizio ahulean daudela, adingabeak izan ala ez. Argitaratzen denak senideen egoera larritu dezake. Iruditzen zait babestu beharra dagoela. Gizartearen eta komunikabideen obligazioa da seme-alaba horiek osatzen laguntzea, harrapakari «kutun» baten biktima bihurtu baitira. Albistea argitaratu behar da, baina «min eman gabe».

**3. b) Zer inpaktu izan dezake bizirik geratu diren pertsonetan biktima eta haren seme-alabak zein gurasoak identifikatzeko aukera ematen duten datuak argitaratzeak?**

1. Iruditzen zait denetik egongo litzatekeela, baina, batzuetan, entzuten dira «merezita zeukan», «emakume gaixoa» eta tankera horretakoak. Oso gutxitan entzuten da «ikusita zegoen», «senarrak gaizki tratatzen zuen» eta abar.
2. Inguruan markatuta geratuko dira.
3. Kalte soziala, ekonomikoa, emozionala, psikologikoa.
4. Ez dago zehatz-mehatz jakiterik.
5. (...)
  1. Laguntza- eta elkartasun-adierazpenak izan beharko lukete, gizarteak babesten dituztela sentiarazi. Zoritxarrez, baliteke sentitzea markatuta daudela euren bizitza osorako, eta txutxu-mutxuak, zurrumurruek eta tankerakoak entzun beharra.
  2. Zoritxarrez, kasu askotan seinalatuta eta aurre-juzkuak jasota geratzen dira. Iruditzen zait ez dela beharrezkoa komunikabideetan identifikatzea.
  3. Iruditzen zait ez dela beharrezkoa identifikatzeko datuak ematea.

**3. c) Hildako emakumearen senideak, adingabeak ala adindunak izan, biktimatzat hartzen dira Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak dioenez. Zer iruditzen zaizue alaba adindun batek komunikabideei eskatzen dienean ama zenaren anonimotasuna gordetzeko? Hau da, gertakariak kontatzeko baimena ematen duenean (ezin liteke bestela izan), biktima identifikatu gabe.**

1. Intimitatea errespetatu beharra dago, nola gertatu den kontatu, izenik eman gabe.
  2. Primeran.
  3. Egoki deritzot eskaerari, zuzenean eta zeharka eragiten baitio.
  4. Eskubidea du horretarako.
  5. (...)
1. Eskatzeko eskubidea duela.
  2. Ondo iruditzen zait, eta eskubidea duela horretarako. Gauza bera diot; komunikabideetan ez dago biktima edota haren senideak identifikatu beharrik gertakarien berri emateko.
  3. Iruditzen zait zaila izango litzatekeela; izan ere, komunikabideek lehen minututik argitaratuko lukete. Iruditzen zait senideen nahiak ez daukala tokirik kazetaritzaren munduan.

**3. d) Biktimaren ikuspegitik, nola jardun beharko lukete komunikabideek c) kasuan? Eta alaba adindunak berriaz ezer eskatuko ez balu, nola gustatuko litzaizueke komunikabideek jardutea?**

1. Tratu txarrak ematen dituen pertsonaren izen-abizenak argitaratu beharko litzuzke.
  2. Lehendabizi alabari kontsultatuta.
  3. Amaren anonimotasuna bermatzea, berriaz hala eskatu ala ez.
  4. Errespetuz, gai honetan trebatuta dauden profesionalen bidez.
  5. (...)
1. Kasu honetan ere identifikaziorik gabe, ez baitzait beharrezkoa iruditzen.
  2. Komunikabideek jakin beharko lukete albistegietan zer gertatu den kontatzen, biktimen identifikazioa eman beharrik gabe.
  3. Komunikabideen identifikaziorik eman gabe kontatu beharko lukete albistea. Istoria kontatu beharko lukete, baina «bizirik jarraitzen dutenak» babestuta.

**3. e) Bizi-testamentuan, pertsona batek bizirik dela adieraz dezake hainbat datu jakinaraztea nahi duen ala ez, horien artean, bere eta senideen datuak ematea hiltzen denean. Errespetatu egin behar da nahi hori?**

1. Bizi-testamentua errespetatu beharko litzateke, baldin eta ondorengorik ez badago kaltetuta.
2. Interesen kontra baldin badoa edo seme-alaben bizitza endredatzen badu, ez litzateke errespetatu behar.

3. Bai horixe!
4. Bai.
5. (...)
1. Bai.
2. Pentsatzen dut baietz, baina tratu txarrak jaso dituen pertsona batez ari gara, eta idatzita utzi du zer datu nahi duen jakinaraztea bere senarraren/bikotekidearen eskuetan hiltzen denean? Orduan, gure arazoa are larriagoa da; jendearen begietarako, tratu txarrek arrunt izaten jarraitzen dute, lotsa ematen die aitortzeak beren bikotekideak tratu txarrak ematen dizkiela. Hiltzeko zain daude? Iruditzen zait tratu txarrak jasotzen dituen emakume bat izango balitz desberdina izango litzatekeela, ez dakit emakume horien larruan ipintzen, egia esan inpotentzia eta amorrua sortzen zait, ez baitakit zer egin litekeen hau amaitzeko.
3. Bai.

### **3. f) Zure iritzian, bateragarriak dira biktimen intimitaterako eskubidea eta gaitz sozial hau nahitaez bistaratzeko beharra?**

1. Segun eta zer datu ematen diren, bateragarria da ala ez.
2. Segun eta zer datu ematen diren.
3. Bai.
4. (...)
5. Bai.
1. Bai.
2. Uste dut baietz, beti gorde daitekeela biktimen intimitatea euren bizimodua beregin ahal izan dezaten eta ez dezaten aurre-juzkurik edo diskriminaziorik jaso, gaitz sozial honen gertakariak ezkutatu beharrik izan gabe. Zure senideak, lagunak, bizilagunak, ezagunak... Ezin da saihestu, kontua zera da, egoera ezkutatu egiten dela lotsak eraginda edo... Eta horixe da saihestu beharrekoa, INORK ez daukala eskubiderik edo aginterik beste inoren gainean, eta askoz ere gutxiago kalte fisikoa edo psikologikoa eragiteko.
3. Erabat, baina ahalegin handiagoa egin behar da.

### **3. g) Zer gustatuko litzazuke gure seme-alabentzat, gurasoentzat edo neba-ahizpentzat?**

1. Errespetatu ditzatela euren erabakiak, euren datuak eta abar argitaratzeko garaian.
2. (...)
3. Arreta psikologikoa, laguntza ekonomikoak, tratu txarrak ematen dituen aitari zaintza kentzea edo aldatzea.
4. Modu naturalean bizi dezatela, duintasunez, eta ez daitezela errepikatu.
5. (...)

1. (...)
2. Gustatu litzaidake pentsatu beharrik ez izatea zer gustatuko litzaidakeen seme-alabentzat, gurasoentzat, neba-ahizpentzat... . Gustatuko litzaidake egoera horretan egon ez daitezen laguntzea. Gustatuko litzaidake ulertzea zergatik iristen garen egoera horretara.
3. Nire seme-alaben aitak hilko banindu, gustatuko litzaidake seme-alabak babestuta egotea, adindunak izan ala ez. Egoki irudituko litzaidake, baldin eta seme-alabek erabakiko balute identifikatu daitezkeen ala ez. Kasu horretan bakarrik.

**4. a) Bermatu behar da emakumearen kontrako indarkeriako hilketek eragindako beste biktimen (seme-alabak, gurasoak, senideak) intimitaterako eskubidea?**

1. Bai.
  2. Bai.
  3. Bai.
  4. Kasuaren arabera.
  5. Bai.
1. Bai.
  2. Uste dut baietz, nahikoa sufritzen dutela intimitatean, eta ez daukatela, gainera, besteren begiradak jasan beharrik.
  3. Bai.

**4. b) Badakizu bizi-testamentua idatzi dezakezula, eta, bertan, alderdi ez-ekonomikoari buruzko nahiak jasota utzi ditzakezula?**

1. Bai.
  2. Orain bai.
  3. Bai.
  4. Bai.
  5. (...)
1. Bai.
  2. Bada, ez. Nik pertsonalki testamentu hitza zerarekin lotzen dut, hiltzen naizenean ondasunak nola banatu jasota uztearekin. Ez zait bururatzen zer utzi dezakedan jasota hiltzen naizenean argitaratu dadin ala ez, are gutxiago indarkeria matxistako kasu batean inplikaturik egonez gero; batez ere ez nukeelako halakorik onartuko, eta ez zait iruditzen tratu txarrak jasotzen dituen pertsona batek bizi-testamentua egin behar duenik, jasota uzteko zer nahi duen jakitea edo ez jakitea bera hiltzen denean; ezin dut imajinatu.
  3. Bai.



Galdetegi hau genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei aurkeztu zaie, baita indarkeria matxista jasan ez dutenei ere.

**Lehendabiziko galderaren a) letraren helburua** zera da, jakitea biktimek zer iritzi duten komunikabideek informazioa emateari buruz, hain zuzen ere, emakumeak euren senarraren/bikotekidearen eskuetan hiltzen direnean komunikabideek jakinarazi beharreko informazioaren inguruan. Interes publikoaren edo orokorraren kontzeptua alde batera utzita (ikuspegi komunitarioa gehienbat), bereizi behar da biktimek uste duten emakumeak indarkeria matxistaren ondorioz hiltzen direnean argitaratzen diren albisteek ba ote duten erabilgarritasun berezirik biktimak babestearekin eta/edo sendatzearekin.

Biktima guztiek diote zalantzarik gabe interesgarria dela albisteok argitaratzea. Gehienek uste dute horrekin gure komunitatean dugun errealitate patologiko bat bistaratzen dela, eta, ondorioz, horren inguruan sentsibilizatzen dela. Albiste horiekin, guztien aburuz, diskurtso publikoaren baitan ipintzen da oro har espazio pribatuetan ibili ohi den indarkeria. Horrenbestez, ezin da zalantzan ipini gizarteak kontzientzia hartu beharra daukala esparru honetan eragile gizarteratzaile gisa jarduteko funtzioaren inguruan. Elkarrizketatutako pertsona baten hitzetan, ezinbestekoa da argitaratzea «arazoaz hitz egin dadin eta, batez ere, garbi gera dadin gizarteak uko egiten diela tankera honetako ekintzei». Haietako askok jakinarazi dutenez, informazioak genero-indarkeriaren beste adierazpide batzuk ere bildu behar ditu («garrantzitsua da informazioa ematea, baina, era berean, hilketaraino iritsi gabe ere informatu liteke», dio biktima batek; «iruditzen zait ez direla bistaratu beharreko kasu bakarrak», zioten beste bik). Azkenik, biktima gehienek euren iritzia ikuspegi jakin batetik ematen dute; hain zuzen, albistea argitaratzeak zer ekarpen egiten dion iritzi publikoa osatzeari, indarkeria matxista arazo sozial gisa sailkatzeko garaian. Kontua ez da indarkeria non gertatzen den azaltzea (oro har, espazio pribatu batean), baizik eta zer baliok elikatzen duten indarkeria hori (emakumearen askatasuna indarkeriaz itotzea). Biktima bakarrak ipintzen du arretagunea gizartea informatuta edukitzeko auzian, eskubide hori indarkeria prebenitzeko konpromisoarekin lotuko duten elementu osagarriak gehitu gabe.

**Lehendabiziko galderaren b) letraren eta bigarrenaren a) letraren bidez**, jakin nahi da, elkarrizketatutako emakumeen ustez, zer informazio-datu eskaini behar dituzten komunikabideek. Erantzunetan sumatzen denez, jakinarazi beharreko informazioek biktimizazio matxista ikusarazteko interesarekin bat egiten dute (ezaguna, hortaz) eta hura desageratzeko konpromisorako balio sozialak lortu behar dituzte (kontzientzia soziala, ondorioz). Hala, honako alderdi hauek jotzen dira garrantzitsutzat: biktimak salaketa ipinita zeukan ala ez eta, baiezkoa izanez gero, zenbatetan salatu zuen (eta, hortaz, dagoeneko arazoa bistaratu ote zuen, zer intentsitatearekin, ikertzeko eta epaitzeko ardura duten eragile publikoen esku ipinita); urrutze-agindurik izan ote zen ala ez (biktima babesteko alorrean zer jarduera publiko izan ote zen islatzeko); emakume-izaerari dagozkion datuak ematea (emakumeak biktima eskusibo dituen indarkeria espezifikoa dela jasotzeko); adinari eta lanbideari buruzko datuak ematea (edozer emakumeri eragiten diola jakinarazteko, kontua ez baita adina eta lanbidea, baizik eta emakume izatea), eta, era berean, testuinguru sozialaren, ekonomikoaren eta kulturalaren berri ematea (garrantzitsua zera da, sistema sozialak, ekonomikoak eta kulturalak gizonei eta emakumeei eskaintzen dizkien balio asimetrikoekin lotuta dagoen indarkeria dela). Azkenik, elkarrizketa egindako emakume batzuek emandako elementu osagarriak ere jaso behar ditugu: batek ezinbestekotzat jotzen du indarkeria matxistak seme-alabetan duen eragina argitaratzea (biktima osagarriak edo gehigarriak); beste bik, berriz, ustezko hiltzailearen nortasunaren berri emateko beharra zehazten dute (haietako batek hauxe galdetu zuen: «Zergatik ematen dira hildako

emakumeen izenak eta ez hiltzailearena?»), horrek esan nahi du kontu berbera izan behar dela biktimek berriro ez biktimizatzeko duten eskubidea babesteko garaian eta ikertuak duen eskubidea zaintzeko garaian, errugabetasun-presuntzioa zaintzeko tratamendu-arau gisa; azkenik, elkarrizketa egindako beste pertsona batek dio gertakaria zer populaziotan gertatu den jakinarazi beharra dagoela (horrekin, agian, inplikazio aktibo bat eta konpromiso handiagoa bilatuz, indarkeria matxista gertatzen den inguru sozialen aldetik). Erantzun horien guztien errepasoa egin ondoren, elkarrizketatutako emakumeek, biktima izan ala ez, ulertzen dute ahalik eta datu gutxien argitaratu behar direla honako xede hau lortzeko: gizarte-etzabaidan ipintzea indarkeria matxista, herritar guztiak hura desagertzeko konpromisoa har dezaten, eta biktimak babesteko agintari publikoen jardunari buruzko kritika oinarriduna egitea.

**Lehendabiziko galderaren c) letraren eta bigarren galderako zerrendaren bidez**, erabaki nahi da beharrezkoa ote den euren senarren/bikotekideen eskuetan hildako emakumeen identifikazioa ematea, izen-abizenekin, aurrez aipatu dugun interesa lortzeko. Elkarrizketa egindako gehienek (zortitik seik) uste dute ez dela beharrezkoa datu horiek ematea. Batek baiezkota ematen du, zalantzarik gabe, eta beste batek dio garrantzitsua dela hildako emakumearen eta hiltzailearen nortasuna ematea.

Erantzunon inguruko hausnarketa egiteko garaian, garrantzitsua da **lehendabiziko galderaren d) letra** aztertzea, non galdetzen baitzaie zer arrazoik justifikatuko ote lukeen hirugarrenari emandako erantzuna. Zazpi elkarrizketatutako diote ez dela garrantzitsua izen-abizenak ematea publikoaren eta biktimari buruzko interesa eskuratzeko, eta uste dute, lehenik eta behin, pribatutasuna inbaditzen duela, bigarrenik, ez dela beharrezkoa indarkeria matxistari buruzko diskurtso publikoa eta sozial kritiko eta konprometituta eraikitzeke, eta, hirugarrenik, kaltegarria dela senideentzat. Biktimen identifikazio zuzena argitaratzea ezinbestekoa dela iritzi dioten bi emakumeen artean, batek ez du arrazoirik ematen eta besteak, berriz, uste du ezinbestekoa dela horren berri izatea indarkeria hori ikusgarri egiteko, eta, gainera, komunikabideek informazioa emateko eskubidearen barruan sartzen dela. Horrenbestez, bada gehiengoaren iritzi bat (aho batez gertatzen ez bada ere), pentsatzen duena identifikazio-datuak ez direla argitaratu behar, ez baitu laguntzen biktimak ikusgarriago egiten eta ez baitu laguntzen herritarren artean indarkeria hori desagertzeko konpromiso sozialari; horrenbestez, bizitza pribatuko alferrikako injerentzia litzateke. Hortaz, ia aho batez, irizten diote **hirugarren galderako f) letran** bateragarria dela biktimaren pribatutasunerako eskubidea eta indarkeria matxista gizartean ikusgarri egitea. Era berean, garrantzitsua da elkarrizketatuek **bigarren galderako b) letrari** emandako erantzuna: euren ustez (aho batez uste ere) biktimen zer datu pertsonal argitaratu behar diren eta zein ez. Biktimek gai honi buruz duten kontsentsu-maila islatzen du. Bada elkarrizketatutako emakume guztiek argitaratu beharrekotzat jotzen duten datu bat, bakarra: emakume biktimen adina. Agian, biktima indibidualizatzen laguntzen duen datu bat delako, identifikazioa eman beharrik gabe, eta hari esker jakin daitekeelako indarkeria matxistak adin-segmentu guztiei eragiten diela, eta zer maiztasunez. Bestalde, iruditzen zaie ez direla argitaratu behar biktimaren helbidea, seme-alaben ikastetxe edo unibertsitatea eta biktimen gurasoen izenak. Badirudi neurri horren bidez biktimen inguruan gizarte-estigmatizazioa saihestu nahi dela, eta, hala, babesa eskaini berriro biktimizatzeko arriskuaren aurrean. Badirudi zentzu hori ateratzen dela **hirugarren galderako a) letrako** erantzunetan, galdetzean zer eragin izan dezakeen seme-alabengan eta gurasoengan emakumea senarraren/bikotekidearen eskuetan hil dela dioen albistea argitaratzeak. Hain zuzen ere, estigmatizatzeko arriskua, bizi-proiektuan oihartzuna izatea, pribatutasuna inbaditzea eta berriro biktima bihurtzea dira gakoa, justifikatzeko ez direla hildako emakumearen inguru osatzen duten biktimak identifikatzeko datuak eman behar. Eta auzion berri emateko, **hirugarren galderaren b) atalean** egindako galderan, datuok jakinarazteak bizirik iraun duten biktimetan duten eraginari buruzkoan, emandako hausnarketak berreskuratuko ditugu: «Batuetan,

entzuten dira “merezita zeukan”, “emakume gaixoa” eta horrelakoak»; «Inguruan markatuta geratuko dira»; «Kalte soziala, ekonomikoa, emozionala, psikologikoa»; «Ez dago zehatz-mehatz jakiterik». «Baliteke sentitzea markatuta daudela euren bizitza osorako, eta txutxu-mutxuak, zurrumuruak eta tankerakoak entzun beharra». Ildo beretik, nahiz eta fokua bizirik iraun duten biktimen pribatutasunerako eskubidean ipintzen den, **laugarren galderaren a) letran** emakumeek emandako erantzunak islatzen du ia aho batez (haie-tako batek dio kasuan kasu aztertu behar dela) biktima horien intimitaterako eskubidea bermatu beharko litzatekeela.

**Hirugarren galderako c), d) eta e) letretan**, biktimei bi auzi garrantzitsuren inguruan galdetzen zaie: komunikabideek errespetatu behar ote duten biktimen borondatea, indarkeria matxistak hildako biktimen identifikazio-datuak argitaratzeari dagokionez. Biktimek aho batez uste dute familia-inguruko biktimaren edo biktima zuzenaren borondatea (bizi-testamentu baten bidez jaso, **laugarren galderako b) atalari** erantzutean ezagutzen dutela onartzen dutena) babestu beharreko interes juridikoa dela. Ikuspegi horretatik, ulertzen dute borondate hori errespetatu egin behar dutela komunikabideek, salbuespen bakar batekin: jasotako borondateak kalterik ez eragitea seme-alaben edo ondorengoan interesei. Horrenbestez, interes gehigarri bat agertzen denean bakarrik (hala nola bereziki hauskorrek diren biktimak babestea) justifikatuko luke, inkestatutako emakumeen arabera, hildako biktimaren borondateari (bizi-testamentu batean jasota) edo bizirik iraun duten beste biktimen borondateari jaramonik ez egitea, hildako biktimaren identifikazio-datuak ez argitaratzeko eskatuz.

**Lehendabiziko galderaren e) letrak** biktimei planteatzen die biktima izenarekin bakarrik identifikatzeko aukera, edota asmatutako izen bat erabiltzea, betiere albistea gizarte-komunikabideetan argitaratuta bilatu nahi den helburu soziala desitxuratu gabe. Elkarrizketatutako zazpi emakumeek uste dute ez dela beharrezkoa biktima identifikatzea albistea argitaratuta lortu nahi den interes orokorra lortzeko, eta uste dute, halaber, galderan eskainitako identifikazio alternatiboek ez diotela kalterik egiten lortu nahi den helburu soziala betetzeari. Elkarrizketatutako bi pertsonak uste dute identifikazioa albistearen interes orokorraren zati dela, eta batek dio identifikazio alternatiboak desitxuratu egiten duela lortu nahi den helburu soziala. Beste batek ez du erantzuten.

Azkenik, **hirugarren galderako g) letrak** zuzenean galdetzen die inkesta egindako biktimei zer gustatuko ote litzatekeen euren seme-alabentzat, gurasoentzat edo neba-ahizpentzat, baldin eta amaren, seme-alabaren edo neba-ahizparen hilketari aurre egin beharko baliete. Horren inguruan, inkesta egindako bost emakumek erantzuten dute. Erantzunetan, indarkeria matxistako delituen biktimen estatutuan jasotako zimenduak ageri dira, hizkuntza arruntean emanda. Oro har, errespetua («Errespetu ditzatela euren erabakiak, euren datuak eta abar argitaratzeko garaian») eta arreta, laguntza eta babesa («Arreta psikologikoa, laguntza ekonomikoak, tratu txarrak ematen dituen aitari zaintza kentzea edo aldatzea») aipatzen dituzte. Eta hori guztia helburu garbi batekin: biktimak sendatzea («Modu naturalean bizi dezatela, duintasunez») eta babestea («ez daitezela errepikatu»).

Genero-indarkeriako biktima izan diren emakumeei eta gainerako emakumeei egindako elkarrizketetatik jasotako informazioari esker, honako ondorio hauek eskuratu ditugu:

1. Interes orokorrekotzat jotzen dute hilketa matxistei buruzko informazioak argitaratzea, honako helburu hauek lortzeko: indarkeria maskulinistari buruzko hausnarketa eztabaida publikora eramatea; genero-indarkeriari mesede egiten, legitimitatea ematen eta justifikazioa eskaintzen dioten balio matxistak borrokatzeko beharraz kontzientzia piztea herritarren artean; emakume biktimak babesteko politika publikoak hobetzea eta haiekin herritarren enpatia osatzeko dinamikak sortzea.

2. Aurrekoa kontuan hartuta, irizten diote jakinarazi beharreko informazio-datuek biktimizazio matxista ikusgarri egiteko interesarekin bat egin behar dutela, hura desagerrarazteko konpromisoaren balio sozialak sortu behar dituztela eta biktimak prebenitzeko, artatzeko eta babesteko dinamika publikoak sustatu behar dituztela.

3. Hori dela eta, informazio-datu garrantzitsuenean, gertatutakoaren kontakizuna egiten dutenez gain, elementu jakin batzuk izan behar dituztela: aurretik salaketarik ba ote zen ala ez, babesteko neurririk ba ote zegoen hitzartuta, emakume biktimaren baldintza, adina eta ogibidea. Datu horien guztien bidez, indarkeria matxistaren tasunak definituko lirateke: biktima eskusiboak emakumezkoak dituen indarkeria dela (hortik emakumeari erreferentzia egiteko beharra), gerta litekeela, nahiz eta maiztasuna agian desberdina izan, edozer adin-tartetan edo edozein ogibidetan (hortik dator elementu horiek zehazteko beharra), eta agente publikoen babeste-jarduna zalantzan ipini dezaketela (horretarako, ezinbestekoa da jakitea aldeztu aurretik salaketarik izan zen ala ez eta babesteko neurririk izan ote zen ala ez).

4. Adierazten dutenez, jarduera publikoari buruzko ikusgarritasunaren, kontzientziazioaren eta hausnarketaren helburu publikoak lortzeko ez da ezinbestekoa emakumearen identifikazio zuzena edo zeharkakoa, ezta biktimizatutako inguru familiarrena ere (bereziiki seme-alabak eta ondorengoak). Iruditzen zaie identifikazio horrek berriro biktimizatzea eragin lezakeela, estigmatizazioa, kasu.

## **ESPARRU JUDIZIALEAN, FISKALEAN ETA AKADEMIKOAN EGINDAKO ELKARRIZKETAK**

# 6.2

### **1. BIKOTEKIDEAREN EDO SENARRAREN ALDETIK GENERO-INDARKERIA JASATEN DUEN EMAKUME BIKTIMA BATEN INTIMITATERAKO ESKUBIDEAREN ZATI ALDA INDARKERIA-JARRERA HORREN BIKTIMA GISA ZUZENEAN ZEIN ZEHARKA IDENTIFIKATZEKO INFORMAZIO-DATUAK EMATEA?**

#### **1.1. LEHENDABIZIKO ELKARRIZKETA**

– Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz interpretatu duen bezala, «*Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua aitortzen duen intimitaterako oinarrizko eskubidearen xedea gizakiari bere bizitzaren esparru erreserbatu bat bermatzea da, pertsona gisa duen duintasuna errespetatzearekin lotuta (Espainiako Konstituzioaren 10.1 artikulua), besteren ekintza eta ezagutzatik at, dela Agintari Publikoen aurrean, dela partikular sinpleen aurrean, beharrezkoa gure kulturaren irizpideen arabera, giza bizitzaren gutxieneko kalitate bati eusteko. Hala, intimitate pertsonalerako oinarrizko eskubideak haren titularrari gutxienez ahal negatiboa edo baztertzekoa ematen dio, eta hirugarrenei ezartzen die intromisiorik ez egiteko obligazioa, nola eta ez dauden oinarrituta Konstituzio-justifikazioa duen lege-aurreikuspen batean eta ez den proportzionatua, edota ez dagoen eragin-*

*dakoaren baimen eraginkorrik hura baimenduz, pertsona bakoitzari baitagokio besteren ezagutzatik gordetzen duen intimitate-esparrua mugatzea*». (Konstituzio Auzitegiaren 197/1991 epaia, urriaren 17koa, 3. oinarri juridikoa; 134/1999 epaia, uztailearen 15ekoa, 5. oinarri juridikoa; 115/2000 epaia, maiatzaren 10ekoa, 4. oinarri juridikoa; 185/2002 epaia, urriaren 14koa, 3. oinarri juridikoa; 206/2007 epaia, irailaren 24koa, 5. oinarri juridikoa; 17/2013 epaia, urtarrilaren 31koa, 14. oinarri juridikoa; 176/2013 epaia, urriaren 21ekoa, 7. oinarri juridikoa; Konstituzio Auzitegiaren 7/2014 epaia, urtarrilaren 27koa, 3. oinarri juridikoa. Baita Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak ere, *X eta Y kasua*, 1985eko martxoaren 26koa; *Leander kasua*, 1987ko martxoaren 26koa; *Gaskin kasua*, 1989ko uztailearen 7koa; *Costello-Roberts*, 1993 martxoaren 25ekoa; *Z kasua*, 1997ko otsailaren 25ekoa.)

Deskribatzen den kasuan, gure kulturako irizpideen arabera eta giza bizitza duinaren gutxieneko kalitatea zaintzeko, intimitaterako eskubideak bere bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik indarkeria-jarrera bizi duen emakumearen esku ipintzen du indarkeria-jarrera osatzen duten egintzak besteren ezagutzatik babestutako esparruan ipintzeko ahala.

Besteren ezagutzatik baztertzeko ahal horrek ez ditu biltzen eskudun agintaritzak baimendutako edo adostutako jarduerak, legearekin bat, ikerketarako, akusaziorako eta epaitzeko ahala baliatuz, egokiak, beharrezkoak eta proportzionatuak diren jarduerak, ustezko delitu-gertakaria egiaztatzeko xedez (1/1982 Lege Organikoaren 8.1 artikulua; Konstituzio Auzitegiaren 37/1989 epaia, otsailaren 15ekoa, 7. oinarri juridikoa; Konstituzio Auzitegiaren 207/1996 epaia, abenduaren 16koa, 3. oinarri juridikoa).

Era berean, hala ondorioztatzen da Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8.2 artikulutik ere, bizitza pertsonalean egindako intromisioak baimentzen dituen baldin eta honako hauetakoren bat bermatzen bada: «*Estatu-segurtasuna, segurtasun publikoa, herrialdearen ekonomiaren ongizatea, ordenaren defentsa eta arau-hauste penalen prebentzioa, osasunaren zein moralaren babesa, edo besteen eskubideen zein askatasunen babesa*».

Iruditzen zait planteatzen den auziak ez dituela bidezko intromisioak aipatzen, norberaren eta familiaren intimitatean gertatzen direnak, horretarako eskumena duten agintariek egindakoak delitua ikertzeko edo prebenitzeko xedearekin edo zehatzeko ahalaren arabera egitean. Galderaren bidez, auzia kokatzen du indarkeriazko jarrera sortzen duten egintzak gizarte-komunikabideek ematearen testuinguruan, pentsatzen dugu egiazko informaziorako eskubide bidezkoa egikaritzearen ondorioz; eta testuinguru horretan planteatzen dena zera da, lehen deskribatutako biktimak, intimitate pertsonalerako eta familia-intimitaterako eskubideari lotuz, izango ote duen biktimaren identitatea informaziotik erretiratzeko ahala, edota zeharka biktima identifikatzea posible egiten duten gertakariak informaziotik erretiratzeko.

Hausnarketarako abiapuntua egiazko informaziorako eskubideari buruzko konstituzio- edukian bertan dago, zeina berariaz mugatzen baitu intimitaterako eskubideak (Espainiako Konstituzioaren 20.4 artikulua); hala, nabarmendu behar da, intimitateari buruz jardutean, informazioaren egiantzekotasuna ez dela «*aringarria, ezpada kasu guztietan lesioaren premisa*» (Konstituzio Auzitegiaren 185/2002 epaia, urriaren 14koa, 4. oinarri juridikoa eta bertan aipatzen diren ebazpenak).

Konstituzioak aitortutako bi eskubideen talka gertatzean, konstituzio-jurisprudentziak nagusitasun-posizioa aitortzen dio (baina ez nagusitasun hierarkikoa) informazioaren komunikazio askeari, betiere «*informatutakoa interes publikokoa baldin bada*»; izan ere, irailaren 14ko Konstituzio Auzitegiaren 154/1999 auziaren 2. oinarri juridikoa aurreikusitako

zuenez, «*auzitegi honen jurisprudentzia-ondarearen zati da honako irizpide hau: Konstituzioak babesten duen komunikazioak egiatzko informazioa transmititu behar duela, interes orokorra edo garrantzi publikoa duten auziei buruz*»; hala, garrantzi publiko hori hartzen da kontuan, eta ez besteren jakin-mina asetzea, «*kasu horietan informaziorako eta erreserbarako asmoen artean sortzen den gatazka konpontzeko*».

Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epai horrek galderan planteatutako kasu oso antzeko bat aurreikusten du: epaiak dio demanda ipini duen biktimaren intimitate pertsonalerako eskubidea urratu dela, 1992ko martxoaren 4an eta 6an, *La Voz de Asturias* egunkarian bi informazio irten zirenean. Hain zuzen ere, informazio horren arabera, ateak itxita egindako ahozko entzunaldian, demanda-jartzailearen aitak hainbat abusu desleial eta bortxaketa egin zizkion alabari lau urtez jarraian. Informazio horietan gertakari justiziagarriak kontatzen ziren, Fiskaltzaren behin-behineko kalifikazioko idazkiaren transkripzio bidez.

Konstituzio Auzitegiak frogatutzat ematen du «*datu horiek eman izanari esker, bizilagunek, gertukoek eta ezagunek biktima erabat identifikatu, eta, horren bidez, duintasun pertsonalari larriki eraso egiten zion gertakari baten berri izan zutela, xehetasun guztiekin, hau da, sexu-askatasunaren kontrako delitu baten biktima izan zela...*».

Zigor-arloko garrantzia duten gertakariak albisteetan jasotzeko moduko gertakariak direla premisa gisa hartuta, albisteak eragindako pertsona subjektu pribatu izanagatik ere, Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epaian zera ondorioztatzen da: «*Kontsiderazio horrek ezin du jaso haien biktima direnen indibidualizazioa, zuzena zein zeharkakoa, nola eta ez duten baimendu edo erraztu ezagutza orokorra. Informazio hori ez da izango interes publikokoa, eman nahi den informaziorako ez baita beharrezkoa izango. Finean, aztertutako kazetaritza-erreportajeek ematen dituzten eraso egindako emakume gaztearen datuak, emakumea erabat identifikatzea posible egiten duten aldetik, gainditu egiten dute garrantzi informatiboa jasandako sexu-erasoarekin eta haiek epaitzarekin loturik; hori dela eta, ez dute merezi Espainiako Konstituzioaren 20.1 artikulua ematen duen konstituzio-babesa*» (9. oinarri juridikoa). Aurrekari gisa Konstituzio Auzitegiaren 185/2002 epaia aipatzen da, urriaren 14koa; epai horren 4. oinarri juridikoa interpretatzen duenez, «*inola ere ezin dakioke inori eskatu modu pasiboan jasateko haren bizitza pribatuari buruzko datu horren garrantzitsuak, jakinik horien berri izatea alferrikakoa eta garrantzi gabekoa baita interes publikorako, izan ere, garbi geratzen da erasoaren biktimaren identifikazioa, hitzen esanahiarekin bat, garrantzirik gabekoa izan zen transmititu nahi izan zen informazioarekin loturik*».

Ondorioa, horrenbestez, zera da, galderan deskribatutako pertsonak ahala daukala gizarte-komunikabideek ikerketaren edo zigor-arloko epaitzearen xede diren egintzei buruz emandako informazioaren gainean, identitatea zabaltzeari (edo indarkeriazko erasoaren biktima gisa identifikatzea posible egiten duten datuak emateari) loturik, baldin eta datu horien berri izatea alferrikakoa eta garrantzirik gabea bada interes publikorako.

Konstituzio-doktrina honek parametro gisa balio izan behar du Delituaren Biktimen Estatutuaren Legearen (apirilaren 27ko 4/2015) 19. eta 22. artikuluek epaileei, auzitegiei eta delituak ikertzeko, jazartzeko eta epaitzeko ardura duten gainerako agintari eta funtzionarioei ezartzen dizkieten egitekoen betebeharrak interpretatzeari dagokionez, baita prozesuan «*nolanahi*» esku edo parte hartzen duten guztiei ere, Prozedura Kriminalaren Legeak biktimen intimitatea eta duintasuna egokiro babesteko ezartzen duenari jarraikiz, «*bereziki aitorpena jasotzen zaienean edo epailetan lekukotza eman behar dutenean, bigarren mailako biktimizazioa edo errepikatua izateko arriskua saihesteko*».

Juan Luís Ibarra jauna.  
Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea.

## 1.2. BIGARREN ELKARRIZKETA

- Baietz uste dut. Intimitatea Konstituzioan aitortutako oinarrizko eskubidea da, eta haren zati da identifikatzeko aukera zuzenean zein zeharka ematen duten datuak gordetzea.

Juan Calparsoro jauna.  
Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiko fiskal nagusia.

## 1.3. HIRUGARREN ELKARRIZKETA

- Bai, eskubide horren zati da, genero-indarkeriako biktima baten kasuan, zein beste edozer delituren biktimen kasuan.

Marta Sánchez Recio andrea.  
Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko fiskala.

## 1.4. LAUGARREN ELKARRIZKETA

- Jakina. Gainera, apirilaren 27ko 4/2015 Legeak berak, Biktimaren Estatutuarenak, halaxe jaso du 22. artikuluan (*Intimitatea babesteko eskubidea*), honako hau adieraztean:

*«Epaileek, auzitegiek, fiskalek eta zigor-arloko ikerketaren ardura duten gainontzeko agintari eta funtzionarioek, bai eta modu batera edo bestera prozesuan esku edo parte hartzen duten guztiek ere, behar diren neurriak hartuko dituzte, Legean xedatutakoaren arabera betiere, biktima guztien eta horien senideen intimitatea babesteko eta, bereziki, biktima adingabeak edo babes berezia duten biktima desgaituak identifikatzea erraz dezakeen informazio oro ezagutaraztea eragozteko».*

Zera gertatzen da, gaur egungo gizartean eskubide hori jasotzea bereziki zaila dela; izan ere, genero-indarkeriako gertakariak arreta mediatikoa erakartzen dute, batez ere ikus-entzunezko komunikabideena. Hala, nahi ala ez, identifikazioa errazagoa da, nahiz eta komunikabideen helburua hori ez izan.

Ángeles Carmona andrea.  
Emakumeen aurkako indarkeriaren Behatokiko presidentea.

## 1.5. BOSGARREN ELKARRIZKETA

- Planteatuta dagoen moduan, baliteke oker egotea: iruditzen zait genero-indarkeriaren biktima izatea intimitaterako eskubidearen zati dela, gure esfera pertsonalena osatzen duten beste hainbat auzi bezala. Beste gauza bat da intimitaterako eskubideak beste baten alde egin behar izatea batzuetan, beste eskubide batzuk jokoan direnean (esate baterako, gizartearen interesa *ius puniendi* argitzeko edo egikaritzeko, horrekin ulertuta pertsonaren datuak ezagutuko direla zigor-arloko esparruan). Eta hala gerta liteke informaziorako eskubidearekin ere, albiste izan litezkeen gertakariak ditugunean aurrez aurre. Genero-indarkeriako biktimen kasuan, adingabeen kasuan adibidez, iruditzen zait eztabaida daitekeela albisteetan identifikazio-datuak eman behar diren ala ez. Baina interes informatiboa handiagoa denean, gertakaria dela eta, barka liteke.

Bizkaiako Probintzia Auzitegiko epailea.

## 1.6. SEIGARREN ELKARRIZKETA

- Ez dut uste informazio-datuak intimitaterako eskubidearen zati izan daitezkeenik (hau da, pertsona horri dagokionez, komunikabideek tratatzen dituzten datuak izango direla iruditzen zait, komunikabideak irazitako datua, alegia). Agian planteatu beharrekoa zera litzateke, informaziorako eskubidea mugatu daitekeen (informazioa debekatzea) kasu jakin batzuetan. Iruditzen zait intimitaterako edo pribatutasunerako eskubidea osatzen duen datu pertsonala pertsona eta bizitza pribaturako bestelako alderdiak identifikatzen dituen dela. Eta ez komunikabide jakin batek egiten duen erabilera.

Iruditzen zait lan nekeza izango dela datu pertsonalak murriztea (kasu hauetan eta beste edozeinetan), komunikabideei datuak erabiltzeko mugak edo debekuak ezarrita. Agian oker ibiliko naiz, baina beste kasu sentikor batzuetan ez dago inolako mugarik (adingabeen edo kalteberatasun berezia dutenen kasuan, adibidez). Komunikabide batek kasu bati eta kasuan inplikaturako pertsonen buruzko informazioa jasotzen badu zigor-arloko prozesutik edo poliziaren jardunetik at, ez dut uste intimitaterako eskubideak abstraktuan sartu behar duenik, eta konstituzio-maila hartu, datu horiek erabiltzeko mugak eta baldintzak ezartzeko aukera. Zaila.

Dena dela, iruditzen zait positiboa izango litzatekeela mugak ezartzea.

Aldiz, iruditzen zait pribatutasuna normatiboki babestu beharko litzatekeela datuok tratatzen diren esparru guztietan, batez ere zigor-arloko prozesu baten testuinguruan. Gaur egun, teknologia berriekin, ia ezinezkoa da kontrolatzea datuok ezagutzen ote dituzten tratatzeko ardura duten elementuetatik kanpo ere. Maila polizialean bertan gertatzen da datuak komunikabideen eskuetara iristea, batez ere (eta gero eta gehiago) zigor-arloko kasuen publizitatea helburu polizialen edo penalen esparrutik irtendako propaganda-erreminta bihurtzen denean.

Nire ustez, informatzeko modua eta informazioaren edukia arautu beharko litzateke, kasu batekin harremana duten elementu eta esparru guztietan, dela alor polizialean, judizialean edo beste edozeinetan. Babes-erremintak zaharkituta geratu dira.

E1001. Epaila.

## 1.7. ZAZPIGARREN ELKARRIZKETA

- Iruditzen zait baietz; izan ere, informazio-datu horiek, nire ustez, pribatutasunaren muin-muinean eragingo lukete. Ondorioz, konstituzio-babesa jaso dezakete, informazio-askatasunerako eskubideak baino modu garrantzitsuagoan edo lehenetsiagoan, gainera.

María Josefa Barbarin andrea.  
Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko fiskala.

## 1.8. ZORTZIGARREN ELKARRIZKETA

- Intimitaterako eskubidearen eta informaziorako eskubidearen arteko muga ez da bake-tsua, eta hamaika polemika eragin ohi du. Planteaturako kasuan, iruditzen zait, tankera honetako pronuntziamendu abstraktu batean izan beharreko kautela guztiekin, emakumearen identifikazio-datuak (hau da, intimitaterako eskubideak informaziorako eskubidearen bide ematea) kasu bakarrean eman behar direla: datuek berez informazio-garran-



tzia dutenean. Hau da, emakumearen identifikazio pertsonala albistearen ikuspegitik garrantzitsua den kasuan bakarrik.

Alberto Saiz Garitaonandia jauna.

Eusko Jaurlaritzako Auzibideko zuzendaria. EHUko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea.

## **2. BIKOTEKIDEARI EDO BIKOTEKIDE OHIARI EGOTZITAKO HILKETAREN ONDORIOZ, AZKENDU EGITEN DA HILDAKO EMAKUMEAREN ETA HAREN FAMILIAREN INTIMITATERAKO ESKUBIDEA, GIZARTE-KOMUNIKABIDEETAN BIKTIMA GISA ZUZENEAN ZEIN ZEHARKA IDENTIFIKATZEKO MODUKO DATUAK ARGITARATZEARI DAGOKIO-NEZ?**

**ETA BIZIRIK DEN BITARTEAN MODU EZTABAIDAEZINEAN ONDORIOZTATU BADU INOLA ERE EZ DUELA NAHI ZUZENEAN ZEIN ZEHARKA IDENTIFIKATZEKO DATUAK ZABALTZEA EDO ARGITARATZEA?**

### **2.1. BIGARREN ELKARRIZKETA**

- Iruditzen zait ez dela desagertzen. Egia dirudi hilketa bat gertatzen denean biktimaren nortasuna ezagutzea eta/edo argitaratzea zailagoa dela, baina iruditzen zait ez dela desagertzen hildako biktimaren identifikazio-datuak ez argitaratzeko eskubidea, beste senide batzuk babesten dituen aldetik, hala nola seme-alabak, gurasoak, neba-ahizpak, bikotekide berria... Arrazoi handiagoz, kasu horretan.

Juan Calparsoro jauna.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiko fiskal nagusia.

### **2.2. HIRUGARREN ELKARRIZKETA**

- Ez, inolaz ere ez. Are gutxiago kontuan hartzen badugu ordenamendu juridikoak ohererako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea defendatzeko aukera ematen duela, baita pertsona hil ostean ere, horretarako (ofizioz ere bai) izendatutakoen aldetik; hala, kasu batzuetan Fiskaltzak hartuko luke bere gain ardura hori.

Eta kasu horretan arrazoi handiagoz, izan ere, hala jakingo dugu biktimaren posizio zehatza bere datuak zabaltzeari dagokionez, bizitzan zehar izandako portaeraren arabera ondorioztatu beharrik izan gabe.

Marta Sánchez Recio andrea.

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko fiskala.

### **2.3. LAUGARREN ELKARRIZKETA**

- Inola ere ez, intimitaterako eskubidea ez baita agortu behar hil ostean. Lehen azaldutako 22. artikulua intimitaterako eskubidea aurreikusten duenean, inola ere ez du baztertzen «hildako biktima», baizik eta, begien bistakoa denez, barnean hartzen du, biktimaren kontzeptuak hildakoak ere biltzen baititu. Are gehiago, hildako emakumeek arrazoi handiagoz

daukate babes-eremu hori jasota, eta ez da seme-alabetara edo senideetara bakarrik zabaltzen, baizik eta 22. artikulua kontzeptua eta xedea hildakoen intimitatera ere zabaltzen dira.

Nolanahi ere den, egia da ikuspegi sozial eta instituzionaletik komenigarria izango litzatekeela hilketa horiek ez isilpean gordetzea eta, gardentasun-jardun horretan, zapuztu egingo da biktimen intimitaterako eskubidea.

Are arrazoi gehiagoz handitu egiten da biktimen eskubide hori, baldin eta publikoki adierazi badute euren datuak ez zabaltzeko nahia edota komunikabideek datuok eskura ez izatekoa. Baina, are gehiago, eskuratuta ere ezingo lituzkete argitaratu.

Idea hori indartzeko, Prozedura Kriminalaren Legearen 681. artikulua, lehen aipatutako 4/2015 Legearen bidez aldatuak, zera jasotzen du:

*«2. Epaiak edo auzitegiak, biktimaren eta haren senideen intimitatea babesteko, honako neurri hauek adostu ahal izango ditu:*

*a) Biktimaren nortasunari, zuzenean edo zeharka identifikatzen lagun dezaketen datuei edo babesteko beharrei buruz ebazteko kontuan hartutako egoera pertsonalei buruzko informazioa zabaldu edo argitara dezaten debekatzea.*

*b) Biktimaren edo senideen irudiak lortu, zabaldu edo argitara ditzaten debekatzea.*

*3. Debeztatuta dago, nolanahi ere, biktima adingabeen edo babes berezia behar duten biktima desgaituen nortasunari buruzko informazioa zabaltzea edo argitaratzea, baita horiek zuzenean edo zeharka identifikatzen lagun dezaketen datuei edo horrelakoak babesteko beharrei buruz ebazteko baloratu diren egoera pertsonalei buruzkoa ere; eta debeztatuta dago, orobat, horien edo beren senideen irudiak lortu, zabaldu edo argitaratzea».*

Hau da, biktimari dagokionez, epaiak debekatu ahal izango du haren nortasuna zabaltea, eta galarazita egongo da datuok ematea biktima adingabeen edo babes-beharrizan bereziak dituzten biktimen kasuan.

Ángeles Carmona andrea.  
Emakumeen aurkako indarkeriaren Behatokiko presidentea.

## 2.4. BOSGARREN ELKARRIZKETA

- Nire ustez, konstituzio-jurisprudenzian oinarri hartuta, intimitaterako eskubidea guztiz pertsonala da. Hori dela eta, iruditzen zait erantzuna baiezkoa dela, intimitaterako eskubidea galdu egiten dela subjektuaren heriotzarekin. Hurrengo galderarekin erantzungo ditudan kasuetan izan ezik. (Hemen behean duzun epai baten laburpena egingo dut: «Komeni da gogoraraztea, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 2ko 231/1988 epaiaren 3. eta 4. oinarri juridikoetan, nahiz eta baieztatu norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan babestua, norberaren pertsonalitatearen ildotik pertsonaren duintasunarekin loturik dagoela (Espainiako Konstituzioaren 10. artikulua aitortuta bezala), eskubide horiek guztiz pertsonal gisa eta gizakiaren existentziari berari lotuta ageri dira. Eta eskubide horien titularrak hil ostean eta haren pertsonalitatea iraungi ondoren... logikoki konstituzio-babesaren objektua ere desagertu egiten da, zeina, esan dugun bezala, bizi-esparru erreserbatu bat bermatzera bideratuta baitago, heriotzarekin desagertzen den bizi-esparrua».

Bizkaiko Probintzia Auzitegiko epailea.

## 2.5. SEIGARREN ELKARRIZKETA

- Ez dakit akabatzen duen ala ez, baina agian behar litzateke sistemaren bat pertsona batek bere borondatea galderaren ildotik adosteko.

Agian planteatu beharko litzateke senideek jarrai ote dezaketen desagertutako pertsonaren eskubidea egikaritzen.

Erabat erreserbatzeko aukera planteatzen badugu, publizitate oro galarazita, orduan ez litzateke hori bizirik daudenetan planteatu behar?

E1001. Epailea.

## 2.6. ZAZPIGARREN ELKARRIZKETA

- Niri ezetz iruditzen zait, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea ezin daitekeela banandu pertsonalitatea garatzeko eskubidetik, eta jarraitu egiten duela genero-indarkeriaren testuinguruan bikotekidearen eskuetan hildako emakumearen kasuan.

Kasu horretan, auzia eztabaidagarriagoa izango litzateke juridikoki. Eragindako alderdiak bere eskura duen eskubide baten aurrean gaude? Edota ez da halako eskubidetzat hartzen? Datu horiek zabaltzearekin loturik, biktimaren interesa hartu behar da kontuan, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen ginetik? Edota haren seme-alabena?

Balantzean edo interes-jokoan esango nuke galdera horren ondorioa ezin litekeela absolutua izan, baizik eta kasuan kasu hartu behar dela.

María Josefa Barbarin andrea.  
Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko epailea.

## 2.7. ZORTZIGARREN ELKARRIZKETA

- Auzi hau aztertzean, oinarri batetik abiatu behar dugu: pertsonalitate zibila azkendu egiten dela heriotzaren ostean. Dena den, kasuaren oso ikuspegi murriztailea dela pentsatzen dugu; izan ere, nahiz eta intimitaterako eskubidea duen pertsona hil eta desagertu, haren izen ona edota memoria ona etorkizunera ere proiektatu egiten dira eta haren zirkulu intimoko pertsona eragiten die, batez ere senideei; hala, alde horretatik, uste dugu hildakoaren intimitaterako eskubideak nolabaiteko babesa izan beharko lukeela tankera honetako kasuetan ere.

Datuak argitaratzeko berariazko ezezkoaren kasuan, aurreko egoeraren kasu larriagoa izango litzateke, elementu berezi batekin: hildakoaren berariazko borondatea izatea esandako norabidean.

Alberto Saiz Garitaonandia jauna.  
Eusko Jaurlaritzako Auzibideko zuzendaria.  
EHUko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea.

### 3. BADUTE INTIMITATERAKO ESKUBIDERIK BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN ESKUETAN HILDAKO EMAKUMEAREN SEME-ALABEK, ZEHARKA IDENTIFIKATZEA POSIBLE EGINGO LUKETEN AMARI BURUZKO DATUEI DAGOKIENEZ?

#### 3.1. BIGARREN ELKARRIZKETA

- Iruditzen zait existitzen dela, bigarren galderarekin koherentzian.

Juan Calparsoro jauna.  
Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiko fiskal nagusia.

#### 3.2. HIRUGARREN ELKARRIZKETA

- Kontua baldin bada, amaren datuen bidez, seme-alabak zeharka identifikatzera iristea, azken horiek intimitaterako eskubidea dute, are gehiago amarekin batera intimitaterako eskubidearen titularkide izango lirartekeen aldetik.

Marta Sánchez Recio andrea.  
Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko fiskala.

#### 3.3. LAUGARREN ELKARRIZKETA

- Inolako zalantzarik gabe; gainera, debeku hori Prozedura Kriminalaren Legearen 681.3 artikulutik dator (4/2015 Legeak emandako idazketaren ostean): «*Debekatuta dago, nolanhari ere, biktima adingabeen edo babes berezia behar duten biktima desgaituen nortasunari buruzko informazioa zabaltzea edo argitaratzea, baita horiek zuzenean edo zeharka identifikatzen lagun dezaketen datuei edo horrelakoak babesteko beharrei buruz ebazteko baloratu diren egoera pertsonalei buruzkoa ere*».

Berriro diot, errealitateak erakusten digu krimen matxisten kasuan egiazki konplexua dela identifikazio-datuen publizitatea erabat saihestea.

Ángeles Carmona andrea.  
Emakumeen aurkako indarkeriaren Behatokiko presidentea.

#### 3.4. BOSGARREN ELKARRIZKETA

- Inolako zalantzarik gabe, intimitateak eduki zabalagoa dauka kasu honetan indarkeriazko egitateak eragiten dion pertsonarenak baino. Eragindako pertsonaren senideen espera pertsonalean sartzen da gertakaria, eta haien intimitatea errespetatzeko eskubidea sorrarazten die. Hemen behean erreproduzitzen dudan epaia ondo dator; izan ere, bertan jorratzen den kasuak hildako ama bati buruzko informazioa ematen du, eta haren semeari legitimazioa aitortzen zaio, informazio horrek azken haren intimitateari eragiten dion aldetik.

Bizkaiko Probintzia Auzitegiko epailea.

### 3.5. SEIGARREN ELKARRIZKETA

- Ez dakit existitzen den, baina iruditzen zait aurreko kasuan, oraingoan arrazoi handiagoz, planteia litekeela datuak ezagutaraztearen babesa, baldintza jakin batzuk beteta. Horietan, seguru.

E1001. Epailea.

### 3.6. ZAZPIGARREN ELKARRIZKETA

- Jakina. Ezin litezke albo batera utzi biktima eta, ondorioz, seme-alabak zeharka identifikatzea eragiten duten informazioak sortutako zeharkako kalteak, are gehiago seme-alabak adingabeak badira.

María Josefa Barbarin andrea.  
Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko epailea.

### 3.7. ZORTZIGARREN ELKARRIZKETA

- Erantzun hau aurrekoarekin lotuta dago; genioen moduan, nahiz eta intimitaterako eskubidea duen pertsona hil eta desagertu den, haren izen ona edota memoria ona etorkizunera ere proiektatu egiten dira eta haren zirkulu intimoko pertsoneri eragiten die, batez ere senideei (kasu honetan, seme-alabei); hala, alde horretatik, uste dugu hildakoaren intimitaterako eskubideak nolabaiteko babesa izan beharko lukeela tankera honetako kasuetan ere. Une honetan ez nuke jakingo esaten semearen intimitaterako eskubidea den (galderak planteatzen duen moduan) edota hildakoaren eskubidearen proiektioa den seme-alaben alde; edonola ere, bigarren aukeraren alde egingo nuke, bizi den artean emakumeak erabateko ahala baitauka bere pertsonari buruzko informazioa zabaltzeko baimenari dagokionez, seme-alaben iritzia edozer dela ere.

Alberto Saiz Garitaonandia jauna.  
Eusko Jaurlaritzako Auzibideko zuzendaria. EHUko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea.

## 4. INFORMAZIORAKO ESKUBIDEAREN ZATI DA, INFORMAZIO-INTERESA IZATEGATIK, GIZARTE-KOMUNIKABIDEETAN BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN ESKUETAN HILDAKO EMAKUME BATEN DATUAK, HURA EDOTA HAREN SEME-ALABAK IDENTIFIKATZEKO BIDE EGITEN DUTENAK, ARGITARATZEA?

### 4.1. BIGARREN ELKARRIZKETA

- Iruditzen zait ez dela informaziorako eskubidearen zati. Genero-indarkeriaren ondorioz hil duten emakume baten datuak, seme-alaben identifikazioa zuzenean edo zeharka posible egiten dutenak, ez dira argitaratu behar. Seme-alaben intimitaterako eskubidearen kontra egiten dute, modu larrian egin ere.

Juan Calparsoro jauna.  
Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiko fiskal nagusia.

#### 4.2. HIRUGARREN ELKARRIZKETA

- Ez. Bada adingabeak babesteko oinarrizko eskubidea, eta hor barruan sartzen da haien identifikazioa; hala, zaindu behar dugu irmo egiten dela beste eskubide batzuen aurrean. Edozer gizarteren helburu nagusia adingabeak babestea da. Prozedura Kriminalaren Legearen 681.3 artikulua berak debekatu egiten du, adingabeei eta desgaituei dagokienez, eta epaileak debekatu egin dezake biktimari dagokionez; horrenbestez, gomendatzen da fiskalak edo akusazio partikularrak hala jakinaraztea prozedura izapidetzeko garaian, Prozedura Kriminalaren Legearen 681.2 artikulua araberak. Informaziorako eskubideak gaiaren arazoak ezartzen dituen mugak ditu; kasu honetan, biktimen intimitatea babestea.

Marta Sánchez Recio andrea.  
Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko fiskala.

#### 4.3. LAUGARREN ELKARRIZKETA

- Ezin daiteke edozer datu argitaratu informazio-askatasunerako eskubidearen izenean. Ezin litezke hainbat xehetasun eman, baldin eta haien helburua argitaratutako informazioaren hartzaileen artean morboa piztea edo elikatzea bada, are gutxiago xehetasun horiek iritzia sortzea eta informazio objektiboa ez ematea bilatzen dutenean. Horren adibide dira, esate baterako, delitu bat egiteko arrazoen inguruko espekulazioak. Nolanahi ere den, hainbat datu (tokia, delitua zer-nola gertatu zen, alde aurretik salaketarik ba ote zen edota auzibiderik ba ote zen alderdien artean, familia-prozesu baten ondorioz) izango dute balio informatiboa eta posible da, halaber, datu horiek biktima identifikatzeko bidea egitea, gutxienez bizi artean ezagutu duten pertsonen artean, baita haren seme-alaben identitatearen berri izatea ere.

Ángeles Carmona andrea.  
Emakumeen aurkako indarkeriaren Behatokiko presidentea.

#### 4.4. BOSGARREN ELKARRIZKETA

- Egitateari buruzko edozer elementu izan liteke informaziorako eskubidearen zati; beste kontu bat litzateke intimitaterako eskubidea urratzen den. Nik uste dut hori gertatzen dela, gertaeren oste-osteko uneetan izan ezik, non egoera zalantzazkoa izaten baita. Iruditzen zait kasu guztietan alferrikakoak direla identifikazio-datuak, eta ahalegina egin beharko litzatekeela komunikabideek datu horiek eman ez ditzaten. Ez dago jokoan intimitaterako eskubidea bakarrik, baizik eta bigarren mailako biktimizazioaren efektuak ere bai, handitu egin bailitezke identifikazio-datuak argitaratuta.

Bizkaiko Probintzia Auzitegiko epailea.

#### 4.5. SEIGARREN ELKARRIZKETA

- Gaur egun, iruditzen zait interes informatiboa komunikabide batek zerbait buruzko informazioa emateko interesak bakarrik zehazten duela: hau da, komunikabide batek erabakitzen duenak du interes informatiboa. Horrenbestez, ezin dezakegu eskubide hori modu intrintsekoan mugatu, komunikabideei adierazita zer den intereseko eta zer ez, zer den garrantzitsua eta zer ez. Ez du funtzionatzen kode etiko gisa ere.

Horrenbestez, sar liteke informaziorako eskubidean.

Edonola ere, datu jakin batzuen berri ez emateko eskubidea babestu beharra dago, eta, argitaratuz gero, agian beste eskubide bat sortuko luke, kalteak ordaintzekoa, adibidez. Eskubideen arteko gatazka bat da, eskubide bat eta bestea haztatzekoa.

E1001. Epailea.

#### 4.6. ZAZPIGARREN ELKARRIZKETA

- Esango nuke ezetz, ez behintzat oinarrizko eskubide honen muina. Interes informatiboa bikotekidearen eskuetan hildako emakume biktimaren edota erasotzaileak lesionatuaren datua edo zifra ematea da, gertakariaren mekanika, alderdien arteko harremanaren estadia, nazionalitatea, adin-tartea, ikasketa-maila, alderdien posizio ekonomikoa... Hau da, arazo honi buruzko gizarte-kontzientzia ahalbidetuko duten datuak zabaltzea, eta, datuok aztertuta, prebentzio-politikak hartzeko aukera emango dutena, edota biktimei eta senideei laguntzak ematekoa. Ez dago interes informatiborik edo kazetaritza alorreko interesik delako biktimaren izena ematean.

María Josefa Barbarin andrea.  
Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko epailea.

#### 4.7. ZORTZIGARREN ELKARRIZKETA

- Beste behin ere, erantzuna aurretik emandako beste batekin lotzen da, kasu honetan, lehendabiziko galderarekin: emakumearen identifikazio-datuak garrantzi informatiboa duten kasuan bakarrik eman behar direla (alegia, intimitaterako eskubideak informaziorako eskubideari bide ematea); hau da, emakumearen identifikazio pertsonala albistearen ikuspegitik garrantzitsua den kasuan bakarrik. Oso zaila da egoera guztietarako balioko lukeen kategorizazio abstraktu bat egitea, kasuistika infinitua izan bailiteke eta kasuaren elementuak hartu behar bailirateke epaia eman ahal izateko.

Alberto Saiz Garitaonandia jauna.  
Eusko Jaurlaritzako Auzibideko zuzendaria. EHUko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea

### 5. BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN ESKUETAN HILDAKO BIKTIMAK IDENTIFIKATZEARI BURUZKO DATUEK INTIMITATERAKO ESKUBIDEA OSATZEN BADUTE ETA INFORMAZIORAKO ESKUBIDEAN SARTZEA BIDEZKO EGITEN DUEN INFORMAZIO-INTERESA BADUTE, BI HORIETATIK ZER INTERES GAILENDUKO DA? ZER IRIZPIDEREN ARABERA?

#### 5.1. BIGARREN ELKARRIZKETA

- Kasu hau eztabaidagarria da eta erabiltzen oso zaila, baina, nahiz eta interes informatibo garbia izan (esaterako, biktima pertsonaia publikoa denean), informaziorako eskubideak ezin du hilketaren kausa konkretua hartu (genero-indarkeriagatik), beste senide batzuen eskubideak zaintzeko, seme-alaba adingabeak, zehazki.

Juan Calparsoro jauna.  
Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiko fiskal nagusia.

## 5.2. HIRUGARREN ELKARRIZKETA

- Zaila da ezartzea zer eskubidek eman behar duen leku beste eskubide baten mesedetan. Ulertzen dut zer garrantzi informatibo izan lezakeen, zeharka bada ere, hilketa baten biktima identifikatzen lagun dezaketen datuak emateak, horrek sortzen duen alarma soziala kontuan izanda. Ulertzen dut, era berean, argitalpen horrek duen balioa Zigor Zuzenbideak zigorrak ezartzen dituenean bilatzen duen xedea betetze aldera: prebentzio orokorra. Epai baten edukia argitaratzen denean (eta, horrekin, biktima identifikatzeko aukera ematen duten datuak), gizarteak kontzientzia hartzen du, hain justu, ordenamendu juridikoak erantzun bat ematen diola ezohiko larritasuna duen delitu bati. Eta gizarteak ezin du hauteman erantzun hori egokia den ala ez gertakarien berri ez baldin badu, jasotako informazioa zentsuratuta edo modu partzialean ematen bada. Hori dela eta, informazioa emateko modua izango da gakoa, eta hori profesional bakoitzaren mende egongo da; hala, komenigarria izango da morbotik ihes egitea, biktimarentzat laidogarriak izango ez diren adierazpideak erabiltzea. Hala bakarrik lortuko da bi eskubideak kontziliatzea, haietako batek bakarrik ere ez baitauka izaera absolutua.

Marta Sánchez Recio andrea.  
Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko fiskala.

## 5.3. LAUGARREN ELKARRIZKETA

- Biktimen intimitaterako eskubidea informaziorako eskubidearen gainetik, noski, hori gaitzen duen lege-xedapenak bai baitira: 4/2015 Legearen 22. artikulua eta Prozedura Kriminalaren Legearen 681.2 artikulua, zeinaren bidez epaileak adostu baitezakeen. Fiskaltza eta akusazioaren bidez interesatu behar da mugatze-eduki hori.

Edonola ere, nire uste apalean, auzia berriro planteatu beharko genuke. Benetan garrantzia duena zera da, jakitea zerbaitetan laguntzen ote duen datu horiek argitaratzeak genero-indarkeriaren kontrako borrokan. Ekarpen gisa balio badu (ikerketarako edo genero-terrorismoaren aurrean herritarrengan kontzientzia pizteko), onartu genezake interes informatiboa izatea. Hala ez bada, gertuago egongo ginatke sentsazionalismotik edota ikuskizuna justifikatzeko bidetik. Eta ez kazetaritzan zorrotz jarduteko bidetik.

Ángeles Carmona andrea.  
Emakumeen aurkako indarkeriaren Behatokiko presidentea.

## 5.4. BOSGARREN ELKARRIZKETA

- Iruditzen zait goian ere erantzun dudala: uste dut saihestu egin beharko litzatekeela argitaratzea eta intimitaterako eskubideak gailendu beharko lukeela. Lehendabiziko uneen salbuespena egingo dut, lehendabiziko une horien interes informatiboa izugarria baita, baina ahalik eta bizkorren jardun behar da biktimaren senideen eskubideak gordetzeko.

Bizkaiko Probintzia Auzitegiko epailea.

## 5.5. SEIGARREN ELKARRIZKETA

- Hau tesi bat egiteko modukoa da... Hainbat ohar.



Lehenik eta behin, uste dut arazo hau maila orokorragoan planteatu beharko litzatekeela. Nahiz eta espazio hau egokia izan ez, iruditzen zait askoz ere gehiago babestu beharko liratekeela polizia-jarduketa batek eragindako pertsona guztien datuak, baita zigor-arloko prozesuren batean inplikaturik daudenak ere (edota beste prozesuren batean, noski). Esparru horiek aipatu ditut, horiek baitira lehentasunez edo hasiera batean behintzat genero-indarkeriaren kasuetan jarduten dutenak.

Interes informatiboa kasurik gehienetan sortzen da, ez epaiak ematen dituztenean (horietaz komunikabideak ahaztu egiten dira), baizik eta gertaera, krimena, izan eta berehala. Albiste den gertaera bat, egunek aurrera egin ahala, interesa galtzen joaten da komunikabideetan, eta, hala, nahikoa litzateke oro har pribatutasuna denbora-tarte jakin batean gordetzea. Ez du esan nahi sekretupean gorde behar denik kasu guztietan.

Gutxienez zati batean, interes informatiboa babestuta geratuko da, datuak gordeta, banatzen den informazioaren edukiaren kontrola ez komunikabideari egotzita, baizik eta kasua maneiatzen duen esparruaren elementu propio baten esku ipinita. Uste dut alor horretan lan handia legokeela egiteko.

Nire ustez, zaila da esatea eskubide bat ala bestea gailendu behar den. Baina, kasu guztietan, inguruabar bereziak salbuespen gisa hartuta, iruditzen zait ez liratekeela eman behar eragindako pertsona identifikatzeko bidea egiten duten elementuak. Egia esan, eragindakoak. Delitu-esparru horretan, gehien-gehienetan, biktima ezagutzeak biktimarioa ezagutzea esan nahi du, eta alderantziz.

Haztapen egoki batek utziko luke jakiten zer gertatu zen, baina ez zeinen artean gertatu zen. Hala, zer gertatu zen informatzeak luzera eta sakontasun egokia izan beharko litzateke, eragindako pertsonak identifikatzeko bidea egingo lukeen datu espezifikokoak kaleratu behar izan beharrik gabe. Kasuz kasu haztatu beharko litzateke.

Ondorioz, abstraktuan eskubide bat bestearen gainetik ipini beharrean, kasu bakoitzean oreka bat topatzea izango litzateke kontua, kasu bakoitzean kontrajarrita dauden eskubideen luzeren eta mugen artean.

E1001. Epailea.

## 5.6. ZAZPIGARREN ELKARRIZKETA

- Bistan den moduan, auzi honi buruzko erantzuna emateko, Konstituzio Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia xehe-xehe aztertu behar da, Konstituzioa eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmena aintzat hartuta.

Baina guztiok dakigu Espainiako Konstituzio Auzitegiak egiteko garrantzitsua eman diola informazio-eskubideari, egiazko informazioa izateko eskubideari, aintzat hartuta komunikabideek iritzi publikoa osatzeko egitekoa dutela gizarte demokratiko baten barruan.

Hori bai, eskubide hori, beste edozer eskubide bezala, ez da absolutua, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea ere ez den modu berean. Iruditzen zait erantzuna Konstituzio Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzian dagoela, lehiari diren inguruabarrak balioetsita: zer interes informatibori dagokion, adingaberik ba ote den ala ez, eta abar. Guztia ere kasuan kasu zehazteko, irizpide horien arabera, zer oinarriko eskubide nagusi-tzen den.

María Josefa Barbarin andrea.  
Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko epailea.

## 5.7. ZORTZIGARREN ELKARRIZKETA

- Bai. Galderak planteatzen duen moduan, biktima identifikatzeko datuek halako interes informatiboa dutenez, justifikatuta dago informaziorako eskubidea intimitaterako eskubidearen gainetik egotea; hortaz, gure ustean, babestuta legoke informazioa ematea. Kasu honetan (beste hainbatetan bezalaxe), gatazkan diren eskubideen eta interesen haztapena egin behar da, eta horrexegatik genioen oso zaila dela lehen kategorizazio abstraktu bat egitea, egoera guztietarako balio izango duena.

Intimitatearen gainetik informaziorako eskubidea ipiniko lukeen oinarritzko irizpidea, hain zuzen, interes informatiboa izango litzateke, eta, nire ustean, horrek auzi konkretua behar du izan, eta ez abstraktua. Hau da, interes generiko bat (esate baterako, gizartea sentibilizatzea genero-indarkeriaren inguruan) ez litzateke berez nahikoa izango datu pertsonal horiek argitaratzeko. Interesa bera indarkeria-ekintzen biktima konkretuari egokituta etorri beharko litzateke.

Alberto Saiz Garitaonandia jauna.

Eusko Jaurlaritzako Auzibideko zuzendaria. EHUko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea

## 2, 2.3, 4 ETA 5. GALDEREI EMANDAKO BATERAKO ERANTZUNA:

- Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, Konstituzioak bermatutako eskubide izatez gain, jardunbide guztiz pertsonaleko «*personalitate-eskubideen*» kategoria tradizionalan sartzen da (Kode Zibilaren 162.1 artikulua). Heriotzak pertsonalitatea amaitu egiten du (Kode Zibilaren 32. artikulua), eta, harekin batera, hildako emakumeari zegokion intimitaterako eskubidea azkendu egiten da.

Ondorioz, intimitatearen esparruaren gaineko informazio-injerentzia baztertzeko ahala, hildako emakumeak bizi artean definitua, ezin dezakete seme-alabek egikaritu haren izenean. Edonola ere, horrek ez du galarazten seme-alabetako bakoitzak, eskubide propioz, norberaren eta familiako intimitaterako eskubidea izatea eta hura egikaritzea, amaren hilketari buruzko gertakariak edo irudiak komunikabideetan zabaldu ez daitezen, ezagutza publikoak euren pertsonalitateari gordetako esparruan eragiten duen aldetik.

Hala jasotzen du Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 2ko 231/1998 epaiak, Francisco Rivera Pérez (Paquirri) zenaren emazteak ipinitakoak; hala, alargunaren eta seme-alaben intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea babesteko eskatzen du, bideo-dokumentu bat prestatzeari eta zabaltzeari dagokionez. Dokumentu hori alargunaren baimenik gabe prestatua zen, eta Kordobako Pozoblanco zezen-plazan izandako harrapaketa irudiak biltzen dira, baita plaza horretako erizaindegian egindako tratamenduarenak ere.

Epaiaren 3. oinarri juridikoan interpretatzen denez, Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan aitortutako norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea norberaren pertsonalitatearekin zorrotz lotutako oinarritzko eskubide gisa ageri da, eskubide guztiz pertsonala eta haren titularraren existentziari lotua den aldetik. Hori guztia konstituzio-eskubidearen babes-eremutik kanpo, ondare eta kalte-ordain izaerako babes zibileko neurriak egikaritu ahal izateari kalterik egin gabe, maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak jasota bezala.

Aipatutako epaian, hildakoaren eta haren familiaren intimitaterako eskubidea eta hildakoaren senideen familia-intimitaterako eskubidea bereizten dira (zeinaren titulartasuna norberaren eskubidez baitute, eta ez besterenez). Epaian aitortzen denez, «*zalantzarik gabe gurasoei, ezkontideei edota seme-alabei gertatu ahal zaizkien hainbat gertaerak, gure gizartearen irizpide kulturalen baitan, gizabanakoarentzat halako garrantzia dute, non behar*

*ez bezala zabaltzeak edo publizitatea egiteak pertsonalitatearen esferan eragiten baitu zeharka. Horrenbestez, bada auzi horren inguruan intimitaterako eskubide bat (propioa, ez besterena), Konstituzioz babes daitekeena».* Eta amaitzen du esanez zezen-plazako erizaindegian hartutako irudiek Pantoja andrearen (Rivera jaunaren alargunaren) eta familiaren intimitaterako eskubidea urratzen dutela (10. oinarri juridikoa).

Galdetegian aurreikusitako kasuan, kontuan izan behar da hildako emakumearen seme-alabak, Delituaren Biktimaren Estatutuaren (apirilaren 27ko 4/2015) 2.b) artikulua zedatutakoaren arabera, delituaren zeharkako biktimatza hartzen direla.

Biktima izaera horrek norberaren intimitatea egokiro babesteko eskubidea esleitzen die eta, bigarren mailako biktimizazioa edo errepikatua izateko arriskua saihestekoa ere bai, heriotza zuzenean eragin duen delitu-egitatea ikertzeko, jazartzeko eta epaitzeko ardura duten agintariek eta funtzionarioek egindako jarduketetan (4/2015 Legearen 19. eta 22. artikulua).

Delituaren zeharkako biktimen intimitatea babesteko obligazioak (4/2015 Legearen 22. artikulua) epaileei, auzitegiei, fiskalei eta zigor-arloko ikerketaz arduratzen diren agintari eta funtzionarioei eragiten die, baita prozesuan «*nolana*» esku edo parte hartzen dutenei ere. Babesak berariaz biltzen du beharrezko neurriak hartzea, «*biktima adingabeak edo desgaituak, babes berezia behar dutenak, identifikatzea errazten duen edozer informazio zabaltzea galarazteko*».

Aurreko kasuei erantzunez, honako alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- a) Intimitaterako konstituzio-eskubidearen titulartasuna agortu egiten dela eraildako emakumearen heriotzarekin batera.
- b) Hildako emakumearen intimitaterako eskubidean sartu izanagatik kalte-ordainak eskatzeko akzio zibila *mortis causa* ere transmiti daiteke, eta, hori dela medio, seme-alaba oinordekoek egikaritu dezakete.
- c) Seme-alabak familia-intimitaterako eskubidearen titular dira, zeinaren bidez ahala izango baitute ama zenaren hilketari buruzko irudiak edota gertakariak ezagutza publikotik ezkutatzeko, baldin eta horiek zabaltzeak euren pertsonalitateko esferan zuzenean eragiten badu. Seme-alaben nortasuna edo identifikazio grafikoa ezagutza publikotik erreserbatzeko esparru honetan bildu daiteke.
- d) Egiatzko informaziorako eskubidea baliatuz gertakariak zabalduta, hildako amaren seme-alaben identitatea zuzenean edo zeharka ezagutzea posible egiten duenean, baliatzeke seme-alaben familia-intimitaterako esparru erreserbatuan sartzea. Ezin izango da eskatu seme-alabek sartze hori jasan behar izatea, baldin eta nortasuna zuzenean zein zeharka jakinaraztea alferrikakoa bada edo delitu-egitateari buruzko informazioa emateko garrantzi publikorik ez badu; izan ere, inguruabar horrek informazioaren interes publikotik kanpo utziko luke nortasuna zabaltzea.
- e) Seme-alaba adingabeen edo hilketa-delituaren zeharkako biktima desgaituen kasuan, informazio-eskubiderako jardunean mugatze-horma bat irekiko luke, hain zuzen ere, epaileei, auzitegiei, fiskalei eta zigor-arloko ikerketaz arduratzen diren gainerako agintari eta funtzionarioei lege ezarritako beharren interes publiko konfiguratzailerak ezarrita, baita biktima horiek identifikatzeko bidea egiten duen edozer informazio zabaltzea galarazteko prozesuan «*nolana*» esku edo parte hartzen dutenei ere.

Juan Luís Ibarra jauna.  
Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea.

Lehendabiziko galderak auzi jakin baten inguruan galdetzen du: bikotekidearen edo senarraren aldetik genero-indarkeria jasaten duen emakume biktima baten intimitaterako eskubidearen zati ote den indarkeria-jarrera horren biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko informazio-datuak ematea.

Inkestan parte hartu dutenek emandako erantzunen arabera, bat datoz guztiak esatean genero-indarkeriako delituen biktimak zuzenean zein zeharka identifikatzeko aukera ematen duten datu informatiboak norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen zati direla.

Ikuspegi horretatik, hala, zera ondorioztatzen dugu, pertsonak ahala daukala gizarte-komunikabideek ikerketaren edo zigor-arloko epaitzearen xede diren egintzei buruz emandako informazioaren gainean, identitatea zabaltzeari loturik (edo indarkeriazko erasoaren biktima gisa identifikatzea posible egiten duten datuak emateari loturik), baldin eta datu horien berri izatea alferrikakoa eta garrantzirik gabea bada interes publikorako. Eta horren arrazoia zera da, «intimitaterako edo pribatutasunerako eskubidea osatzen duen datu pertsonala pertsona eta bizitza pribaturako bestelako alderdiak identifikatzen dituen dela».

Bigarren galderan zera planteatzen zen, bikotekideari edo bikotekide ohiari egotzitako hilketak azken-du egiten ote duen hildako emakumearen eta haren familiaren intimitaterako eskubidea, gizarte-komunikabideetan biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko moduko datuak argitaratzeari dagokionez.

Gehien-gehienek erantzun dutenez, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea ez da iraungitzen emakumea nahita hiltzen denean. Hala, baieztatzen dutenez, «lehen azaldutako 22. artikulua intimitaterako eskubidea aurreikusten duenean, inola ere ez du baztertzen "hildako biktima"; baizik eta, begien bistakoa denez, barnean hartzen du, biktimaren kontzeptuak hildakoak ere barnean hartzen baititu». Halaber, zehazten du intimitateak eduki zabalagoa daukala kasu honetan indarkeriazko egitateak eragiten dion pertsonaren kasuan baino. «Gertakaria eragindako pertsonaren senideen esfera pertsonalean sartzen da, eta haien intimitatea errespetatzeko eskubidea sorrarazten die.» Eta, hori dela eta, honako hau baieztatzen dute: «Are gutxiago kontuan hartzen badugu ordenamendu juridikoak ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea defendatzeko aukera ematen duela, baita pertsona hil ostean ere, horretarako (ofizioz ere bai) izendatutakoen aldetik; hala, kasu batzuetan Fiskaltzak hartuko luke bere gain ardura hori». Modu ezohikoan, hala ere, elkarrizketuren batek adierazi du intimitaterako eskubidea guztiz pertsonala dela, eta, hori dela medio, uste duela intimitaterako eskubidea desagertu egiten dela subjektua hiltzean. Iritzi minoritario horrek, dena den, ez du baztertzen «intimitateak eduki zabalagoa daukala kasu honetan indarkeriazko egitateak eragiten dion pertsonaren kasuan baino»; izan ere, gertakaria «eragindako pertsonaren senideen espera pertsonalean sartzen da, eta haien intimitatea errespetatzeko eskubidea sorrarazten die». Hori dela eta, inkestari erantzun dion beste batek adierazi duen moduan, agian bereizi egin behar da norberaren intimitaterako eskubidearen titulartasuna, «hildako emakumearen heriotzarekin iraungitzen dena» eta familia-intimitaterako eskubidea, seme-alabei ere badagokiena. Hala, seme-alabak familia-intimitaterako eskubidearen titular dira, zeinaren bidez ahala izango baitute ama zenaren hilketari buruzko irudiak edota gertakariak ezagutza publikotik ezkutatze, baldin eta horiek zabaltzeak euren pertsonalitateko esfera zuzenean eragiten badu; halaber, legitimazioa izango dute hildako emakumearen intimitaterako eskubidea zaintzeko, seme-alaba oinordekoei egokituko baitzaie *mortis causa* transmititu daitekeen aldetik.

Planteamendu horrekin modu koherentean, elkarrizketatuek iritzi diote euren ustez seme-alabak identifikatzeko aukera ematen duten hildako amaren datu informatiboak familia-intimitaterako eskubidearen zati direla, eta kasu batean «amarekin batera intimitaterako eskubidearen titularkide» ere izango lirartekeela adierazi dute.

Laugarren galderak zera jakin nahi zuen, informaziorako eskubidearen zati ote den, informazio-interesa izateagatik, gizarte-komunikabideetan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako

emakume baten datuak argitaratzea, hura edota haren seme-alabak identifikatzeko bide egiten dutenak, alegia. Hemen erantzunak askotarikoak izan dira; horrek erakusten du auzi hori arantzatsua dela esparru juridikoan. Hala, adibide esanguratsuen artean, elkarrizketatu batek zera esan du: «Hainbat datu izango dute balio informatiboa (tokia, delitua zer-nola gertatu zen, alde zurretik salaketarik ba ote zen edota auzibiderik ba ote zen alderdien artean, familia-prozesu baten ondorioz), eta posible da, halaber, datu horiek biktimak identifikatzeko bidea egitea, guxtienez bizi artean ezagutu duten pertsonen artean, baita haren seme-alaben identitatearen berri izatea ere». Beste batek, berriz, iritzi dio «egitateari buruzko edozer elementu» izan litekeela informaziorako eskubidearen zati.

Bosgarren galderaren bidez, zer eskubide gailentzen den jakin nahi da eta zer irizpideren arabera, baldin eta intimitaterako eta informazio-askatasunerako eskubideen artean gatazka sortzen bada (egoera hori gertatzen da biktimak identifikatzeko datuak intimitaterako eskubidea osatzen dutela eta, aldi berean, interes informatiboa dutela irizten denean). Auzi hori arantzatsua da elkarrizketatuen aburuz. Haztapan-judizioa egin dutenen artean, elkarrizketatu batek honako hau esan du: «Nik uste dut kasu guztietan alferrikakoak direla identifikazio-datuak, eta ahalegina egin beharko litzatekeela komunikabideek datu horiek eman ez ditzaten». Izan ere, haren ustean, «ez dago jokoan intimitaterako eskubidea bakarrik, baizik eta bigarren mailako biktimizazioaren efektuak ere bai, handitu egin bailitezke identifikazio-datuak argitaratuta». Beste batek, berriz, honako hau esan du: «Nahiz eta interes informatibo garbia izan (esaterako, biktimak pertsonaia publikoa denean), informaziorako eskubideak ezin du hilketaren kausa konkretua hartu (genero-indarkeriagatik), beste senide batzuen eskubideak zaintzeko, seme-alaba adingabeak, zehazki». Beste baten iritziz, eskubideak haztatzeko garaian, «biktimen intimitaterako eskubidea informaziorako eskubidearen gainetik, noski, hori gaitzen duen lege-xedapenak bai baitira: 4/2015 Legearen 22. artikulua eta Prozedura Kriminalaren Legearen 681.2 artikulua, zeinaren bidez epaileak adostu baitezakeen». Azkenik, beste batek honako hau adierazi du: «Haztapan egoki batek utziko luke jakiten zer gertatu zen, baina ez zeinen artean gertatu zen». Hala, zer gertatu zen informatzeak luzera eta sakontasun egokia izan beharko litzuke, eragindako pertsonak identifikatzeko bidea egingo lukeen datu espezifikoak kaleratu behar izan beharrik gabe.

Komunitate juridikoari egindako elkarrizketek eskaintzen duten informaziotik, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

1. Inkestan parte hartu duten guztiak bat datoz esatean genero-indarkeriako delituen biktimak zuzenean zein zeharka identifikatzeko aukera ematen duten datu informatiboak norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen zati direla.
2. Inkestatu gehienek uste dute, emakumea nahita hiltzearen ondorioz, ez dela haren intimitaterako eskubidea galtzen, kalterik egin gabe haren tutoretza judiziala oinordekoek hartzeari, eta, hala dagokionean, Fiskaltzak.
3. Inkestatu guztien arabera, emakumea nahita hiltzeak ukiezin uzten du seme-alaben familia-intimitaterako eskubidea.
4. Inkestatuek iritzi desberdinak dituzte biktimak zuzenean edo zeharka identifikatzeko bidea egiten duten datuen interes informatiboaren inguruan; izan ere, batzuek interes informatiboaren planotik erretiratu egiten dute, beste batek dio beti izango duela interes informatiboa eta beste batek, azkenik, datu motak eta datu horrek genero-indarkeriaren larritasunari buruzko kontzientzia publikoarekin duen loturak zehaztuko duela interes informatiborik ba ote den ala ez.
5. Inkestatu guztiek diote egin beharreko haztapena konplexua dela, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen eta informazio askerako eskubidearen arteko gatazkan bietatik zein gailentzen den erabakitzeke.

## **1. NOIZ ETA ZERGATIK ULERTZEN DA NAGUSITZEN DELA INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA, NORBERAREN ETA FAMILIAREN INTIMITATERAKO ESKUBIDAREN GAINETIK?**

### **1.1. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LEHEN ELKARRIZKETA**

- Biktimaren identitatea irakurleari eman beharreko informaziorako garrantzitsua denean, edota testuingurua ulertzeko ezinbesteko datuak eskaintzen dituenean.

E1002. Europa Press.

### **1.2. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO BIGARREN ELKARRIZKETA**

- Iruditzen zait galdera horri Zuzenbidearen eta Justiziaren alorrek eman behar diotela erantzuna, eta ez horrenbeste kazetaritzak. Nire ustez, kazetariak, indarkeria matxistaren gertakari bati buruzko informazioa ematean, ez dute planteatzen hasiera batean biktimaren edo familiaren intimitaterako eskubidea urratzen ari diren.

Gertakari horri buruzko informazioa ematen dute, hasiera batean, biktimaren nortasuna ezagutu gabe; besterik gabe, zer gertatu den adierazten dute. Albiste horren ondoren gertatzen den garapenak eragiten du, kasurik gehienetan, intimitaterako eskubideari eragin diezaioketen datuak agertzea. Baina ordurako publikoaren interesa horren handia izanik, nolabaiteko «elur-bola» efektua sortzen da, oso zaila geratzen, gizarteak etengabe eta aldi berean informazioa eskatzen baitu, horren kontzientziatuta egonik.

E1003. Europa Press.

### **1.3. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO HIRUGARREN ELKARRIZKETA**

- Konstituzioak bi eskubideak babesten ditu. Ez da harrizkoa hainbat kasutan eskubide bat ala bestea gailentzen den erabakitzeko lanak izatea, eta, ondorioz auzitegiek izatea azken hitza. Galderari ihes ez egiteko, oro har, iruditzen zait informaziorako eskubidea gailentzen dela gertakariak **interes publikokoak** direnean: zigor-arloan garrantzia duten gertakariak, ongi komunarekin lotuak edota kezka zein ezinegona sortzen dituzten kasuetan, pertsonei eta erkidegoari eragiten dietenean, iritzi publiko bat osatzen dutenean... Informazioak, jakina, egiazkoa izan behar du, eta bazterrean utzi behar du interes publiko horri erantzuten ez dion xehetasun oro (morboa saihestu).

E1004. Radio Euskadi.

#### **1.4. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LAUGARREN ELKARRIZKETA**

- Informaziorako eskubidea beti gailentzen da interes orokorrari erantzuten zaionean, hala nola indarkeria matxistaren kasuan; delitu hori ofizioz jazar daiteke, eta Europako 14 eta 45 urteko emakumeen artean heriotza gehien eragiten duen kausa da.

E1005. RNE.

## **2. INTERES PUBLIKOARI ERANTZUTEN DIO BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN ESKUETAN HIL DEN EMAKUME BAT IDENTIFIKATZEKO ALDERDI PERTSONALEI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEAK?**

#### **2.1. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LEHEN ELKARRIZKETA**

- Kasuaren arabera, baina iruditzen zait, morboan erori gabe, kontakizunaren testuingurua emateko balio dezakeela, betiere muga jakin batzuk errespetatuta.

E1002. Europa Press.

#### **2.2. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO BIGARREN ELKARRIZKETA**

- Kazetaritzaren ikuspegitik, zalantzarik gabe biktimaren alderdi pertsonalen berri izatea interesgarria da publikoarentzat oro har, albisteari testuingurua emateko balio baitu. Indarkeria matxistak eragindako hilketa batek esan nahi duen irrazionaltasunaren barruan, publikoak zer inguruabarretan gertatu den jakin nahi du. Biktimak erasotzailea alde aurretik salatuta zeukan, inguruabar pertsonalak zeintzuk ziren eta bestelako hainbat datu interesgarri.

E1003. Europa Press.

#### **2.3. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO HIRUGARREN ELKARRIZKETA**

- Ez. Hilketa da informazioaren xede nagusia; edonola ere, inguruabar jakin batzuk interesgarriak iruditzen zaizkit, hala nola erasotzailearen aurka salaketa ipinita zeukan aurrez, babes-neurririk ba ote zeukan, biktima gehiago ba ote den (seme-alabak)... Adina ere garrantzitsua iruditzen zait. Gainerako alderdi pertsonalak edo pribatuak, hildako emakumea identifikatzen lagun dezaketenak, iruditzen zait EZ DIRELA INTERES PUBLIKOKOAK.

E1004. Radio Euskadi.

#### **2.4. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LAUGARREN ELKARRIZKETA**

- Nire ustez bai, baina mugak ipinita, jakina. Interesa ez dauka albiste izan daitekeen gertakariak bakarrik, baizik eta gertakaria zer testuingurutan izan den jakiteak ere bai. Horretarako, iruditzen zait ezinbestekoa dela hainbat datu pertsonal izatea, ez biktimarenak bakarrik, baita hiltzailearenak ere.

E1005. RNE.

### **3. IKUSGARRITASUN HANDIAGOA EMATEN DIO HILDAKO EMAKUMEARI BIKTIMA, HAREN INGURUA ETA DELITUA ZER EGOERATAN GERTATU DEN IDENTIFIKATZEAK?**

#### **3.1. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LEHEN ELKARRIZKETA**

– Hainbat kasutan, baietz esango nuke.

##### **a. Interesgarriagoak dira gertakariak irakurlearentzat?**

Bai, halaxe lortzen da irakurleek kasuari buruzko interes handiagoa izatea.

##### **b. Asmatutako datuekin identifikatutako emakumea ez da hain biktima?**

Ez.

E1002. Europa Press.

#### **3.2. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO BIGARREN ELKARRIZKETA**

– Garbi dago datu horien berri izateak emakume biktimari ikusgarritasun handiagoa ematen diola. Esate baterako, Gipuzkoan mundu guztiak identifikatzen du Nagore Laffage, izena aipatze hutsarekin. Hilketaren nabaritasun mediatikoaren ondorioz, neska hori indarkeria matxistaren aurkako borrokan ia ikono bilakatu da, eta haren izenak (prentsak ezagutarazia) balio izan zuen pertsona asko eta asko indarkeria mota horren kontrako manifestazioetara eramateko.

##### **a. Interesgarriagoak dira gertakariak irakurlearentzat?**

Kazetaritzako hainbat irizpidek zehazten dute informazio bat bideratutako publikoaren interesa, eta albisteak interes handiagoa edukitzea lortzen dute. Horietako bat gertutasun geografikoa da. Zenbat eta gertuago gure bizilekutik, orduan eta interesgarriagoa egiten zaigu. Hori dela eta, tokiaren berri ematea oso garrantzitsua da.

Beste irizpide bat da biktima zein puntutaraino den «ospetsua». Informazioari dagokionez, zenbat eta ezagunago izan pertsona bat, orduan eta interesgarriagoa izango da publikoarentzat oro har.

##### **b. Asmatutako datuekin identifikatutako emakumea ez da hain biktima?**

Ez, horixe! Asmatutako datuekin identifikatutako emakumeak ez du biktima tasun txikiagoa, baina, modu horretan, anonimo izatera igarotzen da. Jaioterrian, auzoan, autonomia-erkidegoan... Ez litzateke egingo hilketaren kontrako ekitaldirik. Erakundeak ez lirateke bertaratuko heriotzak irekitako eginbideetan. Publikoak, oro har, ez luke jakingo gertakari horiek herrian bertan gertatzen direla, eta pentsa lezake beste toki batzuetan gertatzen diren kontuak direla.

E1003. Europa Press.

#### **3.3. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO HIRUGARREN ELKARRIZKETA**

– Bai. Ikusgarritasuna eta enpatia. EZ DIRA INTERES PUBLIKOKOAK, baina informazioaren hartzaila biktimarengana gerturatzea eragiten du, harekin solidario izatea. Nolanahi ere, kontuz ibili behar da, morboa, esamesak, biktimaren eta sendiaren intimitatean sartzea



eta tankerakoak eragin baititzake. Eta arreta xehetasunetan eta kontu osagarrietan ipintzea, gertakari nagusitik aldentuta.

**a. Interesgarriagoak dira gertakariak irakurlearentzat?**

Bai.

**b. Asmatutako datuekin identifikatutako emakumea ez da hain biktima?**

Ez.

E1004. Radio Euskadi.

### **3.4. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LAUGARREN ELKARRIZKETA**

– Inolako zalantzarik gabe.

**a. Interesgarriagoak dira gertakariak irakurlearentzat?**

Bai. Albistea sinesgarriagoa da irakurlearentzat eta gertakarian gehiago murgildu liteke.

**b. Asmatutako datuekin identifikatutako emakumea ez da hain biktima?**

Asmatutako datuekin, irakurlearen enpatia ez litzateke berbera izango eta iruditzen zait efektua ere ezetz. Baina iruditzen zait biktima hori, nahita identifikatu ez den biktima hori, zerrenda beltzeko zenbaki bat gehiago izango litzatekeela bakar-bakarrik. Izen, adin eta bizileku baten atzean, egiazko pertsona bat dago; hain zuzen ere, indarkeria matxistako kasu batean bizitza galdu duen pertsona bat, alegia. Irakurleak enpatizatu egiten du, kontakizuna sinesten, eta, auskalo, agian bere burua islatu eta salaketa bat ipiniko du.

## **4. BIKTIMAREN ETA HAREN INGURUKOEN DATU PERTSONALAK EDO IDENTIFIKAZIO-DATUAK ZER DIRA, DATU HUTSALAK, AXOLAGABEAK ALA ALBISTEAREN MUINA?**

### **4.1. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LEHEN ELKARRIZKETA**

– Askotan eta askotan, albistearen muina dira.

E1002. Europa Press.

### **4.2. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO BIGARREN ELKARRIZKETA**

– Biktimaren datu pertsonalak edo identifikazio-datuak ez dira albistearen muina. Komunikabideen helburua ez da biktima identifikatzea; nolana ere, datu horiek garrantzitsuak dira, ezagutu ostean, horiek baitira gakoak biktimaren bizilagunengana, senideengana eta ingurukoengana jotzeko, gertatu denari testuingurua ipintzeko informazioaren baten bila. Nola eman gurasoek Galizian hildako Asunta haurrari buruzko informazioa, nor zen esan gabe? Nola jakingo zuten komunikabideek irakasleen kontakizuna, esanez somnolentzia izaten zuela barbiturikoak hartu izanagatik eta beste hainbat xehetasun?

E1003. Europa Press.

### **4.3. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO HIRUGARREN ELKARRIZKETA**

- Ez dira albistearen muina, baina, lehen erantzun dudan moduan, baliteke informazioaren hartzaileak biktimarekin are elkartasun handiagoa agertzea, gertuagoko ikustea...

E1004. Radio Euskadi.

### **4.4. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LAUGARREN ELKARRIZKETA**

- Albistearen muina beti emakumearen heriotza eta heriotzaren arrazoiak izango dira. Hori bai, biktimaren datu pertsonalak edo identifikazio-datuak baliagarriak izan litezke, irakurleak are hobeto uler dezan zer gertatu den. Guztiak du muga, eta ez da gauza bera biktimaren izena eta lanbidea jakitea, dibortzio-prozesuan zen esatea, edota bestelako xehetasun pertsonalagoak edota are labainak ematea. Azken horiek saihestu beharrekoak dira, irakurleren batek gertatutakoa «justifikatzea» ere eragin baitezake.

E1005. RNE.

## **5. BIKTIMA IDENTIFIKATZEKO ELEMENTUENTOKIAN (IZENA, ADINA, SEME-ALABAK, BIZILEKUA) ASMATUTAKO DATUAK, INIZIALAK ETA TANKERAKOAK ERABILTZEAK DESITXURATU EGITEN DU INFORMATZEKO XEDEA?**

### **5.1. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LEHEN ELKARRIZKETA**

- Ez du zertan, gertatutakoaren egiazkotasuna jasotzen badu.

E1002. Europa Press.

### **5.2. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO BIGARREN ELKARRIZKETA**

- Bai, zalantzarik gabe. Puntu honetan tarte bat egin nahi dut, gogorarazteko hildako emakumeei buruz galdetzen ari garela. Inpaktu sozial oso handia duten kasu oso larriak.

Larritasun txikiagoko indarkeria matxistaren biktimen kasuan, komunikabideek oro har errespetu handiz jokatzen dute. Esate baterako, nik lan egiten dudan komunikabidean ez dira inoiz ere identifikatzen ez biktimak ez erasotzaileak, eta albisteak ez dira desitxuratzen horren ondorioz. Hori bai, inplikaturako pertsonak ospetsuak direnean, hil egin dituztenean edota izena beste komunikabide batzuek eman dutenean, Asuntaren kasuan adibidez, orduan ematen dira.

E1003. Europa Press.

### **5.3. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO HIRUGARREN ELKARRIZKETA**

- Segun eta zer datu ordeztan edo faltsutzen diren, desitxuratzen da albistea, bai. Beste izen bat edota inzialak emateak ez luke axola beharko, baina adina edo seme-alabak faltsutzeak desitxuratuko luke informazioaren xedea.

E1004. Radio Euskadi.

#### **5.4. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LAUGARREN ELKARRIZKETA**

- Puntu bateraino bai. Kontuan hartu behar da garrantzitsuena indarkeria matxista dela, eta, informazioari dagokionez hitz eginda bakarrik, ez da gauza bera hildako emakumeak 17 urte izatea edo 82; edota ez da gauza bera biktima etxeoandrea izatea, enpresaburu bat edota katedradun bat, edota Roquetas de Marren hiltzea edo Getxon. Larritasun-maila berbera da, jakina; salaketa maila berebean egin beharko da, baina, informazioa emateko garaian, ez da gauza bera hilketa bat ala bestea. Ez da albiste handiagoa edo txikiagoa, baina desberdina bai.

E1005. RNE.

### **6. DELITU-EKINTZEK EZ LUKETE IZANGO INTERES PUBLIKORIK, ALBISTEA UDALERRIKO BIZTANLEEK BIKTIMA EZ IDENTIFIKATZEKO MODUAN IDATZIZ GERO? ZERGATIK?**

#### **6.1. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LEHEN ELKARRIZKETA**

- Ez dakit, ezetz pentsatzen dut.

E1002. Europa Press.

#### **6.2. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO BIGARREN ELKARRIZKETA**

- Nire ustez eta lehen aipatu dudan bezala, kazetaritzako gertutasun-irizpideak erantzuten dio galdera horri.

E1003. Europa Press.

#### **6.3. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO HIRUGARREN ELKARRIZKETA**

- Delitu-egitatea interes publikoko izango litzateke berdin-berdin, baina ez luke inpaktu emozional berbera izango udalerriko biztanleen artean.

E1004. Radio Euskadi.

#### **6.4. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LAUGARREN ELKARRIZKETA**

- Izango luke interes publikoa, baina, nire ustean, informazioa ez litzaike osorik iritsiko herritarrei.

E1005. RNE.

## **7. KAZETARITZAREN ALORREAN, BADA NOLABAITEKO PERTZEPZIO BAT PENSATZEKO HILDAKO EMAKUMEA EZ DELA HAIN BIKTIMA, IDENTIFIKATZEN EZ DUTENEAN EDOTA INGURUNEA IDENTIFIKATZEKO ADINA DATU EMATEN EZ DITUZTENEAN?**

### **7.1. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LEHEN ELKARRIZKETA**

- Gertatu liteke pertsona batzuekin, baina ez zait iruditzen ezer orokorra denik.

E1002. Europa Press.

### **7.2. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO BIGARREN ELKARRIZKETA**

- Ez dakit. Baina, kontuan hartuta hildako emakumeei buruz ari garela, euren inguruko elementuen berri izatea ezinbestekoa da. Ezin dut imajinatu albistegi bat emakume baten heriotzaren berri ematen, non gertatu den kontatu gabe.

E1003. Europa Press.

### **7.3. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO HIRUGARREN ELKARRIZKETA**

- EZ. Identifikatuta ala ez, errealitateak berbera izaten jarraitzen du: emakume bat genero-indarkeriaren biktima izan dela.

E1004. Radio Euskadi.

### **7.4. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LAUGARREN ELKARRIZKETA**

- Aurreko galderekin ulertu daitekeenez, baietz pentsatzen dut. Iruditzen zait enpatia- eta sinesgarritasun-kontua dela. Ez da gauza bera hilketa bat nire herrian gertatzea edo 1.000 kilometrora. Zer gertatuko litzateke tokia, adina edota biktimaren izena jakingo ez bagenitu? Iruditzen zait irakurleak bizkor pasatuko lukeela orria.

E1005. RNE.

## **8. ZERGATIK JOTZEN DA EGOKITZAT BIKTIMAK IDENTIFIKATZEN DITUZTEN DATUAK ETA, ONDORIOZ, SENIDEAK IDENTIFIKATZEKO AUKERA EMATEN DUTENAK ARGITARATZEA?**

### **8.1. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LEHEN ELKARRIZKETA**

- Egiazko kontakizuna jakiteko, eta, pentsatzen dut, irakurlearekin enpatia sortzeko.

E1002. Europa Press.

## 8.2. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO BIGARREN ELKARRIZKETA

- Datu horiek garrantzitsu izatearen arrazoia zera da, gertakariak testuinguru sozial batean ipintzen dituela. Datu horiek emango ez balira, informazioa oso mugatuta agertuko litzateke: «Beste emakume bat hil dute Espainiako puntu batean, indarkeria matxistak eraginda».

Emakume hori zenbaki huts bilakatuko litzateke, zifra bat besterik ez. Ez luke aurpegirik eta nortasunik izango. Ez legoke zer kontatu; ez genuke jakingo ama zen ala ez, edota zein ziren haren bizitzaren inguruabarrak. Kasu anonimoa izango litzateke eta publikoak ezingo luke harengan pentsatu bizi-proiektu bat zuen gizaki gisa, baizik eta biktima anonimo eta zenbaki baten gisa bakarrik.

Adibidez:

Ez da gauza bera indarkeria-matxistaren biktima gisa hil den emakume baten berri ematea edota, pauso bat gehiago eman eta «datu pertsonal bat emanez» haurdun zegoela gaineratzea. Eransten baldin badugu aurretik ere salaketa ipinita zeukala erasotzailearen kontra eta harrera-pisu batean bizi zela, biktimaren intimitateari buruzko datuak gaineratzen joango gara eta publikoak «humanizatu» egin ahal izango du; haren dramari buruz kontzientzia hartuko du eta aukera handiagoak sortuko ditugu ekintza mota horren aurka altxatzeko eta uko egiteko. Hala, tankera horretako jarreraren pertsekuzio soziala bultzatuko dugu.

E1003. Europa Press.

## 8.3. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO HIRUGARREN ELKARRIZKETA

- Iruditzen zait batzuetan inertziaz funtzionatzen dugula: zenbat eta datu gehiago eman informatzen ari garen gertakariaren inguruan, orduan eta hobe. Beste batzuetan, ikus-entzuleen inpaktu emozionala lortu nahi izaten da, horrek arriskua eragiten badu ere. Kontua zera da, inpaktu emozional horrek arazoari buruz gizartea kontzientziatzen eta sentsibilizatzen laguntzen duen, ala auzia lausotu egiten duen.

E1004. Radio Euskadi.

## 8.4. KOMUNIKABIDEEI EGINDAKO LAUGARREN ELKARRIZKETA

- Galderak zalantzak sorrarazten dizkit. Senideentzat bidegabekoa da, jakina, informazioaren lehen lerroan agertzea horren gertakari tristeagatik. Aitortzen dut sufrimendua handitu egiten duela. Baina egia da, era berean, kasua argitaratzeak eta haren bazterketa sozialak emakume asko eta asko bultzatzen dituzte antzeko egoeretan salaketa ipintzera. Baliteke halakoetan beste krimen bat galaraztea.

Ez dugu ahaztu behar komunikabideek izan duten garrantzia Espainian indarkeria matxistaren kontrako borrokan eta kontzientziazio publikoan. Komunikabideen rol aktiboa, informazioen ikuspegi egokia (kasu ezohikoetan salbu) arazo sozial gisa definituta, topikoak suntsitzea eta gertakariak modu objektiboan zabaltzea, bazterketa-mobilizazioak eta hiltzaileen zein erasotzaileek kondena-epaiak zabaltzea... Guztia ere lagungarria izan da «gizarte-kultura» baliotsu bat sortzeko garaian, ia errotuta dagoena, ez indarkeriari uko egiteko bakarrik, baizik eta arazo publiko baten aurrean prebentziorako ere bai.

E1005. RNE.

Lehendabiziko galderak mugatu nahi du zer eskubide nagusitzen den: informaziorako eskubidea ala intimitaterako eskubidea. Guztiek irizten diote informaziorako eskubidea gailentzen dela, baldin eta informazioa «egiazkoa» bada eta interes publikoari erantzuten ez dioten xehetasunak eta datuak alboratzen baditu (morboa saihestu). Alde horretatik, ulertzen da indarkeria matxistak interes orokor garbia duela, zalantzarik gabe; izan ere, «delitu hori ofizioz jazar daiteke, eta Europako 14 eta 45 urteko emakumeen artean heriotza gehien eragiten duen kausa da».

Bigarren, laugarren eta zortzigarren galderek kalibratu nahi dute informazio-interesa mantentzen ote den, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakume bat identifikatzeko datu pertsonalak ematean. Guztiek baiezkota diote, euren esanetan albisteari testuingurua ematen baitio; hala, egokitzen jotzen dute biktimak erasotzailea aurrez salatu ote zuen jakitea, babes-neurririk ba ote zuen, adina eta biktima gehiago ba ote ziren (seme-alabak)... Hala, baieztatzen dute datu pertsonal horien berri izateak biktima «humanizatzeko» aukera ematen duela, euren «dramaren» inguruko kontzientzia pizteko eta «aukera handiagoak sortzeko ekintza mota horren aurka altxatzeko eta uko egiteko». Hala, «tankera horretako jarreraren pertsekuzio soziala» bultzatzen dela diote.

Hirugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren galderek biktimaren identifikazioaren eta hildako emakumearen ikusgarritasun sozialaren arteko loturari buruz galdetzen dute. Lotura hori aho batez aitortzen dute, gaineratuz «publikoaren enpatiarik» mesede egiten diola. Inkestatutako batek, modu espezifikoan, zera argudiatzen du: «Kontuan hartu behar da garrantzitsuena indarkeria matxista dela, eta, informazioari dagokionez hitz eginda bakarrik, ez da gauza bera hildako emakumeak 17 urte izatea edo 82; edota ez da gauza bera biktima etxeoandrea izatea, enpresaburu bat edota katedradun bat, edota Roquetas de Marren hiltzea edo Getxon».

Era berean, galdetzen du bideragarria ote den, interes informatiboaren ikuspegitik, biktima asmatutako datuekin identifikatzea. Alde horretatik, irizten diote «biktima anonimo» izatera igaroko litzatekeela: «Jaioterrian, auzoan, autonomia-erkidegoan... ez litzateke egingo hilketaren kontrako ekitaldirik. Erakundeak ez lirateke bertaratuko heriotzak irekitako eginbideetan. Publikoak, oro har, ez luke jakingo gertakari horiek herrian bertan gertatzen direla, eta pentsa lezake beste toki batzuetan gertatzen diren kontuak direla». Gainera, «irakurleak enpatizatu egiten du, kontakizuna sinesten, eta, auskalo, agian bere burua islatu eta salaketa bat ipiniko du».

Kazetaritzako komunitateari egindako elkarrizketek eskaintzen duten informaziotik, honako ondorio hauek ateratu ditzaizkegu:

1. Ulertzen dute, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen arteko gatazkan, informaziorako eskubidea gailentzen dela, baldin eta informazioa egiazkoa bada eta interes publikoari erantzuten ez dion xehetasun eta datu oro mugatzen baditu, eduki morbosoak saihesteko.
2. Iruditzen zaie biktima identifikatzeko datuek albisteari testuingurua ematen diotela, eta, horrekin, publikoaren enpatia handiagoa lortzen dutela genero-indarkeriako biktimekiko, baita gizarte-sentsibilizazio handiagoa ere, indarkeria hori jazartzeko beharrari buruz.
3. Iruditzen zaie biktimen identifikazioa asmatzeak «deshumanizatu» egingo litzatekeela, eta gizarteak bizkar emateko mezua ahultzeko arriskua eragin dezakeela, enpatia-ezaren eraginez.

7

**ONDORIOAK**





1. Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikuluan jasotako eskubidea, bizitza pribatua eta familia-bizitza babestekoa, oso modu zabalean interpretatzen du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak. Hala, gizabanako baten nortasunaren alderdi ugari biltzen ditu; horien artean, nabarmentzekoak dira, zalantzarik gabe, pertsona baten identifikazioa eta izena. Bizitza pribatuaren nozioaren bidez, gizabanako baten asmo legitimo bat babesten da; hain zuzen ere, haren informazio pertsonalak onarpenik gabe publiko ez egiteko asmo legitimoa.
2. Behin baino gehiagotan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak argi utzi du Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua babestea ez dela agintari publikoen injerentzietara bakarrik mugatzen, baizik eta partikularren arteko harremanetan ere aplikatu daitekeela. Ondorioz, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikularekin loturik, erabat aplikagarria da ikerlan honetan: komunikabideek genero-indarkeriako ekintza baten ondorioz hildako emakume baten nortasuna zabaltzea.
3. Europako Kontseiluaren esparruan, *Ministro Kontseiluaren Rec(2003)13 gomendioa, estatu kideei zuzendua, komunikabideek zigor-arloko prozesuen informazioa zabaltzeari buruzkoa* hartu behar da kontuan. Zehazkiago, zortzigarren printzipioa, zeinaren arabera, zigor-arloko prozesuetan inplikaturako aldeei buruzko informazioa zabaltzeko garaian bizitza pribaturako eskubidea errespetatu behar baita, oso bereziki prozesuaren zati diren biktimen eta pertsona kalteberen eta adingabeen kasuan. Horrek zera esan nahi du, emakume bat hiltzen denean bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren eskuetan genero-indarkeriako testuinguru batean, komunikabideek oso tentu handiz jokatu behar dutela biktima zuzenari eragiten dioten informazioak zabaltzeko garaian, baita zigor-arloko prozesuaren zati diren adingabeei buruzko datuen kasuan ere, hala dagokionean.
4. Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia baketsua da adieraztean Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluan aitortutako eskubideak –ohorerako eskubidea, intimitaterako eskubidea eta norberaren irudirako eskubidea– hiru eskubide autonomo direla. Horrek justifikatzen du identifikatu beharra dagoela hiru horietatik zer eskubide urratzen den genero-indarkeriako ekintza baten hildako biktimaren nortasuna publiko egitean. Ikusita zer-nola definitzen dituen Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren 18.1 artikuluan bildutako hiru eskubideak, ondorioztatu daiteke biktimaren nortasuna dibulгатzeak (edota indibidualizatzea posible egiten duten informazioak emateak) norberaren edota familiaren intimitaterako eskubidea urratzen duela. Azken eskubide horrek, pertsona hirugarrenen nahi gabeko intromisioetatik babesteaz gain (izan horiek agintari publikoak edo banakoak) bizitza pribatura (ikuspegi negatiboa) erreserbatutako esparru batean, gizartearekin partekatu nahi duten informazio pertsonala erabakitzeko ahala ere babesten du (ikuspegi positiboa). Bi aldeak lesionatu egiten dira baimena emateko ahala duen biktima baten baimen baliodunik gabe genero-indarkeriako delitu baten biktima gisa hura edo/eta bere ingurua indibidualizatzeke informazioa ematen denean.
5. Kasu jakin batzuetan, baliteke izatea, era berean, ohorerako eskubidearen urraketa bat ere, informazioa delituen biktimen izen ona kaltetzen duten adierazpide iraingarriak edo laidogarriak baliatzen direnean, eta, horrez gain, irudirako eskubideak

injerentzia bat izatea delituen biktimen irudiak –legez edo judizialki debekatuta zeudenak– zabaltzean.

- 6.** 2012/29/EB Zuzentarauaren 2. artikulua delitu baten biktimatza definitzen ditu zigor-arloko arau-hauste batek zuzenean eragindako kaltea edo galera jasaten duten pertsona fisikoak, delitu batek zuzenean eragindako hildakoaren senitartekoak ere barnean hartuta. Biktima horiek, babes-bermearen barruan, intimitaterako eskubidea dute, dela prozesuaren barruko ikuspegitik (prozesuaren barruan gertatzen diren jarduerak ardatz dituena), dela prozesuz kanpokitik (prozesutik kanpo gertatzen diren jardueretara mugatzen dena).
- 7.** Prozesuaren barruko ikuspegiari bildutako neurrien helburua zera da, biktimak zigor-arloko justizia-sistemaren eskutik berriro ere ez biktimizatzea (bigarren mailako biktimizazioa saihestea, alegia). Arrazoi hori dela eta, biktimen aitortpenak baldintza egokietan egiten direla bermatuko da, dela espazioari dagokionez, dela solaskideari dagokionez, eta aitortpen horietan ez da izango euren pribatutasunean justifikatu gabeko injerentzia eragiten duen elementurik.
- 8.** Prozesuz kanpoko ikuspegiari bildutako neurriekin, berriz, zera bilatzen da, iritzi publikoak biktimen intimitatea osatzen duten datuak jakitearen ondorioz sortutako estigmatizazioak saihestea. Plano horretan, 2012/29/EB Zuzentarauak bi bide juridikotan orientatzen ditu estatu kideak. Alde batetik, biktima adingabeak identifikatzen lagun dezaketen informazio oro zabaltzea saihesteko beharrezko lege-neurria guztiak hartzera behartuko du. Eta, bestetik, gizarte-komunikabideei eskatuko die har ditzatela autorregulazio-neurriak biktimen intimitatea, osotasun pertsonala eta datu pertsonalak babesteko.
- 9.** Edonola ere, 2012/29/EB Zuzentarauak genero-arrazoiek eragindako indarkeriari aipamen berezia egiteaz gain, ez du 2. artikuluan oro har jasotako genero-indarkeriaren biktimaren kontzeptutik bestelakorik txertatzen. Horrek zera esan nahi du, intentzioz eragindako heriotzen kasuan, genero-indarkeriako biktimatza hartuko direla hildako emakumeak eta hildako emakumeen senideak, heriotzaren ondorioz kalte edo galera bat izan dutenak. Europako araudiak ez du ezartzen lehen-tasun-ordena baztertzailerik; hortaz, printzipioz behintzat biktimatza har litezke seme-alabak zein bigarren mailako senideak.
- 10.** Intimitaterako eskubidearen alorrean, 2012/29/EB Zuzentarauak genero-indarkeriako biktimen eskubidearen prozesu barruko eta kanpoko babesa ezartzen du, eta gainerako biktimen parametro berberekin garatzen da. Eta hori, nahiz eta Zuzentarauak aurreuposatu genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeek eta euren seme-alabek gehienetan babes eta laguntza berezia behar izaten dutela, bigarren mailako biktimizazio-arrisku handia dela eta.
- 11.** Delituaren Biktimaren Estatutuak (apirilaren 27ko 4/2015) delituaren biktima zuzena eta zeharkakoa kontzeptuak eskaintzen ditu. Biktima zuzena delitu bat egin izanak eraginda zuzenean kalte edo galera bat jasotzen duen pertsona fisikoa da. Zeharkako biktima, berriz, biktima zuzena hiltzen edo desagertzen denean bakarrik

izango da, eta delituak zuzenean eragindako kalte edo galera bat denean. Biktima horiek guztiek euren intimitatea gordetzeko eskubidea dute, hain justu, delitua ikertzeko, jazartzeko eta epaitzeko ardura duten eragile publikoen aldetik.

- 12.** Biktimen intimitaterako eskubidearen babesa, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak emana, prozesu barruko ordenan zabaltzen da (prozesuaren barruan), hainbat neurriren arabera; hain zuzen ere, neurri horiek bermatuko dute aitortpenak ez duela bilduko garrantzirik gabeko alderdi pribaturik epaitzeko garaian eta epaiketa-  
ren publikitatea baztertuko edo mugatuko dela. Gainera, Botere Judizialaren Lege Organikoak eta Prozedura Kriminalaren Legeak legitimo egiten dute prozesuan hartutako ebazpenen publikitatea mugatzea, baita epaien eta gainerako erabakien testua biktimen intimitaterako eskubidearekin modu bateragarrian eskuratzea ere.
- 13.** Intimitatearen babesak *ex lege* behartzen du biktimen intimitaterako eskubidea babestera prozesuz kanpoko auzietan, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak 22. artikuluan jasotzen duen legez, adingabeen eta babes berezia behar duten desgaituen kasuan; haien identifikazioa zuzenean zein zeharka erraztu dezaketen datuak zabaltzea galaraziko da, baita babesteko beharraren gainean ebazteko kontuan hartutako inguruabar pertsonalak zabaltzea ere, eta debekatuta egongo da, halaber, haren zein senideen irudiak eskuratzea eta argitaratzea. Adindunen kasuan, intimitatea babesteak *ex indice* ahala ematen du, 19. artikuluan jasotakoaren arabera, aipatu ditugun neurri berberak hartu ahal izateko; hain zuzen ere, adingabeekin eta babesteko behar bereziak dituzten desgaituekin lotutako neurriak. Horrez gain, bi kasuetan, ikus-entzunezko komunikabideen presentzia murriztu liteke ahozko epaiketako saioetan; era berean, entzunaldi guztiak edo batzuk grabatzea debekatu ahal izango da, edota zehaztu ahalko da zer eginbide eta jarduera grabatu eta zabaldu daitezkeen.
- 14.** Genero-indarkeriaren gaiarekin loturik, Delituaren Biktimaren Estatutuak txertatutako espezifikotasun bakarra zera da, zeharkako biktima ez direnean (ama hil edo desagertu ez delako) esandako lege-testuan aurreikusitako laguntza- eta babes-neurriak zabalgarri direla genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaba adingabeetara, baieta babespean, jagoletzapean edo zaintzapean diren adingabeetara ere.
- 15.** Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko 1/2004 Lege Organikoaren 1.2 artikuluari uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak, haurtzarora eta nerabezarora babestekoak, egindako aldaketak berrikuntza esanguratsu bat txertatzen du genero-indarkeriaren biktimak nor diren zehazteko garaian. Hala, genero-indarkeriaren biktima izango dira, emakumeaz gain, haren seme-alaba adingabeak, baita haren babes edo zaintzapean bizi direnak ere. Hartara, lege berezi baten modura, delituen biktimen kontzeptuaren desplazamendu bat txertatzen da Delituaren Biktimen Estatutuaren Legearen 2. artikuluan (14/2015 Legea). Genero-indarkeriako delituetan, biktima zuzenak emakumeak izaten dira, baita haien seme-alaba adingabeak eta babes edo zaintzapean dituzten adingabeak ere. Horrez gain, emakumearen heriotza edo desagertze kasuetan, zeharkako biktimatzat hartuko dira emakumearen gainerako seme-alaba adindunak, baita Delituen Biktimaren Estatutuaren Legearen 2. artikuluan zehaztutako senideak ere.

**16.** Intimitaterako eskubideari dagokionez, 1/2004 Legeak, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa ematekoak, ez du aipamen espezifikorik egiten eskubide hura babesteari inguruan, genero-indarkeriako biktimen kasuan. Haren babesa, horrenbestez, Delituaren Biktimaren Estatutuaren (14/2015 Legea) baldintza orokorretara atxikita geratuko da. Hala dagokionean, abizenak aldatzera jo daiteke, eskatzailea genero-indarkeriako objektu denean, anonimotasuna zaintzeko erremedio gisa, eta, ondorioz, intimitaterako eskubidea babesteko, biktima zuzenean zein zeharka identifikatzeko bidea egin dezakeen edozer informazio babesteari dagokionez.

**17.** Europar Batasuneko estatuetakoko batzuen Zuzenbideari dagokionez:

- Alemanian, nahiz eta lege-manu batek ere ez duen berariaz bermatzen delituaren biktimen anonimotasunerako eskubidea, Alemaniako jurisprudentziak ulertzen du, delitu-egintzei dagokien informazioa ematean, biktimaren anonimotasunerako eskubideak informazio-askatasunaren gainetik egon beharko lukeela. **Horretarako, biktimek duten eskubidea hartzen dute oinarri, hain zuzen, gertatutakoa arreata mediatikoak erantsitako zamarik gabe barneratu ahal izateko.** Eta albisteak ematean ez da urratzen informazio-askatasunerako eskubidea; izan ere, Alemaniako ikus-entzuleei interes orokorreko gertakari baten berri ematen diete (genero-indarkeriako egintza baten ondorioz hildako emakume baten kontakizuna egitea, zalantzarik gabe, hala baita); zera egiten dute bakar-bakarrik, beharrezkoa ez den informazio bat ez eman, interes publikorik ez duena eta biktima bat egokiro berreskuratzeko oztopo larriak eragin ditzakeena: haren nortasuna.
- Frantziako araudiak eta jurisprudentziak delituaren biktima duintasuna urratzen duten argitalpenetatik bakarrik babesten dute; aldiz, pertsona bat delitu baten biktima gisa identifikatzea ez da jotzen intromisio ez-legitimotzat bizitza pribatuaren errespeturako eskubidearen barruan (nola eta ez den sexu-delitu baten biktima).
- Erresuma Batuan, Estatuko araudiari dagokionez, ez dago inolako manurik, delituzko egitate baten biktimaren nortasuna zabaltzea galarazten duenik, sexu-askatasunaren kontrako delituen biktimen kasua izan ezik. Horrez gain, ez dauka araudi espezifiko bat bizitza pribatua babesteko; horrek esan nahi du kasu oso zehatzetarako aurreikusitako ekintza judizialek jo beharra dagoela, hala nola difamazioagatik abiarazitako ekintza judizialera.

**18.** Informazio-askatasunerako eskubideak lehentasuna du gizarte demokratiko baten, interes orokorreko auziei buruzko iritzi formatua osatzen laguntzen duen aldetik. Horrenbestez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrina baketsuarekin eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziarekin bat, interes orokorreko auziei buruzko iritzi publikoa osatzeko garrantzitsuak diren egiazko informazioak bakarrik izango dira intimitatearen tankerako oinarritzko eskubideetan sartze legitimoak.

**19.** Zigor-arloko garrantzia duten gertakariak albiste izan litezke, eta berdin du albisteak eragindako pertsona edo pertsonak subjektu pribatu diren. Hori hala izanagatik ere, informazioa zabaltzea legitimo egiten duen interes orokorrak ez ditu barnean hartzen hainbat datu, hain zuzen, delituaren biktima zuzenean zein zeharka

identifikatzeko bidea egiten dutenak. Beste hitz batzuekin esanda, delituaren biktima indibidualizatzeak ez dauka garrantzirik delitu-egitate bati dagokion informazioa transmititzeari dagokionez. **Horren ondorioz, biktima zuzenean identifikatzea eta zeharka haren identifikazioa lortzeko bidea egiten duten datuak ematea** ez du babesten informazio-askatasunerako eskubideak, eta, ondorioz, biktimaren intimitatean modu ez-legitimoan sartze gisa hartuko da. Zeharkako indibidualizazioaren kasuan (zuzenean identifikatzearen kasuan begien bistakoa da) zera izango litzateke, argitaratutako datu guztiak ez direla egokiak gertakariaren berri ez duen herritar batek biktima identifikatu ahal izan dezan. Kasu horretan, ondoriozta liteke gizarte-komunikabideak eska litezkeen eginbideak baliatu dituela identifikazioa galarazteko, nahiz eta, kasu konkretu batean, identifikazio hori gertatu den (gauza bera egiazkotasun-beharraren muga argitzeko informazioaren zehaztasuna eskatzen ez denean ere, ezpada egiaztatze-jarduera zehatza zabaltzea zurrumurru edo iradokizun zein asmakuntza soilak ez argitaratzeko).

- 20.** Genero-indarkeriako testuinguruan hildako emakumeen esparrura ekarrita, begien bistakoa da heriotza horiek interes publikoa dutela, eta, ondorioz, gertakari horiei buruzko informazioa emateak informazio-askatasunerako oinarrizko eskubidean hartzen duela babes. Edonola ere, ezin dezakegu gauza bera esan biktima zuzenean identifikatzen duten datuei buruz, edota, argi eta garbi, biktima zeharka identifikatzeko modua egiten dutenei buruz. Genero-indarkeriako testuinguru baten hildako emakumea zuzenean edo zeharka indibidualizatzeko aukera ematen duten datuak alferrikakoak edo garrantzi gabekoak dira informazioaren xedea betetzeko garaian: hau da, iritzi publiko formatua eta kritikoa sortzeko gizarte demokratiko batean. Horretarako, genero-indarkeria gaitzetsiko duen eta gizon-emakumeen arteko bikote harremanetako elementu asimetrikoak borrokatuko dituen masa kritikoa sortzeak, komunitate bateko kideak euren biktimekin sentsibilizatzeak eta agintari publikoen jarduna biktimen errespetuan, arretan eta babesean kalibratzeak (helburu horiek guztiek osatzen dute interes orokorra) ez du eskatzen biktimen nortasuna ezagutzea. Horrenbestez, biktimen identifikazio zuzena edo zeharkakoa posible egiten duten elementuak argitaratzeak ez du asetzen euren intimitatearen hain injerentzia handia justifikatuko duen interes orokorrik.



# 8

## **BIBLIOGRAFIA**





- ALLER, G. (2015). *El Derecho Penal y la víctima*. Buenos Aires.
- ARENAS, C. (1998). *Derecho a la Intimidad*. Valencia: Tirant lo Blanch.
- Breves Notas Sobre la Protección Post-Mortem del Honor, Intimidad e Imagen. (1999). *La Ley. Revista Jurídica Española de Doctrina, Jurisprudencia y Bibliografía*, 1, 1577-1586.
- CARRION OLMOS. (2007). El derecho a la intimidad. En D. B. (coord), *Veinticinco años de aplicación de la LO1/1982*. Iruñea: Aranzadi.
- DE HOYOS SANCHO, M. (2014). Reflexiones sobre la Directiva 2012, por la que se establecen normas mínimas sobre los derechos, el apoyo y la protección de las víctimas de delitos, y su transposición al ordenamiento español. *Revista General de Derecho Procesal*(34).
- DELGADO PIQUERAS. (1992ko iraila-abendua). De nuevo sobre el derecho a la intimidad personal y familiar de los famosos y la libertad de información: la sentencia del TC 197/1991, de 17 de octubre". *Revista Española de Derecho Constitucional*(36), 269-275.
- ECHEBURÚA, E. (2004). *Superar un trauma*. Madrid: Pirámide.
- ECHEBURUA ODRIOZOLA, E. (2015). De ser víctima a dejar de serlo: un largo proceso. *Revista de Victimología/Journal of Victimology*(1).
- ESPINAR VICENTE. (1992). La primacía del derecho a la información sobre la intimidad y el honor. En G. S. Rodríguez-Arango (Ed.), *Estudios sobre el Derecho a la Intimidad* (págs. 46-67). Tecnos.
- FERNÁNDEZ, H. (2009). El honor, la intimidad y la imagen como derechos fundamentales.
- FOHRINGS, S. (2015). An integrated model of victimisation as an explanation of non-involvement with the criminal justice system. *Internacional Review of Victimology*, 21, 45-70.
- GARCÍA PÉREZ. (2001). *Titulares de los bienes de la personalidad. Legitimación para defenderlos: especial referencia a la Ley orgánica 1/1982*. Valentzia: Tirant lo Blanch.
- GARCÍA RODRÍGUEZ, M. (2015). Hacia un nuevo protagonismo de las víctimas en el proceso penal español. *Revista General de derecho Procesal*(35).
- LÓPEZ BOFILL. (2000). Hacia un concepto formal del derecho a la intimidad y sus consecuencias (reciente jurisprudencia del TC en materia de derecho a comunicar libremente información veraz y derecho a la intimidad personal y familiar como límite al mismo : STC 115/2000, de 5 de mayo: 187/1999, de 25 de octubre y 134/1999, de 15 de julio. *Repertorio Aranzadi del Tribunal Constitucional*, 2, 1885-1898.
- LLORENTE SÁNCHEZ-ARJONA, M. (2014). La protección de las víctimas de delitos en el marco de la Unión Europea. *Cuadernos de Política Criminal*, 307 y ss.
- Los derechos al honor y a la intimidad como límite a la libertad de expresión, en la doctrina del Tribunal Constitucional. (1993). *Cuaderno de Derecho Judicial*(12).
- MARÍN GARCÍA DE LEORNADO. (2007). Veinticinco años de aplicación de la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen. En D. V. (coord).

- MATONI, F. (1983). *El derecho a la intimidad*. Madrid: Trivium.
- OROMÍ VALL-LLOVERA, S. (2013). Víctimas de delitos en la Unión Europea. Análisis de la Directiva 2012/29/UE. *Revista General de Derecho Procesal*(30).
- PEREDA BELTRÁN, N. / . (2013). *Victimología teórica y aplicada*. Barcelona: Huygens.
- QUERALT JIMÉNEZ. (1990). La inviolabilidad domiciliar y los controles administrativos: especial referencia a la de las empresas. *Revista española de derecho constitucional* / (30), 41-64.
- REBOLLO VARGAS. (2005). Aproximación a la jurisprudencia constitucional: libertad de expresión e información y límites penales. En *El derecho fundamental a la intimidad*. Madrid: Dykinson.
- RIPOLLÉS, Q. (2003). El Tribunal de Estrasburgo (una jurisdicción internacional para la protección de los derechos fundamentales. Valenzia: Tirant lo Blanch.
- SANZ-DÍEZ DE ULZURRUN LLUCH, M. (2007). La posición de la víctima en el derecho comparado y en la normativa de la Unión Europea. *EDJ*(121).
- SUBIJANA ZUNZUNEGUI, I. (2006). *El principio de protección de las víctimas en el orden jurídico penal. Del olvido al reconocimiento*. Albolote, Granada, España: COMARES S.L.
- TAMARIT SUMALL, J. (. (2015). *El Estatuto de las víctimas de delitos. Comentarios a la Ley 4/2015*. Valenzia: Tirant lo Blanch.
- TAMARIT SUMALLA, J. (2012). *La justicia restaurativa: desarrollo y aplicaciones*. Granada: Huygens.
- TAMARIT SUMALLA, J. (2013). El necesario impulso de la justicia restaurativa tras la Directiva europea de 2012. *Ars iuris salmanticensis*, 1.
- TAMARIT, J. / . (2015). Can restorative justice satisfy victim's needs? Evaluation of the Catalan victim-offender mediation programme. *International Journal of Restorative Justice*.
- VAN DIJK et al. (2005). *The Burden of crime in the EU*. Gallup.
- VILLACAMPA ESTIARTE, C. (2010). La asistencia a las víctimas del delito: el debate sobre los modelos de intervención. En J. Tamarit Sumalla, "Víctimas olvidadas." Valenzia: Tirant lo Blanch.
- VILLALÓN CRUZ. (1988). Derechos fundamentales y Derecho Privado. *Conferencia en la Academia Sevillana del Notariado*.
- VILLALÓN, C. (1993). Los derechos al honor y a la intimidad como límite a la libertad de expresión, en la doctrina del Tribunal Constitucional. *Cuaderno de Derecho Judicial* (12).

**E**

**ERANSKINAK**



**JUAN LUIS IBARRA ROBLES JAUNTXIT GORENA.**

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO PRESIDENTEA

## **1. Bikotekidearen edo senarraren aldetik genero-indarkeria jasaten duen emakume biktima baten intimitaterako eskubidearen zati al da indarkeria-jarrera horren biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko informazio-datuak ematea?**

- Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz interpretatu duen bezala, «*Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua aitortzen duen intimitaterako oinarrizko eskubidearen xedea gizakiari bere bizitzaren esparru erreserbatu bat bermatzea da, pertsona gisa duen duintasuna errespetatzearekin lotuta (Espainiako Konstituzioaren 10.1 artikulua), besteren ekintza eta ezagutzatik at, dela Agintari Publikoen aurrean, dela partikular sinpleen aurrean, beharrezkoa gure kulturaren irizpideen arabera, giza bizitzaren gutxieneko kalitate bati eusteko. Hala, intimitate pertsonalerako oinarrizko eskubideak haren titularrari gutxienez ahal negatiboa edo baztertzekoa ematen dio, eta hirugarrenei ezartzen die intromisiorik ez egiteko obligazioa, nola eta ez dauden oinarrituta Konstituzio-justifikazioa duen lege-aurreikuspen batean eta ez den proportzionatua, edota ez dagoen eragindakoaren baimen eraginkorrik hura baimenduz, pertsona bakoitzari baitagokio besteren ezagutzatik gordetzen duen intimitate-esparrua mugatzea*». (Konstituzio Auzitegiaren 197/1991 epaia, urriaren 17koa, 3. oinarri juridikoa; 134/1999 epaia, uztailaren 15ekoa, 5. oinarri juridikoa; 115/2000 epaia, maiatzaren 10ekoa, 4. oinarri juridikoa; 185/2002 epaia, urriaren 14koa, 3. oinarri juridikoa; 206/2007 epaia, irailaren 24koa, 5. oinarri juridikoa; 17/2013 epaia, urtarrilaren 31koa, 14. oinarri juridikoa; 176/2013 epaia, urriaren 21ekoa, 7. oinarri juridikoa; Konstituzio Auzitegiaren 7/2014 epaia, urtarrilaren 27koa, 3. oinarri juridikoa. Baita Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak ere, *X eta Y kasua*, 1985eko martxoaren 26koa; *Leander kasua*, 1987ko martxoaren 26koa; *Gaskin kasua*, 1989ko uztailaren 7koa; *Costello-Roberts*, 1993 martxoaren 25ekoa; *Z kasua*, 1997ko otsailaren 25ekoa).

Deskribatzen den kasuan, gure kulturako irizpideen arabera eta giza bizitza duinaren gutxieneko kalitatea zaintzeko, intimitaterako eskubideak bere bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik indarkeria-jarrera bizi duen emakumearen esku ipintzen du indarkeria-jarrera osatzen duten egintzak besteren ezagutzatik babestutako esparruan ipintzeko ahala.

Besteren ezagutzatik baztertzeko ahal horrek ez ditu biltzen eskudun agintaritzak baimendutako edo adostutako jarduerak, legearekin bat, ikerketarako, akusaziorako eta epaitzeko ahala baliatuz, egokiak, beharrezkoak eta proportzionatuak diren jarduerak, ustezko delitu-gertakaria egiaztatzeko xedez (1/1982 Lege Organikoaren 8.1 artikulua; Konstituzio Auzitegiaren 37/1989 epaia, otsailaren 15ekoa, 7. oinarri juridikoa; Konstituzio Auzitegiaren 207/1996 epaia, abenduaren 16koa, 3. oinarri juridikoa).

Era berean, hala ondorioztatzen da Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8.2 artikulutik ere, bizitza pertsonalean egindako intromisioak baimentzen dituenen baldin eta honako hauetakoren bat bermatzen bada: «*Estatu-segurtasuna, segurtasun publikoa, herrialdearen ekonomiaren ongizatea, ordenaren defentsa eta arau-hauste*

*penalen prebentzioa, osasunaren zein moralaren babesa, edo besteen eskubideen zein askatasunen babesa».*

Iruditzen zait planteatzen den auziak ez dituela bidezko intromisioak aipatzen, norberaren eta familiaren intimitatean gertatzen direnak, horretarako eskumena duten agintariak egindakoak delitua ikertzeko edo prebenitzeko xedearekin edo zehatzeko ahalaren arabera egitean. Galderaren bidez, auzia kokatzen du indarkeriazko jarrera sortzen duten egintzak gizarte-komunikabideek ematearen testuinguruan, pentsatzen dugu egiazko informaziorako eskubide bidezkoa egikaritzearen ondorioz; eta testuinguru horretan planteatzen dena zera da, lehen deskribatutako biktimak, intimitate pertsonalerako eta familia-intimitaterako eskubideari lotuz, izango ote duen biktimaren identitatea informaziotik erretiratzeko ahala, edota zeharka biktima identifikatzea posible egiten duten gertakariak informaziotik erretiratzekoa.

Hausnarketarako abiapuntua egiazko informaziorako eskubideari buruzko konstituzio-erakunde bertan dago, zeina berariaz mugatzen baitu intimitaterako eskubideak (Espainiako Konstituzioaren 20.4 artikulua); hala, nabarmendu behar da, intimitateari buruz jardutean, informazioaren egiantzekotasuna ez dela «*aringarria, ezpada kasu guztietan lesioaren premisa*» (Konstituzio Auzitegiaren 185/2002 epaia, urriaren 14koa, 4. oinarri juridikoa eta bertan aipatzen diren ebazpenak).

Konstituzioak aitortutako bi eskubideen talka gertatzean, konstituzio-jurisprudentziak nagusitasun-posizioa aitortzen dio (baina ez nagusitasun hierarkikoa) informazioaren komunikazio askeari, betiere «*informatutakoa interes publikokoa baldin bada*»; izan ere, irailaren 14ko Konstituzio Auzitegiaren 154/1999 auziaren 2. oinarri juridikoa aurreikusi zuenez, «*auzitegi honen jurisprudentzia-ondarearen zati da honako irizpide hau: Konstituzioak babesten duen komunikazioak egiazko informazioa transmititu behar duela, interes orokorra edo garrantzi publikoa duten auziei buruz*»; hala, garrantzi publiko hori hartzen da kontuan, eta ez besteren jakin-mina asetzea, «*kasu horietan informaziorako eta erreserbarako asmoen artean sortzen den gatazka konpontzeko*».

Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epai horrek galderan planteatutako kasu oso antzeko bat aurreikusten du: epaiak dio demanda ipini duen biktimaren intimitate pertsonalerako eskubidea urratu dela, 1992ko martxoaren 4an eta 6an, *La Voz de Asturias* egunkarian bi informazio irten zirenean. Hain zuzen ere, informazio horren arabera, ateak itxita egindako ahazko entzunaldian, demanda-jartzailearen aitak hainbat abusu desleial eta bortxaketa egin zizkion alabari lau urtez jarraian. Informazio horietan gertakari justiziagarriak kontatzen ziren, Fiskaltzaren behin-behineko kalifikazioko idazkiaren transkripzio bidez.

Konstituzio Auzitegiak frogatutzat ematen du «*datu horiek eman izanari esker, bizilagunek, gertukoek eta ezagunek biktima erabat identifikatu, eta, horren bidez, duintasun pertsonalari larriki eraso egiten zion gertakari baten berri izan zutela, xehetasun guztiekin, hau da, sexu-askatasunaren kontrako delitu baten biktima izan zela...*».

Zigor-arloko garrantzia duten gertakariak albisteetan jasotzeko moduko gertakariak direla premisa gisa hartuta, albisteak eragindako pertsona subjektu pribatu izanagatik ere, Konstituzio Auzitegiaren 127/2003 epaian zera ondorioztatzen da: «*Kontsiderazio horrek ezin du jaso haien biktima direnen indibidualizazioa, zuzena zein zeharkakoa, nola eta ez duten baimendu edo erraztu ezagutza orokorra. Informazio hori ez da izango interes publikokoa, eman nahi den informaziorako ez baita beharrezkoa izango. Finean, aztertutako kazetaritza-erreportajeek ematen dituzten eraso egindako emakume gaztearen datuak, emakumea erabat identifikatzea posible egiten duten aldetik, gainditu egiten dute garrantzi informatiboa jasandako sexu-erasoarekin eta*

*haiek epaitzearekin loturik; hori dela eta, ez dute merezi Espainiako Konstituzioaren 20.1 artikulua ematen duen konstituzio-babesa» (9. oinarri juridikoa). Aurrekari gisa Konstituzio Auzitegiaren 185/2002 epaia aipatzen da, urriaren 14koa; epai horren 4. oinarri juridikoa interpretatzen duenez, «inola ere ezin dakioke inori eskatu modu pasiboan jasateko haren bizitza pribatuari buruzko datu horren garrantzitsuak, jakinik horien berri izatea alferrikakoa eta garrantzi gabekoa baita interes publikorako, izan ere, garbi geratzen da erasoaren biktimaren identifikazioa, hitzen esanahiarekin bat, garrantzirik gabekoa izan zen transmititu nahi izan zen informazioarekin loturik».*

Ondorioa, horrenbestez, zera da, galderan deskribatutako pertsonak ahala daukala gizarte-komunikabideek ikerketaren edo zigor-arloko epaitzearen xede diren egintzei buruz emandako informazioaren ganean, identitatea zabaltzeari (edo indarkeriazko erasoaren biktima gisa identifikatzea posible egiten duten datuak emateari) loturik, baldin eta datu horien berri izatea alferrikakoa eta garrantzirik gabekoa bada interes publikorako.

Konstituzio-doktrina honek parametro gisa balio izan behar du Delituaren Biktimen Estatutuaren Legearen (apirilaren 27ko 4/2015) 19. eta 22. artikuluek epaileei, auzitegiei eta delituak ikertzeko, jazartzeko eta epaitzeko ardurak duten gainerako agintari eta funtzionarioei ezartzen dizkieten egitekoen betebeharrak interpretatzeari dagokionez, baita prozesuan «*nolanahi*» esku edo parte hartzen duten guztiei ere, Prozedura Kriminalaren Legeak biktimen intimitatea eta duintasuna egokiro babesteko ezartzen duenari jarraikiz, «*bereziki aitortpena jasotzen zaienean edo epaiketan lekukotza eman behar dutenean, bigarren mailako biktimizazioa edo errepikatua izateko arriskua saihesteko*».

**2. Bikotekideari edo bikotekide ohiari egotzitako hilketaren ondorioz, azkendu egiten da hildako emakumearen eta haren familiaren intimitaterako eskubidea, gizarte-komunikabideetan biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko moduko datuak argitaratzeari dagokionez? 3. Eta bizirik den bitartean modu eztabaidaezinean ondorioztatu badu inola ere ez duela nahi zuzenean zein zeharka identifikatzeko datuak zabaltzea edo argitaratzea? 4. Badute intimitaterako eskubiderik bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakumearen seme-alabek, zeharka identifikatzea posible egingo luketen amari buruzko datuei dagokionez? 5. Informaziorako eskubidearen zati da, informazio-interesa izateagatik, gizarte-komunikabideetan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakume baten datuak, hura edota haren seme-alabak identifikatzeko bide egiten dutenak, argitaratzea? 6. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako biktimak identifikatzeari buruzko datuek intimitaterako eskubidea osatzen badute eta informaziorako eskubidean sartzea bidezko egiten duen informazio-interesa badute, bi horietatik zer interes gailenduko da? Zer irizpideren arabera?**

- Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, Konstituzioak bermatutako eskubide izatez gain, jardunbide guztiz pertsonaleko «*pertsonalitate-eskubideen*» kategoria tradizionalen sartzeko da (Kode Zibilaren 162.1 artikulua). Heriotzak pertsonalitatea amaitu egiten du (Kode Zibilaren 32. artikulua), eta, harekin batera, hildako emakumeari zegokion intimitaterako eskubidea azkendu egiten da.

Ondorioz, intimitatearen esparruaren gaineko informazio-injerentzia baztertzeko ahala, hildako emakumeak bizi artean definitua, ezin dezakete seme-alabek egikaritu haren izenean. Edonola ere, horrek ez du galarazten seme-alabetako bakoitzak, eskubide propioz, norberaren eta familiako intimitaterako eskubidea izatea eta hura egikaritzea, amaren hilketari buruzko gertakariak edo irudiak komunikabideetan zabaltzea ez daitezen, ezagutza publikoak euren pertsonalitateari gordetako esparruan eragiten duen aldetik.

Hala jasotzen du Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 2ko 231/1998 epaiak, Francisco Rivera Pérez (Paquirri) zenaren emazteak ipinitakoak; hala, alargunaren eta seme-alaben intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea babesteko eskatzen du, bideo-dokumentu bat prestatzeari eta zabaltzeari dagokionez. Dokumentu hori alargunaren baimenik gabe prestatua zen, eta Kordobako Pozoblanco zezen-plazan izandako harrapaketa irudiak biltzen dira, baita plaza horretako erizaindegian egindako tratamenduarenak ere.

Epaiaren 3. oinarri juridikoan interpretatzen denez, Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan aitortutako norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea norberaren pertsonalitatearekin zorrotz lotutako oinarritzko eskubide gisa ageri da, eskubide guztiz pertsonala eta haren titularraren existentziari lotua den aldetik. Hori guztia konstituzio-eskubidearen babes-eremutik kanpo, ondare eta kalte-ordain izaerako babes zibileko neurriak egikaritu ahal izateari kalterik egin gabe, maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak jasota bezala.

Aipatutako epaian, hildakoaren eta haren familiaren intimitaterako eskubidea eta hildakoaren senideen familia-intimitaterako eskubidea bereizten dira (zeinaren titularitasuna norberaren eskubidez baitute, eta ez besterenez). Epaian aitortzen denez, «*zalantzarik gabe gurasoei, ezkontideei edota seme-alabei gertatu ahal zaizkien hainbat gertaerak, gure gizartearen irizpide kulturalen baitan, gizabanakoarentzat halako garrantzia dute, non behar ez bezala zabaltzeak edo publizitatea egiteak pertsonalitatearen esferan eragiten baitu zeharka. Horrenbestez, bada auzi horren inguruan intimitaterako eskubide bat (propioa, ez besterena), Konstituzioz babes daitekeena*». Eta amaitzen du esanez zezen-plazako erizaindegian hartutako irudiek Pantoja andrearen (Rivera jaunaren alargunaren) eta familiaren intimitaterako eskubidea urratzen dutela (10. oinarri juridikoa).

Galdetegian aurreikusitako kasuan, kontuan izan behar da hildako emakumearen seme-alabak, Delituaren Biktimaren Estatutuaren (apirilaren 27ko 4/2015) 2.b) artikulua xedatutakoaren arabera, delituaren zeharkako biktimatzat hartzen direla.

Biktima izaera horrek norberaren intimitatea egokiro babesteko eskubidea esleitzen die eta, bigarren mailako biktimizazioa edo errepikatua izateko arriskua saihestekoa ere bai, heriotza zuzenean eragin duen delitu-egitatea ikertzeko, jazartzeko eta epaitzeko ardura duten agintariek eta funtzionarioek egindako jarduketetan (4/2015 Legearen 19. eta 22. artikulua).

Delituaren zeharkako biktimen intimitatea babesteko obligazioak (4/2015 Legearen 22. artikulua) epaileei, auzitegiei, fiskalei eta zigor-arloko ikerketaz arduratzen diren agintari eta funtzionarioei eragiten die, baita prozesuan «*nolana*» esku edo parte hartzen dutenei ere. Babesak berariaz biltzen du beharrezko neurriak hartzea, «*biktima adingabeak edo desgaituak, babes berezia behar dutenak, identifikatzea errazten duen edozer informazio zabaltzea galarazteko*».

Aurreko kasuei erantzunez, honako alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- a) Intimitaterako konstituzio-eskubidearen titulartasuna agortu egiten dela eraildako emakumearen heriotzarekin batera.
- b) Hildako emakumearen intimitaterako eskubidean sartu izanagatik kalte-ordainak eskatzeko akzio zibila *mortis causa* ere transmiti daiteke, eta, hori dela medio, seme-alaba oinordekoek egikaritu dezakete.



- c) Seme-alabak familia-intimitaterako eskubidearen titular dira, zeinaren bidez ahala izango baitute ama zenaren hilketari buruzko irudiak edota gertakariak ezagutza publikotik ezkutatzeko, baldin eta horiek zabaltzeak euren pertsonalitateko esferan zuzenean eragiten badu. Seme-alaben nortasuna edo identifikazio grafikoa ezagutza publikotik erreserbatzeko esparru honetan bildu daiteke.
- d) Egiatzko informaziorako eskubidea baliatuz gertakariak zabaldua, hildako amaren seme-alaben identitatea zuzenean edo zeharka ezagutzea posible egiten duenean, baliteke seme-alaben familia-intimitaterako esparru erreserbatuan sartzea. Ezin izango da eskatu seme-alabek sartze hori jasan behar izatea, baldin eta nortasuna zuzenean zein zeharka jakinaraztea alferrikakoa bada edo delitu-egitateari buruzko informazioa emateko garrantzi publikorik ez badu; izan ere, inguruabar horrek informazioaren interes publikotik kanpo utziko luke nortasuna zabaltzea.
- e) Seme-alaba adingabeen edo hilketa-delituaren zeharkako biktima desgaituen kasuan, informazio-eskubiderako jardunean mugatze-horma bat irekiko luke, hain zuzen ere, epaileei, auzitegiei, fiskalei eta zigor-arloko ikerketaz arduratzen diren gainerako agintari eta funtzionarioei legez ezarritako beharraren interes publiko konfiguratzailerak ezarrita, baita biktima horiek identifikatzeko bidea egiten duen edozer informazio zabaltzea galarazteko prozesuan «*nolanahi*» esku edo parte hartzen dutenei ere.

## **JUAN CALPARSORO DAMIÁN JAUNTXIT GORENA** EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FISKAL NAGUSIA

### **1. Bikotekidearen edo senarraren aldetik genero-indarkeria jasaten duen emakume biktima baten intimitaterako eskubidearen zati al da indarkeria-jarrera horren biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko informazio-datuak ematea?**

- Baietz uste dut. Intimitatea Konstituzioan aitortutako oinarritzko eskubidea da, eta haren zati da identifikatzeko aukera zuzenean zein zeharka ematen duten datuak gordeztea.

### **2. Bikotekideari edo bikotekide ohiari egotzitako hilketaren ondorioz, azkendu egiten da hildako emakumearen eta haren familiaren intimitaterako eskubidea, gizarte-komunikabideetan biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko moduko datuak argitaratzeari dagokionez?**

- Iruditzen zait ez dela desagertzen. Egia dirudi hilketa bat gertatzen denean biktimaren nortasuna ezagutzea eta/edo argitaratzea zailagoa dela, baina iruditzen zait ez dela desagertzen hildako biktimaren identifikazio-datuak ez argitaratzeko eskubidea, beste senide batzuk babesten dituen aldetik, hala nola seme-alabak, gurasoak, neba-ahizpak, bikotekide berria...

### **3. Eta bizirik den bitartean modu eztabaidaezinean ondorioztatu badu inola ere ez duela nahi zuzenean zein zeharka identifikatzeko datuak zabaltzea edo argitaratzea?**

- Arrazoi handiagoz, kasu horretan.

**4. Badute intimitaterako eskubiderik bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakumearen seme-alabek, zeharka identifikatzea posible egingo luketen amari buruzko datuei dagokienez?**

– Iruditzen zait existitzen dela, bigarren galderarekin koherentzian.

**5. Informaziorako eskubidearen zati da, informazio-interesa izateagatik, gizarte-komunikabideetan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakume baten datuak, hura edota haren seme-alabak identifikatzeko bide egiten dutenak, argitaratzea?**

– Iruditzen zait ez dela informaziorako eskubidearen zati. Genero-indarkeriaren ondorioz hil duten emakume baten datuak, seme-alaben identifikazioa zuzenean edo zeharka posible egiten dutenak, ez dira argitaratu behar. Seme-alaben intimitaterako eskubidearen kontra egiten dute, modu larrian egin ere.

**6. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako biktimak identifikatzeari buruzko datuek intimitaterako eskubidea osatzen badute eta informaziorako eskubidean sartzea bidezko egiten duen informazio-interesa badute, bi horietatik zer interes gailenduko da? Zer irizpideren arabera?**

– Kasu hau eztabaidagarria da eta erabiltzen oso zaila, baina, nahiz eta interes informatibo garbia izan (esaterako, biktima pertsonaia publikoa denean), informaziorako eskubideak ezin du hilketaren kausa konkretua hartu (genero-indarkeriagatik), beste senide batzuen eskubideak zaintzeko, seme-alaba adingabeak, zehazki.

**MARTA SÁNCHEZ RECIO ANDRETXIT GORENA**  
GIPUZKOAKO LURRALDE AUZITEGIKO FISKALA

**1. Bikotekidearen edo senarraren aldetik genero-indarkeria jasaten duen emakume biktima baten intimitaterako eskubidearen zati al da indarkeria-jarrera horren biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko informazio-datuak ematea?**

– Bai, eskubide horren zati da, genero-indarkeriako biktima baten kasuan, zein beste edozer delituren biktimen kasuan.

**2. Bikotekideari edo bikotekide ohiari egotzitako hilketaren ondorioz azkendu egiten da hildako emakumearen eta haren familiaren intimitaterako eskubidea, gizarte-komunikabideetan biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko moduko datuak argitaratzeari dagokionez?**

– Ez, inola ere ez. Are gutxiago kontuan hartzen badugu ordenamendu juridikoak ohererako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea defendatzeko aukera ematen duela, baita pertsona hil ostean ere, horretarako (ofizioz ere bai) izendatutakoen aldetik; hala, kasu batzuetan Fiskaltzak hartuko luke bere gain ardura hori.

### **3. Eta bizirik den bitartean modu eztabidaezinean ondorioztatu badu inola ere ez duela nahi zuzenean zein zeharka identifikatzeko datuak zabaltzea edo argitaratzea?**

- Kasu horretan arrazoi handiagoz, izan ere, hala jakingo dugu biktimaren posizio zehatza bere datuak zabaltzeari dagokionez, bizitzan zehar izandako portaeraren arabera ondorioztatu beharrik izan gabe.

### **4. Badute intimitaterako eskubiderik bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakumearen seme-alabek, zeharka identifikatzea posible egingo luketen amari buruzko datuei dagokienez?**

- Kontua baldin bada, amaren datuen bidez, seme-alabak zeharka identifikatzera iristea, azken horiek intimitaterako eskubidea dute, are gehiago amarekin batera intimitaterako eskubidearen titularkide izango liratekeen aldetik.

### **5. Informaziorako eskubidearen zati da, informazio-interesa izateagatik, gizarte-komunikabideetan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakume baten datuak, hura edota haren seme-alabak identifikatzeko bide egiten dutenak, argitaratzea?**

- Ezin daiteke edozer datu argitaratu informazio-askatasunerako eskubidearen izenean. Ezin litezke hainbat xehetasun eman, baldin eta haien helburua argitaratutako informazioaren hartzaileen artean morboa piztea edo elikatzea bada, are gutxiago xehetasun horiek iritzia sortzea eta informazio objektiboa ez ematea bilatzen dutenean. Horren adibide dira, esate baterako, delitu bat egiteko arrazoiengatik inguruko espekulazioak. Nolanahi ere den, hainbat datu (tokia, delitua zer-nola gertatu zen, alde aurretik salaketa-rik ba ote zen edota auzibiderik ba ote zen alderdien artean, familia-prozesu baten ondorioz) izango dute balio informatiboa eta posible da, halaber, datu horiek biktima identifikatzeko bidea egitea, gutxienez bizi artean ezagutu duten pertsonen artean, baita haren seme-alaben identitatearen berri izatea ere.

### **6. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako biktimak identifikatzeari buruzko datuek intimitaterako eskubidea osatzen badute eta informaziorako eskubidean sartzea bidezko egiten duen informazio-interesa badute, bi horietatik zer interes gailenduko da? Zer irizpideren arabera?**

- Zaila da ezartzea zer eskubidek eman behar duen leku beste eskubide baten mesedetan. Ulertzen dut zer garrantzi informatibo izan lezakeen, zeharka bada ere, hilketa baten biktima identifikatzen lagun dezaketen datuak emateak, horrek sortzen duen alarma soziala kontuan izanda. Ulertzen dut, era berean, argitalpen horrek duen balioa Zigor Zuzenbideak zigorrak ezartzen dituen bitartean bilatzen duen xedea betetze aldera: prebentzio orokorra. Epai baten edukia argitaratzen denean (eta, horrekin, biktima identifikatzeko aukera ematen duten datuak), gizarteak kontzientzia hartzen du, hain justu, ordenamendu juridikoak erantzun bat ematen diola ezohiko larritasuna duen delitu bati. Eta gizarteak ezin du hauteman erantzun hori egokia den ala ez gertakarien berri ez baldin badu, jasotako informazioa zentsuratuta edo modu partzialean ematen bada. Hori dela eta, informazioa emateko modua izango da gakoa, eta hori profesional bakoitzaren mende egongo da; hala, komenigarria izango da morbotik ihes egitea, biktimarentzat laidogarriak izango ez diren adierazpideak erabiltzea. Hala bakarrik lortuko da bi eskubideak kontziliatzea, haietako batek bakarrik ere ez baitauka izaera absolutua.

## ÁNGELES CARMONA ANDREA

GENERO-INDARKERIAREN BEHATOKIKO PRESIDENTEA ETA BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO BATZORDEKIDEA

### **1. Bikotekidearen edo senarraren aldetik genero-indarkeria jasaten duen emakume biktima baten intimitaterako eskubidearen zati al da indarkeria-jarrera horren biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko informazio-datuak ematea?**

- Jakina. Gainera, apirilaren 27ko 4/2015 Legeak berak, Biktimaren Estatutuarenak, halaxe jaso du 22. artikuluan (*Intimitatea babesteko eskubidea*), honako hau adieraztean:

*«Epaileek, auzitegiek, fiskalek eta zigor-arloko ikerketaren arduradunen gainontzeko agintari eta funtzionarioek, bai eta modu batera edo bestera prozesuan esku edo parte hartzen duten guztiek ere, behar diren neurriak hartuko dituzte, Legean xedatutakoaren arabera betiere, biktima guztien eta horien senideen intimitatea babesteko eta, bereziki, biktima adingabeak edo babes berezia duten biktima desgaituak identifikatzea erraz dezakeen informazio oro ezagutaraztea eragozteko».*

Zera gertatzen da, gaur egungo gizartean eskubide hori jasotzea bereziki zaila dela; izan ere, genero-indarkeriako gertakariak arreta mediatikoa erakartzen dute, batez ere ikus-entzunezko komunikabideena. Hala, nahi ala ez, identifikazioa errazagoa da, nahiz eta komunikabideen helburua hori ez izan.

### **2. Bikotekideari edo bikotekide ohiari egotzitako hilketaren ondorioz, azkendu egiten da hildako emakumearen eta haren familiaren intimitaterako eskubidea, gizarte-komunikabideetan biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko moduko datuak argitaratzeari dagokionez?**

- Inola ere ez, intimitaterako eskubidea ez baita agortu behar hil ostean. Lehen azaldutako 22. artikuluan intimitaterako eskubidea aurreikusten duenean, inola ere ez du baztertzen «hildako biktima», baizik eta, begien bistakoa denez, barnean hartzen du, biktimaren kontzeptuak hildakoak ere biltzen baititu. Are gehiago, hildako emakumeek arrazoi handiagoz daukate babes-eremu hori jasota, eta ez da seme-alabetara edo senideetara bakarrik zabaltzen, baizik eta 22. artikuluan kontzeptua eta xedea hildakoen intimitatera ere zabaltzen dira.

Nolanahi ere den, egia da ikuspegi sozial eta instituzionaletik komenigarria izango litzatekeela hilketak horiek ez isilpean gordetzea eta, gardentasun-jardun horretan, zapuztu egingo da biktimen intimitaterako eskubidea.

### **3. Eta bizirik den bitartean modu eztabaida ezinean ondorioztatu badu inola ere ez duela nahi zuzenean zein zeharka identifikatzeko datuak zabaltzea edo argitaratzea?**

- Are arrazoi gehiagoz handitu egiten da biktimen eskubide hori, baldin eta publikoki adierazi badute euren datuak ez zabaltzeko nahia edota komunikabideek datuok eskura ez izatekoa. Baina, are gehiago, eskuratuta ere ezingo lituzkete argitaratu.

Idea hori indartzeko, Prozedura Kriminalaren Legearen 681. artikulua, lehen aipatutako 4/2015 Legearen bidez aldatuak, zera jasotzen du:

*2. Epailleak edo auzitegiak, biktimaren eta haren senideen intimitatea babesteko, honako neurri hauek adostu ahal izango ditu:*

*a) Biktimaren nortasunari, zuzenean edo zeharka identifikatzen lagun dezaketen datuei edo babesteko beharrei buruz ebazteko kontuan hartutako egoera pertsonalei buruzko informazioa zabaldu edo argitara dezaten debekatzea.*

*b) Biktimaren edo senideen irudiak lortu, zabaldu edo argitara ditzaten debekatzeta.*

*3. Debekatuta dago, nolana ere, biktima adingabeen edo babes berezia behar duten biktima desgaituen nortasunari buruzko informazioa zabaltzea edo argitaratzea, baita horiek zuzenean edo zeharka identifikatzen lagun dezaketen datuei edo horrelakoak babesteko beharrei buruz ebazteko baloratu diren egoera pertsonalei buruzkoa ere; eta debekatuta dago, orobat, horien edo beren senideen irudiak lortu, zabaldu edo argitaratzea».*

Hau da, biktimari dagokionez, epaiak debekatu ahal izango du haren nortasuna zabaltzea, eta galarazita egongo da datuok ematea biktima adingabeen edo babes berezia behar duten biktima desgaituen kasuan.

#### **4. Badute intimitaterako eskubiderik bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakumearen seme-alabek, zeharka identifikatzea posible egingo luketen amari buruzko datuei dagokienez?**

- Inolako zalantzarik gabe; gainera, debeku hori Prozedura Kriminalaren Legearen 681.3 artikulutik dator (4/2015 Legeak emandako idazketaren ostean): «*Debekatuta dago, nolana ere, biktima adingabeen edo babes berezia behar duten biktima desgaituen nortasunari buruzko informazioa zabaltzea edo argitaratzea, baita horiek zuzenean edo zeharka identifikatzen lagun dezaketen datuei edo horrelakoak babesteko beharrei buruz ebazteko baloratu diren egoera pertsonalei buruzkoa ere*».

Berritort, errealitateak erakusten digu krimen matxisten kasuan egiazki konplexua dela identifikazio-datuen publikitatea erabat saihestea.

#### **5. Informaziorako eskubidearen zati da, informazio-interesa izateagatik, gizarte-komunikabideetan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakume baten datuak, hura edota haren seme-alabak identifikatzeko bide egiten dutenak, argitaratzea?**

- Ez. Bada adingabeak babesteko oinarrizko eskubidea, eta hor barruan sartzen da haien identifikazioa; hala, zaindu behar dugu irmo egiten dela beste eskubide batzuen aurrean. Edozer gizarteren helburu nagusia adingabeak babestea da. Prozedura Kriminalaren Legearen 681.3 artikulua berak debekatu egiten du, adingabeei eta desgaituei dagokienez, eta epailleak debekatu egin dezake biktimari dagokionez; horrenbestez, gomendatzen da fiskalak edo akusazio partikularrak hala jakinaraztea prozedura izapidetzeko garaian, Prozedura Kriminalaren Legearen 681.2 artikulua araber. Informaziorako eskubideak gaiaren arazoak ezartzen dituen mugak ditu; kasu honetan, biktimen intimitatea babestea.

## **6. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako biktimak identifikatzeari buruzko datuek intimitaterako eskubidea osatzen badute eta informaziorako eskubidean sartzea bidezko egiten duen informazio-interesa badute, bi horietatik zer interes gailenduko da? Zer irizpideren arabera?**

- Biktimen intimitaterako eskubidea informaziorako eskubidearen gainetik, noski, hori gaitzen duen lege-xedapenak bai baitira: 4/2015 Legearen 22. artikulua eta Prozedura Kriminalaren Legearen 681.2 artikulua, zeinaren bidez epaileak adostu baitezakeen. Fiskaltza eta akusazioaren bidez interesatu behar da mugatze-eduki hori.

Edonola ere, nire uste apalean, auzia berriro planteatu beharko genuke. Benetan garrantzia duena zera da, jakitea zerbaitetan laguntzen ote duen datu horiek argitaratzeak genero-indarkeriaren kontrako borrokan. Ekarpen gisa balio badu (ikerketarako edo genero-terrorismoaren aurrean herritarrengan kontzientzia pizteko), onartu genezake interes informatiboa izatea. Hala ez bada, gertuago egongo ginatke sentzazionalismotik edota ikuskizuna justifikatzeko bidetik. Eta ez kazetaritzan zorrotz jarduteko bidetik.

## **BIZKAIKO LURRALDE AUZITEGIKO EPAILEA**

### **1. Bikotekidearen edo senarraren aldetik genero-indarkeria jasaten duen emakume biktima baten intimitaterako eskubidearen zati al da indarkeria-jarrera horren biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko informazio-datuak ematea?**

- Planteatuta dagoen moduan, baliteke oker egotea: iruditzen zait genero-indarkeriaren biktima izatea intimitaterako eskubidearen zati dela, gure esfera pertsonalena osatzen duten beste hainbat auzi bezala. Beste gauza bat da intimitaterako eskubideak beste baten alde egin behar izatea batzuetan, beste eskubide batzuk jokoan direnean (esate baterako, gizartearen interesa *ius puniendi* argitzeko edo egikaritzeko, horrekin ulertuta pertsonaren datuak ezagutuko direla zigor-arloko esparruan). Eta hala gerta liteke informaziorako eskubidearekin ere, albiste izan litezkeen gertakariak ditugunean aurrez aurre. Genero-indarkeriako biktimen kasuan, adingabeen kasuan adibidez, iruditzen zait eztabaida daitekeela albisteetan identifikazio-datuak eman behar diren ala ez. Baina interes informatiboa handiagoa denean, gertakaria dela eta, barka liteke.

### **2. Bikotekideari edo bikotekide ohiari egotzitako hilketaren ondorioz, azkendu egiten da hildako emakumearen eta haren familiaren intimitaterako eskubidea, gizarte-komunikabideetan biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko moduko datuak argitaratzeari dagokionez?**

#### **Eta bizirik den bitartean modu eztabaidaezinean ondorioztatu badu inola ere ez duela nahi zuzenean zein zeharka identifikatzeko datuak zabaltzea edo argitaratzea?**

- Nire ustez, konstituzio-jurisprudentzian oinarri hartuta, intimitaterako eskubidea guztiz pertsonala da. Hori dela eta, iruditzen zait erantzuna baiezkoa dela, intimitaterako eskubidea galdu egiten dela subjektuaren heriotzarekin. Hurrengo galderarekin erantzungo ditudan kasuetan izan ezik. (Hemen behean duzun epai baten laburpena egingo dut: «Komeni da gogoraraztea, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 2ko 231/1988 epaiaren 3. eta 4. oinarri juridikoetan, nahiz eta baieztatu norberaren eta familiaren

intimitaterako eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan babestua, norberaren pertsonalitatearen ildotik pertsonaren duintasunarekin loturik dagoela (Espainiako Konstituzioaren 10. artikulua aitortuta bezala), eskubide horiek guztiz pertsonal gisa eta gizakiaren existentziari berari lotuta ageri dira. Eta eskubide horien titularra hil ostean eta haren pertsonalitatea iraungi ondoren... logikoki konstituzio-babesaren objektua ere desagertu egiten da, zeina, esan dugun bezala, bizi-esparru erreserbatu bat bermatzera bideratuta baitago, heriotzarekin desagertzen den bizi-esparrua».

### **3. Badute intimitaterako eskubiderik bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakumearen seme-alabek, zeharka identifikatzea posible egingo luketen amari buruzko datuei dagokienez?**

- Inolako zalantzarik gabe, intimitateak eduki zabalagoa dauka kasu honetan indarke-riazko egitateak eragiten dion pertsonarenak baino. Eragindako pertsonaren senideen espera pertsonalean sartzen da gertakaria, eta haien intimitatea errespetatzeko eskubidea sorrarazten die. Hemen behean erreproduzitzen dudana epaia ondo dator; izan ere, bertan jorratzen den kasuak hildako ama bati buruzko informazioa ematen du, eta haren semeari legitimazioa aitortzen zaio, informazio horrek azken haren intimitateari eragiten dion aldetik.

### **4. Informaziorako eskubidearen zati da, informazio-interesa izateagatik, gizarte-komunikabideetan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakume baten datuak, hura edota haren seme-alabak identifikatzeko bide egiten dutenak, argitaratzea?**

- Egitateari buruzko edozer elementu izan liteke informaziorako eskubidearen zati; beste kontu bat litzateke intimitaterako eskubidea urratzen den. Nik uste dut hori gertatzen dela, gertaeren oste-osteko uneetan izan ezik, non egoera zalantzazkoa izaten baita. Iruditzen zait kasu guztietan alferrikakoak direla identifikazio-datuak, eta ahalegina egin beharko litzatekeela komunikabideek datu horiek eman ez ditzaten. Ez dago jokoan intimitaterako eskubidea bakarrik, baizik eta bigarren mailako biktimizazioaren efektuak ere bai, handitu egin bailitezke identifikazio-datuak argitaratuta.

### **5. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako biktimak identifikatzeari buruzko datuek intimitaterako eskubidea osatzen badute eta informaziorako eskubidean sartzea bidezko egiten duen informazio-interesa badute, bi horietatik zer interes gailenduko da? Zer irizpideren arabera?**

- Iruditzen zait goian ere erantzun dudala: uste dut saihestu egin beharko litzatekeela argitaratzea eta intimitaterako eskubideak gailendu beharko lukeela. Lehendabiziko unean salbuespena egingo dut, lehendabiziko une horien interes informatiboa izugarria baita, baina ahalik eta bizkorren jardun behar da biktimaren senideen eskubideak gordetzeko.

## E1001: EPAILETXIT GORENA

### **1. Bikotekidearen edo senarraren aldetik genero-indarkeria jasaten duen emakume biktima baten intimitaterako eskubidearen zati al da indarkeria-jarrera horren biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko informazio-datuak ematea?**

- Ez dut uste informazio-datuak intimitaterako eskubidearen zati izan daitezkeenik (hau da, pertsona horri dagokionez, komunikabideek tratatzen dituzten datuak izango direla iruditzen zait, komunikabideak irizitako datua, alegia). Agian planteatu beharrekoa zera litzateke, informaziorako eskubidea mugatu daitekeen (informazioa debekatzea) kasu jakin batzuetan. Iruditzen zait intimitaterako edo pribatutasunerako eskubidea osatzen duen datu pertsonala pertsona eta bizitza pribaturako bestelako alderdiak identifikatzen dituen dela. Eta ez komunikabide jakin batek egiten duen erabilera.

Iruditzen zait lan nekeza izango dela datu pertsonalak murriztea (kasu hauetan eta beste edozeinetan), komunikabideei datuak erabiltzeko mugak edo debekuak ezarrita. Agian oker ibiliko naiz, baina beste kasu sentikor batzuetan ez dago inolako mugarik (adingabeen edo kalteberatasun berezia dutenen kasuan, adibidez). Komunikabide batek kasu bati eta kasuan inplikaturako pertsonen buruzko informazioa jasotzen badu zigor-arloko prozesutik edo polizia-jardunetik at, ez dut uste intimitaterako eskubideak abstraktuan sartu behar duenik, eta konstituzio-maila hartu, datu horiek erabiltzeko mugak eta baldintzak ezartzeko aukera. Zaila.

Dena dela, iruditzen zait positiboa izango litzatekeela mugak ezartzea.

Aldiz, iruditzen zait pribatutasuna normatiboki babestu beharko litzatekeela datuok tratatzen diren esparru guztietan, batez ere zigor-arloko prozesu baten testuinguruan. Gaur egun, teknologia berriekin, ia ezinezkoa da kontrolatzea datuok ezagutzen ote dituzten tratatzeko ardura duten elementuetatik kanpo ere. Maila polizialean bertan gertatzen da datuak komunikabideen eskuetara iristea, batez ere (eta gero eta gehiago) zigor-arloko kasuen publizitatea helburu polizialen edo penalen esparrutik irtendako propaganda-erreminta bihurtzen denean.

Nire ustez, informatzeko modua eta informazioaren edukia arautu beharko litzateke, kasu batekin harremana duten elementu eta esparru guztietan, dela alor polizialean, judizialean edo beste edozeinetan. Babes-erremintak zaharkituta geratu dira.

### **2. Bikotekideari edo bikotekide ohiari egotzitako hilketaren ondorioz, azkendu egiten da hildako emakumearen eta haren familiaren intimitaterako eskubidea, gizarte-komunikabideetan biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko moduko datuak argitaratzeari dagokionez?**

#### **Eta bizirik den bitartean modu eztabaidaezinean ondorioztatu badu inola ere ez duela nahi zuzenean zein zeharka identifikatzeko datuak zabaltzea edo argitaratzea?**

- Ez dakit azkentzen duen ala ez, baina agian behar litzateke sistemaren bat pertsona batek bere borondatea galderaren ildotik adosteko.

Agian planteatu beharko litzateke senideek jarrai ote dezaketen desagertutako pertsonaren eskubidea egikaritzen.

Erabat erreserbatzeko aukera planteatzen badugu, publizitate oro galarazita, orduan ez litzateke hori bizirik daudenetan planteatu behar?



### **3. Badute intimitaterako eskubiderik bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakumearen seme-alabek, zeharka identifikatzea posible egingo luketen amari buruzko datuei dagokienez?**

- Ez dakit existitzen den, baina iruditzen zait aurreko kasuan, oraingoan arrazoi handiagoz, planteate litekeela datuak ezagutaraztearen babesa baldintza jakin batzuk beteta. Horietan, seguru.

### **4. Informaziorako eskubidearen zati da, informazio-interesa izateagatik, gizarte-komunikabideetan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakume baten datuak, hura edota haren seme-alabak identifikatzeko bide egiten dutenak, argitaratzea?**

- Gaur egun, iruditzen zait interes informatiboa komunikabide batek zerbaiti buruzko informazioa emateko interesak bakarrik zehazten duela: hau da, komunikabide batek erabakitzen duenak du interes informatiboa. Horrenbestez, ezin dezakegu eskubide hori modu intrintsekoan mugatu, komunikabideei adierazita zer den intereseko eta zer ez, zer den garrantzitsua eta zer ez. Ez du funtzionatzen kode etiko gisa ere.

Horrenbestez, sar liteke informaziorako eskubidean.

Edonola ere, datu jakin batzuen berri ez emateko eskubidea babestu beharra dago, eta, argitaratuz gero, agian beste eskubide bat sortuko luke, kalteak ordaintzekoa, adibidez. Eskubideen arteko gatazka bat da, eskubide bat eta bestea haztatzekoa.

### **5. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako biktimak identifikatzeari buruzko datuek intimitaterako eskubidea osatzen badute eta informaziorako eskubidean sartzea bidezko egiten duen informazio-interesa badute, bi horietatik zer interes gailenduko da? Zer irizpideren arabera?**

- Hau tesi bat egiteko modukoa da... Hainbat ohar.

Lehenik eta behin, uste dut arazo hau maila orokorragoan planteatu beharko litzatekeela. Nahiz eta espazio hau egokia izan ez, iruditzen zait askoz ere gehiago babestu beharko liratekeela polizia-jarduketara batek eragindako pertsona guztien datuak, baita zigor-arloko prozesuren batean inplikaturik daudenenak ere (edota beste prozesuren batean, noski). Esparru horiek aipatu ditut, horiek baitira lehentasunez edo hasiera batean behintzat genero-indarkeriaren kasuetan jarduten dutenak.

Interes informatiboa kasurik gehienetan sortzen da, ez epaiak ematen dituztenean (horietaz komunikabideak ahaztu egiten dira), baizik eta gertaera, krimena, izan eta berehala. Albiste den gertaera bat, egunek aurrera egin ahala, interesa galtzen joaten da komunikabideetan, eta, hala, nahikoa litzateke oro har pribatutasuna denbora-tarte jakin batean gordetzea. Ez du esan nahi sekretupean gorde behar denik kasu guztietan.

Gutxienez zati batean, interes informatiboa babestuta geratuko da, datuak gordeta, banatzen den informazioaren edukiaren kontrola ez komunikabideari egotzita, baizik eta kasua maneiatzen duen esparruaren elementu propio baten esku ipinita. Uste dut alor horretan lan handia legokeela egiteko.

Nire ustez, zaila da esatea eskubide bat ala bestea gailendu behar den. Baina, kasu guztietan, inguruabar bereziak salbuespen gisa hartuta, iruditzen zait ez liratekeela eman behar eragindako pertsona identifikatzeko bidea egiten duten elementuak. Egia esan, eragindakoak. Delitu-esparru horretan, gehien-gehienetan, biktima ezagutzeak biktimarioa ezagutzea esan nahi du, eta alderantziz.

Haztapan egoki batek utziko luke jakiten zer gertatu zen, baina ez zeinen artean gertatu zen. Hala, zer gertatu zen informatzeak luzera eta sakontasun egokia izan beharko lituzke, eragindako pertsonak identifikatzeko bidea egingo lukeen datu espezifikoak kaleratu behar izan beharrik gabe. Kasuz kasu haztatu beharko litzateke.

Ondorioz, abstraktuan eskubide bat bestearen gainetik ipini beharrean, kasu bakoitzean oreka bat topatzea izango litzateke kontua, kasu bakoitzean kontrajarrita dauden eskubideen luzeren eta mugen artean.

## **MARÍA JOSEFA BARBARIN ANDRETXIT GORENA** GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO EPAILEA

### **1. Bikotekidearen edo senarraren aldetik genero-indarkeria jasaten duen emakume biktima baten intimitaterako eskubidearen zati al da indarkeria-jarrera horren biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko informazio-datuak ematea?**

- Iruditzen zait baietz; izan ere, informazio-datu horiek, nire ustez, pribatutasunaren muin-muinean eragingo lukete. Ondorioz, konstituzio-babesa jaso dezakete, informazio-askatasunerako eskubideak baino modu garrantzitsuagoan edo lehenetsiagoan, gainera.

### **2. Bikotekideari edo bikotekide ohiari egotzitako hilketaren ondorioz, azkendu egiten da hildako emakumearen eta haren familiaren intimitaterako eskubidea, gizarte-komunikabideetan biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko moduko datuak argitaratzeari dagokionez?**

#### **2.1. Eta bizirik den bitartean modu eztabaidaezinean ondorioztatu badu inola ere ez duela nahi zuzenean zein zeharka identifikatzeko datuak zabaltzea edo argitaratzea?**

- Niri ezetz iruditzen zait, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea ezin daitekeela banandu pertsonalitatea garatzeko eskubidetik, eta jarraitu egiten duela genero-indarkeriaren testuinguruan bikotekidearen eskuetan hildako emakumearen kasuan.

Kasu horretan, auzia eztabaidagarriagoa izango litzateke juridikoki. Eragindako alderdiak bere eskura duen eskubide baten aurrean gaude? Edota ez da halako eskubide-tzat hartzen? Datu horiek zabaltzearekin loturik, biktimaren interesa hartu behar da kontuan, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen gainetik? Edota haren seme-alabena?

Balantzean edo interes-jokoan esango nuke galdera horren ondorioa ezin litekeela absolutua izan, baizik eta kasuan kasu hartu behar dela.

### **3. Badute intimitaterako eskubiderik bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakumearen seme-alabek, zeharka identifikatzea posible egingo luketen amari buruzko datuei dagokienez?**

- Jakina. Ezin litezke albo batera utzi biktima eta, ondorioz, seme-alabak zeharka identifikatzea eragiten duten informazioak sortutako zeharkako kalteak, are gehiago seme-alabak adingabeak badira.

#### **4. Informaziorako eskubidearen zati da, informazio-interesa izateagatik, gizarte-komunikabideetan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakume baten datuak, hura edota haren seme-alabak identifikatzeko bide egiten dutenak, argitaratzea?**

- Esango nuke ezetz, ez behintzat oinarrizko eskubide honen muina. Interes informatiboa bikotekidearen eskuetan hildako emakume biktimaren edota erasotzaileak lesionatuaren datua edo zifra ematea da, gertakariaren mekanika, alderdien arteko harremanaren estadia, nazionalitatea, adin-tartea, ikasketa-maila, alderdien posizio ekonomikoa... Hau da, arazo honi buruzko gizarte-kontzientzia ahalbidetuko duten datuak zabaltzea, eta, datuok aztertuta, prebentzio-politikak hartzeko aukera emango dutena, edota biktimei eta senideei laguntzak ematekoa. Ez dago interes informatiborik edo kazetaritza alorreko interesik delako biktimaren izena ematean.

#### **5. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako biktimak identifikatzeari buruzko datuek intimitaterako eskubidea osatzen badute eta informaziorako eskubidean sartzea bidezko egiten duen informazio-interesa badute, bi horietatik zer interes gailenduko da? Zer irizpideren arabera?**

- Bistan den moduan, auzi honi buruzko erantzuna emateko, Konstituzio Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia xehe-xehe aztertu behar da, Konstituzioa eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmena aintzat hartuta.

Baina guztiok dakigu Espainiako Konstituzio Auzitegiak egiteko garrantzitsua eman diola informazio-eskubideari, egiazko informazioa izateko eskubideari, aintzat hartuta komunikabideek iritzi publikoa osatzeko egitekoa dutela gizarte demokratiko baten barruan.

Hori bai, eskubide hori, beste edozer eskubide bezala, ez da absolutua, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea ere ez den modu berean. Iruditzen zait erantzuna Konstituzio Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzian dagoela, lehian diren inguruabarrak balioetsita: zer interes informatibori dagokion, adingaberik ba ote den ala ez, eta abar. Guztia ere kasuan kasu zehazteko, irizpide horien arabera, zer oinarrizko eskubide nagusitzen den.

### **ALBERTO SAIZ GARITAONANDIA JAUNA** EHU-KO ZUZENBIDE PROZESALEKO IRAKASLEA

#### **1. Bikotekidearen edo senarraren aldetik genero-indarkeria jasaten duen emakume biktima baten intimitaterako eskubidearen zati al da indarkeria-jarrera horren biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko informazio-datuak ematea?**

- Intimitaterako eskubidearen eta informaziorako eskubidearen arteko muga ez da baketsua, eta hamaika polemika eragin ohi du. Planteatutako kasuan, iruditzen zait, tankera honetako pronuntziamentu abstraktu batean izan beharreko kautela guztiekin, emakumearen identifikazio-datuak (hau da, intimitaterako eskubideak informaziorako eskubidearen bide ematea) kasu bakarrean eman behar direla: datuek berez informazio-garrantzia dutenean. Hau da, emakumearen identifikazio pertsonala albistearen ikuspegitik garrantzitsua den kasuan bakarrik.

## **2. Bikotekideari edo bikotekide ohiari egotzitako hilketaren ondorioz, azkendu egiten da hildako emakumearen eta haren familiaren intimitaterako eskubidea, gizarte-komunikabideetan biktima gisa zuzenean zein zeharka identifikatzeko moduko datuak argitaratzeari dagokionez?**

**Eta bizirik den bitartean modu eztabaidaezinean ondorioztatu badu inola ere ez duela nahi zuzenean zein zeharka identifikatzeko datuak zabaltzea edo argitaratzea?**

- Auzi hau aztertzean, oinarri batetik abiatu behar dugu: pertsonalitate zibila azkendu egiten dela heriotzaren ostean. Dena den, kasuaren oso ikuspegi murriztailea dela pentsatzen dugu; izan ere, nahiz eta intimitaterako eskubidea duen pertsona hil eta desagertu, haren izen ona edota memoria ona etorkizunera ere proiektatu egiten dira eta haren zirkulu intimoko pertsoneri eragiten die, batez ere senideei; hala, alde horretatik, uste dugu hildakoaren intimitaterako eskubideak nolabaiteko babesa izan beharko lukeela tankera honetako kasuetan ere.

Datuak argitaratzeko berariazko ezezkoaren kasuan, aurreko egoeraren kasu larriagotua izango litzateke, elementu berezi batekin: hildakoaren berariazko borondatea izatea esandako norabidean.

## **3. Badute intimitaterako eskubiderik bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakumearen seme-alabek, zeharka identifikatzea posible egingo luketen amari buruzko datuei dagokienez?**

- Erantzun hau aurrekoarekin lotuta dago; genioen moduan, nahiz eta intimitaterako eskubidea duen pertsona hil eta desagertu den, haren izen ona edota memoria ona etorkizunera ere proiektatu egiten dira eta haren zirkulu intimoko pertsoneri eragiten die, batez ere senideei (kasu honetan, seme-alabei); hala, alde horretatik, uste dugu hildakoaren intimitaterako eskubideak nolabaiteko babesa izan beharko lukeela tankera honetako kasuetan ere. Une honetan ez nuke jakingo esaten semearen intimitaterako eskubidea den (galderak planteatzen duen moduan) edota hildakoaren eskubidearen proiektzioa den seme-alaben alde; edonola ere, bigarren aukeraren alde egingo nuke, bizi den artean emakumeak erabateko ahala baitauka bere pertsonari buruzko informazioa zabaltzeko baimenari dagokionez, seme-alaben iritzia edozer dela ere.

## **4. Informaziorako eskubidearen zati da, informazio-interesa izateagatik, gizarte-komunikabideetan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako emakume baten datuak, hura edota haren seme-alabak identifikatzeko bide egiten dutenak, argitaratzea?**

- Beste behin ere, erantzuna aurretik emandako beste batekin lotzen da, kasu honetan, lehendabiziko galderarekin: emakumearen identifikazio-datuak garrantzi informatiboa duten kasuan bakarrik eman behar direla (alegia, intimitaterako eskubideak informaziorako eskubideari bide ematea); hau da, emakumearen identifikazio pertsonala albistearen ikuspegitik garrantzitsua den kasuan bakarrik. Oso zaila da egoera guztietarako balioko lukeen kategorizazio abstraktu bat egitea, kasuistika infinitua izan bailiteke eta kasuaren elementuak hartu behar bailirateke epaia eman ahal izateko.

**5. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hildako biktimak identifikatzeari buruzko datuek intimitaterako eskubidea osatzen badute eta informaziorako eskubidean sartzea bidezko egiten duen informazio-interesa badute, bi horietatik zer interes gailenduko da? Zer irizpideren arabera?**

- Bai. Galderak planteatzen duen moduan, biktima identifikatzeko datuek halako interes informatiboa dutenez, justifikatuta dago informaziorako eskubidea intimitaterako eskubidearen gainetik egotea; hortaz, gure ustean, babestuta legoke informazioa ematea. Kasu honetan (beste hainbatetan bezalaxe), gatazkan diren eskubideen eta interesen haztapena egin behar da, eta horrexegatik genioen oso zaila dela lehen kategorizazio abstraktu bat egitea, egoera guztietarako balio izango duena.

Intimitatearen gainetik informaziorako eskubidea ipiniko lukeen oinarrizko irizpidea, hain zuzen, interes informatiboa izango litzateke, eta, nire ustean, horrek auzi konkretua behar du izan, eta ez abstraktua. Hau da, interes generiko bat (esate baterako, gizartea sentzibilizatzea genero-indarkeriaren inguruan) ez litzateke berez nahikoa izango datu pertsonal horiek argitaratzeko. Interesa bera indarkeria-ekintzen biktima konkretuari egokituta etorri beharko litzateke.

## **E1002: EUROPA PRESS AGENTZIAKO KAZETARIA**

### **1. Noiz eta zergatik ulertzen da nagusitzen dela informaziorako eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen gainetik?**

- Biktimaren identitatea irakurleari eman beharreko informaziorako garrantzitsua de-nean, edota testuingurua ulertzeko ezinbesteko datuak eskaintzen dituenean.

### **2. Interes publikoari erantzuten dio bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskue-tan hil den emakume bat identifikatzeko alderdi pertsonalei buruzko informazioa emateak?**

- Kasuaren arabera, baina iruditzen zait, morboan erori gabe, kontakizunaren testuin-gurua emateko balio dezakeela, betiere muga jakin batzuk errespetatuta.

### **3. Ikusgarritasun handiagoa ematen dio hildako emakumeari biktima, haren ingurua eta delitua zer egoeratan gertatu den identifikatzeak?**

- Hainbat kasutan, baietz esango nuke.

#### **a. Interesgarriagoak dira gertakariak irakurlearentzat?**

- Bai, halaxe lortzen da irakurleek kasuari buruzko interes handiagoa izatea.

#### **b. Asmatutako datuekin identifikatutako emakumea ez da hain biktima?**

- Ez.

### **4. Biktimaren eta haren inguruko datu pertsonalak edo identifikazio-datuak zer dira, datu hutsalak, axolagabeak ala albistearen muina?**

- Askotan eta askotan, albistearen muina dira.

### **5. Biktima identifikatzeko elementuen tokian (izena, adina, seme-alabak, bizilekua) asmatutako datuak, inzialak eta tankerakoak erabiltzeak desitxuratu egiten du informatzeko xedea?**

- Ez du zertan, gertatutakoaren egiazkotasuna jasotzen badu.

### **6. Delitu-ekintzek ez lukete izango interes publikorik, albistea udalerriko biztanleek biktima ez identifikatzeko moduan idatziz gero? Zergatik?**

- Ez dakit, ezetz pentsatzen dut.

**7. Kazetaritzaren alorrean, bada nolabaiteko pertzepzio bat pentsatzeko hildako emakumea ez dela hain biktima, identifikatzen ez dutenean edota ingurunea identifikatzeko adina datu ematen ez dituztenean?**

- Gertatu liteke pertsona batzuekin, baina ez zait iruditzen ezer orokorra denik.

**8. Zergatik jotzen da egokitzat biktimak identifikatzen dituzten datuak eta, ondorioz, senideak identifikatzeko aukera ematen dutenak argitaratzea?**

- Egiazko kontakizuna jakiteko, eta, pentsatzen dut, irakurlearekin enpatia sortzeko.

**E1003: EUROPA PRESS AGENTZIako KAZETARIA**

**1. Noiz eta zergatik ulertzen da nagusitzen dela informaziorako eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen gainetik?**

- Iruditzen zait galdera horri Zuzenbidearen eta Justiziaren alorrek eman behar diotela erantzuna, eta ez horrenbeste kazetaritzak. Nire ustez, kazetariak, indarkeria matxistaren gertakari bati buruzko informazioa ematean, ez dute planteatzen hasiera batean biktimaren edo familiaren intimitaterako eskubidea urratzen ari diren.

Gertakari horri buruzko informazioa ematen dute, hasiera batean, biktimaren nortasuna ezagutu gabe; besterik gabe, zer gertatu den adierazten dute. Albiste horren ondoren gertatzen den garapenak eragiten du, kasurik gehienetan, intimitaterako eskubideari eragin diezaioketen datuak agertzea. Baina ordurako publikoaren interesa horren handia izanik, nolabaiteko «elur-bola» efektua sortzen da, oso zaila geratzen, gizarteak etengabe eta aldi berean informazioa eskatzen baitu, horren kontzientziatuta egonik.

**2. Interes publikoari erantzuten dio bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskue-tan hil den emakume bat identifikatzeko alderdi pertsonalei buruzko informazioa emateak?**

- Kazetaritzaren ikuspegitik, zalantzarik gabe biktimaren alderdi pertsonalen berri izatea interesgarria da publikoarentzat oro har, albisteari testuingurua emateko balio baitu. Indarkeria matxistak eragindako hilketa batek esan nahi duen irrazionaltasunaren barruan, publikoak zer inguruabarretan gertatu den jakin nahi du. Biktimak erasotzailea alde aurretik salatuta zeukan, inguruabar pertsonalak zeintzuk ziren eta bestelako hainbat datu interesgarri.

**3. Ikusgarritasun handiagoa ematen dio hildako emakumeari biktima, haren inguru eta delitua zer egoeratan gertatu den identifikatzeak?**

- Garbi dago datu horien berri izateak emakume biktimari ikusgarritasun handiagoa ematen diola. Esate baterako, Gipuzkoan mundu guztiak identifikatzen du Nagore Lafage, izena aipatze hutsarekin. Hilketaren nabaritasun mediatikoaren ondorioz, neska hori indarkeria matxistaren aurkako borrokan ia ikono bilakatu da, eta haren izenak (prentsak ezagutarazia) balio izan zuen pertsona asko eta asko indarkeria mota horren kontrako manifestazioetara eramateko.

### **a. Interesgarriagoak dira gertakariak irakurlearentzat?**

- Kazetaritzako hainbat irizpidek zehazten dute informazio bat bideratutako publikoaren interesa, eta albisteak interes handiagoa edukitzea lortzen dute. Horietako bat gertutasun geografikoa da. Zenbat eta gertuago gure bizilekutik, orduan eta interesgarriagoa egiten zaigu. Hori dela eta, tokiaren berri ematea oso garrantzitsua da.

Beste irizpide bat da biktima zein puntutaraino den «ospetsua». Informazioari dagokionez, zenbat eta ezagunago izan pertsona bat, orduan eta interesgarriagoa izango da publikoarentzat oro har.

### **b. Asmatutako datuekin identifikatutako emakumea ez da hain biktima?**

- Ez, horixe! Asmatutako datuekin identifikatutako emakumeak ez du biktima tasun txikiagoa, baina, modu horretan, anonimo izatera igarotzen da. Jaioterrian, auzoan, autonomia-erkidegoan... Ez litzateke egingo hilketaren kontrako ekitaldirik. Erakundeak ez lirateke bertaratuko heriotzak irekitako eginbideetan. Publikoak, oro har, ez luke jakingo gertakari horiek herrian bertan gertatzen direla, eta pentsa lezake beste toki batzuetan gertatzen diren kontuak direla.

## **4. Biktimaren eta haren inguruko datu pertsonalak edo identifikazio-datuak zer dira, datu hutsalak, axolagabeak ala albistearen muina?**

- Biktimaren datu pertsonalak edo identifikazio-datuak ez dira albistearen muina. Komunikabideen helburua ez da biktima identifikatzea; nolana ere, datu horiek garrantzitsuak dira, ezagutu ostean, horiek baitira gakoak biktimaren bizilagunengana, senideengana eta ingurukoengana jotzeko, gertatu denari testuingurua ipintzeko informazioaren baten bila. Nola eman gurasoek Galizian hildako Asunta haurrari buruzko informazioa, nor zen esan gabe? Nola jakingo zuten komunikabideek irakasleen kontakizuna, esanez somnolentzia izaten zuela barbiturikoak hartu izanagatik eta beste hainbat xehe-tasun?

## **5. Biktima identifikatzeko elementuen tokian (izena, adina, seme-alabak, bizilekua) asmatutako datuak, inzialak eta tankerakoak erabiltzeak desitxuratu egiten du informatzeko xedea?**

- Bai, zalantzarik gabe. Puntu honetan tarte bat egin nahi dut, gogorarazteko hildako emakumeei buruz galdetzen ari garela. Inpaktu sozial oso handia duten kasu oso larriak.

Larritasun txikiagoko indarkeria matxistaren biktimen kasuan, komunikabideek oro har errespetu handiz jokatzen dute. Esate baterako, nik lan egiten dudan komunikabidean ez dira inoiz ere identifikatzen ez biktimak ez erasotzaileak, eta albisteak ez dira desitxuratzen horren ondorioz. Hori bai, inplikaturako pertsonak ospetsuak direnean, hil egin dituztenean edota izena beste komunikabide batzuek eman dutenean, Asuntaren kasuan adibidez, orduan ematen dira.

## **6. Delitu-ekintzek ez lukete izango interes publikorik, albistea udalerriko biztanleek biktima ez identifikatzeko moduan idatziz gero? Zergatik?**

- Nire ustez eta lehen aipatu dudan bezala, kazetaritzako gertutasun-irizpideak erantzuten dio galdera honi.



## **7. Kazetaritzaren alorrean, bada nolabaiteko pertzepzio bat pentsatzeko hildako emakumea ez dela hain biktima, identifikatzen ez dutenean edota ingurunea identifikatzeko adina datu ematen ez dituztenean?**

- Ez dakit. Baina, kontuan hartuta hildako emakumeei buruz ari garela, euren inguruko elementuen berri izatea ezinbestekoa da. Ezin dut imajinatu albistegi bat emakume baten heriotzaren berri ematen, non gertatu den kontatu gabe.

## **8. Zergatik jotzen da egokitzat biktimak identifikatzen dituzten datuak eta, ondorioz, senideak identifikatzeko aukera ematen dutenak argitaratzea?**

- Datu horiek garrantzitsu izatearen arrazoia zera da, gertakariak testuinguru sozial batean ipintzen dituela. Datu horiek emango ez balira, informazioa oso mugatuta agertuko litzateke: «Beste emakume bat hil dute Espainiako puntu batean, indarkeria matxistak eraginda».

Emakume hori zenbaki huts bilakatuko litzateke, zifra bat besterik ez. Ez luke aurpegiarik eta nortasunik izango. Ez legoke zer kontatu; ez genuke jakingo ama zen ala ez, edota zein ziren haren bizitzaren inguruabarrak. Kasu anonimoa izango litzateke eta publikoak ezingo luke harengan pentsatu bizi-proiektu bat zuen gizaki gisa, baizik eta biktima anonimo eta zenbaki baten gisa bakarrik.

Adibidez:

Ez da gauza bera indarkeria-matxistaren biktima gisa hil den emakume baten berri ematea edota, pauso bat gehiago eman eta «datu pertsonal bat emanez» haurdun zegoela gaineratzea. Eransten baldin badugu aurretik ere salaketa ipinita zeukala erasotzailearen kontra eta harrera-pisu batean bizi zela, biktimaren intimitateari buruzko datuak gaineratzen joango gara eta publikoak «humanizatu» egin ahal izango du; haren dramari buruz kontzientzia hartuko du eta aukera handiagoak sortuko ditugu ekintza mota horren aurka altxatzeko eta uko egiteko. Hala, tankera horretako jarreraren pertsekuzio soziala bultzatuko dugu.

## **E1004: RADIO EUSKADIKO KAZETARIA**

### **1. Noiz eta zergatik ulertzen da nagusitzen dela informaziorako eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen gainetik?**

- Konstituzioak bi eskubideak babesten ditu. Ez da harrizkoa hainbat kasutan eskubide bat ala bestea gailentzen den erabakitzeke lanak izatea, eta, ondorioz auzitegiek izatea azken hitza. Galderari ihes ez egiteko, oro har, iruditzen zait informaziorako eskubidea gailentzen dela gertakariak **interes publikokoak** direnean: zigor-arloan garrantzia duten gertakariak, ongi komunarekin lotuak edota kezka zein ezinegona sortzen dituzten kasuetan, pertsonen eta erkidegoari eragiten dietenean, iritzi publiko bat osatzen dutenean... Informazioak, jakina, egiazkoa izan behar du, eta bazterrean utzi behar du interes publiko horri erantzuten ez dion xehetasun oro (morboa saihestu).

### **2. Interes publikoari erantzuten dio bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hil den emakume bat identifikatzeko alderdi pertsonalei buruzko informazioa emateak?**

- Ez. Hilketa da informazioaren xede nagusia; edonola ere, inguruabar jakin batzuk interesgarriak iruditzen zaizkit, hala nola erasotzailearen aurka salaketa ipinita zeukan aurrez, babes-neurririk ba ote zeukan, biktima gehiago ba ote den (seme-alabak)... Adina ere garrantzitsua iruditzen zait. Gainerako alderdi pertsonalak edo pribatuak, hildako emakumea identifikatzen lagun dezaketenak, iruditzen zait EZ DIRELA INTERES PUBLIKOKOAK.

### **3. Ikusgarritasun handiagoa ematen dio hildako emakumeari biktima, haren ingurua eta delitua zer egoeratan gertatu den identifikatzeak?**

- Bai. Ikusgarritasuna eta enpatia. EZ DIRA INTERES PUBLIKOKOAK, baina informazioaren hartzailea biktimarengana gerturatzea eragiten du, harekin solidario izatea. Nolanahi ere, kontuz ibili behar da, morboa, esamesak, biktimaren eta sendiaren intimitatean sartzea eta tankerakoak eragin baititzake. Eta arreta xehetasunetan eta kontu osagarrietan ipintzea, gertakari nagusitik aldentuta.

#### **a. Interesgarriagoak dira gertakariak irakurlearentzat?**

- Bai.

#### **b. Asmatutako datuekin identifikatutako emakumea ez da hain biktima?**

- Ez.

### **4. Biktimaren eta haren inguruko datu pertsonalak edo identifikazio-datuak zer dira, datu hutsalak, axolagabeak ala albistearen muina?**

- Ez dira albistearen muina, baina, lehen erantzun dudan moduan, baliteke informazioaren hartzaileak biktimarekin are elkartasun handiagoa agertzea, gertuagoko ikus-tea...

### **5. Biktima identifikatzeko elementuen tokian (izena, adina, seme-alabak, bizilekua) asmatutako datuak, inzialak eta tankerakoak erabiltzeak desitxuratu egiten du informatzeko xedea?**

- Segun eta zer datu ordeztzen edo faltsutzen diren, desitxuratzen da albistea, bai. Beste izen bat edota inzialak emateak ez luke axola beharko, baina adina edo seme-alabak faltsutzeak desitxuratuko luke informazioaren xedea.

### **6. Delitu-egintzek ez lukete izango interes publikorik, albistea udalerriko biztanleek biktima ez identifikatzeko moduan idatziz gero? Zergatik?**

- Delitu-egitatea interes publikoko izango litzateke berdin-berdin, baina ez luke inpaktu emozional berbera izango udalerriko biztanleen artean.

### **7. Kazetaritzaren alorrean, bada nolabaiteko pertzepzio bat pentsatzeko hildako emakumea ez dela hain biktima, identifikatzen ez dutenean edota ingurunea identifikatzeko adina datu ematen ez dituztenean?**

- Ez. Identifikatuta ala ez, errealitateak berbera izaten jarraitzen du: emakume bat genero-indarkeriaren biktima izan dela.

### **8. Zergatik jotzen da egokitzat biktimak identifikatzen dituzten datuak eta, ondorioz, senideak identifikatzeko aukera ematen dutenak argitaratzea?**

- Iruditzen zait batzuetan inertziaz funtzionatzen dugula: zenbat eta datu gehiago eman informatzen ari garen gertakariaren inguruan, orduan eta hobe. Beste batzuetan, ikus-entzuleen inpaktu emozionala lortu nahi izaten da, horrek arriskua eragiten badu ere. Kontua zera da, inpaktu emozional horrek arazoari buruz gizartea kontzientziatzen eta sentibilizatzen laguntzen duen, ala auzia lausotu egiten duen.

## **E1005: RNE-KO KAZETARIA**

### **1. Noiz eta zergatik ulertzen da nagusitzen dela informaziorako eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen gainetik?**

- Informaziorako eskubidea beti gailentzen da interes orokorrari erantzuten zaionean, hala nola indarkeria matxistaren kasuan; delitu hori ofizioz jazar daiteke, eta Europako 14 eta 45 urteko emakumeen artean heriotza gehien eragiten duen kausa da.

### **2. Interes publikoari erantzuten dio bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hil den emakume bat identifikatzeko alderdi pertsonalei buruzko informazioa emateak?**

- Nire ustez bai, baina mugak ipinita, jakina. Interesa ez dauka albiste izan daitekeen gertakariak bakarrik, baizik eta gertakaria zer testuingurutan izan den jakiteak ere bai. Horretarako, iruditzen zait ezinbestekoa dela hainbat datu pertsonal izatea, ez biktimarenak bakarrik, baita hiltzailearenak ere.

### **3. Ikusgarritasun handiagoa ematen dio hildako emakumeari biktima, haren ingurua eta delitua zer egoeratan gertatu den identifikatzeak?**

- Zalantzarik gabe.

#### **a. Interesgarriagoak dira gertakariak irakurlearentzat?**

- Bai. Albistea sinesgarriagoa da irakurlearentzat eta gertakarian gehiago murgildu liteke.

#### **b. Asmatutako datuekin identifikatutako emakumea ez da hain biktima?**

- Asmatutako datuekin, irakurlearen enpatia ez litzateke berbera izango eta iruditzen zait efektua ere ezetz. Baina iruditzen zait biktima hori, nahita identifikatu ez den biktima hori, zerranda beltzeko zenbaki bat gehiago izango litzatekeela bakar-bakarrik. Izen, adin eta bizileku baten atzean, egiazko pertsona bat dago; hain zuzen ere, indarkeria matxistako kasu batean bizitza galdu duen pertsona bat, alegia. Irakurleak enpatizatu egiten du, kontakizuna sinesten, eta, auskalo, agian bere burua islatu eta salaketa bat ipiniko du.

### **4. Biktimaren eta haren inguruko datu pertsonalak edo identifikazio-datuak zer dira, datu hutsalak, axolagabeak ala albistearen muina?**

- Albistearen muina beti emakumearen heriotza eta heriotzaren arrazoiak izango dira. Hori bai, biktimaren datu pertsonalak edo identifikazio-datuak baliagarriak izan litezke, irakurleak are hobeto uler dezan zer gertatu den. Guztiak du muga, eta ez da gauza bera biktimaren izena eta lanbidea jakitea, dibortzio-prozesuan zen esatea, edota bes-

telako xehetasun pertsonalagoak edota are labainak ematea. Azken horiek saihestu beharrekoak dira, irakurleren batek gertatutakoa «justifikatzea» ere eragin baitezake.

**5. Biktima identifikatzeko elementuen tokian (izena, adina, seme-alabak, bizilekua) asmatutako datuak, inizialak eta tankerakoak erabiltzeak desitxuratu egiten du informatzeko xedea?**

- Puntu bateraino bai. Kontuan hartu behar da garrantzitsuena indarkeria matxista dela, eta, informazioari dagokionez hitz eginda bakarrik, ez da gauza bera hildako emakumeak 17 urte izatea edo 82; edota ez da gauza bera biktima etxeoandrea izatea, enpresaburu bat edota katedradun bat, edota Roquetas de Marren hiltzea edo Getxon. Larritasun-maila berbera da, jakina; salaketa maila berberean egin beharko da, baina, informazioa emateko garaian, ez da gauza bera hilketa bat ala bestea. Ez da albiste handiagoa edo txikiagoa, baina desberdina bai.

**6. Delitu-ekintzek ez lukete izango interes publikorik, albistearen udalerriko biztanleek biktima ez identifikatzeko moduan idatziz gero? Zergatik?**

- Izango luke interes publikoa, baina, nire ustean, informazioa ez litzaieke osorik iritsiko herritarrei.

**7. Kazetaritzaren alorrean, bada nolabaiteko pertzepzio bat pentsatzeko hildako emakumea ez dela hain biktima, identifikatzen ez dutenean edota ingurunea identifikatzeko adina datu ematen ez dituztenean?**

- Aurreko galderekin ulertu daitekeenez, baietz pentsatzen dut. Iruditzen zait enpatia eta sinesgarritasun-kontua dela. Ez da gauza bera hilketa bat nire herrian gertatzea edo 1.000 kilometrora. Zer gertatuko litzateke tokia, adina edota biktimaren izena jakingo ez bagenu? Iruditzen zait irakurleak bizkor pasatuko lukeela orria.

**8. Zergatik jotzen da egokitzat biktimak identifikatzen dituzten datuak eta, ondorioz, senideak identifikatzeko aukera ematen dutenak argitaratzea?**

- Galderak zalantzak sorrarazten dizkit. Senideentzat bidegabea da, jakina, informazioaren lehen lerroan agertzea horren gertakari tristeagatik. Aitortzen dut sufrimendua handitu egiten duela. Baina egia da, era berean, kasua argitaratzeak eta haren bazterketa sozialak emakume asko eta asko bultzatzen ditzaizkeela antzeko egoeretan salaketa ipintzera. Baliteke halakoetan beste krimen bat galaraztea.

Ez dugu ahaztu behar komunikabideek Espainian izan duten garrantzia, indarkeria matxistaren kontrako borrokan eta kontzientziazio publikoan. Komunikabideen rol aktiboa, informazioen ikuspegi egokia (kasu ezohikoetan salbu) arazo sozial gisa definituta, topikoak suntsitzea eta gertakariak modu objektiboan zabaltzea, bazterketa-mobilizazioak eta hiltzaileen zein erasotzaileek kondena-epaiak zabaltzea... Guztia ere lagungarria izan da «gizarte-kultura» baliotsu bat sortzeko garaian, ia errotuta dagoena, ez indarkeriari uko egiteko bakarrik, baizik eta arazo publiko baten aurrean prebentziorako ere bai.

**1. Noiz eta zergatik ulertzen da gailentzen dela informaziorako eskubidea norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen gainetik?**

- Egokiena zera litzateke, bi eskubideak elkarrekin bizi ahal izatea, bata bestearen gainetik ipini beharrik gabe. Edonola ere, kasu jakin batzuetan, badira isildu litezkeen alderdi batzuk. Xehetasun morbosoa eta labainak ez dago ipini beharrik. Hori bai, gertakari bati informazio-intereseko datu guztiak kentzeak ez dirudi gizarte heldu eta demokratiko baten ezaugarria. Eta argitaratzeko debekua ipintzeak inork gogoratu nahi ez dituen garaia dakarzkigu gogora.

**2. Interes publikoari erantzuten dio bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan hil den emakume bat identifikatzeko alderdi pertsonalei buruzko informazioa emateak?**

- Biktima bat ez da zenbaki bat indarkeriazko egitateen objektu izan diren pertsonen zerrenda batean. Izen-abizenak ditu, gurasoak, eta baliteke seme-alabak ere izatea, baita lagunak eta gertuko pertsonak ere. Bizi-jarduera bat garatu du, eta gizarteak haren berri izateko eskubidea du.

**3. Ikusgarritasun handiagoa ematen dio hildako emakumeari biktima, haren ingurua eta delitua zer egoeratan gertatu den identifikatzeak?**

- Logikoa den moduan. Baina hori kalterako da? Biktimek bizi izandako indarkeria-egitateek guztiontzat balio izan behar dute, ikas dezagun. Biktima batek eta haren sendiak gizartearen eta erakundearen babesa behar du. Haren beharretara egokitutako estaldura bat emateko adinako bitartekoak izatea. Eta, alde horretatik, informazio egiazkoa emateak, inolako zalantzarik gabe, laguntzen du erakundeek arreta handiagoa eman diezaioten lortzen.

**a. Interesgarriagoak dira gertakariak irakurlearentzat?**

- Irakurleari ez zaio gustatzen kazetariak datuak ezkutatzetik. Kazetariari ere ez. Informazioko profesionalek, nire ustez, badakite zer argitaratu daitekeen eta zer ez.

**b. Asmatutako datuekin identifikatutako emakumea ez da hain biktima?**

- Berdin-berdin, baina faltsutasun batetik abiatuko ginateke. Eta, azkenean, irakurleak zalantza izango luke gainerako informazioa ere egiazkoa ote den.

**4. Biktimaren eta haren inguruko datu pertsonalak edo identifikazio-datuak zer dira, datu hutsalak, axolagabeak ala albistearen muina?**

- Baliteke albistearen muina izatea. Biktima amonak hil duen neskatila bat baldin bada, oso garrantzitsua da jakitea inguruko protagonistak zein diren eta zer inguruabarretan gertatu den kontua.

**5. Biktima identifikatzeko elementuen tokian (izena, adina, seme-alabak, bizilekua) asmatutako datuak, inizialak eta tankerakoak erabiltzeak desitxuratu egiten du informatzeko xedea?**

- Erabat. Biktima adingabea ala adinduna den ez esatea, edota txabola batean, zubipean, pisu batean edo txalet batean bizi den esatea ez da gauza bera.

**6. Delitu-egitateek ez lukete izango interes publikorik, albistea udalerriko biztanleek biktima ez identifikatzeko moduan idatziz gero? Zergatik?**

- Oro har, udalerrian bizi direnek badakite biktima nor den. Are gehiago Gipuzkoaren moduko gizarte batean, biztanlegune horren txikiak izanik. Ez dugu ahaztu behar, gainera, bizilagun horiek izaten direla kazetarien informazio-iturri nagusia.

**7. Kazetaritzaren alorrean, bada nolabaiteko pertzepzio bat pentsatzeko hildako emakumea ez dela hain biktima identifikatzen ez dutenean edota ingurunea identifikatzeko beste datu ematen ez dituztenean?**

- Ez, ezezkoan nago. Tragedia eta drama neurri berekoak dira.

**8. Zergatik jotzen da egokitzat biktimak identifikatzen dituzten datuak eta, ondorioz, senideak identifikatzeko aukera ematen dutenak argitaratzea?**

- Aurretik esan dudana berresten dut. Biktima ez da X. Izen-abizenak dituen pertsona bat da, bizi-historia bat duena, eta askorentzat bizi-lezio bat izango da.

**GENERO-  
INDARKERIAREN  
BIKTIMA IZAN  
DIREN ETA IZAN  
EZ DIREN  
EMAKUMEEI  
EGINDAKO  
ELKARRIZKETAK**

# 3.E

Lehenik eta behin, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei egindako elkarrizketak ageri dira. Bigarrenik, eta gidoiekin bereizita, genero-indarkeria bizi izan ez duten emakumeek emandako erantzunak jasoko ditugu.

## **GALDERAK**

**1. a) Ikerlan honen xede diren delituei helduz, zergatik da garrantzitsua komunikabideek euren bikotekidearen edo senarraren eskuetan hildako emakumeen berri ematea?**

6. Uste dut garrantzitsua dela zer gertatzen ari den jakinarazteko, baina, era berean, hilketaraino iritsi gabe ere informatu liteke.
7. Iruditzen zait garrantzitsua dela egoera bistaratzea, arazo hau ahaztu ez dezagun, baina iruditzen zait ez direla bistaratu beharreko kasu bakarrak.
8. Ikusgarri egin, sentsibilizatu, «a»normalizatu.
9. Garrantzitsua da, errealitate bat da. Informazioa jasotzeko eskubide bat da.
10. (...)
4. Arazoaz hitz egiteko eta, batez ere, garbi geratzeko gizarteak bizkar ematen diela tankera honetako ekintzei.
5. Uste dut garrantzitsua dela komunikabideek horren berri ematea, manipulaziorik gabe. Baldin eta indarkeria hori bizitzen ari diren emakumeei laguntzeko baldin bada, jendeak kontzientzia har dezan gure egunotan oraindik ere gertatu egiten dela, nahiz eta herrialde honetan ustez behintzat egundoko garapena izan dugun, gure gazteei helarazi nahi zaien berdintasunerako hezkuntzan eta indarkeriarik ezean laguntzeko baldin bada... Edonola ere, horretarako badirudi oraindik ere bide luzea dugula egiteko. Orain ez urte asko, horrenbeste komunikabide ez zenean (eta haietara sarbiderik ez zenean), jendeak ez zekien horrelako delituak gertatzen zirenik. Hain zuzen, adineko jende askok eta askok esaten du euren garaian ez zela gaur beste kasu gertatzen; kontua da gertakariok garai hartan ez zirela albiste, ez baitzen genero-indarkeriatzat hartzen, ezta gutxiago ere, eta alferrik zen tratu txarrak salatzea, ez baitziren tratu txartzat hartzen. Eta kontatzen bazenuen, errua beti emakumearena zen, inoiz ez gizonarena.

6. Komunikabideek egiteko garrantzitsua daukate herritarrak informatzeko lanean. Ezinbestekoa da komunikabideek azterlan honen xede diren delituen berri ematea; iluntasunean argi egiten dute, oraindik orain arte «familiaren bakearen» ize-nean ezkutatuta geratzen ziren gertakari baztergarri horiek bistaratzen laguntzen baitute.

#### **1. b) Biktima gisa, zer albiste gustatuko litzaiguke komunikabideek ematea?**

6. Biktimak salaketa ipinita zeukan ala ez jakinaraztea. Babes-neurriak eduki izana edota emakumearen amaiera, kasu gehienetan hilketa, biak dira garrantzitsuak.
7. Emakumea, eta gehienez ere ogibidea.
8. Gertaera, testuinguru soziala, ekonomikoa, kulturala, seme-alabetan izandako ondorioak.
9. Erasotzailearen nortasuna (hiltzailearena). Zergatik ematen dira hildako emakumeen izenak eta ez hiltzailearena?
10. Hildako emakumearen izena, hiltzailearen izena, salaketa kopurua, urruntze-agindurik ba ote zen ala ez.
4. Ahalik eta gutxien. Batez ere, morbosoa izan litezkeen datuak ez ematea. Biktimaren adina eta zer udalerritan gertatu den.
5. Datuak baino gehiago, gaitz sozial hori desagerrarazteko lanean jarraitzen lagunduko diguten gertaerak.
6. *A priori* eta biktima izan gabe, gustatuko litzaidake gertaeraren berri ematea nire sendiari «min gehiago eman gabe».

#### **1. c) Garrantzitsua da komunikabideek izen-abizenekin identifikatzea euren bikotekidearen/senarraren eskuetan hildako emakumeak?**

6. Ez dago datu horiek eman beharrik.
7. Nire ustez, ez da garrantzitsua.
8. Ez.
9. Garrantzitsua da; bai hildako emakumeena, bai hiltzailearena.
10. Bai.
4. Ez dut beharrezko ikusten.
5. Ez zait iruditzen izen-abizenak ematea beharrezkoa denik, uste dut albistea ikusten duzunean jakin beharrezkoa zera dela, zoritxarrez beste emakume bat hil dela bikotekidearen/senarraren eskuetan. Zer ari da huts egiten? Zer aldatu behar da? Emakume horrek izen-abizenak ditu, eta haren senideak eta lagunak haren galeragatik negarrez ari dira.
6. Ez. Benetan alferrikakoa deritzot. Egia da tankera horretako gertakari bat gertatzen denean, hasiera batean jakin nahi dela seme-alabarik ba ote zuen edo ez... Eta, jakina, izena ere bai, fiktizioa baldin bada ere, indibidualizatzeko, biktimarengana gehiago gerturatzeko. Edonola ere, berdin litzaidake izen hori egiazkoa ala asmatua izatea.



## Zergatik?

6. Izena argitaratzeak ez dauka batere garrantzirik, eta senideei kalte egiten die. Garrantzitsua zera da, zer-nola iritsi garen amaiera horretara.
7. Garrantzitsua problematikaren erroa baita. Ez pertsona bera.
8. Familien intimitaterako eta pribatutasunerako eskubidea.
9. Informatzea eskubide bat da, ikusgarri egitea ezinbestekoa da.
10. (...)
4. Garrantzitsua zera da, emakume bat hil dutela. Berdin du zer izen duen. Bere lagunak eta senideek badakite.
5. (...)
6. Biktimaren egiazko izenak emateak ez du batere axola. Garrantzitsua zera da, albistea modu abstraktuan ez ematea, baizik eta indibidualizatzea. Baina, aipatu dudan moduan, pertsonalki izen bat behar dut, baina ez egiazkoa.

### 1. d) Itxuragabetu egiten da albistearen edukia edo lortu nahi den xedea, baldin eta izena BAKARRIK ematen bada, abizenik esan gabe? Eta asmatutako izen bat ematen baldin bada, albistean argi utzita ez dela egiazkoa?

6. Ez.
7. Ez.
8. Ez.
9. Bai, itxuragabetu egiten da.
10. (...)
- 
4. Ez.
5. Nik uste dut ez dela desitxuratzen edukia edo lortu nahi den xedea; lehen aipatu dudan bezala, garrantzitsua ez da emakumearen izena, baizik eta zoritxarrez beste emakume bat dela albiste tratu txarrak jaso izanagatik, eta azkenean bikotekidearen/senarraren eskuetan hil dela. Bat aukeratu beharko banu, izena bakarrik aukeratuko nuke.
6. Ez. Iruditzen zait irakurlearen enpatia, gertakarien larritasunari buruzko kontzientzia ez daudela izenaren egiazkotasunaren mende. Are gehiago, iruditzen zait beharrezkoa izan beharko litzatekeela asmatutako izenak ematea, haren pribatutasuna zaintzeko.

### 2. a) Zer datu pertsonal agertu behar dira albistean, indarkeria matxistari ikusgarritasun soziala emateko?

6. Hiltzailearen datuak.
7. Berrit diot: iruditzen zait emakumea zela esatea nahikoa dela, eta asko jota bere ogibidea. Agian hiltzailearen datuak emango nituzke.

8. Kultura-maila, lanbidea, maila ekonomikoa, egoera zibila, familia-egoera, aldez aurretik salaketarik ipini zuen, familiako izapideen egoera.

9. (...)

10. Hildako emakumearen eta hiltzailearen (bikotekidea/senarra) egiazko izen-abizenak. Egiazko adina, salaketarik ipinita ote zeukan, babesteko agindurik ba ote zen.

4. (...)

5. Egoera berean diren beste familia edo biktima batzuei laguntzeko balio duten datuak, baina sekula ere ez epe ertainean zein luzean kalte egin diezaieketen datuak, batez ere familia zuzenari begira (seme-alabak).

6. Egiaz, gertaerak azaldu behar dira. Garrantzitsua izango da gertaeren berri ematea albistea gizatiartuta, baina identifikazioa ez da beharrezkoa izango. Seme-alabarik ba ote zuen ala ez, salaketak...

Zerrenda bat ematen da (ipini BAI/EZ). Erantsi egoki iruditutakoak:

- Izena: . EZ; EZ; EZ; (...); BAI; // EZ; BAI; EZ
- Izen-abizenak: . EZ; EZ; EZ; BAI; (...); // EZ; EZ; EZ
- Asmatutako izena: . EZ; EZ DA BEHARREZKOA; EZ; EZ; (...); // BAI; EZ; BAI
- Adina: . BAI; BAI; BAI; BAI; BAI; // BAI; BAI; BAI
- Lanbidea: . BAI; BAI; BAI; (...); EZ; // EZ; BAI; BAI
- Biktima zer lekutan ibili ohi zen: . EZ; EZ; BAI; (...); (...); // EZ; EZ; . EZ
- Seme-alaba kopurua: . EZ; EZ; BAI; EZ; EZ; // BAI; BAI; BAI
- Seme-alaben adina: . EZ; EZ; BAI; EZ; EZ; // EZ; BAI; BAI
- Biktimaren helbidea: . EZ; EZ; EZ; EZ; EZ; // EZ; PROBINTZIA BAKARRIK; EZ
- Seme-alaben ikastetxea: . EZ; EZ; EZ; EZ; EZ; // EZ; EZ; EZ
- Seme-alaben unibertsitatea, adindunak balira: . EZ; EZ; EZ; EZ; EZ; // EZ; EZ; EZ
- Biktimaren gurasoen izena (seme-alaben aiton-amonak): . EZ; EZ; EZ; EZ; EZ; // EZ; EZ; EZ
- Aldez aurretik salaketa ipinita zeukan ala ez: . BAI; EZ; BAI; BAI; BAI; // BAI; BAI; BAI
- Ipinitako salaketa kopurua: . BAI; EZ; BAI; BAI; BAI; // BAI; BAI; . BAI
- Babesteko agindurik ba ote zen ala ez: . BAI; EZ; BAI; BAI; BAI; // BAI; BAI; BAI
- Bestelakoak: . (...); (...); (...); Hiltzailearen izen osoa eta lanbidea; (...); . (...); (...)

**3. a) Emakume bat bere bikotekidearen/senarraren eskuetan hil ostean, zer eragin izan dezakete argitaratzen diren albisteek bizirik geratu direnetan (hildako emakumearen seme-alaba adindunak edo adingabeak eta gurasoak/senideak)?**

5. Modu negatiboan eragin diezaieke; eurek ezagutzen dute euren istorioa, eta ez da beharrezkoa telebistan entzutea.
6. Egia esan, genero-indarkeria zer den benetan badakien gizarte batean biziko bagina, ez luke inor markatu beharko, baina, zoritxarrez, gaur egun senideak estigmatizatuta geratzen dira, inguruak markatuta.
7. Euren intimitateari, pribatutasunari, ikasketei, lanari, harreman sozialei... eragiten die.
8. Eragina beti gertatzen da, nolana. Senideek asimilatzeko erremintak sortzen dituzte (laguntza psikologikoa). Beharrezkoa da albistea egokiro kudeatzea.
4. Gaia errespetuz, lasaibidez eta elkertasunez tratatu den. Beharrezkoak ez diren gai morbosoetan sartu diren, amorru eta haserrea piztuz.
5. Pentsatu nahi dut senideen eta lagunaren aldetik ahalik eta laguntza handiena jasoko dutela, batez ere ahal den modurik onenean heldu eta eraman ahal izateko. Baina, zoritxarrez, beti izaten dira inguruan pertsonaia ezjakin horiek, aurre-juzkuak egiten dituztenak eta baztertuta eta diskriminatuta sentiaraziko dituztenak.
6. Egia esan, ez dakit. Iruditzen zait aitak egindako delituaren biktima diren haurrak oso posizio ahulean daudela, adingabeak izan ala ez. Argitaratzen denak senideen egoera larritu dezake. Iruditzen zait babestu beharra dagoela. Gizartearen eta komunikabideen obligazioa da seme-alaba horiek osatzen laguntzea, harrapakari «kutun» baten biktima bihurtu baitira. Albistea argitaratu behar da, baina «min eman gabe».

**3. b) Zer inpaktu izan dezake bizirik geratu diren pertsonetan biktima eta haren seme-alabak zein gurasoak identifikatzeko aukera ematen duten datuak argitaratzeak?**

6. Iruditzen zait denetik egongo litzatekeela, baina, batzuetan, entzuten dira «me-rezita zeukan», «emakume gaixoa» eta tankera horretakoak. Oso gutxitan entzuten da «ikusita zegoen», «senarrak gaizki tratatzen zuen» eta abar.
7. Inguruan markatuta geratuko dira.
8. Kalte soziala, ekonomikoa, emozionala, psikologikoa.
9. Ez dago zehatz-mehatz jakiterik.
10. (...)
4. Laguntza- eta elkertasun-adierazpenak izan beharko lukete, gizarteak babesten dituztela sentiarazi. Zoritxarrez, baliteke sentitzea markatuta daudela euren bizitza osorako, eta txutxu-mutxuak, zurrumurruak eta tankerakoak entzun beharra.
5. Zoritxarrez, kasu askotan seinalatuta eta aurre-juzkuak jasota geratzen dira. Iruditzen zait ez dela beharrezkoa komunikabideetan identifikatzea.
6. Iruditzen zait ez dela beharrezkoa identifikatzeko datuak ematea.

**3. c) Hildako emakumearen senideak, adingabeak ala adindunak izan, biktimatzat hartzen dira Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak dioenez. Zer iruditzen zaizue alaba adindun batek komunikabideei eskatzen dienean ama zenaren anonimotasuna gordetzeko? Hau da, gertakariak kontatzeko baimena ematen duenean (ezin liteke bestela izan), biktima identifikatu gabe.**

6. Intimitatea errespetatu beharra dago, nola gertatu den kontatu, izenik eman gabe.
7. Primeran.
8. Egoki deritzot eskaerari, zuzenean eta zeharka eragiten baitio.
9. Eskubidea du horretarako.
10. (...)
4. Eskatzeko eskubidea duela.
5. Ondo iruditzen zait, eta eskubidea duela horretarako. Gauza bera diot; komunikabideetan ez dago biktima edota haren senideak identifikatu beharrik gertakari berri emateko.
6. Iruditzen zait zaila izango litzatekeela; izan ere, komunikabideek lehen minututik argitaratuko lukete. Iruditzen zait senideen nahiak ez daukala tokirik kazetaritzaren munduan.

**3. d) Biktimaren ikuspegitik, nola jardun beharko lukete komunikabideek c) kasuan? Eta alaba adindunak berriaz ezer eskatuko ez balu, nola gustatuko litzazueke komunikabideek jardutea?**

6. Tratu txarrak ematen dituen pertsonaren izen-abizenak argitaratu beharko litzazueke.
7. Lehendabizi alabari kontsultatuta.
8. Amaren anonimotasuna bermatzea, berriaz hala eskatu ala ez.
9. Errespetuz, gai honetan trebatuta dauden profesionalen bidez.
10. (...)
4. Kasu honetan ere identifikaziorik gabe, ez baitzait beharrezkoa iruditzen.
5. Komunikabideek jakin beharko lukete albistegietan zer gertatu den kontatzen, biktimen identifikazioa eman beharrik gabe.
6. Komunikabideen identifikaziorik eman gabe kontatu beharko lukete albistea. Istoria kontatu beharko lukete, baina «bizirik jarraitzen dutenak» babestuta.

**3. e) Bizi-testamentuan, pertsona batek bizirik dela adieraz dezake hainbat datu jakinaraztea nahi duen ala ez, horien artean, bere eta senideen datuak ematea hiltzen denean. Errespetatu egin behar da nahi hori?**

6. Bizi-testamentua errespetatu beharko litzateke, baldin eta ondorengorik ez badago kaltetuta.
7. Interesen kontra baldin badoa edo seme-alaben bizitza endredatzen badu, ez litzateke errespetatu behar.

8. Bai horixe!
9. Bai.
10. (...)
4. Bai.
5. Pentsatzen dut baietz, baina tratu txarrak jaso dituen pertsona batez ari gara, eta idatzita utzi du zer datu nahi duen jakinaraztea bere senarraren/bikotekidearen eskuetan hiltzen denean? Orduan, gure arazoa are larriagoa da; jendearen begietarako, tratu txarrek arrunt izaten jarraitzen dute, lotsa ematen die aitortzeak beren bikotekideak tratu txarrak ematen dizkiela. Hiltzeko zain daude? Iruditzen zait tratu txarrak jasotzen dituen emakume bat izango balitz desberdina izango litzatekeela, ez dakit emakume horien larruan ipintzen, egia esan inpotentzia eta amorrua sortzen zait, ez baitakit zer egin litekeen hau amaitzeko.
6. Bai.

**3. f) Zure iritzian, bateragarriak dira biktimen intimitaterako eskubidea eta gaitz sozial hau nahitaez bistaratzeko beharra?**

6. Segun eta zer datu ematen diren, bateragarria da ala ez.
7. Segun eta zer datu ematen diren.
8. Bai.
9. (...)
10. Bai.
4. Bai.
5. Uste dut baietz, beti gorde daitekeela biktimen intimitatea euren bizimodua berregin ahal izan dezaten eta ez dezaten aurre-juzkurik edo diskriminaziorik jaso, gaitz sozial honen gertakariak ezkutatu beharrik izan gabe. Zure senideak, lagunak, bizilagunak, ezagunak... Ezin da saihestu, kontua zera da, egoera ezkutatu egiten dela lotsak eraginda edo... Eta horixe da saihestu beharrekoa, INORK ez daukala eskubiderik edo aginterik beste inoren gainean, eta askoz ere gutxiago kalte fisikoa edo psikologikoa eragiteko.
6. Erabat, baina ahalegin handiagoa egin behar da.

**3. g) Zer gustatuko litzaiguke gure seme-alabentzat, gurasoentzat edo nebahizpentzat?**

6. Errespetatzen dituzela euren erabakiak, euren datuak eta abar argitaratzeko garaian.
7. (...)
8. Arreta psikologikoa, laguntza ekonomikoak, tratu txarrak ematen dituen aitari zaintza kentzea edo aldatzea.
9. Modu naturalean bizi dezatela, duintasunez, eta ez daitezela errepikatu.
10. (...)

4. (...)
5. Gustatu litzaidake pentsatu beharrik ez izatea zer gustatuko litzaidakeen seme-alabentzat, gurasoentzat, neba-ahizpentzat... . Gustatuko litzaidake egoera horretan egon ez daitezen laguntzea. Gustatuko litzaidake ulertzea zergatik iristen garen egoera horretara.
6. Nire seme-alaben aitak hilko banindu, gustatuko litzaidake seme-alabak babestuta egotea, adindunak izan ala ez. Egoki irudituko litzaidake, baldin eta seme-alabek erabakiko balute identifikatu daitezkeen ala ez. Kasu horretan bakarrik.

**4. a) Bermatu behar da emakumearen kontrako indarkeriako hilketek eragindako beste biktimen (seme-alabak, gurasoak, senideak) intimitaterako eskubidea?**

6. Bai.
7. Bai.
8. Bai.
9. Kasuaren arabera.
10. Bai.
4. Bai.
5. Uste dut baietz, nahikoa sufritzen dutela intimitatean, eta ez daukatela, gainera, besteren begiradak jasan beharrik.
6. Bai.

**4. b) Badakizu bizi-testamentua idatzi dezakezula, eta, bertan, alderdi ez-ekonomikoari buruzko nahiak jasota utzi ditzakezula?**

6. Bai.
7. Orain bai.
8. Bai.
9. Bai.
10. (...)
4. Bai.
5. Bada, ez. Nik pertsonalki testamentu hitza zerarekin lotzen dut, hiltzen naizenean ondasunak nola banatu jasota uztearekin. Ez zait bururatzen zer utzi dezakedan jasota hiltzen naizenean argitaratu dadin ala ez, are gutxiago indarkeria matxistako kasu batean inplikaturik egonez gero; batez ere ez nukeelako halakorik onartuko, eta ez zait iruditzen tratu txarrak jasotzen dituen pertsona batek bizi-testamentua egin behar duenik, jasota uzteko zer nahi duen jakitea edo ez jakitea bera hiltzen denean; ezin dut imajinatu.
6. Bai.